PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

# BERASTEGI

## 1 Hiritartzearen bidetik

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

# BERASTEGI

## 1 Hiritartzearen bidetik

**Utriusque Vasconiae**

*Liburu honek Berastegiko Udalaren laguntza jaso du*

© Paulo Iztueta Armendariz
© Utriusque Vasconiae
Lehen argitaraldia: Donostia, 2010eko Urria
ISBN: 978-84-938329-1-9
Lege-gordailua:
Azaleko argazkia: Fototeka Kutxa
Argazkiak: Lobo Altuna
Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3
20013 Donostia. Tel.: 943-270433
Iparraldean: 0033547640386

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa)
Tel.: 948-302239

Inprimatzea eta koadernotzea: Monte Carmelo. Apdo.19.
09080 Burgos

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Eskaintza

Erredionen munduratu ninduten
Fermin eta Madalen gurasoei,
eskerronez eta oroitzapen ahantzezinez.

# Aurkibidea


**Sarrera** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **9**

**HASIERAN HARANA ZEN**

**I. Berastegi, izadiaren opari** . . . . . . . . . . . . . . . **21**
1. Azaleraren handia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 21
2. Orografiaren berezitasuna . . . . . . . . . . . . 23
3. Nekazarien herria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 27

**II. Historiaren egunsentian** . . . . . . . . . . . . . . . **33**
1. Nafarroako erresumatik (1027)... . . . . . . . 33
2. Gaztelakora (1200) . . . . . . . . . . . . . . . . . 37

**III. Gaztela mugarri (XIII-XVI)** . . . . . . . . . . . **53**
1. Berastegi, gaizkileen muga-herri . . . . . . 54
2. Berastegiren erreketa eta Beotibarko segada (1321) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64
3. Berastegiko Juan Martinez koronela Belateko gerran (1512) . . . . . . . . . . . . . 88

**HERRIA ERAIKITZEN**

**IV. Tolosako jurisdikziopetik udal-autonomiara (1374-1615)** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **97**
1. Hiribilduen sorrera . . . . . . . . . . . . . . . . . 97
2. Tolosako Udalaren babesean (1374) . . . . . 100
3. Udal-autonomiaren berreskurapena (1615) 108

**V. Hiri-morfologia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 119**
1. Etxe-izenen zerrendak (XIV-XIX) . . . . . . . 121
2. Izen-aldaketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 128
3. Herri-antolaketa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 129

## LANDA-ARKITEKTUAREN GIDA

**VI. Eraikin zibilak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 141**
1. Udaletxea, monumentu historikoa . . . . . . 154
2. Plazagunetik beste auzoetara . . . . . . . . . . 161
3. Jaundegi dorretxea . . . . . . . . . . . . . . . . . 164

**VII. Eraikin erlijiosoak . . . . . . . . . . . . . . . . 173**
1. San Martin parroki eliza . . . . . . . . . . . . . 173
1.1. Elizaren fabrika (1505-1761) . . . . . . . 177
1.2. Erretaula (1601) . . . . . . . . . . . . . . . . . 188
1.3. Zimitorioa (1654-1672) . . . . . . . . . . . 196
1.4. Sakristia (1759) . . . . . . . . . . . . . . . . . 202
1.5. Organoa (1894) . . . . . . . . . . . . . . . . . 204
1.6. Elizaren kokapena . . . . . . . . . . . . . . . 207
2. Ermitak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 208
2.1. San Lorentzo . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 208
2.2. San Anton . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 212
2.3. San Sebastian . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 215

**VIII. Markes eta indianoen bideetatik . . . . . . 219**

**IX. Eldua auzoa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 237**

**Oharrak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 247**

**Bibliografia . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 263**

# SARRERA

Saustegi baserrian 1911ko martxoaren 27an jaiotako Juan Etxeberria apaizak *Aidanen* aldizkarian (2006, 24-25) egin zioten elkarrizketan kontatzen zuen, eliz ikasketak egitera Andoaingo seminariora 13 urterekin joan zela eta, gaztaroan Berastegi bere herria ezagutzeko parada handirik ez zuela izan, baina orduko gauza asko gogoratzen zituela. Niri ere, arrazoi beragatik, antzeko zerbait gertatu izan zait hainbat urtez kanpotik ibili eta gero. Orain, adinean aurrera sorterri-minak zokorik gordeenean jo nauenean, orduko eta gaurko hautsak majo harrotu beharrean aurkitu naiz.

EHUn ikastaro bakoitzaren hasieran ikasleekin lehen harremana izaten nuen egunean, elkarren ezagutza egiteko ohitura nuen, eta nor nongoa zen azaltzeko eskatzen nien. Baina hasteko nik neure buruaren aurkezpena egiten nuen. Berastegikoa nintzela esaten nienean eta nire sortetxearen mendiz bestaldean Orexa eta Gaztelu zeudela, batzuek ez zekiten, gehienek bai –batez ere, orain, telebistako eguraldi-albisteetan askotan entzuten baita Berastegi herriaren izena–, mendi artean dagoen herri txiki bat dela; gutxiago

batzuk baino ez ziren izaten, Nafarroarekin mugakide, Gipuzkoako azken herria dela zekitenak.

Orixek "eper kabi" deitu zion Uitziri bere poeman. Niri, edozein mendi-kaskotik so egiten dudanean, Lartetik bezala San Lorentzotik, greziar anfiteatro baten irudia sartzen zait begietara. Siziliakoak ikusi berri ditudan honetan, berriz, are eta nabarmenago. Depresioak ematen dion xarmak biziki erakartzen zaitu. Urrutira gabe, badugu herrian bertan zer ederretsirik!

Baina herria egin herritarrek egiten dute, beste auzoherriekin harremanetan. Eta harreman horiek, garen bezalakoak garelako, noiz gatazkatsuak noiz bakezkoak izaten dira, garai bakoitzean tartekatzen diren interesen arabera. Eta historia ere halaxe kontatzen da askotan, komeni den harira. Zer hartu zer utzi, edo ignoratu, hautatuz.

Oso humanoa da –ez horregatik gizalegezkoa–, beti beste zerbait gehiagoren bila auzora joateko irrika, ahaltsuak apala menpean hartzea. Botere-goseak, nola eta ez den kontzientzia etikoaren kate motzean estekatzen, ez du mugarik. Gizateriaren historia lekuko. Politika kolonizatzailearen betiko xede gutiziatua izan da, jadanik aro neolitikoaz geroztik indarrean dagoena, lehen-lehenik lurrik aberatsenak non kausitzen diren ikusi, haietaz jabetu eta haiek, ondo zukutu arte, ahalegin eta gehien ustiatzea. Herriak eta hauen lurrak kolonizatzeak menpekotasuna inplikatzen baitu, horrek berekin dakar garaian garaiko gatazka-egoera espezifikoen garraztasuna, gehienbat herri umil eta desjabetuek jasaten dutena.

Berastegiz jardutean, irakurlea ohartuko da herriari berari zuzenean ez dagozkion beste hainbat gauza aipatzen direla. Eta halaxe da, nahita bilatutako zerbait. Izan ere,

lekuan lekuko errealitatea ezagutzeko, herri jakin baten bizitza soziopolitiko, ekonomiko eta kulturala ezagutzeko, horri bizia ematen dion testuinguru lokaletik harago zabaldu beharra dago begirada, bere alboan hurbilago zein urrutiago gauzatzen diren gertaerek guk uste izan dugun baino eragin handiagoa baitute. Berastegiren historia soziala Gipuzkoaren testuinguruan kokatzen ahalegindu gara, aldika Nafarroara eta Gaztelara ezinbesteko joan-etorriak eginez, batez ere Erdi Aroko denbora ilunetan.

Baina liburu hau ez da Berastegiri buruzko histori edo soziologi lan sistematiko bat, kontaera lineal eta kronologiko batean pentsatu eta bururatutako zerbait. Utikan hori. Hezkuntzaren soziologiaren ikuspegitik begiratuta egituratua dago gehienbat, konbentziturik bainago nonahiko eta noiznahiko edozein eskola-curriculumak, egiazki hezitzailea izan dadin, testuinguru partikularretik abiatu behar duela. Ez da kultura unibertsalik bere sorrera abiapuntu partikularrean ez duenik. Eta guk jakintzaren izaera partikular horri, hain zuzen, bertakoa deitzen digu. Horixe da, ez besterik, “euskal curriculumaren” adiera. Bertatik, euskararen mundutik, beste herrietara zabaltzen dena. Kanpotik datorkiguna geuretzen dugun bezala, ez baikara mundu isolatuan bizi.

Zer gertatzen den? Oraindik orain, azkenaldion aurre-urratsak eman badira ere, estatuek ezarritako curriculum-plangintzarekin funtzionatzen dugula neurri handi batean Euskal Herriko eskoletan, erdara nagusi dela, bereziki hiri handietan.

Hori orain, hezkuntza elebiduna legez ezarria dagoen Autonomi Aroan. Gure ume-denboran, alabaina, egoera are larriagoa zen. Mutilen maisua don Jose Calasanz zen,

Valladolid-eko semea. Erdaldun purua. Neskek maistra euskalduna zuten.

Baina garai hura halakoa izaki, gerra osteko lehen hamarkada ilun hartan, guri ez ziguten erakutsi Berastegi herriak bazuela bere historia: Nafarroako erresumakoa zela, gero, Gipuzkoa Nafarroatik banatzean, hari lotu zitzaiola eta Gaztelako erregearen zerbitzura egon zela eta geroztik etengabeko gatazkak egon zirela mugako herrien artean, batean uztak erre, bestean sarraskiak egin, indar militarrak baitzeuden Berastegiko dorretxean eta Gorritiko gazteluan; Beotibarko zelaian ezer gertatu zenik ere genekien; geroago, Ahaide Nagusien arteko borrokan Berastegiko jauntxoa oinaztarren bandokoa izaki eta Gaztelaren zerbitzura egonki, sutsuki borrokatu zela Belateko gudan, hango sarraskietan zuzenean parte hartuz; muga-nafarren erasoetatik babesteko Tolosako jurisdikzioan sartu zela, hango hiribildua bermetzat hartuz, eta, ahaideen arteko gatazkak bukatzean, berriro banandu egin zela. Eta abar.

Ez ziguten erakutsi anaien arteko borroka horretan, Gaztelako erresumaren interesak zeudela tartean, bere ondasunak itsasoz garraiatzeko euskal portuen beharra zeukala, eta, besteak beste, Berastegiko jauntxoa buru-belarri sartua zegoela jokabide horretan.

Ez ziguten erakutsi Gipuzkoako lur-eremu handienetako herri bat zela, Berastegiko haranetik harago ere, bazuela beste haran ikusgarri eta aberats bat, Leitzaran deitzen zaiona, eta haran honetan Berastegik Leitza, Goizueta eta Elduainekin mugatzen duela.

Ez ziguten erakutsi, oso berandu arte, XIV. mendean hasi eta XIX. mendearen ia azkenera arte, Berastegik eta Elduainek beren herri-lurrak eta udal-ondasunak batera

izan zituztela eta mugen zaintza eta berrikustea bi Udaletako arduradunek batera egiten zutela Ariztunugaldeko Bideraun etxean[1].

Ez ziguten erakutsi, Espainiak Frantziaren aurka egindako Independentziako gerra zela-eta, estatu espainolak egin zituen zor handien ordainketarako, euskal Udalak zorpetu zituela, zerga bereziak ezarriz, eta Udal batzuk, Berastegikoa bezala, beren lursailak saltzera behartuak gertatu zirela eta erabaki honek, batez ere, XX. mendeko bigarren hamarkadatik hasita –eta batez ere, gerrate aurrean eta ondoren–, herri osoa erdibituta utzi zuela herri-lurren defentsa aldarrikatzen zuten udal-agintarien eta lursail pribatuen jabetzari eusten ziotenen artean.

Ez ziguten erakutsi, ezta ere, zergatik sortzen ziren, eta diren, hain deigarriak egiten zitzaizkigun putzu handiak, egiazko aintzira baten antzekoak, eliz ondoko zelaian, Apalo eta Zubizabaleko triangulua osatzen duen lur-eremu horretan zehar, eta, bereziki, Aintzergako Lindozulon. Uraldiek dakarten halako fenomeno geologiko batek mereziko zukeen, bada, azalpen bat geografiako klasean.

Ez ziguten erakutsi zergatik dauden elkarrengandik hain urruti beste herri gehienetan elkarren ondoan izaten diren eliza eta udaletxea, herria nola dagoen auzoetan antolatuta, zergatik indartu den hirigintza plaza-inguruan. Okasio ederra zen adierazteko, Berastegiko lur gizen eta oparoenen jabe handia Jauregiko jauntxoa zela eta orduan herriaren zilborra jauntxoaren inguruan elizak, dorretxeak eta dolare-etxeak osatzen zutela, herriaren erdi-erdian, eta plazaguneak bere hiri-hegemonia udaletxea eraiki zenean hartu zuela XVIII. mendetik aurrera.

Horrelako azalpenak eman zitezkeen orduan ere. Ezagutzak jaso, gune partikularretik eta hurbileko egoeratik

abiatuta egin behar zirela, izadiarekiko harremana zaindu egin behar zela, eta horrelako ideiak barra-barra zebiltzan Europan zehar eta Euskal Herriak jadanik ederki eskuratuak zituen Eskola Berriaren ekarpen horiek Eusko Ikaskuntzaren bidez, erakunde honek lau batzar berezi eskaini baitzizkion euskal irakaskuntzaren gaiari gerra aurreko hamarkadetan. Baina horien zantzuak ez ziren, antza, Berastegiko maisu-maistrengana iritsi. Lekarozko ikastetxean, agian, hobeto zaindu zituzten ikuspegi horiek, ez gutxi Aita Olano pedagogo aitzindariari esker.

Emana etorri zitzaigun eskola-unibertso hura gogoan eta gaurko egoera aurrean ditudala, euskal curriculumari buruzko azalpen teorikotik jaitsi-eta, hezur-haragiz osatu nahi izan dut haren edukia, niri hurbilen zaidan ingurune partikularrean murgildu eta mundua bertakoaren ispilutik begiratuz eta ikusiz. Berastegiren gizarte-bizitzan beste esparru geografiko zabalagoetan –Gipuzkoan, edo Nafarroan, edo auzo-estatuetan, edo Europan–, eman diren gizarte-elementu bertsuak produzituz eta erreproduzituz etorri izan dira historia osoan zehar mikroegitura-mailan.

Liburu honek, bada, euskal curriculumaren aplikazio lokalizatu bat izan nahi du bere sotilean. Ausardiaz egindako saio bat da. Izan ere, herri guztiek dute, handi ala txiki izan, beren izaera partikularra eta herri gehienetan daude finkatuta eskolak. Irakasleek ezin baitute ignoratu testuinguru partikular hori, batez ere, hauentzat da liburu hau. Horregatik, ez da harritzekoa atalek gai monografikoen antza izatea, eskoletan izan ohi den bezala. Pedagogoentzat da, eta nola ez, herritar guztientzat, heziketak ez baitu adinik.

Iturriak? Bibliografian sailkatua dator zer nondik jasoa den. Letra idatzia, publikoa, izan da oinarri. Herri baten

iraganetik etorkizunerako ibilbide luze honetan, osatzekorik eta zuzentzekorik izango dela, gertakarien beste irakurketa bat egingo duenik izango dela, bistan da. Ekidinezina dela ere esango nuke, baldin eta oroimen historikoari fidel izan nahi bazaio. Egindako ahalegin apur hori bederen borondate onenez eta errespetu handienez egina dela, oraintxe bertatik ziurta dezaket.

Berastegiz bada zerbait idatzirik eta hasieratik aitortu beharrean nago ez naizela ohol zuriaren gainean idazten hasi eta miatu gabe utzitako hainbat lan ere badela han eta hemen. Arretaz eta atseginez irakurtzen dut urtero abuztuan jaiotzen den *Aidanen* aldizkaria, Berastegi herriaz hainbeste berri jakingarri ekartzen dituena. Zorionak talde osoari eta, bereziki, Maria Jesus Labaieni eman dizkidan argitasunengatik. Zordun natzaie, orobat, Jabier Salbarredi eta Jose Antonio Olaetxea herritarrei eta Joaninazio Elosegi herritartuari beren lanez eta oharrez baliatu naizelako eta okerrak zuzentzen eta zalantzak argitzen lagundu didatelako. Leitzarani eskainitako atalean, orobat, zordun natzaio Xabier Cabezon jaunari. Ez nituzke aipatu gabe utzi nahi, ezta ere, egindako elkarrizketetan eta izandako harremanetan hainbeste xehetasun eman dizkidaten herritarrak ere: Migel Larburu, Inazio Jaka, Gregorio Yeregi, Jose Garaiburu, Ofelia Alcalde, Jose Antonio Olaetxea, Markos Aranalde, Jose Mari anaia, Jabier Salbarredi, Joaninazio Elosegi, eta beste hainbat. Eskerren txokoan badira zuzenean eta zeharka lagundu didaten eta aipatu gabe geratu diren beste hainbat, hasteko etxekoak eta hurbilekoenak. Hauentzat da, hoberik ezean, nire jubilazio-ondoko uzta hau.

Trilogia bezala argitaratzen den saio honen diskurtsoa hiru zutaberen gainean eraikia dago. Lehen liburuan herria

mendeetan zehar hiri eta auzo bezala nola antolatuz etorri den azaltzen da bere ingurune geomorfologikoaren eta baldintza soziohistorikoaren barruan. Bigarrenean gizarteko harremanak herri-bizitzan nola islatzen diren aztertzen da ikuspegi konfliktualista batetik begiratuta. Izan ere, guztiok desiratzen dugun bizikidetza harmoniatsua ez datorkigu berez emana; alderantziz, egunero lortuz gatozen zerbait baliotsua da, gizakia bere duintasuna lortzera bultzatzen duen zerbait. Etengabeko konkista bat. Esana da “semeak hazi, penak hasi”. Eguzkia ekaitzaren ondotik bezala, bake giroa ere gatazkaren sabelean ernetzen da. Herri guztietan, handi zein txikietan, ematen dira mota bateko zein besteko auziak eta gerratxoak. Gizarte-adostasunak justizia du oinarri. Euskaraz esaten dugun bezala, gizalegea. Hezkuntzaren edertasuna ere horretantxe datza: gatazkak gainditzen ikasiz joatean, hain zuzen. Azkenik, hirugarren liburuan, Berastegi herriaren gizarte-egiturak nola eraldatuz etorri diren erakustera mugatu gara, hemen, batez ere, herritarren garaian garaiko lanbideak aztergaitzat hartuta. Bizimodu tradizionaletik modernorako edo, zehatzago esanda, egungo globalizaturako jauzia ez da hutsaren gainean ematen, etenik gabeko tradizioaren joairan baino. Egunerokotasuna ez da igaroa berritua besterik. Berastegi ez da lehengoa, guk ezagutu genuen nekazal herri hutsa, alegia. Egia, baina lehengotik oinarrizko osagarria guztiak gordetzen ditu.

Bukaerara iristean, jakitun naiz gai asko geratu direla bazterrean, eta landu ditudan alorrak ere gainetik urratu baino ez ditudala egin, zuzendu beharreko uste okerrik ere izango dela. Betoz berriak, badago non zer arakatu-eta.

Milesker liburu hau edertu duen Lobo Altuna argazkilari herritartuari.

Bertsolarien legera, hogeitabatehun eta hamargarrenean eman diot azkena lan honi, soina Donostian eta buru-bihotzak Berastegi sorterrian.

Donostian, 2010eko irailaren 1ean
Paulo Iztueta

# HASIERAN HARANA ZEN

# I

## Berastegi, izadiaren opari

Berastegi Gipuzkoan ezagutzen bada, batez ere, izadiak debalde emandako lur-emari oparoz eta aparteko edertasunez jantzi duelako da. Lehen aldiz hara doana Tolosaldetik gora sartzen bada, igo eta igo, Ariztunugalde auzora iristean, txundituta geratuko da hango zabalgunea ikustean; eta Nafarroatik baldin badator, berriz, haren harridura ez da txikiagoa izango Urton muga zeharkatu eta Aintzergako belaze gizenetan barneratzean. Mendiek ondo babestuta daukate beren magal gozoetan. Neguan izotzez eta elurrez zuri, udan fresko eta berde, uzta berant.

### 1. Azaleraren handia

Berastegik, hain txikia izateko, lur-eremu zabala du: 45,90 kilometro karratu. Mugarritzat Gipuzkoako lurraldea hartuta, iparraldetik Elduainekin, hegoaldetik Gaztelu, Orexa eta Lizartzarekin eta mendebaldetik Ibarra, Leaburu

eta Belauntzarekin egiten du muga; Nafarroako lurraldera pasata, berriz, ekialdean Areso, Leitza eta Goizuetarekin; Berrobi eta Elduainen artean kokatua dagoen eta Udalaz Berastegikoa den Elduak, berriz, Andoain, Amasa-Billabona, Tolosa, Ibarra, Belauntza eta Berrobirekin. Berastegik eta Elduainek Leitzarekin muga egiten zuten lursailak zedarritu zituzten 1778ko maiatzaren 20an egindako eskritura batean. Honen arabera, mugak Urepel, Kondizaratz, Urkizu, Arrain eta Eskibarlatzan ezarrita aurkitzen ziren; Urepel mendiak, gainera, Goizuetarekin ere muga egiten zuen, eta du[2]. Gorosabelen (I, 1899, 57) garaian Berastegi, Elduain, Leitza eta Goizuetaren izenak zekartzan mugarri bat aurkitzen zen, egun ere leku berean jarraitzen duena.

Berastegiko haranak, bertako errekak daraman arroari jarraiki, Tolosako Oriaraino garamatza eta mendiz mendi, ekialdetik Ipuliñotik Uzturreraino, eta mendebaldetik Lartetik Leabururaino. Baina Berastegiko harana deitzen zaion hau, aldi berean, beste bi haran handiren erdian kokatua aurkitzen da. Berriro ekialdera begira jarrita, Leitzaran ibaia da Berastegi eta Goizuetako mendi-lerroak bereizten dituena, bere urak Andoainen husten joan arte; mendebaldean, berriz, Araitz haraneko mendietan jaiotzen den eta Lizartza zeharkatzen duen Araxes ibaiak Aralarko mendi-lerroak eta Uli eta Lartekoak bereizten ditu, Tolosako Amarozen Oriarekin bat eginez. Erdi Aroan, 1582. urte aldera, Oria ibaia Tolosatik Orioraino nabigagarri egiteko proiektuak egin ziren. Egingarritzat jo zen arren, ez zen burutu ahal izan, Probintziak aski diru ez zuelako (Gorosabel, I, 1899, 85).

Berastegi, izan dena –eta, neurri handi batean, orain dena–, bere orografiak egin du eta bere sorreratik honako ibilbidean zehar izandako gertaera historikoek baldintzatu

dute haren gizarte-egitura. Ez da ahaztu behar lursail zabalak dituela, nekazaritzarako lur aberatsa duela ibarreko soroetan, mendien sabelean minerala ausarki, larre oparoak kabalen bazkatzeko, egur-faltarik ez oihanetan. Ekonomiaren lehengai nagusia lurraren ustiapena zen garai haietan, ez ziezaiokeen ezer gehiago eska orduantxe gizarte antolatu gisa egituratzera zihoan herri bati.

Eta historiak nahi izan du, halaber, muga-herri izatea, alde bateko eta bestekoen erasoak jasan behar izan dituen herria, kanpokoenak eta bertakoenak ere bai. Kokapen fisikoa bera izan da herriari nortasun gehien eman izan diona, oraindik ere nekazal gizartearen izaeratik asko duen herria baita. Industria ondoko gizarte globalizatu honetan batere ohikoa ez den ezaugarria hauxe.

## 2. Orografiaren berezitasuna

Berastegik inguruetan hain ohikoa ez den zelaigune zabal eta patxadatsu baten itxura eskaintzen du, luzeran Ariztunugaldetik Izotzaldera zabaltzen doana, garai batean soroz eta egun belardiz jantzia dena. Luzeran kilometro eta erdi eta zabaleran kilometro bat baino gehiago du. Herriari buelta ematen, auzoz auzo joanda, bost bat kilometro inguru egiten dira. Eta herriko zelaigunetik, ekialdetik errepideari jarraiki, San Anton gainera ateratzen da eta, handik, beheko haranaren aldean meharragoa baina luzeagoa den Aitzergako zelaiguneak zeharkatuz gero, Nafarroako Larraungo haranean sartzen gara. Hemen dena da belaze eta bazka-leku, Artalekuraino. Badira leku hau Gipuzkoako paisajerik ederrenetako bat dela esaten dutenak ere. Leku gutiziatua dela hango txalet eta etxetxoek erakusten dute.

Ulitik eta Ollokotik datozen urak Izotzalden biltzen dituen Berastegi errekak zelaigunearen luzea erdi-erditik zeharkatzen du, bere joanean zarata handirik atera gabe, soro-ertzak leunki igurtziz eta bere marmario isil baina etengabean inguruko lur beltzak umeltasunez gozatuz; eta Ariztunugalden beherako bidea hastean, berriz, Arrosiko errotarriak mugiarazi izan ditu mende luzez, haietan ehotako irina aho askoren janari izaki. Arrositik beherago ere, Tolosan Zubi Berriaren parean Oriarekin bat egin arte, hainbat fabrikak hartu izan dituzte hango ur garbiak, gero ordainetan erabat zikinduta, uraren joana aparrez ez ikusteraino, itzultzeko. Berrikitan, zorionez, berriro lehengo gardentasuna lortu bide du.

Itsas-mailatik 400 metroko altueran kokatua aurkitzen da, Orexaren antzeratsu. Gipuzkoa osoan herri bakarra da bi sakonune dituena, geologoek "depresioa" deitzen diotena, bata herrian bertan eta bestea Aintzergan. Mendi goienetan, Urbia. Alde guztietatik mendiz inguratuta dagoen eta egitura geomorfologiko itxia duen Berastegiko haran zabal honek depresio karstikoari dagokion ezaugarri berezia dauka. Lehen begirada batean laua dirudien sakonune hori hobeto nabarmentzen da mendi gainetik, San Lorentzotik edo Gaztelumenditik, begiratzen bada.

Urak bere baitan biltzen dituen baina nondik irtenik ez duten kubeta hori eratu, haren sakonean dauden Jurasikoko kareharriak, eta Triasikoko igeltsuak eta harri-hondarrak desegitean eratu zen, Mezozoiko-garaian, duela 245 milioi urte inguru, eta lurpeko zein gainazaleko higadura horrek eragin zuen sakonune horren sortzea. Higadurazko zein disoluzio-bidezko prozesu hori gertatzen zen aldi berean, kareharri eta harearrizko bloke-depositu

buztintsuak sortu ziren, sakonunearen erdi-aldean 60 metroko lodiera duten depposituak aurkitzen direlarik. Prozesu honen emaitza da egun Berastegiko ordeka-tankerako haranak erakusten duen berezitasun geomorfologikoa.

Horren ezaugarri nagusia da lurpetik kareharri eta hareharrizko materialen artetik korritzen duten urak kanpo-alderako irteerarik gabe aurkitzean, depposituan bertan ur-putzu handiak eratzen direla eta horko urak, ez Berastegin bertan, baizik beheragoko mailan aurkitzen den Elduaingo Urbeltza eta Galitxiko iturburuetan ateratzen direla, lurpeko ibilbidea eginez.

Bestalde, sakonunearen zorua estaltzen duen depposituak ura zurgatzeko gaitasun mugatua baitu, gertatzen da, batez ere, euri asko egiten duenean, aintzira antzeko putzuak eratzen direla (Tamés et alii, 1991, 137-139). Horregatik, urtero-urtero, negu-partean euria atertzeke eta gogotik egiten duenetan, nahiz errekak gainezka ez egin, haraneko punturik beheragoenetan –zehazki, eliz ondotik Apalo[3] bitarteko sakonunetan–, lursailak urez estalita geratzen dira aintzira txiki bihurtzeraino. Umetan askotan galdetzen genion geure buruari zergatik egiten ote zen han horrenbesteko ur-putzua. Geroxeago ere ez ginen gehiegi argitzen, hain bertakoa genuen fenomeno bitxi horren azalpenik ez baitziguten ematen. Emanda ere, beharbada, ez ginen gai izango gaur idatzita dauzkagun azalpen geologiko horiek ulertzeko.

Aintzergako sakonuneak ere, Berastegiko haranekoaren antzera, geomorfologia berezia du eta han ere antzeko fenomenoa ematen da. Hangoak bi ezaugarri ditu: batetik, Triasikoko igeltsu eta buztinak deseginez gero eratutakoa da eta, prozesu honen ondorioz, errepidearen bi aldetara

kokatutako bi sakonune txiki eta trintxera-erako kanal naturalak eratzen dira; bestetik, berriz, garai bereko ofitek, hauek hauskaitzagoak direlako, ez dute disoluzio-prozesu hori jasan eta, ondorioz, haien gainean erliebe ertzdun eta leunak eratu dituzte. Horrela, Leitzaran ibaira drainatzen duen trintxera-erako kanalean, ekialdean, hondoratze-prozesuaren seinaleak agertzen dira, hala nola, bertatik jalgitzen diren zuhaitzak eta beraietan sortzen diren ur-putzuak (Tamés et alii, 1991, 139-139). Hango ur-putzuak ikusita, gure harridura pizten baitzen, ez genekien zergatik



Lindozulo azaroko udaldian (Joaninazio Elosegi, 2009)

gertatzen zen fenomeno hori. Lindozulo inguruko errekak Leitzaranen isurtzen ditu bere urak. Baina Lindozulokoak nora ote doaz gainezka egiten dutenean? Badirudi Arexesen agertzen direla[4].

### 3. Nekazarien herria

Berastegi, sorreratik beretik, artzain eta nekazal herria izan da, ez hiri-gune bat, ez hiribildu bat, bere garaiko Segura, Ordizia edo Tolosa izan zitezkeen moduan. Hasieran unibertsitatea deitu zitzaion; udal-autonomia lortu eta gero, herria, gazteleraz "villa noble", Udaletxeko armarrian datorren bezala. Mende luzez lurra ustiatzetik bizi izan den herri bat izan da, artzaintzan, abelazkuntzan, basogintzan, burdingintzan aritu dena eta, neurri batean, egun ere horretan dihardduena.

Berastegik, azalera handia izateaz gain, lur gozo eta oparoa du. Baserri bakoitzari dagozkion lursailak hain handiak ez badira ere, daudenak abelazkuntzarako biziki egokiak direla esan dezakegu.

Lurpeko eraketatik lurgainekora igaroz, anfiteatroetako harmailen antzera eraikia irudikatzen dudan Berastegiko orografian hiru maila garbiki bereiz daitezke.

Ordekan, Ariztunugaldetik Izotzalderaino luzatzen den zelaigune zabalean soro oparo eta gizenak ditu, ereintzarako aproposak. Gure gaztaroan, baserriko ekonomia autohornitzen zen garai hartan, sukalderako bezala ukuilurako behar zen guztia soroan egiten zen: garia, artoa, babarruna, arbia, erremolatxa, pagotxa, frantziberdea. Zernahi. Eta ordekako soro landuek, ereiteko sasoien arabera, kolore desberdinak hartzen zituzten, noiz berde-berde, artasoroak galdorretan



Berastegiko zelaia San Anton ingurutik begiratuta (2010)

zeudenean bezala, noiz hori-hori galburuak edo artaburuak erabat helduta zeudenean bezala. Pagotxak hartzen zuen kolore gorrista, arbiari garatzean loratzen zitzaion lore orizta, kolore horiek denak han eta hemen lursail txikitan barreiatuak, batera ikusita, nekez ikus zitekeen inon –ezta hiriburu askotan ere–, hura baino lorategi polikromatuagorik.

Soroak, esan bezala, lursail txiki samarrean banatuak zeuden, mugarrituak bai, baina hesirik gabe. Lurra maneiatzeko eta uzta jasotzeko behi-gurdiak behar izaten baitziren, lursail batetik bestera pasatzeko, bidezidor antzeko pasabide pribatuak zeuden. Zor ziren herri-bideak bakarrik zeuden harrizko hormaz edo harlauzaz hesituak. Orduan, bada, Berastegiko ordeka guztia soroz jantzia zen, ondo zaindua, belar txarrik gabe. Nekez ikusiko zen han lapaitzik, aztalikardorik, kurkutxorik, aztalarrik, suilarrik edo antzekorik ezer. Ogia etxean egiten zen garai hartan garia baitzen ezinbesteko elikagaia, arta handia hartzen zen txoriek heltzen ari zen alea jan ez zezaten eta, helduz gero, uzta sasoi onean jasoa izan zedin. Txoriak poto batean harrixkak sartu eta kliki-klaka eginez uxatzen ziren; soinura eginez gero, ordea, laster izaten ziren bueltan. Garia uztailaren erdi aldera ebakitzen zen igitaiaz, ebaki ahala zabalik lerrotuta utziz. Gari-balak egin, piletan utzi eta gurdian etxeratzen ziren. Alea lastotik bereizteko, garia jotzea entrako sarreran egiten zen, eskuetan gari-bala hartu eta harlauzan indartsu joz. Geroago agertu zen garia jotzeko makina, 1950eko hamarkadaren hasieran-edo. Gogoratzen naiz gurean, ez dakit nondik ekarrita, etxe atarian jarri zutela eta hodi handi baten bidez pilatzen zuela lastoa ganbaran, ale garbia beste ontzi batean utziz. Irakurria

dudanez (Salbarredi, 2004, 12-13), 1963. urte-inguruan utzi zitzaion garia egiteari. Denda-Berriko okindegia sortzearekin bateratsu izango zen.

Mendi-maldetan, auzoetako baserrien mugetan, belaze ugari dira, gehienak aldapa handirik gabekoak. Haietan belarra onduz eta hezea etxera ekarriz bazkatzen ziren ukuiluko ganaduak. Herriaren gerri-biribiltasun osoan zehar zabaltzen zen belarraren berdetasun bortitza zelaiguneko soro polikromatuarekin nahasten zenean, berdin zen zein urtaro izan, Berastegin izadia soineko bereziz janzten zen. Garai bateko kolore-kontraste hori ez da hainbeste



Milleneko borda, eskuinera txabola erdi-eroriarekin eta ezkerretara belazerako atakarekin (Iztueta, 2010)

nabarmentzen orain, orduko soro gehienak belardi bihurtuta baitaude.

Eta mendian gora joanda, hirugarren maila batean, garokeluak eta basoak dauzkagu. Larte, Uli, Ipuliño, San Lorentzoko larrean eta, batez ere, Leitzaranen, mendi hauetan garrantzia handiko basoak aurkitzen dira. Hauek, guztira, bi mila hektareako lur-eremua betetzen dute. Bordak ere erruz dira. Hirurehundik gora omen. Horietako zenbait lizarrondoz eta belazez inguratuak. Eta alboan beren txabola dutenak ere bai. Tamalez, egun ez gutxi erortzen ari dira, bereziki, Leitzaran aldean eta leku apartatuetan.

Eta mendietan, basoak ez ezik, haien erraietan meatzeak ere badira Leitzarango bailaran, ospe handikoak eta mendeetan zehar ustiatuak izan direnak, gehienak bederen bai.

Honaino Berastegiren deskribapen fisikoa egin dugu, haren orografia, paisajea, lursailak eta azalera azalduz. Berastegi herria, funtsean, nekazari-herria dela esan dugu, lurrari itsatsia. Han neguan hotz egiten du, aurpegia mintzen duen horietakoa; udaberriko zuhaitz-begiak nekez irekitzen dira, kostaldean baino hilabete bat inguru beranduago; uda eta udazkena, eguraldiak laguntzen duenean, hangoak ez inbidiarik Edengo paradisuari.

# II

## Historiaren egunsentian

Berastegi muga-herri dela jakinik ere, oraindik ere badira zehazki haren oraingo kokapen administratiboaz galdetzen dutenak. Antzeko zerbait gertatzen da lehen Probintzia batekoak izan eta gero, beste lurralde batekoa izatera pasa izan diren herriekin ere.

Berastegi historian XI. mende-hasieran sartu zela esanez hasiko gara, Nafarroako erresumaren barruan, hain zuzen. Segidan ikusiko dugu nola sartu zen Gaztelakoan, Gipuzkoarekin batera, eta zein testuingurutan, emana izan zaigun historiako hainbat pasarte berreginez edo osatuz.

### 1. Nafarroako erresumatik (1027)...

Berastegi gaur egun Gipuzkoako geografian kokatua aurkitzen da, Nafarroarekin muga-herri eginez. Beti hala izan al da? Eta hala izan bada, noiztik Gipuzkoakoa?

Gipuzkoako lurraldeaz dakiguna ezer gutxi da. Erromak Euskal Herria kolonizatu zuenean, hango geografoek

idatzitako historian, gutxi-gorabehera egun Gipuzkoa deitzen zaion lurralde horretan bizi ziren barduliarrak. Oiartzungo zonaldea salbu, gainerakoa ez bide zitzaion asko interesatu Erromako inperioari. Badirudi bera izan zela gutxien erromanizatua izan zen lurraldea. Agian, bere orografia gogorragatik. Oraindik gutxiago dakigu germaniar eta arabiar inbasioen garaian gertatu zenaz.

Gipuzkoaz egiten den aipamenik zaharrena, Fernan Gonzalez kondeak Donemiliagari egindako botoen pribilegio-dokumentuan datorrena da, ustez 933-939 urtebitartean egina. Dokumentu honen egiazkotasuna kolokan jartzen bada ere, bera da, zalantzarik gabe, zaharrena. Hor "Ipuzkoa" izenarekin emana dator. Deitura berarekin segitzen du gerora ere: lehenik, Baionako Arsio apezpikuak 980an egindako txosten batean; bigarrenik, Gartzia Aznar jaunak Aragoiko San Juan de la Peña monastegiari 1025ean egindako Olazabalgo San Salbatoreko elizaren dohaintzan[5]; hirugarrenik, Nafarroako errege Antso III.a Gartzes Nagusiak 1027an Iruñeko diozesi-mugaketaz egindako eskrituran. Hemen, elizbarruti hartakoak ziren haranak eta herriak aipatu ondoren, "et tota Ipuzcoa" gaineratzen da. Ipuzkoa izendapenarekin dator XII. mende-bukaera arte. Gipuzkoa, bada, X. mendearen lehen erdian sartzen da historia idatzian.

Jatorrizko Ipuzkoa hark zein lurralde hartzen zituen? Lehen aipatutako Fernan Gonzalez kondearen dokumentuan datorrenez, haren lurralde-mugak, X. eta XI. mendeetan zehar, Deba ibaitik Pasaiako kanalaren artekoak ziren. Beraz, jatorrizko Gipuzkoa hartatik at geratzen ziren Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenteria, Lezo eta ekialdeko Pasaia, hauek izanik Nafarroako erresumari zegozkionak. Berdin Berastegi haranekoak ere. Hilzorian dagoen errege

Alfonso VIII.ak egindako testamentu-agirian garbiro azaltzen dio bere ondorengoari Gipuzkoako zati hori, Nafarroakoa denez gero, Nafarroako erregeri bihurtu behar zaiola (Zabala; Iglesias, 1971, 76).

Berastegiren lehen aipamena jadanik ezaguna zaigun Nafarroako Antso III.a Gartzes Nagusiaren 1027ko errege-dokumentuan egiten da, “haran” bezala eta “Blastegui” izenarekin (Mugica, 1923, 951). Idazki horrek Iruñeko elizbarrutiaren eskumenekoak ziren eta haranen arabera antolatuta zeuden lurralde-banaketaz baitihardu, komeni da esatea Iruñeko elizbarrutia, garai hartan, hamabi artzapez-barrutietan banatua zegoela, eta Gipuzkoako lurraldean, berriz, hamar korriedotan, eta horietako bat zela Berastegikoa, zeinetan sartzen baitziren Elduain, Areso eta Leitzako parroki elizak, azken hauek 1350. urte-aldera Berastegikotik aldendu ziren arte (Orella, I, 1997, 276-278). Nahiz errege-dokumentu horri 1027ko data ezartzen zaion, badirudi XII. mende-bukaerakoa (1186-1189) dela eta, gainera, ez bide dela erabat zuzena. Segurutzat jo daiteke, ordea, artean XI. eta XII. mendeetan, jadanik dokumentu horietan agertzen den lurralde-banaketa haranen arabera egindakoa dela, Belatetik Kantauri itsasora bitartean, oinarritzat mendi-lerroen eta ibaien ibilbidea hartuta, garai batean artzainek ohi zuten bezala[6]. Eremua antolatzeko artzain-irizpide horrek adierazten du oraindik ere bizirik daudela hein batean lehengo jentilizio-erako harreman-ezaugarriak.

Bestalde, orduko Gipuzkoaren lurralde-hedadura gaurkoaren aldean txikia zen, Urola, Oria eta Araxes ibaiek barrutik besarkatzen zutena baino ez, hasi sorreratik eta itsasoraino, Urola eta Oriaren kasuan osoki, eta Araxese-

nean zati handi batean ere bai. Itsasaldetik barrura aldera eginda, Urola eta Oria ibaien artean, haran hauek aurkitzen dira XII. mende-bukaeran Iruñeko elizbarrutiaren barruan: Saiatz, Itziar, Iraurgi, Errezil, Goiatz, Berastegi, Areria (Arakil ibaitik aski hurbil) eta Ozkue (Oria eta Araxesen artean). Geroago Baiona eta Kalagurriko elizbarrutiei zegozkien Oiartzungo harana eta Debako lurrak elkartu ziren horiekin, hurrenez hurren. Haranen araberako lurralde-antolaketa honek nekazaritzaren indartzea, jendea auzoetan finkatuz joatea eta aldapa ertaineko lurrak baloratzea ekarri zuen ondorioz. Trashumante-taldeek zerabiltzaten luzera handiko ibilbideez gain, ordurako jadanik eratuta zeuden, auzo hurbilak lotzen zituen maila lokaleko zein supra-lokaleko komunikazio-segmentuak (Barrena Osoro, 1991, 96).

Nafarroako erresumak itsasorako bidea irekitzeko xedearekin Donostia hiria sortzen duenean 1180an, Gipuzkoako lurralde-banaketan aldaketa batzuk ematen dira: Donostiak Hernaniko harana zena bereganatzen duela eta Gipuzkoak, berriz, Berastegikoa (Barrena Osoro, 1994, 97-112). Nolanahi ere, aipatzekoa da Joseba Intxaustik (2007a, 69) Gipuzkoako haranak izendatzerakoan, hamarreko zerrenda osatzen duela, kostaldekoen, barrualdekoen eta hegialdekoen artekoak honela banatuz: Hernani, Saiatz eta Itziar, kostaldekoan; Iraurgi (Urolako arroa), Errezil eta Goiatz, barrualdean; Areria, Ozkue, Araitz eta Larraul, hegoaldekoan, Aizkorri eta Aralarren artean, Araxesen arroa arte. Zerrenda honetan ez da aipatzen Berastegiko harana, nahiz, ikusi berri dugunez, XI. mendeko hirugarren hamarkadan datatua datorren. Dokumentu batean baino aipatzen ez den "haran" haren izaera soziogeografiko eta politikoa

zer-nolakoa izan zitekeen jakiteko aski elementurik ez dugu. Aspaldiko garai hartako Gipuzkoaz eta, orobat, Berastegiz asko ez dakigun arren –dokumentuak eskas baitira–, zehaztapen horiek bederen bere urritasunean gogoan hartzekoak dira.

Bestalde, hizkuntzari dagokionez, Nafarroako erresuman XI. mende-hasieran herritarrek hitz egiten zuten hizkuntza euskara zen: *rusticum vocabulum* (1045), *lingua vulgaris* (1051) o *vulgare eloquium*. Hizkuntza frankoak artean sartzeke zeuden hirietan eta Donejakuerako bidean sortutako herrietan. Europako mendebaldeko kristau kulturako jakintza latinez jaso eta transmititzen zen goiko eliteetan. Gutxiengo letratuen kasuan bakarrik ematen zen elebitasuna. Denborarekin, latina eta erromantzeak jakintzako hizkuntza izatera iritsi ziren –gutxiengo kultuen hizkuntzak, alegia–, eta administrazio ofizialak, zibilak zein elizakoak, horiek erabiltzen zituzten (Jimeno Aranguren, 2004, 67-86).

## 2. Gaztelakora (1200)

Baina zer gertatzen da hasieran Nafarroako eremuan zeuden euskal lurraldeak Gazteluko erresumara alda zitezen? Zer, Berastegi muga-herria Nafarroatik Gipuzkoara pasa zedin? Aldaketa hori oso denbora laburrean eman zen, XIII. mendea hastearekin batera.

Iruñea, Aragoi, Naiara, Araba eta Bizkaia bezala, Gipuzkoa ere Nafarroako erresumako lurraldea zen, nolabait deitzeko, aurrekoen antzera, lurralde autoktonoa, gobernatzeko bere buruaz baliatzen zena, horrekin esan gabe egiazko estatu independente baten izaera zuela. Oso ilunak

dira Gipuzkoari buruzko berriak, ez baita 1025. urtera arte, lehen esan bezala, ezein dokumentu fidagarririk ematen. Baina Gipuzkoako lurraldea Nafarroako erresumaren barruan kokatua zegoela frogatzen duen aurreragoko dokumentu bat bada, 1014an datatua, zeina Hernaniko mugetan, gaur egungo Donostiako Antigua auzoan, kokatua zegoen Donostiako San Sebastian izeneko monasterioaren fundazioaz ari baita. Lurralde horrek mendebaldetik Gipuzkoa zuen muga eta ekialdetik, berriz, Nafarroa.

Egia da, dokumentu hau ukituegia dago, besterik gabe ontzat emateko, data bera ere oso da zalantzazkoa, baina seguru asko monasterio hura garai hartan bazela jakite hutsak berak baieztatzen du Antso III.a Gartzes Nagusiak XI. mende-hasieran sortu zuela. Monasterio horri dohaintzan emandako lurrak Hernaniko mugetaraino iristen baitziren, horrekin aditzera eman nahi zen Leireko monasterioa arduratzen zela lurralde horren antolaketaz eta administrazioaz.

Bestalde, lehen aipatutako 1025eko dokumentu horretan, Gartzia Aznar (azenarriz, Armendariz?) jauna agertzen da Gipuzkoako buruzagi (*senior de Ipuscoa*) bezala Aralarretik Zarautza bitarteko lurretan, Antso III.a Gartzes Nagusiaren erregealdian. Bera nafarra eta bere emazte Gaila gipuzkoarra izateak erakusten du, batetik, Gipuzkoako Jauneria Nafarroako erresumaren esanekoa (*sub imperio*) dela eta, bestetik, balitekeela Antso III.a Gartzes Nagusia haren emazte gipuzkoarraz baliatzea, hango familia nagusi ezberdinak bereganatzeko eta, honela, Iputzan (Gipuzkoan) bizi den bertako taldeen erabateko atxikipena lortzeko (Pescador Medrano, 2004, 35). Gipuzkoako jauntxo guztien arteko odol-kidetasuna bilatzen saiatu izan dira

ikertzaileak, baina guztiek porrot egin dute. Jauneriaren titulua Nafarroako erregeak emana izan zela uste da.

Gorosabelek (I, 1899, 199-203) dakarrenez, Baskoniakoak ziren Baionako elizbarrutian kokatuta zeudenak, Barduliarrak Iruñea zaharretik zetozenak, eta karistiarrak Kalagorrikoak zirenak eta muga Deba arroan zutenak. Ez dakigu noiz elkartu ziren hiru jentilizio hauek –baskoiak, barduliarrak eta karistiarrak–, Gipuzkoa osatzeko.

Arestian esan bezala, Gipuzkoaren hasierako lurraldeantolaketaz oraindik ere zer argitzekorik baldin bada ere, guri gehiago interesatzen zaigu jakitea Gipuzkoa noiz eta zergatik aldentzen den Nafarroako erresumatik Gaztelakoan sartzeko, arazo honek Berastegi herriarekin zerikusi zuzena baitu.

Gipuzkoa, denboran zehar erresumaz aldatzen joaten da, batean Nafarroan eta bestean Gaztelan, garaian garaiko interesek eta egoerek agintzen dutenaren arabera jokatuz. Baina Gaztela eta Aragoiko erresumen xede espantsionistak zeuden atzetik eragiten zutenak eta honen ondorioak Nafarroako Antso IV.a Gartzes Peñalengoa 1076an hil eta Iruñeko erresuma desagertu zenean agertu ziren. Orduan galtzen du Nafarroako erresumak bere lurralde-batasuna. Izan ere, hura hiltzean, Iruñeko nobleziak Aragoiko errege Antso V.a Ramirezen eskuetan utzi baitzuen erresumaren gobernua, honen eta ondorengoen garaian (1076-1134) anexionatu zituen Gaztelako Alfonso VI.ak (1040-1109) Errioxako Naiara eta Kalagorri, Bureba, Gipuzkoa, Durangoaldea, Bizkaia eta Araba. Handik gutxira, ordea, Gaztela eta Aragoiko erresumen xede anexionistak porrot egin baitzuen, honek Iruñeko erresumaren indartzea dakar ondorioz. Honela, 1127an Gaztelak nafar mugetan lortutako

lurrak itzultzen ditu eta, 1134an, lehengo mugak berrezartzen dira. Baina ez luzarorako, Gaztelako erresumak, Aragoikoarekin bat eginda, Nafarroako erresumapeko lurraldeak banatzen jarraitzen baitu, Antso VII.a Azkarrak Afrikan indarrez eta luzaro atxilotuta jarraitzen duen bitartean. Baita lortu ere. Xehetasun hauek Moret jesuitari (1890, IV, 113) zor dizkiogu:

> "Pero apenas tocó la voz en España de la detención violenta del rey D. Sancho en Africa, y aseguraron de ella, y de que iba muy a la larga su ausencia allá, los reyes D. Alfonso de Castilla, y D. Pedro de Aragón, cuando luego se hicieron el señuelo de la conspiración común. Y dando con el hecho solo por fenecida la suspensión de armas y aprestando las suyas invadieron al reino de Navarra como tierra sin dueño por la primavera de este año 1199. Y de común consejo, aunque con los ejércitos divididos y por las partes más distantes para causar mayor terror, el de Castilla acometió por la parte de Alava y después de varios trances de armas ganó a Miranda de Ebro y a Inzura. El de Aragón por la frontera y merindad de Sangüesa, y ganó Aibar y la villa y castillo de Burgui, una de las siete del valle de Roncal".

Gaztelak, azkenean, 1200ean okupatuko ditu, oraingoan betiko, Euskal Herriko mendebaldeko lurraldeak. Rada-ko Rodrigo Ximenezen Kronikan datorrenez, hauek dira 1199-1200. urte-bitartean Gaztelako Alfonso VIII.ak okupatutako gaztelu eta lurraldeak: Araban Portilla, Treviño, Arganzon, Oka, Zaitegi, Aizorrotz, Marañon, Santa Kruz Kanpezukoa, Arluzea, San Bizente Aranakoa, eta Gipuzkoan Ataun, Auza, Donostia, Beloaga eta Hondarribia (Barrena Osoro, 1994, 97-112). Guztira, 15. Bada zerbait.

Barrena Osoro egileak (1994, 102) Gaztelaren XII. mendeko espantsionismoa azaltzeko egiten duen gazteluen mapan, "castillos y territorios *ganados*" dakar, guk letra etzanez dakarguna berak kakoartean ematen duena. Adierazi nahi den errealitatea azaltzeko, hitza zentzu hertsiagoan erabiliz, egokiago iruditzen zaigu *okupazioaren* kontzeptua, armaz hartuak izan baitziren. Gaztela hasi, armaz hasten da Gipuzkoa bereganatzen eta gerora ere, hiribilduak eraikitzeko hiri-gutunak emango dituztenean, barrualdean Nafarroaren kontra bere boterea indartu eta babesteko emango ditu.

Nafarroako erresumaren lurraldeaz ari garenean, Antso III.a Gartzes Nagusiak (1000-1035) lortutako euskal lurraldearen batasun politikoaz ari gara, herria euskaraz mintzatzen zen herrialdeaz, hau da, Euskal Herriaz. Eta lurralde-batasun politiko eta linguistiko hori, hain zuzen, Gaztelako erresumaren politika espantsionistak hautsiko du, baina ez nafar leinuko azken erregea izango den Antso VII.a Azkarraren (1154-1234) utzikeriarik gabe. Izan ere, Gipuzkoa eta Arabaren Gaztelaratzea haren garaian gertatu zen, bere erresuma utzi eta denboraldi luzea Afrika edo Andaluzia aldean egin zuenean, 1198. urte-inguruan. Handik itzuli zenerako Gaztelako Alfonso VIII.ak eta Aragoiko Pedro II.ak Araba eta Gipuzkoako hainbat gaztelu konkistatuak zituzten (Estella, 1979, 80). Honaino gertakariak.

Ukaezina da Alfonso VIII.ak bereganatu egin zuela Gipuzkoa. Baina nola? Batzuek diotenez, Gipuzkoak berak hala nahi izan zuelako; beste batzuek, aldiz, indarrez (García de Cortazar; Lorenzo Espinosa, 1994, 49-50). Borondatezkoa izan zen, ala ezarria izan zitzaion uztarria? "Aut"

hori ote da arazoa planteatzeko modu bakarra? Ala, galdera beste modu batera egin behar da: hasieran konkista izan zen eta, *a posteriori* eta ezinbestez, konkistatua onartzera behartua egon zen?

*Videtur quod* izenburuarekin hasten zen metodo eskolastikoan kontrakoen iritzi-azalpena. "Hala dirudi" esango genuke euskaraz, gehienen iritzia balitz bezala. Ia oraintsu arte nagusitu izan den ikuspegiaren arabera, Gipuzkoa bere borondatez atxiki zitzaion Gaztelari, haurra amaren magalean babesten den bezala. Baina beti ere baldintza batzuekin, foru-hitzarmen bat eginez gero. Eta bazirudien hala izan zela. Autore batzuek –eta iritzi horretakoak dira Marichalar, Manrique eta aita Bernardino Lizarrakoa bera–, aitortzen dute Araba eta Gipuzkoa militarki konkistatuak izan zirela, segidan gaineratuz beren borondatez onartu zutela Gaztelako erresuman sartu eta hango Koroarekin batasun politikoa osatzea. Gipuzkoaren kasuan bederen esplizituki halaxe baieztatzen da. Eta honen frogatzat esaten da Gaztelako armadak Gasteiz hiria setiatzen zuen bitartean joan omen zela Gipuzkoako Batzar Nagusiko Batzorde bat Gaztelako erregearengana, hango erresuman sartzeko proposamenarekin, baina beti ere aldez aurretik baldintza batzuk adostuz. Jakina, Alfonso VIII.ak interes handia zuen bateratze-hitzarmen adostu horretan, horrela errazago jarriko baitzen harremanetan Ingalaterrako Enrike II.ak Leonor andereari, Alfonso VIII.aren emazteari, utzitako Gaskoniako konderriarekin. Nolanahi ere, adostutako paktismo horren idatzizko agiririk ez baita, ahozkoan baino ez da oinarritzen uste hori. Beraz, konkistatua izan ala ez, historiografia honek jasotzen duen azken emaitza da Gipuzkoa Gaztelako erresumaren barruan ez dela urtzen,

desegiten, baizik biek beren independentzia gordetzen dutela eta, ondorioz, biek zutela zer irabazirik paktu hartan. Aldaketa bakarra zen, Gipuzkoak babeslez aldatzen zuela. Horixe besterik ez. Eta Gipuzkoak Gaztelarekiko zuen independentziaren bermea zen, hark batasuna egin, Gaztelako erregearekin egin zuela maila pertsonalean, ez Gaztelako erresumarekin.

Ikusi dugu zein zen Alfonso VIII.aren interes nagusia Gipuzkoako lurraldea okupatzean: Akitaniarako bidea irekitzea, lortu zuena. Gipuzkoako Batzar Nagusikoek zergatik jokatu zuten horrela galdetzen bada, berriz, erantzun hauek ematen dira: hasteko, Antso VII.ak bidegabekeriak egiten zituela eta ez bide zuela errespetatzen ez Gipuzkoa eta ez Arabaren independentzia; bigarrenik, gipuzkoarrek –batez ere, mugakoek–, etengabeko borrokak izaten zituztela nafarrekin eta elkarri gorroto handia ziotela, hauek haien lurretan lapurretak egiten omen zituztelako; hirugarrenik, Antso VII.a bere erresuma utzi eta Afrika aldera joan baitzen, Gipuzkoarentzat parada ezin egokiagoa izan zela behingoz Nafarroako erresumatik aldentzeko. Dena den, Nafarroa eta Gipuzkoa elkarrengandik bananduz gero, oraindik gehiago larritu baino ez ziren egingo mugako gatazkak, elkarri kalte gogorrak eginez, soroak zein etxeak errez, aziendak lapurtuz. Nafarroako dokumentu zaharretan “gaizkileen muga” deitzen zitzaion Nafarroa eta Gipuzkoa banatzen zitueneko mugari, eta beste batean, berriz, “Espainiako muga”, azken honetan, noski, Gipuzkoa Gaztelarekin berdinduz (Estella, 1979, 80; 149-154).

Hori izan da euskal foralista gehienen tesia –nazionalista klasikoena barne–, dioena garai haietan Probintzia bakoitzak bere estatu independentea osatzen zuela, subiranotasuna

Batzar Nagusietan oinarritua zegoelako eta, bere borondatez erresuma batean edo bestean kokatzean, erregearekin soilik adosten zuela bere batasuna, hura babesletzat hartuz. Gipuzkoaren kasuan hala gertatu bide zen Nafarroako erresumatik Gaztelakora pasatzean.

Honaino *videtur quod* azalpena ematera mugatu gara, subiranotasun foralistaren aldeko interpretazioa eskainiz. Baina eskolastikoen argudioan, haren segidan, *sed contra* adbertsatiboa etorri ohi zen, eta hemen, goian esanak aldez edo osoz errefusatuz gero, beste ikuspegi bat eskaintzeko ahaleginean arrazoitzen zen, arrakasta gehiagorekin edo gutxiagorekin. Hala zirudien, baina eguneroko praktika politikoan egiazki hala izan al zen?

J. L. Orella Unzueren (I, 1977, 115) ustez, alde batera utzita euskal foralismoaren izaera juridikoa, Gaztelak Araba eta Gipuzkoa egiazko konkista militar baten bidez bereganatu zituen eta konkista hori, gainera, krudela izan zen. Gaztelako Alfonso VIII.ak zainetan zeraman Euskal Herria konkistatzeko arra. Honela, 1199an Nafarroako lurraldean sartu zen Trebiñotik barna. Urte betez setiatuta eduki zituen Gasteiz, Araba eta Gipuzkoako gotorlekuak bide militarrez edo diplomatikoz okupatuz zihoan bitartean. Lehen esan bezala, Gaztelako erregearen asmo hurbila Gaztela eta Akitania lurraldez elkartzea zen, haren emaztearena baitzen Gaskoniako konderria. Jadanik 1200. urtean, Gaztelan, Araban, Kanpezun, Marañonen, Gipuzkoan eta Donostian Alfonso VIII.a zegoen agintzen, konkistatutako lurralde horiek zaindu eta gobernatzen Diego López Harokoa jarrita, 1200ko urrian tenientea zena Soria, Naiara, Marañon eta Donostian. Handik bi urtera, 1202an, Donostiako foruak berretsi zituen eta, Gaskoniarako bidean,

Gipuzkoan hiri berri batzuk sortu zituen, hauen artean lehena Hondarribia. Ahalegindu zen ondoko urteetan Gaskonia konkistatzen, Ingalaterrako erregearekin deskontent zeuden jauntxoak bereganatuz, baina ez zuen lortu ahal izan bere asmoa. Etsi zuen.

Badirudi, hala uste du J. L. Orellak, garaikideek ez zutela Araba eta Gipuzkoaren konkista erabatekotzat hartu, eta honen froga gisa esaten da Gaztelako erregeak XIII. mende osoan zehar mugak berrikusten eta okupatutako hiriak itzultzen ahalegindu zirela. Alfonso VIII.ak berak, 1204ko abenduan egindako bere testamentuan, bere semeari agintzen zion Nafarroako erregeari itzuli behar zitzaizkiola Ponte de Araniello-tik hasi eta Hondarribia eta Kanpezura arteko guztia, Antoñanako hiria eta Atauri[7] eta Portilla de Korres-go[8] azteluak, bazekielako harenak zirela. Trukean, bakean uztea eta kalterik ez egitea, ez berari ez bere semeari, eskatzen zuen.

J. L. Orellak berak, geroago beste artikulu batean[9], lehengo iritzi bera berresten du, baina lehengoari datu bat gehiago erantsiz: hots, Gipuzkoa armaz bereganatu eta Bizkaiko Jauneria politikoki kontrolatu ondoren, 1332an, Arriagako kofradiakoek Araba borondatez entregatu ziotela Gaztelako erregeari[10]. Alabaina, nahiz eta Gaztelak bereganatu euskal lurralde hauek, beren foru-erregimena izan zuten[11].

Nolanahi ere, testamentuak testamentu, kontua da Gaztelak, 2000. urteko konkistaz geroztik, euskal kostaldea bereganatzean, itsasorik gabeko Gaztelak urrezko bidea ireki zuela Europara begira eta euskal merkataritzak Erdi Aroan zehar gora egin zuela. Donostia zen garai hartan euskal kostaldeko porturik aktiboena. Handik itsasoratzen

ziren hainbat gauza: burdina, kobrea, argizaria, oihalak, artilea, lihoa, larrua. XIII. mende-bukaeran, euskal kostalde osoan, Santander-tik hasi eta Baionaraino, sekulako mugimendua zegoen merkataritzan. Eta hurrengo mendearen erditik aurrera Bartzelonan ere bazegoen finkatua Gipuzkoako faktoria bat. Halere, orokorrean, garai honetako euskal merkataritzak harreman gehiago izan zituen Europako Iparraldeko herriekin Penintsulakoekin baino. Hedakuntza honen adierazle da Belgikako Brujasen XV. mendean eraikitako merkataritzako etxea, "Praetorium Cantabricum" deitua, XIX. mendera arte zutik iraun zuena. Berriki ibiliak gara orduko zantzuen bila, oraindik ere Bizkaitarren Plaza (*Biscayer Plaatz*) izena daraman lekuan.

Noski, euskal merkataritzaren gorakada honetan, Gaztelak zerikusi handia izan zuen Erdi Aroan zehar. Bera zen, Erdi Arotik hasita, ardi-azienda gehien zeukana. Urtero milaka artile-zaku igortzen zituen Donostiako porturik Iparraldeko herrietara. XVI. mende-hasieran, 1512an, 50.000 kintal-artile, 250.000 dukatetan baloratua, eta 1610ean esportazio hori 180.000era igo zen. Zalantzarik ez da, beraz, Gaztelako erresumak interes ezkutaezinak zeuzkala ezarrita euskal kostaldeko portuen kontrolean.

Beste batzuek, hauen artean Anjel Rekaldek (2008), arazoaren sorrerara joanda, Gaztelako erregearen ekintza politikoari konkista militarraren kontzeptua aplikatzen dio, borondatezko entregarena eta Koroarekiko paktuarena ezetsiz edota gutxietsiz. Artean Nafarroako erresumakoak ziren Euskal Herriko mugak eraso zituela diote eta lurralde-zati handiak kendu zizkiola, jadanik aipatuak. Gasteizko gotorlekuak zortzi hilabetez –1199ko ekainaren 5etik 1200eko urtarrilaren bukaera arte–, eutsi zion erasoari errenditu

aurretik. Eta Gasteizkoa setiatua zeukan bitartean, Nafarroako beste gotorleku batzuk ere hartu zituen, defentsarik gabeko herriak ere bai, gauzak deseginez eta herritarren ondasunak harrapatuz. Gotorleku eta gaztelu guztiak indarrez hartuak izan ziren, batzuk erre egin zituzten eta beste batzuk errenditzera behartu zituzten. Indarrez hartutako gotorlekuen zerrenda luzea da: Beloaga (Oiartzun), Aizkorriz, Arluzea, Zaitegi, Marañon, Gasteiz, Auza-Gaztelu, Ataun, Aezorika, Irurita, San Bizente, Buradon Gatzaga[12], Alkazar, Kanpezu, Antoñana, Atauri, Portela Korteskoa, Donostia eta Hondarribia. Baina Trebiño eta Portilla Ibida-koa ez zuten eskuratu ahal izan. Garbi geratzen da, beraz, egiazko inbasio militarra egon zela Gaztelako erresumaren aldetik eta, konkista militarra planifikatzean, Alfonso VIII.ak oso ondo zekiela zein interes jakinengatik bereganatu nahi zituen euskal lurralde horiek. Interes ekonomiko-politikoak zeudela, eta horiek lortzeko indar militarra erabili zuela, ukaezina da, arestian aipatutakoa kontuan hartzen bada, behintzat: “Queda bastante a las claras que se trató de una incursión, una invasión militar en toda regla” (Rekalde, 2008). Bere ekonomiarentzat sarbide zuzena nahi zuen Europako Iparraldean eta horretarako pasabide naturala euskal kostaldea zen. Ezinbestekoa zuen, beste helburuen artean, hura bederen ziurtatzea.

Beraz, 1200. urtean, Gipuzkoa eta Araba armaz konkistatuak izan ziren. Ekintza militar hartan borondatezko entregarik ez zen izan. Baina konkistatuak izan eta gero –edo aldi berean Gipuzkoaren kasuan eta Arabaren kasuan, berriz, 1332ko apirilaren 2an–, Gaztelako Koroarekin paktatu zuten. Erregeak izan, lege foralen arabera, babesleak

ziren eta bertako erakunde nagusiek –Batzar Nagusiek–, erabakitzen zutena errespetatu behar zuten. Euskal foruak garai desberdinetan idatziak izan ziren Probintzia bakoitzean, baina funtsean antzeko edukia dutenak dira. Bizitza zibila, justizia, industria eta merkataritza arautzen dute. Eta euskal Probintziek beren nortasun juridiko eta instituzionala izan zuten Aro Moderno osoan zehar, Batzar Nagusiek eta Foru-Diputazioek kudeatzen zutena. Baina hemendik ondorioz ateratzea Gaztelako erresumari atxikirik egindako foralismo-aro luzean euskal lurraldeak –"historikoak" deituak–, egiazki "independenteak" izan bide zirela, subiranoak zentzu hertsian, gehiegi esatea delakoan gaude. Sabindar interpretazioak ez du oinarri historikorik.

Esandakoez gain, hirugarren irakurketa osagarri bat ere –hau zehaztuagoa–, egin behar delakoan gaude eta, zentzu honetan, ohar batzuk egitera pasatzen gara.

Hasteko, esan dezagun, historiografia berriak datu zehatzen bidez berretsi duen bezala, Gaztelak militarki konkistatu zituela Euskal Herriko hainbat gaztelu eta gotorleku. Egiazki, ukaezinezko datua da, konkista militar baten aurrean gaudela hitzaren zentzu hertsian. Eta Gasteizko hiria oldartu egiten da. Baina inbasio militar honetan jardun zuen bakarra ez zen izan Gaztelako Alfonso VIII.a, langintza berean ez baitzen atzean geratu Aragoiko Pedro II.a ere. Bien artean 40 gaztelu eskuratu zituzten, Gaztelakoak 24 eta Aragoikoak 16. Honek ere mauka ederra (Estella, 1979, 80). Beraz, azkeneko honen izena ere bestearen ondoan jarri beharrekoa da, euskal gatazkari buruzko ikuspegian Gaztelatik harago ere begiratu beharra baitago. Oinarrizko datua, historiografiak jasotzen duen lehena, da inguruko auzo-erresumak dabiltzala Nafarroako

erresumaren lurraldeak konkistatu nahirik. Alderdi hau da azpimarratu beharrekoa.

Konkista militarraren faktismoak, ordea, ez gaitu sobera itsutu behar orduko euskal politikan etxekoak, bertakoak, izan zuen jokabidea bere biluztasunean ez ikusteko. Eta hemendik doa gure bigarren oharra. Ez digu hainbeste axola Antso VII.a Azkarra zergatik joan zen Afrikara edo Andaluziara jakitea, emir baten alaba batekin ezkontzera joan bazen ez bazen, handik dirutza askorekin etorri bazen ez bazen. Hori guztia izan liteke zerbait kuriosoa. Baina hori baino askoz garrantzitsua da, hau ere historiografiak egiaztatua, Nafarroako erresuma arazoz gainezka zegoen unean desagertu zela bertatik, Euskal Herriaren lurralde-batasuna galtzeko arrisku biziarekin. Handik itzulitakoan, konkistatuak konkistatu, ez zen saiatu lurralde galduak berreskuratzen. J. L. Orella-k (I, 1977, 115) bi neurri hartu zituela dio. Lehena izan zen konkistatzaileek ezarri zioten mugari eustea, lehen lerroan jarriz Buradon, Toloño, Herrera, Toro, Marañon, Punikastro, Monjardin, Lana eta Orzorrozko gazteluak eta gero, barrualdean, zeudenak indartuz (San Bizente Sonsierrakoa, Laguardia, Labraza, Lizarra, Los Arkosekoa), eta hiri berriak sortuz, Inzura (1201) eta La Burunda (1208). Bigarrena izan zen nafar produktuak esportatzeko itsas-garraioa ziurtatzea eta, hori lortzeko, Antso VII.a. Azkarrak hitzarmen bat izenpetu zuen Ingalaterrako Joan Lurgabearekin 1201ean, Nafarroako itsas-portu bezala Baionakoa finkatuz. Beraz, Antso VII.a Azkarrak amore ematen du konkistatutako lurraldearen aurrean. Nafarroarentzat Baionako portua halabeharrez gertatzen da itsasorako pasabide, Nafarroako erresumak XII. mende-hasieran

sortutako Donostiakoaz Gaztela jabetzen delako, hain zuzen.

Hirugarren oharra da, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gaztelako erregearekin egindako borondatezko paktuaz eta euskal estatuen subiranotasunaz egiten den irakurketa foralistak sostengu soziohistorikorik ez duela, azken batean, Batzar Nagusietako goi-elitekoak baitira Gaztelako erresumarekin trikimaina politikoak gauzatzen dituztenak garaian garaiko interesen arabera, beti ere Gaztelako erresumaren barruan arituz. Foralismoak ez du lortzen estatu monarkikoaren mugak gainditzea.

Laugarrena da, orduko gertaerak gaurko begiekin irakurtzeko joera daukagula eta, horrelakoetan, ikuspegi ideologikoa nagusitzen zaiola zientifikoari. Garai haietan, Nafarroako erresuman bezala besteetan, erregea zen dena, berak nahi bezala erabiltzen zituen herriak, lurrak, jendeak, bere jabetza pribatuko gauzak bailiran. Jabetza berriak lortzea izaten zen haien xede nagusia. Nolanahi: herentziaz eta ezkontza bidez eta, ez gutxitan, konkista militarrez. Hala zabaldu zituen Nafarroako Antso Gartzes III.a Nagusiak bere erresumako mugak, euskal lurraldetik haratago zihoazenak. Banatu ere, bere jabetzako gauzak bailiran, banatu zituen bere semeen artean.

Bosgarren oharrak hiztegiarekin du zerikusia edo, zuzenago, kontzeptuen esanahiarekin. Nafarroako erresumaz hitz egitean, “estatuaz” hitz egiten da, adjektibo desberdinak erantsiz. “Estados cristianos del Medievo”, dio J-L. Orella Unzuek (2008); Bernardino de Estellak, orobat, etengabe Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko antolaketa politikoei “estados” deitzen die. Berrikitan Nabarraldekoek ere Nafarroako erresuma estatuaren sinonimotzat erabiltzen

dute. Eta abar. Ederki, erresumak subiranotasunaren edukia adierazten duen heinean. Baina estatu “monarkiko”tik “moderno”ra dagoen aldea, esan dezakegu erabatekoa dela, bereziki, bere eskumeneko lurraldea erabili eta zatitzeko eraz, lurralde berriak bereganatzeko eraz. Azken batean, erregeak zatitu, bereak bailiran zatitzen zituen lurraldeak, Nafarroako Antso III.a Gartzes Nagusiak egin bezala.

Nolanahi ere, euskal Probintziak Nafarroako erresumatik aldentzeak ondorio txarrak ekarri zituen. Eta txarrena, zalantzarik gabe, desegin egin zela maila politikoan lehen aldiz lortutako euskal lurraldearen batasuna eta lurraldezatiketa horrek oraindik ere oraingo euskal politika baldintzatzen jarraitzen duela. Batasun hura hizkuntza bereko jendez osatua zen, eta ezaugarri hori funtsezko elementua da estaturik gabeko nazio etnikoaren osaketan. Azken ohar hau ere garrantzitsua da. Bernardino Lizarrakoak arrazoi du esatean, estatu monarkikoak –deitu erresumak– eraiki ziren garai hartan, estatu modernoari egotzi ohi zaion kontzientzia nazionalik ez zela ematen eta erregeek nolanahi zatitzen eta deszatitzen zituztela lurraldeak, lurraldetasunari jaramon handirik egin gabe, eta garaian garaiko interesen arabera jokatzen zutela. Hori hala gertatzen zen herriak beren jabetza pribatukotzat zeuzkatelako. Ondasun partikularrak bailiran handitzen, zatitzen, banatzen zituzten. Beraz, garai hartako erresumaz hitz egitean, ezin da hitz egin egun estatuek duten zentzu berean, zeinaren atzean naziotasunaren eta lurraldearen kontzeptuak elkarturik baitatoz.

Honen guztiaren ondorioa bistakoa da: Gipuzkoako klase zuzendariarentzat, Gaztelako politikan txertatu eta gero, honen interesak izango dira bertako politika gidatuko

dutenak eta hara begira jarriko da orduko intelligentsia euskalduna, hango Koroaren zerbitzura. Gipuzkoako noblezia Gaztelako koroan ederki integratuta aurkituko da ondoko mendeetan.

Berastegitik abiatu eta, txango luze samarra egin dugu, Nafarroako erresumatik Gaztelakora egindako joanean. Baina ahalegin honetan ez zaigu iruditzen dena debaldekoa izan denik. Izan ere, ikuspegi orokor hau gabe, zaila izanen da Gipuzkoaren eta Berastegiren bilakabide historikoa bere erroetan ulertzea. Ondoko ataletan ikusten joango garenez, Berastegi herria, hasiera-hasieratik, muga-herri izaki, beren artean anaiak diren auzo-herriekin etengabeko liskarretan murgilduta agertzen zaigu eta, berebat, bertako jauntxo oinaztarrek zuzenean parte hartuko dute Nafarroaren kontrako borrokan Gaztelaren bandera altxatuz, Beotibarko zelaian eta gero Belatekoan, bere lekuan azalduko dugun bezala.

Nafarroako erresuma-enborretik askatu eta erresuma arrotzean integratzean, bada, areagotu baino ez dira egingo bi erresumen arteko muga-arazoak. Gipuzkoarren eta nafarraren arteko muga-gatazkak benetan gogorrak izan ziren, anaien arteko odoletan bustiak.

# III

## Gaztela mugarri (XIII-XVI)

Eta gatazkagune. Berastegi herriaren historia, beste askorena bezala, gatazkaren historia izan da. Guk ezagutzen dugun herri honek aspaldiko urak dakartza, ez beti mantsoak, eta bai askotan odoltsuak ere. Egun esaten da, euskal curriculumaz hitz egitean, testuinguru partikularretik abiatu behar dela unibertso zabalagoa ezagutzeko. Guri ez ziguten horrelakorik erakutsi, ez elizan ez eskolan, ez inon. Nire sorterriaz ez nekien gauza handirik, batere ez esango banu, agian, egia absolutua esango nuke. Doi-doi nekien Nafarroatik Areso eta Leitza zituela mugakide, eta Gipuzkoatik Elduain, Orexa eta Gaztelu. Eta Eldua Berastegiko auzoa zela, elizaz Elduaingoa.

Berastegi herria Gipuzkoaren historian sartzen bada, izadiak debalde emandako lur-emari oparoz eta aparteko edertasunez jantzi duelako sartzen da eta, batez ere, jauntxo gutxi batzuen interes kontrajarriek bertako lurra eta ingurukoa anaien arteko odol-isurketaz behin eta berriz bustita utzi izan dutelako. Eta baita, horrekin batera, Alfonso

VIII.ak Gipuzkoako Probintzia anexionatuz gero, Nafarroako lurraldearekin Gipuzkoa eta Araban egiazko muga ezarri zuelako ere. Muga politiko eta ekonomiko bezala funtzionatzen zuen, mugaz haraindiko larreak, merkatal trafikoa eta zergak ordaintzeko lekuak arautuz (Intxausti, 2007a, 90). Baina, bi erresumen arteko harremanak gaiztotuak zeudenez, muga-herri horiek guztiz militartuak aurkitzen ziren, beren gaztelu eta jende armatuarekin, tartean interes kontrajarriak zituzten bandokideen arteko gatazkak zeudelarik. Eta egoera oraindik gehiago larriagotzera zetorren beste gizarte-faktore bat, goseteak bazter utzitako "gaizkileak" deituek osatzen zutena zen. Justiziari ihes egiteko erabiltzen zuten taktika, ezaguna zen: lapurretak, kontrabandoak, erreketak eta beste azio-mota batzuk egin eta gero, mugaz bestaldean ostendu. Muga-herrien gatazka-egoera larri hura Gaztelak Nafarroako erresuma konkistatuko duenean, 1512an, arinduko da, baina ez da desagertuko erabat (Intxausti, 2007a, 90-91).

Nolanahi ere, esan beharrik ez dago, orduko erresumamuga eta estatu modernoek ezarritakoa ez dira berdinak, ez edukiaren ez funtzionamenduaren aldetik, estatuari lurraldetasuna oinarrizko elementua baitzaio. Estatu bakoitzak, egungo testuinguru globalizatuan ere, bere lurraldea arras mugatua du.

## 1. Berastegi, gaizkileen muga-herri

Gaztelako erregeak, muga-herriak zaintzeko, leku estrategikoak hautatu zituen hiru Probintzietan. Eta geroztik mugen arteko arazoak etengabekoak izango dira. Ez bakarrik Berastegik ditu bere arazoak Nafarroako auzokoekin,

beste herri asko ere muga-gerran murgilduta agertzen dira: Araban Legutio eta Zuia Bizkaiko Otxandiorekin, Bizkaiko Markina, Erkuna eta Elorrio Gipuzkoakoekin, Gipuzkoan Arrasate eta Leintz Gatzaga Arabakoekin, Gipuzkoan Hernani eta Errenteria Nafarroakoekin eta Frantziakoekin.

Nafarroa eta Gipuzkoako muga-herrietan gertatzen diren gatazketan, gaizkileak ia beti nafarrak agertzen dira, hauek omen zirikatzaile eta erasotzaileak. Berastegik Nafarroako herri-auzoekin izandako istiluetan ere, iduriz, halatsu gertatzen da. Herritarrek horregatik hartzen dute babesle bezala bertako jauntxoa, haien erasoetatik gerizatuak izan daitezen. Nafarroako Kontuetako Artxiboan zonalde honetan gertatutako ganadu-lapurretari buruzko albiste asko aurkitzen da eta Arturo Kanpionek laburbilduta ematen ditu 1298-1332 urte bitartekoak[13]. Mugako bandolerismoa da nagusitzen dena, eta horixe da artzain-ekonomian oinarritutako gizarte-mota gehienik islatzen duena, zeinetan ugari ematen baitira ganadu-lapurretak –bereziki, behi, idi eta ardienak–, etxe-erreketak eta sagasti-mozketak. Eta abereak lapurtu, ez gutxi, gainera, azienda-talde handiak baizik: hirurehun behi, bostehun ardi, eta horrela (Kanpion, VI, 1969, 311).

Horrelako gaiztakerien albisteak ia etengabeak dira XIII. mende-bukaeratik aurrera eta horiek egiten dituztenak “malhechor y banido” (Kanpion, V, 1969, 199), “ladrón probado, encubridor de los hurtos de la tierra y foradador de casas”, “ladrones y robadores pésimos”, “banidos y robadores” (Kanpion, VI, 1969, 153-155), eta gisa horretako hitzak erabiltzen ditu kronistak haien portaera kalifikatzeko orduan. Gipuzkoako abere-lapur hauek Oinaztarren bandokoekin berdintzen dira; mugaz bestaldekoak,

berriz, nafarrekin. Nolanahi ere, esan behar da bazirela bidelapur profesionalak ere, gaur esango genukeen bezala, hartara jarriak, alegia, eta hauek noiz nafarrentzat noiz gipuzkoarrentzat egiten zutela beren lana. Kontua da, oro har, muga-herrietan lapurretatik bizi zen mota askotako jendea babesten zela: lapur publikoak, ihes egindako kriminalak, auziengatik ihes egindakoak, desobedientziagatik, istiluengatik eta beste delitu politikoengatik zigortuak, eta horrelakoak. Labur esanda, gizarteak arrazoi soziopolitiko eta ekonomikoengatik –hauengatik bereziki–, baztertuta zeuzkanak. Ezin bizia zen nagusi garai hartan. Nekazaritzak ez zuen behar beste ematen, ezta merkataritzak ere, industriarik ez zen. Ahora zer emanik ez-eta, lapurretara jotzen zuen jende honek, ardikia edo behikia lortzera, hori baitzen orduko aberastasun nagusia (Kanpion, VI, 1969, 315).

Bestalde, muga-herrietan gertatzen diren aberelapurretak eta ondasunen ekintza suntsitzaileak –eta alderdi hau oso gogoan hartzekoa da–, Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko gatazka historikoen ondorio zuzena bailiran aurkezten ziren, horrela mozorrotuta, bi erresumakoak gerran sartuta baleude bezala, muga hark bi nazio desberdinetakoak –batetik, nafarrak eta, bestetik, Gaztelako gipuzkoarrak–, zatituko balitu bezala, tartean, noski, alde bietatik euskaldunak egonda. Naziotasun-etsaigo horren aurpegia nabarmentzen zuten, unean uneko interesen arabera, beren arteko harremanak gaiztotuta zeudenean.

Historiografian alderdi hori ez bada sobera azpimarratzen ere, ez zen beti horrela izaten. Bi erresuma horien artean bake giroa ematen zenean, zegoen anarkia gainditzeko neurriak hartzen ahalegindu ziren. Diogunaz jabe-

tzeko, urrutira joan beharrik ez daukagu, bi erresumetako ordezkariak Uli mendian[14] elkartu baitziren 1298ko ekainean: Gaztelako errege Fernandoren aldetik, Juan Alfonso Carrieillo, Pelegrin de Limoges eta Juan García de Logroño, eta Nafarroako gobernadorearen aldetik, berriz, Martin Ibañes Uriz, Yenego Lopez de Lerruz eta Roldan Perez de Eransus. Elkarteratze haren xedea hauxe baino ez zen: Nafarroa eta Gaztelako erresumek garai batetik hona beren artean egindako okerrak zuzentzea edo, jatorrizko bertsioan esanda, 'facer las emiendas de las mal fetrias que son fechas entre los Regnos de Navarra y de Castieila de una parte á la otra" (Kanpion, V, 1969, 198). Bi alderdiek behin baino gehiagotan agertzen dute egoera gaiztotu hura baketzen joateko asmoa eta, horretarako, akordu horien kontra doazenak gogorki zigortzeko erabakia ere hartzen dute. Gaztelakoek esan zuten, zin egin, Gipuzkoan atxilotutako nafarrak hango Gobernadoreari igorriak izanen zirela. Eta hori lortzen ez bazen, erresumatik botako zituztela eta haiei beren etxeetan hartu eta jaten ematen zietenei sagastiak moztuko zizkietela. Era berean, Gipuzkoako gaizkileak emendatzen ez baziren, etxeak erre eta sagastiak moztuko zizkietela, Gaztelako erresumatik ohilduak izanen zirela eta atxilotuak, berriz, epaituak. Antzeko zina egin zuten Nafarroako ordezkariek ere (Kanpion, V, 1969, 198-199).

Bilera horiek askotan egin bide zituzten Ulin, Arturo Kanpionek zein zen edo non zegoen ez zekien leku horretan. Izanda hain leku estrategikoa –Nafarroa eta Gipuzkoa mendiz mugatzen zituena, hain zuzen–, ez da zentzugabea pentsatzea han eraikinen bat izan zitekeela. Jakin badakigu, bestalde, Pablo Gorosabelen (1972, 198-199; V,

1900, 42-43) bidez, Gaztelun lehen aspaldian ba omen zela gazteluren bat, beren gaztelua Gorritin zeukaten nafarren erasoei aurre egiteko eraikia izan omen zena. Herriak izena ere hortik hartu bide zuen. Bere garaian haren aztarnak agerian omen zeudela ere badio, non kokatua zegoen ere bai: "Este castillo, cuyas ruinas se descubren todavía, existió en la cima del monte del lugar de la misma denominación fronterizo a la provincia de Navarra" (Gorosabel, V, 1900, 42). Baina non zegoen zehaztasunez jakiteko argibiderik ez du ematen. Ignacio Maria Carrion-en ustea da –Gorosabelen datu horretan oinarrituta, hain zuzen–, Irumugarrietan izan zen dorretxe hartatik etor zekiokeela Gaztelu herriari egun daraman izen hori. Esanak esan, usteak uste, oraingoz bederen ez Irumugarrietan ez Gaztelun aurkitu da ustezko dorretxe horren aztarnarik[15].

Ulin egindako bilera haietan hasitako adostasunaren aldeko ekimen hura, antza, Ermandadeak Ahaide Nagusien kontra eramandako borrokan gauzatu zen, Alfonso XI.aren denboran, XIV. mende-hasieran, Gipuzkoa eta Nafarroan. Izan zuten, beraz, beren garrantzia (Carrion, 1975, 63-64).

Uliko lehen erreferentzia, beraz, ustezko gazteluarena da. Askoz geroagokoa da paraje berean eraikitako mikeleteen egoitzarena, hirugarren liburukian azalduko duguna.

*Orixe eta bere garaia* liburuan, idazle honen umetako urratsei jarraiki, Uitzitik Orexarako ibilaldia deskribatzean, pasarte batean Uli herritarrontzat leku mitikoa zela esaten dut. Guk umetan bederen halakotzat jaso genuen geure aurrekoengandik. Geroztik egindako irakurketek erakutsi didate historia zaharra duela eta, gainera, mota askotakoa. Mende askotan zehar Lekunberri eta Gorritin barna mendiz mendi zetozen nafarrentzat ezinbesteko pasabideetako

bat izan zen, batez ere, Tolosaldera zetozenentzat. Hango mendi-lepotik pasatzen ziren, belaunez belaun, merkatari-garraioak eta gerrako osteak, bereziki, Gipuzkoa Nafarroako erresumatik aldendu zenean 1200. urtean.

“Uliko etxea” deitzen genion eraikin hura erdi-jautsirik ezagutu genuen eta doi-doi genekien mikelete-etxea izan zela. Bertan gerra aurrean bi mikelete izaten ziren eta gero horiek joatean, basozain bat jarri zen bizitzen, Zegamako Gumersindo Azurmendi, bere familia, azienda eta oiloekin. Eta tabernarekin, edo antzeko zerbaitekin. Herriko zaharrek gogoratzen dute hango basozainaren familiakoak zein dotore jantzita jaisten ziren herrira abere-gainean jarrita, Izotzaldetik pasatzean, auzokoak inbidiatan geratzeraino dotore.

Garai haietan, urrutiko paraje hark orain ez bezalako xarma zuen. Eta bizitza. Gerra aurreko belaunaldikoek erromes-leku atsegingarri bezala ezagutu zuten, ez orain bezala basoz inguratua, dena lurmendi gizen eta garbi baizik. Inguruetako gazteak sarritan elkartzen omen ziren han musikaren gozora, igande eta jai-egunetan, bereziki. Herri-tradiziotik iritsi zaigu horren berri. Testu zaharrak irakurriz, berriz, ikasi dugu paraje horrek historia askoz zaharragoa duela eta hango dorretxea herriaren sorrerarekin berarekin bateratsu datorrela. Eta lehena berreskuratzeak, noski, edertu baino ez du egiten herriaren historia.

Uli mendiari bere historia, batez ere, Nafarroarekiko muga-leku estrategikoa izatetik datorkio. Baina bada, aldi berean, leku mitologikoa ere, herri-tradizioari atxikirik datorrena. Honela, 1575ean, Iruñeko Gorteak mandatari bat bidali zuen ikerketa batzuk egin zitzan Larraungo haranean omen zeuden sorginez. Guztira 44 lagun izan

ziren salatuak, horien artean ume asko zeudelarik. Miatzen lehena Uli mendizerrako haitzuloa izan zen eta, esaten zenez, han elkartzen omen ziren sorginak. Miaketa hark, ordea, ez zuen emaitza zehatzik eman eta mandatariak ez zituen idatziz jaso salatuen deklarazioak[16]. Oraindik ez da agertu ustezko haitzulo hori Uliko partean.

Lehentxeago Carrion-ek Uliko gazteluaz egiten duen iradokizunari jarraiki, oraindik urrutirago joanda, galde genezake, “uli=hiri” etimologiak berak iradoki dezakeenez, ea hor edo inguruetan ez ote zen erromatarren aurreko kokalekuren bat egongo, orduan ohi zen bezala leku garaietan. Berastegiko zein Donostiako Uli toponimiak hipotesi horretarako bide eman lezake. Euskal herrietan ere badira “uli” erroa daramaten herri-izenak: Bilbon Ulibarri auzoa, Nafarroako Eritzegoitin Uli auzoa, Araban Urizaharra.

Mugako gaizkile armatuen kontra Uli mendian hartutako alde bietako erabakiez ari baikara, gatozen menditik herriko zelai-erdian dagoen Jaundegira, garai haietan dorretxe izandakora, hemen zer gertatzen zen jakitera.

Ulin alde bietako ordezkariek hartutako erabakien ondotik, muga-herrietan justizia ezarri nahita, zorrotz hasi ziren talde armatu ofizialak gaizkileen atzetik segi. Talde handitan antolatuak zeuden, gehienetan ehundik gorako peoirekin. Harrapatzen zituztenean, ez pentsa gero motz geratzen zirenik. Begiramendu handirik gabe, erraz samar garbitzen zituzten. “Urkatua” da testuetan sarrienik agertzen den hitza: “y ahorcó”, “y mató” (Kanpion, V, 1969, 199), “fue muerto”, “le prendió y ahorcó”, “fue colgado”, “fue preso y le ajustició” (Kanpion, VI, 1969, 153; 311-313).

Ustekabean egindako ekintzak izaten ziren, gauez burutuak ilunaren anparoan, eta gero muga-inguruetako

gazteluetan ezkutatzen ziren. Pentsatu izan da “gaizkile” izendatzen ziren horiek herrietako baserritar xumeak izaten zirela. Baziren horrelakoak ere, goseak hartaratuak. Baina, askotan, gazteluetan babesten ziren jende xumearen ustezko zaintzaile armatua genuen horrelako jendilajea. Gipuzkoakoak Oinaztarren bandokoekin elkartuta zeuden eta hauen kuartel nagusia Amasakoa zen (Kanpion, VI, 1969, 316). Oinaztarrak izan ziren, adibidez, 1312an Uitziko auzotarrei ehun urteko bakea izanen zutela hitz eman zietenak (Kanpion, VI, 1969, 155). Halere, Ermandadeak ere parte hartzen zuen, esaten baita Gipuzkoako Ermandadeak inguratuta zeukala Leitzako dorretxea 1319an, artean egurrezkoa zena (Kanpion, VI, 1969, 314).



Leitzan bi dorre egon ziren: lehenengoa, egurrezkoa, herritik kanpora, 1200. urte-inguruan eraikia eta bigarrena, harrizkoa, haren ordez herritan bertan, Udalaren aurrean, egina 1346an. Irudian dorre biak (Sagredo, 2006, 334)

Gaizkileen eta hauen pertsegitzaileen mundu hau, bada, uste izan den baino nahasiagoa da, nahiz eta, kanpora gehien agertzen dena –eta seguru asko halaxe izanen da–, gipuzkoarren eta nafarren arteko ezinikusiarena izan eta tirabira horretan protagonista nagusiak bandotan antolatuta zeuden alde bietako dorretxeetako jauntxoak izan. Berastegiko jauntxoak behintzat guztiz murgilduta aurkitzen ziren muga-gatazka hauetan.

Eta Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga, Berastegitik hasi eta Otzaurteraino, jauntxoen gaztelu eta dorretxez josita zegoen XIV. mendean. Nafarroan hainbat ziren: Eratsungo Lope Aznariz jauntxoarena (Kanpion, VI, 1969, 154), Leitzakoa eta Gorritikoa (Kanpion, VI, 1969, 314-319). Azkeneko honetan gordetzen zituzten, hain zuzen, beren sorbaldak Nafarroako merinoek. Zeukan kokapen geografikoarengatik, 824 metroko altueratik inguruko bailara guztia bistatzen baitzen, hura zen hango gaztelurik garrantzitsuena. Gotorleku honi buruzko lehen datuak 1315ean dokumentatzen dira. Harrizko hormak zituen; etxebizitzak eta jauregia, aldiz, zurezkoak. Oinplano triangeluarra zuen, luzeran 40 eta zabalerarik handienean 30 metrokoa. Beti egon zen jende armatua bertan. Zenbat? Dokumentuetan egiaztatuak, 1429an 50 lantzari eta baleztari; 1450ean 10 lagun baino ez ziren aurkitzen hura zaintzen (Sagredo, 2006, 326-329).



Gorritiko gazteluaren diseinua da hau. Ordukotik harresi-hondar batzuk baino ez dira geratzen orain Santa Barbara ermita aurkitzen da leku berean (Sagredo, 2006, 331)

Gipuzkoako muga-herrietan ez zeuden gaztelu gutxiago. Kanpionekin (VI, 1969, 153; 311-312) esateko, besteen artean, Ataun, Amezketa eta Berastegin. Eta Zegamako San Adrianen, azken indusketek agerian jarri duten bezala.

Uliko hitzarmena egin eta gero, gaizkileen ehiza hasi zen alde bietan edo, zuzenago esanda, bando armatuen artekoa. Berastegi, muga-herri izanda eta, gainera, bere gotorlekua zuena, gatazken bihotzean egon zen sartuta. Honela, 1300. urtean, Iruñeko Martin Martiniz merinoak

jakin zuelarik Gipuzkoako bidelapurrak "Blastegi"n elkartuta zeudela Nafarroan lapurreta egiteko, ehun eta berrogei peoirekin han agertu zen eta haiekin sekulako borroka izan zuen, bere taldeko hiru zaurituak gertatu zirelarik. Leitzara erretiratu behar izan zuen gipuzkoarrek laguntza handiak hartu zituztelako (Kanpion, VI, 1969, 153-154). Ustel atera zitzaion nafarrari kolpea.

Geroxeago ere, Berastegiko mendiek bidelapurren pasabide izanez segituko dute. Honela, 1319an, Juan Lopiz Urrokoa Iruñeko merinoa zelarik, esan zioten gipuzkoarrek Leitza eta Aresoko ganadu guztia hartuta zeramatela. Sei zaldizkorekin eta oinezko berrehun gizonekin abiatuta, Ulin atzeman zituzten lapurrak eta ganadua berreskuratu ahal izan zuten. Ekintza honetan, gutxienez hamar gipuzkoar hil omen ziren eta merinoaren taldetik, berriz, bi: Sanzol "Urkiolakoa", bidezko hogei gizonen kaboa zena, eta Semen Ibañez Lekunberrikoa (Kanpion, VI, 1969, 314). Pasarte honetan Uli aipatzen baita, badirudi paraje hori, ganaduen pasabide ezaguna izateaz gain, zerbait gehiago ere izanen zela, edo izan zitekeela, lehentxeago iradoki bezala.

## 2. Berastegiren erreketa eta Beotibarko segada (1321)

Nafarren eta gipuzkoarren arteko gatazka-giroa islatzen duen eta "Beotibarko bataila" bezala ezagutzen den nafarren eta gipuzkoarren arteko pasadizo historiko hau, gudu bat baino gehiago, muga-inguruetako gatazka-giroa ondo islatzen duen gertakari bat da, bat gehiago beste askoren artean. Hori, bai, geroago zehaztuko dugunez, nazioarteko dimentsioa hartuko du.

Aipatzen gatozen testuinguru horretan kokatzen da Beotibarko bataila, 1321ean gertatua.

Historiografiak Gorritiko gazteluaren okupazioa eta Berastegi herriaren erretzea ezartzen ditu gertakarien hasieran. Egia da, nafarrek eginak zituzten beren erasoak Gipuzkoan, eta alderantziz. Nafarrek ez zeukaten ahaztuta zortzi urte lehenago Berastegiko gazteluan elkartutako indar gipuzkoarrak atera zirela garaile. Orain berriz, 1321ean, Gorritiko gaztelua okupatzen dute, uste denez, Oinaztarrek eta mugako gaizkileek, merinoen boterea ahultzeko. Baina ez denbora luzez. Izan ere, Nafarroako gobernadoreak berehala antolatu zuen Gorritiko gaztelua berreskuratzeko ostea, hura baitzen gipuzkoarren erasoaldiei eusten ziena. Esan behar da Gipuzkoako mugako gazteluak bi edo, kasu batzuetan, hiru alkateren ardurapean aurkitzen zirela (Kanpion, VI, 1969, 325).

Zergatik zuen horrelako garrantzia Gorritiko gazteluak? Zergatik tematu ziren hainbeste Gipuzkoako jauntxoak hura beretzen? Nagusitu izan den bertsioa da, errudunak, azken batean, nafarrak izan zirela. Gipuzkoako muga-herriek, Gaztelarekin elkartuz geroztik, kalte handiak jasaten omen zituzten nafarren aldetik. Nafarrek Gorroti eta Lekunberriko[17] gazteluak erabiltzen omen zituzten Gipuzkoan arpilatzeak eta hondamenak egin eta bertan babesteko. Horien artean, kaltetuenak Berastegi eta inguruko auzo-herriak izaten ziren. Erasotzaileak beren azioak egin eta gero, gotorleku horietan babesten baitziren, bereziki Gorritikoan, gipuzkoarrak amorratzen omen zeuden noiz horiek desegingo. Bestalde, banandu aurretik Gorritiko gaztelu hori Gipuzkoakoa izana zela eta, gipuzkoarrek kendua izan zitzaiena berritzultzeko eskabidea egin omen

zioten Nafarroako erregeordeari eta honek, harropuzkeriaz beteta, irainduz eta mesprezuz erantzun omen zien. Lehengoaz gain, elkarren arteko gorrotoa areagotzeko aitzakia bat gehiago. Gipuzkoarrek, gertakari hauen aurrean minduta, gaztelua hartu eta suntsitu egin zuten, nafarrek aurrerantzean gaztelu hartaz balia ez zitezen. Oso denbora gutxian, gainera, lortu zuten beren aspaldiko asmoa. Ordu eta erdian lepoa moztuta utzi zituzten gaztelua zaintzen zuten guztiak, hori zein datatan gertatu zen zehaztu gabe.

Esaten da, orobat, nafarrek arpilatze-lanetan jardun zuten bitarte horretan, gipuzkoarrek azkar asko 800 gizonezko armada txiki bat antolatu zutela, Tolosako eta honen eskumeneko herrietako arma-gizonez osatua, eta Amasako Larrea oinetxeko Gil Lopez Oinazkoa buruzagi zela, ohiko estrategiaren arabera, Beotibarko parajea babesten duten mendietan kokatu zirela, han behetik noiz pasatuko zain zelatan jarrita. Nafarrak erreka-ondoko bidetik pasatzen zihoazen eran, aldez aurretik prestatuak zeuzkaten harri-puska handiak pirritan botatzen hasi omen ziren eta sekulako anabasa sortu omen zen nafarren armadan. Batzuek, noraezean, ihesari eman zioten, beste batzuk hilak gertatu ziren, hauen artean hainbat arma-gizon garrantzitsu[18]. Hildakoak asko izan ziren, atxilotuak gehiago.

“Beotibarko zelaia” izenez ezagutzen den paraje hau, Tolosatik Berastegirako bidean kokatzen da, Ibarra gurutzatu eta handik bi kilometrora-edo, Berrobira baino lehentxeago, Belauntzako lurretan. Hala deituriko baserriak ematen dio izena leku honi. Data ere ematen da. Uste denez, 1321eko irailaren 19an gertatu bide zen eta horren berri geroagokoak izan behar duten eta Garibai, Zaldibia eta Isastik jasotzen dituzten bertso-kantu batzuetan ematen da, ahozko

tradiziotik hartuta. XIX. mendekoak dira Klaudio Otaegik eta Juan Karlos Gerrak *Euskalerriaren alde* aldizkarian 1925ean argitaratutako bertsoak, musikatuak izan direnak.

Baina kontatu izan den bezala gertatu al zen? Hain garrantzi handikoa izan al zen borroka hura? Egia al da erasoan Berastegi erre eta aurrera egin zutela? Baina noranzko bidean, eta nondik? Galdera hauei erantzuteko azken-hitzik ez bada ere, argi-argi emana izan zaiguna eta guk zozo-zozo jaso duguna zerbait argitzerik badelakoan sartuko gara gaian.

Hasteko, esan behar da euskal gaztelaniatuen historiografia aski hanpatua dela. Eta zer esanik ez, espainola. Batez ere, eskola honek gertakari hartaz ematen duen interpretazioan xede historikoari politikoa nagusitzen zaio. Orreagakoa nafarrentzat garaipen-ikur nagusitzat hartzen den bezala, berdin Covadongakoa asturiarrentzat, Beotibarkoak gipuzkoarrek, Gaztelan sartuz geroztik, nafarren gain lortutako garaipena islatuko luke. Ahapaldi honek ere irakurketa hau egitera eramango gintuzke: "Mila urte ygarota / Ura vere videan. / Guipuzkoarroc sartu dira / Gazteluko echean, / Nafarroquin batu dira / Beotibarren pelean" (Mitxelena, 1990, 66).

Bide horretatik joan dira gertakari hartaz eman izan diren interpretazio klasiko gehienak. Historiografia espainolean kokatzen diren obren zerrenda benetan luzea da eta horien egile gehienak –eta nagusiak–, harrigarria badirudi ere, euskaldunak dira. Hor sartzekoak dira, besteak beste, Zaldibia batxilerraren *Suma de las cosas cantábricas guipuzcoanas* (1564), Esteban de Garibairen *Compendio Historial de las Crónicas* (Libro 26, cap. 15, 1571), Gabriel Henaoren *Averigüaciones de las Antigüedades de Cantabria* (1637),

Lope Martinez de Isastiren *Compendio Historial de Guipúzcoa* (Libro II, cap. VII, 1985, 293-308), Jerónimo de Zuritaren *Anales de Aragón* (Libro 7, cap. 24, 1562-1580), Juan de Mariana jesuitaren *Historia General de España* (Libro 15, cap. 17, 1601), Baltasar Etxaberen *Discursos sobre la antigüedad de la lengua cántabra vascongada* (Mexiko, 1607), Pablo Gorosabelen *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa* (cap. XV, 269-270, 1853), eta gehiago.

Gertakari honek oihartzun handia izan zuen historiografia garaikidean eta Espainiako Alfonso XI.aren erregealdiko aintzak kantatzen dituen lau txikiko poeman ematen da horren berri, eta bada Orreagako batailaren bertsio epikoarekin antzekotasun handia hartzen dionik ere (Yannes, 1952, 479).

Baina hala izan al zen? Eta hori baino lehen, Berastegik zer ikusirik ba al du Beotibarko guda horrekin, kontakizunean haren erreketa aipatzen baita? Guganaino iritsi den historiografiak zer du egiatik, sinesgarritasunetik, zenbat fantasiatik?

Kontakizunaren iturrian Tolosako Zaldibia batxilerraren bertsioa baitago, hemendik hasiko gara historiografiaren hariari puntatik heltzen. Karmelo Etxegarai jauna, Gipuzkoako Diputazioko artxibozaina, harritu egiten da, hasteko, Tolosako Artxibo Probintzialean eta Udaletxekoan hartaz ezer ez datorrelako. Bestalde, uste zuen Beotibarko segadaz idazten lehena Zaldibia batxilerra izan zela bere *Suma de las cosas cantábricas guipuzcoanas* liburuan (1564). Uste okerra, ordea, Nafarroako Kontuetan bazetorren-eta. Badirudi, hala uste dute bederen Kanpionek eta Etxegaraik, Esteban Garibai arrasatearra izan zela Espainiako historia

orokorrean sartu zituena Zaldibiaren berriak bere *Compendio historial*-ean (1571), eta honen bidez iritsi zirela Baltasar Etxaberengana eta honek bere *Discursos sobre la antigüedad de la lengua cántabra vascongada* liburuan (Mexiko, 1609) biziki aupatu zuela Beotibarko bataila.

Zabaldu izan zen bertsio ofizialaren iturrian, bada, Zaldibia batxilerrarena aurkitzen da, inoiz argitaratu ez zena, baina geroztik egile gehienek –gaztelaniatuek, jakina–, aipatzen dutena. Haren eskuizkribuaren kopia bat baino ez da aurkitzen Vargas Ponce-ren bilduman, eta beste bat edo bi Britisch Museum-en. Iturri hori kontuan hartu beharrekoa da, aita Henao jesuitak esaten baitu bere *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*-n (1689), Beotibarkoa azaldu ondoren, bataila hartaz luze datorrela Garesko elizako liburu batean eta hangotik ateratako kopia gordetzen dela Gipuzkoako Artxibo nagusian, historia zaharrez diharduen eskuizkribu batean. Berak dioenez, Zaldibia batxilerrak kopia hura erabili omen zuen, Garibairi ere berak erakutsi omen zion, eta hauen bidez heldu omen zen Etxabe, Mariana eta Francisco Garcia-rengana. Kanpionek dakarrenez, ordea, Garesko elizako liburu horren jatorria erabat zalantzazkoa da. Ez titulurik dakar, ez zertaz diharduen azaltzen da (Kanpion, VII, 1969, 110-111). Areago oraindik, Gipuzkoako Artxiboan omen zegoen –inoiz egon bazen–, kopia hori ere desagertua da. Esan bezala, beraz, iturri bakarra Zaldibiaren delako kopia hori da.

Baina zer dio Zaldibiak bere eskuizkribu horretan? Batere beharrik gabe, sarrera gisa, asko luzatzen da Gaztelako erresumaren aldeko apologia egiten, ziurtasunez baieztatuz Gipuzkoa Nafarroatik aldentzean, bere betiko senera itzuli zela, sorrera eman zion sabelera, alegia, eta Gaztelako

erregea Gipuzkoak borondate osoz hartu zuela bere errege bezala. Nafarrak, hain zuzen, horrexegatik zeudela erabat minduta eta haserre, eta min egitearren sartzen zirela Gipuzkoan, bertan heriotzak eta lapurretak eginez. Gipuzkoak, berari egindako bidegabekeria eta kalteen ordainetan, Nafarroan sartu eta Gorritiko gaztelua inguratu zuen, han barruan zeudenak hilez. Gaztelu hura zen nafarrek ondoen kokatuta zeukatena muga inguruan eta hari eraso egin ziotela ikustean asko mindu ziren nafarrak. Okupatzaileak handik uxatzeko, nafarrek armada handi-handi bat antolatu bide zuten eta indartsu sartu ziren Gipuzkoan[19].

Zaldibiaren kontakizun honetan, deigarria egiten da muga-gatazken karietara nafarrez azaltzen duen ikuspegia: hauek dira erasotzaileak, hauek gaizkinak, hauek supiztaileak. Deigarria, halaber, Gipuzkoaren sorrera Gaztelan kokatzeaz egiten duen irakurketa historikoa. Zaldibiak XVI. mendeko gipuzkoar gaztelaniatu batek pentsatzen zuen bezala pentsatzen du. Mugako gatazka haietan erresumen arteko borroka ikusten zuen, nafarren eta gipuzkoarren artekoa, kontuan izan gabe Oinaztarren etengabeko bidegabekeriak zerikusi zuzena izan zezakeela anaien arteko borroka hartan.

Baina goazen aurrera Zaldibiaren kontakizunarekin eta galde dezagun zer dakarren Beotibarko batailaz. Gertakari honetaz Vargas Ponce eta aita Henao-ren testuak dauzkagu. Biek diote Zaldibiaren kopiatik hartuak dituztela. Oso antzekoak dira, baina ez guztiz berberak ez edukian ez luzeran. Bigarrena zertxobait laburragoa da. Biek testu bera izan bazuten aurrean, zertan desberdindu ez zeukaten. Adibidez, Berastegi herriari buruzko aipamenean, Vargas Ponce-ren bertsioan esaten da Gipuzkoan ostiralean sartu

zirela, San Mateo bezperan, eta Berastegi herriko etxe asko eta zatirik gehiena erre zutela, eta kalte handiak egin zituztela bertako elizan[20]; Henao-ren testuan, aldiz, "e quemaron á Berastegui" esaten da soilki, elizarena aipatzeke. Azken honek suposatzen du ordurako bazela Berastegin eliza dorretxearen alboan. Baldin bazen ez bazen, lehengo eliza hartaz datu dokumentaturik ez da. Nafarroako troparen kopuruaz ematen dituzten zifren artean ere aldea arras nabarmena da, hogei milako tartea batetik bestera: "bien cincuenta mil combatientes", Vargas Ponce-k; "fasta setenta mil combatientes", Henao-k. Kanpionek, goitik jota, hiru milakoa aipatzen zuen. Gipuzkoarrak, aldiz, zortziehun baino ez ziren. Hauen balentria adierazteko kopuru ideala, garaipena segadaren taktikan oinarrituta. Esteban Garibairi kopuru horri txikiegia iritzi zion eta, okerra zuzendu ordez areagotu egin zuen, zortziehun peoiren lekuan zortzi mila jarriz (Kanpion, VII, 1969, 350). Hildakoen atalean ere, erruz dira hildako nafarrak, buruzagienak beren izen eta guzti aipatzen direnak, atxilotu eta preso hartuak asko, eta zeramatzaten guztiak kendu zizkieten, besteak beste, armak, zaldiak eta dirua. Henao-ren bertsioan, hildakoez eta atxilotuez hauxe dator: "Y escapó el Governador. Y todos los otros fueron presos, o muertos" (Kanpion, VII, 1969, 343). Vargas Ponce-ren bertsioan bukaeran dator preso hartu eta hirugarren egunean hil zen Salazar haraneko Martin Oibarrekoaren aipamena: "Hic diatucat Martin de Oybar" (Kanpion, VII, 1969, 343-344). Eta Zaldibiak berdintsu: "Beotibar, Beotibar, hic diadutac Martin de Oybar" (Mitxelena, 1990, 68).

Egile hauek asmo garbi bat dute gogoan, tesi gisa haizatzen dutena, eta da Gipuzkoak orduan bere askatasuna defendatu zuela.

Baina Zaldibia batxilerraren tradiziotik abiatzen den historiografia guztia gertatzen da hankamotz, egiazko euskarri historikorik gabe. Itxura guztia du Garesko elizako liburu horrena asmakizun hutsa izatearena. Baliteke Gipuzkoako Artxibo nagusian gertakari horri buruzko kontakizun zaharren bat izatea, aita Henao-k argitara ematen duen hori, hain zuzen. Hau egia balitz, testu horren gainean eraikiko zuen Zaldibiak bere kontakizuna, hura zabaldu eta garatuz. Posible da beste hipotesi bat ere formulatzea, agian sendoena: Zaldibia izan zela kontakizunaren asmatzaile bakarra, originala Garesko elizan aurkitu zueneko itxurak eginez (Kanpion, VII, 1969, 345-346).

Zaldibia izan, tolosarra zen. Haren aita, Iñigo Martinez de Zaldibia, Tolosako alkatea 1509an. Kargu politiko handiak izan zituen Gipuzkoan: alkate Tolosan 1552an, Probintziako kapitain 1557an, Batzar Nagusietan Tolosako prokuradore 1561ean, eta abar. Parte hartu zuen, orobat, Gipuzkoako Foruen bilketa antolatzen. Itzal handikoa zen Probintzian, baina handiagokoa oraindik Esteban Garibai, arrasatearra, Madrilgo Gortean azken urteetan Felipe II.aren kronikari izan baitzen. Kanpionek arrazoi osoz aitortu bezala, autoritatez hornitutako bikote honi sinesmena aitortu izan diote ondorengoek, nola kanpokoek hala bertakoek:

> "La versión del Bachiller Zaldivia, por el renombre de Garibay, reina en la historia. Adoptáronla, con ésta o aquella restricción, no sólo los historiadores que navegan en la corriente castellana, sino los mismos panegiristas o defensores del Reino pirenaico" (Kanpion, VII, 1969, 351).

Zalantzarik gabe, biek harreman pertsonalak izan zituzten. Eta biak zeuden Gipuzkoatik Gaztelara begira, euskal nortasunaren erroak han finkatuz eta euskal politika handik begiratuz. Hauek, eta hauen hariko euskaldun intelektualak –garai hartako letratuak–, dira Gaztelako erresumari estatu-nazio espainolaren euskarri teorikoak ezarriko dizkiotenak. Beotibarkoa hainbeste aupatzean, horixe zuten helburu. Azkenean, historia ofizialean geratu dena gertakariaren bertsio espainola da: Nafarroako gobernadoreak Gipuzkoa inbaditu zuela, Berastegi arpilatu eta erre, Gaztelu herria beretu, eskualdea birrindu, elizak deseginez eta hilobiak profanatuz. Horrelako basakerien aurrean, nola ez, gipuzkoarrek mendekuz eraso eta menpean hartu zituzten Beotibarko zelaian. Hauxe da Zaldibiak fantasiaz beteta sortu eta zabaldu zuena. Gerokoek harenetik elikatu ziren, Gaztelaren defentsan fermu, iturriak aztertzen denborarik eman gabe.

Zaldibiaren tradizio horrek Iparraldeko Juan Beltzuntze ere kutsatu zuen. Nor eta, Makeako bizkondea eta Nafarroako erregearen aholkulari izana, Fernando II.a katolikoak Nafarroa 1512an inbaditu zuenean, haren kontra jaiki zen eta Kanpionek (VII, 1969, 352) "escritor *nacionalista* basko" bezala zeukan hura bera. Hark ere, bere *Histoire des Basques* liburuan historiografia espainolean ematen den antzeko kontakizuna eskaintzen du, esan gabe zein den bere iturria. Hildakoetan, alabaina, izen bakarra aipatzen du: Juan Enrikizena, Enrike erregearen seme sasikoarena, Lakarra neskatxarekin izana (Kanpion, VII, 1969, 52).

Gipuzkoako historialari gaztelaniatuengandik abiatzen den tradizioak, XVI. mendean Beltzuntzerekin Lapurditik bere itzulia egin eta gero, hurrengo mendean Nafarroa

garaian egiten du bere sarrera aita Jose Moret Mendi jesuitarekin. Esteban Garibai Madrilen Espainiako Gortean errege-kronikari izan zen bezala XVI. mendeko azken hamarkadan, hurrengo mendean, 1654an zehazki, Iruñeko semea izendatu zuten Nafarroako Gorteetan ofizio bereko kargudun. Nafarroako erresumaren historia egiteko enkargua eman zioten. Haren *Anales del Reino de Navarra* izeneko bilduman, V. tomoko XXVIII. liburuko lehen atalean (1891, 215-217) kontatzen ditu Beotibarko batailari eta Berastegiri buruzko pasadizoak, aski xehetasun emanez eta, aldi berean, gertakari hari buruzko historiografiaz zenbait ohar kritiko eginez.

Nafarroako Kontuetan, tradiziorik zaharrena duen iturri dokumentatu bakar horretan, lehen esan bezala, ez da aipatu ere egiten Berastegi herriaren izenik, ez handik pasatzean erre zutenik, ez antzekorik deus. Aita Moret-en Analetan, hemen bai, Berastegi eta Gaztelu herrien erreketaren berri ematen da. Egile honen ustez, gauza ziurra da 1321ean Gipuzkoako tropak Nafarroan sartu zirela Gaztelako mugatik bertan lapurretak egiteko asmoz[21] eta, orobat, Gorritiko gazteluaz jabetu zirela. Jakina, Gaztelako muga hori Berastegi zen. Orain Bidasoa den bezala Espainiaren eta Frantziaren arteko muga, orduan Berastegi zen Espainiaren eta Nafarroaren artekoa. Hala bailitzan ulertzen zuen orduko euskal intelligentsia organikoak.

Gipuzkoarrek Nafarroako lurraldea inbadituz bake-hitzarmena arrazoirik gabe hautsi omen zutelako, Ponce gobernadore jaunak[22] mendekua hartu nahi izan zuen. Irailaren bukaeran, San Migeletan-edo, bereganatu zituen bere gizon armatuak Gorriti ingurura. Hemengo gaztelua berreskuratu, eta handik Gipuzkoan sartu ziren gero.

Berastegi herria indarrez hartu eta, ondo arpilatu ondoren, kiskali egin zuten. Mendiz bestaldean dagoen Gaztelu herria ere eskuratu zuten. Hango inguruetan egindako hondamendiak hurrengo baterako aski eskarmentu izango zirelakoan, armada etxerako bidean jarri zen. Erretirakoan, ordea, gipuzkoarrek ezarritako segadan erori ziren nafarrak. Izan ere, odolkiak ordainetan izaten direla-eta, mendekuari mendekuarekin erantzun nahi izan zioten gipuzkoarrek. Zortziehun gizon armatu elkartu omen ziren, Gil Lopez Oinazkoa, Larrea dorretxeko jauntxoa, buru zela. Hauek erretiroan zihoazenen arrastoak segitu zituzten eta Beotibar izeneko lekura iristean, hango pasabide meharrek tropa ilaran luzatuta joatea behartu zutenean, hain zuzen, mendigainetatik harriz betetako upelak eta basoak botatzen zizkien eta tropan sekulako desordena eta nahasketa sortu zuten. Atzealdean zihoazenak izan ziren kaltetuenak, Olitekoak, hain zuzen. Hildakoen artean, esan gabe zenbat izan ziren, arestian aipatutako Juan Enriquiz izendatzen du[23]. Hau da Moret-ek kontatzen duena. Juan Beltzuntzek ere izen bera dakar.

Esan bezala, Moret-en kontakizunean xehetasun gehiago ematen dira Beotibarko batailaren inguruan: Berastegiren erreketa, Gazteluren okupazioa, gipuzkoarren Beotibarko erasoaren deskribapena, eta besterik. Harriz betetako upelen maldan beherako jaurtiketarena, adibidez, Vargas Ponce eta Henao-k Zaldibiarenetik kopiatutako testuetan ez dator, baina bai Garaibai eta Moret-enean, seguru asko honek harenetik hartuta (Kanpion, VII, 1969, 349). Berastegi eta honen inguruetako orografi sekuentziak hurbiletik ezagutzen dituenak badaki, ordea, gertakarien deskribapen geografiko horretan badirela puntu ilun edo

ondo lotu gabeko batzuk. Egia baldin bada Berastegi kiskali ondoren, Gaztelu hartu eta, udazkenean denbora euritsua egiten zuelako eta paraje haiek malkartsuak zirelako, aurrera segitu ordez etxerako bidea hartu zutela, ez da ikusten zergatik pasatu behar izan zuten Berrobi eta Belauntza artean kokatua dagoen Beotibarko erreka zulotik. Gaztelutik zuzenago zuten Nafarroarako bidea Ulin barna. Edo bestela, Berastegi herria kiskali eta ibarrean behera egin zuten, Tolosarako asmoan, agian, eta harako bidean eror zitezkeen gipuzkoarren segadan. Honek egi itxura gehiago du, baina orduan Gaztelurena airean geratzen da. Gaztelu herriaren aipamena berak baino ez du egiten. Nolanahi ere, ez dago batere garbi nola eta non gertatu zen Beotibarko segada hori. Zaldibiak dio Berastegitik Tolosarako bidean gertatu zela Beotibarko borroka; Moret-ek, aldiz, Nafarroarako itzuleran jasan zutela erasoa. Kontraesana agerikoa da.

Laburtuz eta bukatuz: Arturo Kanpionen azterketa Nafarroako Kontuetan oinarritzen da eta, dokumentu zahar haietan Beotibarko gertakariaz datu gutxi jasotzen den arren, gutxi horiek sinesgarritasuna dute beren alde, hura gertatu zen garaikoak direlako. Aita Moret-en testuarekin Zaldibia batxilerrarenarekin gertatu zen antzeko zerbait gertatzen da, baina desberdintasun honekin: alegia, kontakizun sinesgarriago eta kritikoagoa eskaintzen duela, baina iturri jakin baten berririk eman gabe, dokumentu publikoak aztertu dituela esatera bakarrik mugatzen baita, zein esan gabe. Baina ohar garrantzitsu bat egiten du, hau da, berak arakatu dituen garai hartako (1321) artxibo publikoetan, ia gehienetan, aipatu ere ez dela egiten Beotibarko bataila hori, eta datorrenetan ez zaiola garrantzi handirik ematen. Harritu egiten da Esteban Garibaik gertakari hura

nola hanpatzen duen[24] eta biziak nola hildakotzat ematen dituen ikusita[25].

Nolanahi ere, gure ustez, bertsiorik zuzenena Kanpionen bidetik datorrena bada ere, nagusitzen dena Zalbidiaren tradizioak eragindakoa da, Gipuzkoakoa Espainiatik largabistarekin begiratuta ikusten duena. Vargas Poce, Henao eta beste hainbaten zerrendari aita Juan Mariana[26] eta Jeronimo Zurita historialarien[27] eta beste batzuen izenak ere erantsi behar zaizkio. Bestalde, Kanpion zein Moret, nafar biak gertakarien deskribapenean zenbait xehetasunetan guztiz bat ez badatoz ere, bien bertsioak osagarriak izan daitezke, Berastegiren erreketa eta Beotibarko segada zehazki kontakizun bereko sekuentzia jarraituan kokatuz. Bestalde, eta puntu hau da garrantzizkoena, guztien buru ondorio bera ateratzen dute, kontakizun honetan funtsezkoa dena, eta da Beotibarkoa munta txikiko gertakaria izan zela. Beraz, Zaldibiaz geroztik historiografia espainolak eraiki duen diskurtsoa erabat hanpatua da, fantasiaz betea, eta eskualde bati zegokiona baino izan ez zen bataila hari erresumen arteko arazo-izaera ematen diote, Gipuzkoaren garaipena –irakur askatasuna–, Gaztelaren aldeko kausa nazionalarekin bat eginez eta, kontrakarrean, nafarrez, gaskoiez eta frantsesez osatutako troparen erasoa atzerriko indar militarraren inbasiotzat hartuz. Izan ere, garai hartan Nafarroak eta Frantziak elkartuta erresuma bakarra osatzen baitzuten eta, ondorioz, Nafarra Frantziarekin berdintzen, nafar tropen eraso hura Pirinioez bestaldekoen inbasiotzat hartu zuten eta ez anaien arteko guda bezala, Gaztelatik interesatuki halaxe interpretatuta. Baina muga-gatazka haiek –eta horien barruan Beotibarkoa sartuz–, oinarri-oinarrian anaien arteko liskarrak izan ziren eta herritar

soilak guda haietatik urruti zeuden, nahiz, hori bai, larrutik pagatzen zituzten haien ondoreak.

Beraz, ikusi da Gipuzkoa nazio espainolaren barruan sartzen duten autore klasikoek goraki aipatu izan dutela Beotibarkoa. Benito Lertxundik *Altabizkar* diskoan badakar hango kanta. Areago oraindik, J. I. Iztueta eta Pablo Gorosabelen garaitik datorren tradizioak Beotibarko gudua eta "Bordondantza" asoziatu izan ditu eta geroztik gudu horren gomutan urtero dantzatzen da Tolosan, dantza-mota horri zentzu epikoa emanez. Badirudi, ordea, dantza horrek ez duela zerikusirik gudu horrekin eta bai, seguruenik, San Joan inguruan eraikitako mundu sinbolikoarekin, nekazal jatorriko eta izadi-izaerako ikuspegian zehazten den horrekin. Erromesak Donejakuera eskuan pordoia zutela joaten baitziren, baliteke, Fernando Rojok[28] uste duenez, "Bordondantza" horrek erromes haiekin zerikusirik izatea, kontuan izanda harako bidean Tolosatik pasatzen zirela.

Besterik da, azkenik, Kanpionen bertsioa, Nafarroako Kontuetan oinarrituta dakarrena. Haren ikuspegitik begiratuta, lehenik, emana etorri zaigun orduko gertakarien irakurketa horrek ez du nondik heldurik. Gipuzkoako bidelapurrak ez bide ziren Nafarroakoak baino makalagoak beren ofizioan. Arestian ikusi bezala, Nafarroako merinoak etengabe ari ziren gipuzkoar gaizkinen atzetik. Gorriti, beti izan da Nafarroakoa. Eta Gipuzkoa Nafarroako erresumatik aldendu ondoren, Gipuzkoaren –eta Gaztelaren–, aurrean muga-gaztelu bihurtzen da, bere lurraren defentsa-sinbolo gisa. Oinaztarren bandokoak nagusiki Tolosaldean biltzen baitziren, Nafarroako muga eta lurra –Aralarko iparraldetik Berastegiko mendietaraino–, zaintzeko hura zen leku

aproposa, estrategikoa. Burundako harana zaintzeko ere leku egokian zegoen. Bidelapurreriari emanak zeuden guztien asmoa zen Gorritiko gaztelu hura desegitea. Badirudi 1321. urte hartan bidelapurrak aski libre ibili zirela jazarpenik jasan gabe. Oinaztarrak, antza, oste handiarekin joanda, Gorritiko gaztelua hartu zuten, beren betiko ametsa betez, ustez 1321eko irailean. Nola? Ez jakin. Ustekabean? Seguru asko, bai. Hango bi alkateak, Urroz eta Urtubia, ez zeuden bertan eta ez zituzten atxilotu.

Zergatik antolatzen diren nafarrak erasorako? Esana daukagu nafar merinoak atzera egin behar izan zuela Berastegiko lurretatik. Porrot haren mina aski ez izanda, azken orduko Gorritiko gaztelu-okupazio honek areagotu egin zuen haien mendeku-gosea eta oraingo honetan hobeto armatuko dira, gaztelua berreskuratu eta gero, Gipuzkoako lurretan sartzeko asmoarekin. Beraz, urrutiko arrazoia, Berastegin pairatutako umilazioa da eta hurbilekoa, Gorritiko gazteluaren setioa.

Zaila da jakitea, ezinezkoa, zenbatekoa zen nafarrek ekintza berezi honetarako antolatu zuten ostearen kopurua. Parte-hartzaileen artean, sei gizon aberats edo zaldun militar aurkitzen ziren: Agramondeko jauna, Saltukoa, Johan Martiniz Medranokoa, Remigio Periz Arronizkoa, Martin Aibar eta Johan Corbaran Leeth-ekoa; hiru merino, Dru Saint-Pol Lizarrakoa, Johan Lopiz Urrozkoa eta Pere Arnat Urtubia, biok mendietakoak; azkenik, Larrasoaña, Orreaga, Donibane Garazi, Lizarra eta Los Arcos-ko Kontzenjuetako ordezkariak. Guztira, asko jota, hiru mila armagizon: “Mi sentir es que la hueste en ningun caso excedería de tres mil hombres de todas armas” (Kanpion, VI, 1969, 331). Kontuan izan behar da Erdi Aroan normalean armadak

txikiak izaten zirela. Nafarroakoak ere ezin izan handiak. Hain partaidetza zabala eta, aldi berean, hautatua ikusita, zalantzarik ez da bazuela ekintza honek bere garrantzi militarra. Izan ere, jauntxo aberats horiek gizon armatuak ziren, Nafarroako goi-noblezian buru-buruan zeudenak. Guztira denbora luzez hamar baino ez ziren izan horrelakoak erresuma guztian. Hamarretik seik ekintza militarrean parte hartu izanak asko adierazten du (Kanpion, VI, 1969, 328-331). Datu hori ere hor dago. Noiz eta nola berreskuratu zuten Gorritiko gaztelua? Hori ere ez dakigu. Baina datu ziurra da 1322rako jadanik nafarren esku dagoela berriro. Baliteke Lekunberriko gazteluan elkartutako nafar ostea gainera etorriko zitzaiela jabetzean, orduan handik alde eginak izatea, tartean borrokarik izan gabe. Nafarroako Kontuetan puntu horiek ez dira argitzen. Izan ere, 1322. urteari dagozkion kontuak falta dira, gertakariaren segidakoak direnak, eta horiek izan balira hutsuneak bete ahal izango ziren (Kanpion, VI, 1969, 325).

Beotibarko segadaz berdin, ez dator zehaztasunik. Pentsatzekoa da –batere ziurtasunik gabe, ordea–, gipuzkoarrak Gorrititik erretiroan joatean, nafarrak haien segi Beotibarko mehargunera ekarraraziko zituztela, han zepoan harrapatzeko. Harako bidean, armadaren joan-etorrietan ohi zenez, Iruñea eta Lizarrako merinoak seguru asko aurrealdean joango ziren leku malkartsuetan ibiltzen ohituta zeuden beren zaldizkoekin eta oinezkoekin, erdian zaldun militarrak beren zalditeriarekin, eta atzealdean kontzejalak. Mendi-kaskoan ostenduta zeuden gipuzkoarrak, han goitik jira-biraka harri kozkorrak maldan behera botaz, ustekabean harrapatuko zituzten beheko meharguneean zihoazenak eta, sekulako anabasa sortzean, menditik

jaitsiko ziren noraezean zebiltzan haiei ustekabean erasotzeko.

Nafar armada osoa izan zela porrokatua? Hala diote historia idatziek, baina ez da gauza segurua. Nafarroako Kontuetan hildako hauen berri baino ez dator: Ojer Periz Arronizko merinoa, eta honi laguntzen zioten hamar zaldizko, hamazortzi peoi; Dru Saint-Pol, Lizarrako merinoa, eta Lope Ortiz Monteagudo-ko bere ezkutaria. Beste hildako batzuk ere aipatzen ditu, horien artean Lizarrako seneskala, erregearen ordezkaria (Kanpion, VII, 1969, 104-105). Hildakoak izan ziren, bai, baina beste batzuen artean bataila bat gehiago izan zen.

Kanpionek zer-nolako irakurketa egiten duen? Beotibarko bataila –funtsean segada bat baino izan ez zena–, gipuzkoarrek nafarren kontra lortutako garaipen bezala hartua izan zela, bertan jokatu zena Gipuzkoaren askatasuna izan balitz bezala. Baina borroka hartan egiazki auzitan zeudenak ez ziren izan nazio-mailako arazoak, baizik, zehazkiago esanda, garai hartan nagusitzen zen gizarte-klase nagusiaren interes jakinak. Ahaide Nagusien eta jauntxoen ondasunak, oinetxeak, lursailak, alegia. Nafarren asmoa ez zen izan inola ere Gipuzkoa konkistatzea, baizik zuzenean Tolosaldeko gipuzkoar batzuk edo, zehatzago esanda, beren kuartel nagusia Amasan zeukaten Oinaztarren bandoko Ahaide Nagusiak eta horien leinukoak zigortzea eta beren lekuetan jartzea. Gaztelaniatutako historialariak izan ziren mende batzuk geroago muga-gatazka bat baino ez zenari nazioarteko izaera, edo erresumen artekoa, eman ziotenak. Gaztelako erresumako gipuzkoar haiek nafarrentzat "gaztelauak" ziren, egia da, eta, zentzu honetan, nazionalitatedesberdintasun hori izan bide zitekeen, eta izan zen,

ezinikusien eta borroken eragile, baina ez inola ere eragile bakarra, ezta nagusia ere, Beotibarko batailan. Horien aldean, pisu handiagoa zuen muga-herrietan zegoen miseriak, muga-gatazken zergatiez jardutean lehenago aipatuak. Gerora, denboran zehar, muga-gatazken nazio-izaera indartuz etorriko da (Kanpion, VII, 1969, 315-316). Geroagoko beste pasarte batean ere, Kanpionek Ahaide Nagusiengana jotzen du muga-gatazken zergatien bila abiatzean. Harentzat zalantzarik ez da Gipuzkoako aristokrazia asaldari eta gerrazale hori izan zela muga-gatazken piztaile eta sostengatzailea. Gaurko historiografiak nafar historialariaren ikuspegi hori berretsi baino ez du egiten esatean Gartzia Lopez Lazkaoko eta Gil Lopez Oinazko jauntxoen interesak ezkutatzen direla Beotibarko batailan[29]. Gipuzkoa Nafarroako erresumatik aldendu eta gero, batez ere, Gaztelako Koroaren zerbitzura jarri izanak muga-gatazketan nazioarteko arazo-kutsua ematen dio lokala baino ez denari.

Esan behar da, gainera, gaizkileen muga-arazoa garai hartan Europako herri guztietan ematen zela. Fenomeno orokorra zen, ez euskaldunena bakarrik. Bakarrik Euskal Herrian Ahaide Nagusien arteko borrokekin izaera berezia hartu zuela gatazka horrek (Kanpion, VII, 1969, 395-396). Azken batean, beren ondasunak handitzeko erabiltzen zuten Ahaide Nagusiek beren beso armatua, bando batekoek bezala bestekoek ere. Ez Gipuzkoa askatzeko. Ikuspegi hori erabat inozoa da.

Nolanahi ere, ez bide zen izan hain munta handiko borroka, ez bederen Gipuzkoako historialari gaztelaniatuek uste izan duten adinakoa, sekulako bataila: “Si sólo a los *Comptos* nos atuviéramos, la *facienda* (gerrako kontua) se

achicaría a combate de poca sustancia (Kanpion, VI 1969, 105). Muga-gatazka bat gehiago. Kasu honetan Gorritiko gazteluarena jokoan zegoelako, horregatik, seguru asko, beste ekintzak baino munta handiagoa izango zuen; halere, azken batean, muga-auziaren izaera baino ez zuen izan, ondoko urteetan ere jarraipena izaten jarraituko duena.

Egun, zer? Ordukoaz gaurtik eta bertatik egiten den diskurtsoa –nahiz eta oraindik, agian, gehiengoarena ez den–, berriro iturrietara itzultzen ari da, Artuto Kanpion aitzindariak arakatu zituen Nafarroako Kontuetako kronikétara, hain zuzen, haiek baitira zaharrenak eta bere laburrean egiaztagarri bakarrak. Beotibarko gertakariaz diharduten egungo autoreek, frogatzen ahalegindu garenez, nafar historialariaren bertsioa errepikatu eta sistematizatu baino ez dute egiten, ekarpen berezirik egin gabe.

Orokorrean esan dezakeguna da, gaur beste irakurketa bat egiten dela orduko gertakari epiko hartaz, askoz ere kritikoagoa eta, ondorioz, baita zuzenagoa ere. Egun auzitan jartzen dira gatazkaren zergatia, gertakarien deskribapena eta data, baita gertakarien kokapena bera ere.

Lehenik, Jose Maria Jimeno Jurio eta beste koegileek (2004) egiten duten irakurketaren arabera, gertakarien abiapuntua 1316an ezartzen da, Diego Martinez Garrizkoa, mendietako merinoa, Nafarroan atzemandako behorlapurren segi Gipuzkoan sartu zenean. Honek Gipuzkoako arduradunak elkartu zituen eta, ohitura zenez, lapurtuak itzultzeko eskatu zien. Nafar merinoa etxera bidean zihoala eta berarekin joandako gehienak beren etxeetara itzuli zirenean, gipuzkoar bandidoek eraso egin zieten eta bera, bere semea eta beste asko hil zituzten. Lapurretak, kexak eta muga-gatazkak etengabekoak izan baitziren ondoko

hamarkadetan, azkenean Nafarroa eta Gipuzkoako Ermandadekoak Oinaztarren kontra parte hartzera behartuak aurkitu ziren, Oiñazko Gil Lopez jauntxoaren Larreako bere etxea Amasan inguratuz (1330) eta Altzagakoa Hernan-en errez (1332). Irakurketa honen arabera, beraz, "Beotibako heroi nazional" bezala hartua izateko ez zen egokiena Probintziako Ermandadeak gaizkiletzat zeukan Gil Lopez jauntxo hori. Gaizkile profesional bat.

Bigarrenik, Kanpionen hariko autore gehienak ados datoz esatean Beotibarko gudu hura garrantzi gutxikoa izan zela, beste hainbaten antzera muga-gatazken sailean kokatu beharrekoa, eta historiografian horrenbesteko garrantzia hartu badu, historialari batzuek –zehazki Zaldibia batxilerrak eta honen eskolakoek–, hura sobera puztu zutelako izan dela. Baina kontuan hartzen bada, Beotibarko bataila horretan izandako kalteengatik, hain zuzen, Montagne-ko Ponce gobernadore ohia auzitara eraman zutela Iruñea, Lizarra, Zangotza, Los Arcos, Gares, Orreaga, Atarrabia, Olite eta Larrasoañako hiriek eta haren kontrako epaia Oliteko gazteluan eman zela 1323ko uztailaren 24an (Lema et alii, 2000, 107 or.), pentsa liteke hain garrantzi txikikoa ere ez zela izango. Ez bederen Nafarroan bertan. Egindako salaketen artean, aurpegiratzen zioten, batetik, nafarrei ez zegokiela beren erresumatik kanpora borrokatzera joatea[30] eta, bestetik, bera izan zela hainbeste hildakoren erruduna[31].

Hirugarrenik, guztien gainetik aitortu behar da anaien arteko borroka bat izan zela –euskaldunen artekoa, alegia–, Ahaide Nagusiek gidatutako bando desberdinen artean sortutako gatazken testuinguruan kokatu beharrekoa, haiek xaxatuta burutua, eta Gipuzkoako klase politikoaren

atzean, Gaztelako erresumaren interesak zeudela, mozorrotuta, baina egiazki eraginkorrak gertatu zirenak.

Laugarrenik, Beotibarko bataila muga-gatazken barruan kokatzearen alde esan dezagun, Beotibarko gudu hartaz geroztik ere, muga-herrietan antzeko sarraskiak gertatzen jarraitu zutela, ez bakarrik XIV. mendean, baita hurrengoan ere. Muga-herrien arteko gatazka-egoera aldakor horrek Nafarroako Karlos II.a Gaiztoaren erregealdia (1349-1387) hasi arte iraun zuela, XIV. mende erdira arte. Badirudi errege horrek, mugetan bakea egon zedin, hura diru-bidez lortu zuela, gipuzkoar batzuk –zehazki, Lope Gartzia Muruakoa, Lazkaoko Jauna, Martin Lopiz Muruakoa, Martin Gil Oinazkoa–, erosiz eta, ondorioz, hauek haren basailu leial bihurtu zirela. Erositakoen artean zegoen Otxoa Martiniz Berastegikoa ere (Iruña, 1947, 374). Beste modu batera esanda, erregeak erosi egin zien Oinaztarrei Gipuzkoako mugetan nafar herriak lasaitasunez bizi zitezen. Oinaztarrak diruz erostean, azken xede bakarra –agian, ezta nagusia ere–, ez zen muga-herrietan bakea ezartzea, baizik, eta batik bat, Oinaztarren konpainia militar bat Normandiara eramatea, haren hango koloni borroketan jarduteko (Carrion, 1975, 65).

Garai haietan, XIV. mendearen erdialdera, Normandiara egindako lehen espedizioan, Nafarroako Luis infanteak bere mezulariak bidali zituen Gipuzkoara hemen izapideak egin zitzaten tropak eta merkantziak, Gipuzkoa zeharkatuz, Pasaiaraino joan zitezen, eta hemendik Normandiara. Horretarako, bada, Gipuzkoako merino nagusiarekin egon ziren, baita Tolosako Udalarekin eta beste buruzagi batzuekin ere (Honore Duverge, 1950, 10). Garbi zegoen Luis infanteak mezu horrekin bidalitako Juan Pérez

Espartzak, Gorteko alkateak, nahi zuena zer zen: Leitzatik Tolosarako bidea –batez ere, haran hori–, libre izatea, handik Donostia eta Pasaiara joateko (Carrion 1975, 65-66).

Dena den, une batez Nafarroa eta Gipuzkoako mugetan bakea egon bazen ere, giro hark ez zuen asko iraun, hurrengo mendean betikoarekin segitu baitzuten, ganaduak lapurtzen eta herriak erretzen. Denbora gutxian, 1429 eta 1430. urte bitartean bakarrik, Nafarroako hogeita hiru herri erre zituzten gipuzkoarrek[32]. Eta ekintza hauetan buru Gaztelaren esanera zeuden Lazkao eta Oinaztar familiak aurkitzen ziren. Bi familia hauek ondo babestutako gazteluak zeuzkaten Nafarroako muga inguruan eta haien zerbitzuko beso armatuez baliatzen ziren arpilatzeak egiteko (Estella, 1979, 153-154).

Pasarte horiek guztiek hiru gauza bederen erakusten dizkigute: bat, horrelako emaitzak aldez aurretik egindako mesedeen bidez lortzen direla; bi, herriak jauntxo-leinuko batzuek menpean hartuta dauzkatela; hiru, horrelako kasuetan garbi islatzen dela orduko gizarte-klase armatuaren mertzenario-jokabidea.

Bosgarrenik, Ahaide Nagusiek muga-gatazketan zuten zuzeneko parte hartzeaz esan behar da, haiek herritar soilak menpean hartuta zeuzkatela eta auzo-anaien arteko odolisurketa ikaragarri hura egiazki jauntxo banaka batzuen interes erdifeudalen izenean eta defentsan egina izan zela. Beraz, Beotibarko batailaren atzean Ahaide Nagusien interesak zeuden. Horiek eraginda konkistatu zituen Tolosak Leitza eta Areso, bigarren liburukian areago zehaztuko dugun bezala. Arpilatzeak, ganadu-lapurretak-eta, Oinaztar bandokoek egiten zituzten, zehazki, Amezketa, Lazkao eta Berastegiko jauntxoek. Noiznahi egin ere. Hauen gazteluak

izan, lapur-etxeak ziren. Gipuzkoarrek Nafarroako lurretan sartu eta Gorritiko gaztelua konkistatu zutelako, horregatik hartu zuten mendekuz Berastegi herria (Zavala; Garmendia, 2007). Eta Ahaide Nagusien atzetik, berriz, Gaztelaren interesak zeuden. Garai hartako dokumentuetan nafarrek gipuzkoarrak "gaztelauak" bezala hartzen zituzten eta haiei egindako kalteak Gaztelari egindakoak bailiran[33]. Gipuzkoako muga, kasurako Berastegikoa, "Gaztelako muga" zen nafarrentzat. Beraz, ez dago ezertaz harrotzeko motiborik eta zer ospatu gutxi dute hor euskaldunek.

Seigarrenik, beste batzuek dakarten bezala, hauen artean Anjel Rekaldek (2008), beste urrats bat aurrera emanez, Gipuzkoako muga-herrietako istilu eta gaizkileen arteko gatazken eragile nagusitzat Gaztelako erresuma aipatu behar da, honek armaz Gipuzkoa eta Arabako lurrak konkistatu ondoren, muga-herri horietan neurri militar estrategikoak ezartzen baitzituen, barruko herri nagusi batzuk harresituz, hala nola Tolosa, Ordizia eta Segura. Honela, Gipuzkoa Gaztelako Koroan sartuz geroztik, egiazki okupazio militarraren arazoa zena anaien arteko arazo bihurtzen da eta, ondorioz, zeharka bere zapalkuntza legitimatzen. Hasierako konkista militarra, jadanik aipatua, eta ondoko okupazioa Gipuzkoaren askatasunaren ikur bihurtzen dira Gaztelaren eta, beraz, Espainia osoaren aurrean, historiografia espainolean edo gaztelaniatuan garbi asko azaltzen den bezala. Bertako intelektualek atzerritar okupatzaileak eragindako asimilazioa bultzatzen asmatzean datza Gaztelako Gortearen abilezia. Horretarako zer hobe bertako klase gidaria –bereziki, intelektuala eta soziopolitikoa–, bereganatzea baino? Euskaldun gortesau asko ziren orduan Madrilen, goi-karguz jantzita.

Beraz, “gaizkileen muga” delako hori, nazioz eta hizkuntzaz leku berekoak zirenen artean modu artifizial batez eraikitako muga bat baino ez zen izan, Gaztelak Euskal Herriko anaien artean aurreikusitako ikuspegi estrategiko baten harira eraikiz joan zena, auzo-muga erresuma-muga bihurtuz.

## 3. Berastegiko Juan Martinez koronela Belateko gerran (1512)

Gipuzkoa Gaztelako Koroara pasatzean, Nafarroako erresumakoa izandako Berastegi haren muga-herri bihurtuko da 1200. urteaz geroztik. Gaztela mugarri dela, gatazkagune ezaguna. Oinaztarren zerbitzura, gogor borrokatzen ikusi ditugu bertako jauntxoak beren gizon armatuekin nafarren kontra Beotibarko zelaian 1321ean. Berriro ere, ordukoa aski ez izanda, nafarren kontra jaikiko dira Belateko lurretan 1512an. Eta Berastegiko garai honetako jauntxoa ere, Joan Martinez koronela, etxekalteko gerra deitoragarri horretan buru-belarri sartua agertuko zaigu.

Beotibarko segadan auzitan dagoena Gipuzkoaren anexioa den bezala, Belateko gertakariaren gibelean Nafarroako erresumaren konkista dago, 1512ko apirilean hasi eta uztailaren 25ean bukatzen dena, Gaztelako eta Aragoiko armadek Iruñea hartzen dutenean eta hiria Alba-ko dukearen aurrean errenditzen denean. Ez zen nolanahikoa hango harresietara inguratu zen armada, “Kapitain Handia” deitzen zioten Cordoba-ko Gonzalo buru zela: 1000 armagizon, 2500 zaldizko, 6000 oinezko eta 20 kainoi. Lehen lerroan zihoazenak, berriz, gipuzkoarrak, arabarrak eta Leringo kondeak gidatutako nafarrak (Estella, 1979, 113-

114). Beren inbasio militarra justifikatzeko Fernando katolikoak, lehenik, Aita Santuaren ustezko –gezurrezko–, Bula baten aipamena egin zuen, nafarrei sinestarazi nahi izanez Aita Santuak Nafarroako Koroa Fernandoren eskuetara pasatzen zuela. Bula horren izena *Pastor Illae Caelestis* (Zeruko Artzain hura) zen eta 1512ko uztailaren 21eko data zeraman, inbasio-egun berekoa. Benetan bitxia. Ordura arte patrikan gordeta eduki zuen Gaztelako Errege Katolikoak. Bula hartan ez baitzen azaltzen Nafarroaz deus, handik hamar egunera, uztailaren 31n, argitaratutako Agirian ematen zuen inbasioari buruzko azalpen zehatza eta zen, Nafarroako erregeek eskumikatuta zegoen Frantziako Luis XII.arekin adiskidetasunezko harremanak zituztela (Estella, 1979, 114-115). Dena zen, gezur hutsa, baina dena baliozkoa lortu nahi zena lortzeko. Gaztelak lehen beste hiru Probintziak anexionatu zituen; orain, Nafarroako erresuma bera bitan zatitu eta lurralderik hedatuenaren jabe egingo da.

Nafarroako erresuma arma-bidez konkistatua izan baitzen, lehen beste Probintziak bezala, nafarrek ez zuten etsi horregatik eta indarrez kendua izan zitzaien lurraldea berreskuratzeari ekin zioten, lehenik bide diplomatiko eta intelektuala erabiliz, nazioarteko atetan joz, eta, bakezko bitartekoak oro ahitzean, armekin eta agramondarren laguntzarekin berreskuratzen ahaleginduz. Garai hartan Nafarroako erresumako erregea "Foix" etxeko Juan II.a Albret-ekoa (1486-1516) baitzen, honek bidali zuen Iruñea birkonkistatzera urte bereko urrian nafarrez eta mertzenario gaskoiez, albanesez eta alemanez osatutako armada. Gehienak, ordea, nafarrak ziren eta ez, Gaztelako historiografiak dioen bezala, frantsesak. Armada-buru Angulema-ko dukea

zen. Harako bidean Alba-ko dukeak Donibane Garazin kokatua zeukan armada kendu beharra izan zuen. Birkonkistaren asmoak, ordea, porrot egin zuen, beste arrazoien artean, Iruñeko setioak luze jo zuelako eta eguraldi txarra tokatu zitzaielako. Nafar tropak, Góngora-ko Charles kapitain beamondarrak gidatutako gaztelau-tropek behartuta, handik erretiroan zetozela, Belateko gainean, Gipuzkoako tropa foralak ustekabean bidera atera zitzaizkien eta mendean hartu zituzten. Atzean zihoazen mertzenario alemanak harrapatu, zeramatzaten hamabi kanoiak hartu eta lepoa moztuta utzi zituzten (Orella, 1977, 141-144).

Guk xehetasunik gabe eta laburturik eman dugun Belateko batailaren kontakizun horrek, garai hartan gertatutako izaera bereko beste askoren antzera, irakurketa bat baino gehiago izan ditu historiografian eta bakoitzak bere modura hanpatua eta desitxuratua ematen du. Nondik begiratuta eta zein xederekin egiten den da kontua. Alba-ko dukearen Correa kronista jaunak dakarrenez, Andoaingo Lizaur oinetxeko jauna izan zen 300 baleztarirekin nafargaskoien atzetik segi joan zena eta Belaten alemanak atzitu zituena. Han armak –kanoiak–, abandonatuta ikusi zituenean, jaun euskaldun hori "España, España!" oihuka hasi omen zen, agian horrelaxe, gaztelaniaz. Gero Berastegiko jauntxoa etorri omen zen, eta honi Lizaurkoak artilleriaren ardura eman omen zion ihes zihoazenak atzitzeko. Bere gizon-ehizan asko harrapatu omen zituen, goserik eta izoztuak zeudenak bederen bai, eta hilak erruz, milatik gora. Honen ondoren Aialako Diego Lopez jauna etorri omen zen, oinaztar buruzagia eta Hondarribiko gotorlekuko alkaidea, eta honek Alba-ko dukeari mezu bat bidali omen zion ehunen bat mando igor ziezazkion eskatuz artilleriazko

piezak garraiatzeko. Hara hor, bada, Berastegi herria berriro Nafarroa eta Gaztelaren arteko gerra-historian sartuta.

Arguería-ko Mártir-ek, Fernando katolikoaren idazkariak, bataila horretarako Juan Silva gobernadore eta kapitain nagusiak esaten du 3.000 gipuzkoar eta arabar bildu zituela eta menperatuak beren kanoiak bertan behera utzi eta ihesari eman beharrean aurkitu zirela, hain zuzen ere, aleman batzuk, nekeak, goseak eta hotzak erabat jota zeudelako. Azken puntu honetan Correa-k dioenarekin bat dator. Baina milatik goratik hil zituztela, lepoa moztu zietela, horrelako konturik deus ez. Bakarrik hauxe: esandako arrazoiengatik, oldartu gabe barreiatu zirela.

Pablo Gorosabelek dakarrenez, Errege Katolikoa bera izan omen zen Logroñotik 1512ko abenduaren 1ean idatzitako gutunean Gipuzkoako Probintziari Iruñea setiatzera etorritako troparen erretreta oztopatzeko edota, bederen, ahalik eta kalterik gehien egiteko agindua eman ziona. Probintziak hara bidalien artean, 35.000 armagizonen kopurua eskaintzen du. Horien artean aurkitzen zen Tolosako konpainia, Alberto Perez de Rexil kapitaina buru zela. Abenduaren 7an iritsi ziren Belate eta Elizondoko mendietara eta 13an menderatu zuten armada "frantsesa". Saritzat, Juana erreginak 1513ko otsailaren 28an Gipuzkoako armarriari hamabi kanoi horien ikurra erantsi zion (Zavala; Garmendia, 2007, 16). Gerora, 1518an, Gipuzkoako Ahaide Nagusiek beraiena bezala hartu zuten bataila hura. Orain dela gutxi, 1979an, ezabatu dute Gipuzkoako Batzar Nagusikoek kanoien ikur hori, Nafarroarekin harreman onak gordetzen dituela argudiatuz.

Belateko bataila izan, hala dirudi, Beotibarkoaren bertsio berri bat baino ez da, Gipuzkoak Gaztelarentzat

irabazten duen bataila bat gehiago, baina aldaketa garrantzitsu honekin: oraingoan garaipena nafarren kontra baino gehiago, frantsesen kontra lortzen dela, Nafarroa Behereari ere bere nafartasuna ukatuz. Ematen diren arma-gizonen eta hildakoen kopuruaz ezin da ezer ziurtatu. Ezta gauzak nola gertatu ziren ere. Nolanahi ere, kontakizun honetan nabarmentzekoa da Gipuzkoari ematen zaion protagonismoa eta, horko buruzagien artean, Berastegiko jauntxoari ere bai, nor zen hura zehaztu gabe. Tolosak garbiki nafar independentziaren aurka jokatu zuen, Gaztelaren esanera, Beotibarko batailan bezala. Ez bakarrik Gaztelako kronistentzat, Pablo Gorosabelentzat ere bataila hura "gloriosa jornada" izan zen. Ez da harritzekoa, tolosar abokatua, Gipuzkoako artxibozain eta historialaria izateaz gain, Espainiako Karlos III.aren errege-ordenako zalduna ere bazen eta. Tituluak ez ziren debaldetan ematen.

Nafarrek, Belateko segadan, kaltetuak eta umilduak izan baziren ere, galdutako lurraldea berreskuratzeko beste ekinaldi batzuk ere egin zituzten. Fernando katolikoa 1516ko urtarrilaren 23an hil eta gero, Juan Albret-ekoak 1516ko Aste Santuan berriro lehengo asmoari ekin zion, baina arrakastarik gabe, Pirinioetan bertan Nafarroako jauntxo batzuk preso hartuak izan zirelako, horien artean Pedro mariskala, geroago hil zena, pozoiturik-edo, 1522ko azaroan Simancas-en. Hurrengo saioa –eta azkenengoa–, Noainen izan zen, 1521eko ekainaren 30ean. Herri honetan oldartu zirenak menperatu egin zituzten; nafar batzuek, ordea, burua makurtzera eman gabe, Biarnora ihes egitea lortu zuten eta beste batzuk, berrehunen bat lagun inguru, Amaiur eta Hondarribiko gazteluetan babestu ziren 1521eko irailean, han zegoen Gaztelako goarnizioa bertatik uxatuz.

Nafarroak 1524an galdu zuen Hondarribiko gaztelua, nafar erresistentziaren azken lekukoa (Orella, 1977, 148).

Ikusi dugunez, Berastegi herria bataila bietan inplikatua agertzen da, Beotibarkoan bezala Belatekoan ere. Azken honetan, hara buruzagi bezala joandakoa Berastegiko jauntxoa zela esaten da, baina haren izena eman gabe. Badirudi, itxura guztien arabera, Jaundegiko Juan Martinez jauntxoa izango zela, koronela deitua. Pablo Gorosabeli (I, 1899, 281-282) ikasi diogu zein kargu zen koronelari zegokiona. Berak esatera, herri batzuetan jauntxoak izaten ziren alkateak eta beste kargu batzuk hautatzen zituztenak eta, orobat, gerra-denboran beren kontura bildutako jende armatua gidatzen zutenak. Erregeek laguntza militarra behar zutenean, Ahaide Nagusiei luzatzen zien beren eskea. Hala egin zuten, adibidez, Fernando V.a katolikoak 1512ko maiatzaren 28an, eta Karlos enperadoreak 1523ko azaroaren 6an. Areago oraindik, lehendik zetorkien ohitura batean oinarrituta, ez noski zuzenbidez hala zegokielako, eskuarki haietako bat izendatu ohi zuen Probintziak bertako koronel edo buruzagi nagusi bezala foru-altxamenduak gertatzen zirenean. Antza, garai hartan, koronel-kargurako hautatua Berastegiko Juan Martinez jauntxoa zen. Bere herrian ez ezik, Gipuzkoan ere bazuen itzala.

Gureganaino heldu den historiografia klasikoak, zeinaren xedea Euskal Herriaren erresuma-errealitatetzat edo subiranotasun-proiektutzat har daitekeen oro sistemaz ukatzea baita, Gipuzkoa Gaztelaren bihotz egiten du eta, aldi berean, nafarren eta beste Probintzien arteko nazio-mugarri bihurtzen. Ezin da ukatu anaien arteko borrokak izan zirela gehienak. Baina hori esatearekin batera, zehaztu beharko litzateke Gaztelako erresuma anaien arteko borroka hori

nahita bilatzen saiatu zela, zapalketa ezkutatu eta bere boterea errazago legeztatzeko. Eta bertako intelligentsiak ere izan zuen bere egitekoa, eta ez nolanahikoa, botere arrotza etxean kokatzen eta legezkotzat hartzen.

# HERRIA ERAIKITZEN

# IV

# Tolosako jurisdikziopetik udal-autonomiara (1374-1615)

Azalduz gatozen testuinguru horretan kokatu behar da, ez bakarrik Beotibarko bataila –egoera gaiztotu eta orokortuaren isla bat baino izan ez zena–, baita, modu orokorrago batean, okupatutako muga-lurren defentsarako Gaztelak sortutako hiribilduen fenomenoa ere, zehazki barrualdean.

## 1. Hiribilduen sorrera

Hiri eta hiribilduen sorrera Mendebaldeko Europa osoan zehar ematen den fenomenoa da, orokortzen hasten dena XII. mende-hasieratik XIV. mende erdia bitartean. Horien sorreran mota askotako faktoreak izan ziren hori baldintzatu zutenak, gutxi-asko orokorrak, besteak beste, hauek: demografikoak, populazioaren hazkundeari zor zaizkionak XIV. mendera arte; soziopolitikoak, bereziki, errege-ekimen jakin batzuei erantzuten dietenak; ekonomikoak,

hala nola feriak, merkatal bideak, klase burgesaren sorrera; militarrak, okupatutako lurren defentsarako gazteluak eta gotorlekuak. Eta besterik. Europa Erromatar Inperioa V. mendean desegin zenez geroztik, ia erdi-ahantzia zegoen hiri-eredura itzultzen da berriro.

Euskal Herriko geografia ere, toki eta garai desberdinetan eta aldian aldiko interes eta beharren arabera, hirigune berriz jantziz etorri zen. Lehenak Nafarroan agertu ziren Lizarrarekin 1090ean eta Araban Gesaltza Añanarekin 1140an eta Biasterirekin 1164an. Geroago etorri ziren Gipuzkoa eta Bizkaikoak, XIII. mendean. Araba eta Gipuzkoan, hauetan zehazki, euskal Probintziak Gaztelako Koroan sartu izanak eragin zuen hiri berrien sortze-prozesua azkartu izana, errege gaztelauak itsasorako bidea ahalik eta arinen ziurtatu nahi baitzuen, handik bere produktuak Europako merkatura eraman ahal izateko. Xede ekonomiko horri erantzunez sortu ziren kostaldean Hondarribia 1203an, Mutriku eta Getaria 1209an, eta Zarautz 1234an. Orduan berritu zen, orobat, Donostiaren foru-emakida ere. Garai honetan Gipuzkoako kostaldean sortzen diren hirietatik itsasoratuko dira Gaztelako itsasontziak[34]. Baina Arabako zein Gipuzkoako barrualdeko hirien sorretan 1256ko irailaren 13ko data bereziki adierazgarria da. Hala da, hain zuzen, Alfonso X.ak data horretan izenpetu zituelako hainbat “hiri-gutun”. Ondoren sortu ziren Probintzia bietan hiri berriak: Araban Agurain, Kontrasta, Kanpezu eta Korres, eta Gipuzkoan, itsasorako bidean Deba, Arrasate eta Bergara. Nafarroako muga-inguruan, ordea, 1256an bertan sortu zituen Segura, Ordizia eta Tolosako hiri harresituak, beren gotorleku eta dorretxeekin, hauek garbiki defentsarako xede militarrarekin (Intxausti, 2007a,

23-25), Nafarroako muga-inguruetan egonkortasuna ziurtatzeko, alegia.

Gaztelako erregeak sortuak direnez, hiru horiek Ahaide Nagusien eskumenetik at geratzen dira, baina bertakoak dira hango biztanleak. Batzuek gordetzen dituzten hirien sorrerako errege-gutunetan antolatua etortzen da komunitatearen bizi-araua –Gasteizko foruaren arabera antolatua, hain zuzen–, eta inongo jauntxoren esaneko izan gabe autogobernatzen dira. Hiri berriak sortzeko prozesuak aurrera egiten du eta, XIV. mendearen bigarren aldian Ermandade gisa antolatzen hasten dira. Elkarte honen finkatze-prozesua aski konplexua izan zen. Saio bat baino gehiago egin ondoren lortu zuen sendotzea Gipuzkoako Probintzian. Ermandadearen Koadernoetatik sortuko da Gipuzkoaren Forua (Carrion, 1975, 66-68).

Horrela, bada, bere eskumenean zeuzkan lurraldeak berreskuratu ahal izateko bideak ixten zizkion Nafarroari. Erregeak, "hiri-gutunak" ematean, bertako hiritarrei zerga-pribilejio eta ahalmen juridiko batzuk luzatzen zizkien eta horien arabera antolatzen zuten beren komunitate-bizitza, baina oraingoan penintsula-mailan ematen diren udal-foruen mailan. "Hiri-gutun" hori jaso aurretik, ordea, baziren "foruak" deitzen zitzaien ohiturazko arautegiaren arabera funtzionatzen zuten herriak ere. Horietako bat zen, adibidez, Tolosa. Ohiturazko foru horien gainean ezarriak izan ziren, bada, pribilejio batzuetara mugatzen ziren errege-foruak. Hiriak, bada, erregeak bideratutako berrikuntza-proiektu baten ondorio dira, bertakoekin adostasunean gauzatua izan zena. Erregeak, hainbat pribilejio eskaintzearekin batera, inguruko jauntxoen menerapen-egoeratik askatzeko bere babesa ere eskaintzen zien, zerbait garrantzitsua

zena. Harresituak izan ziren, ez bakarrik Nafarroako muga zaintzeko, baita lekuko jauntxo bandokideen erasoetatik aske izateko ere (Intxausti, 2007a, 71). Adostasuna ez zen dena hutsaren gainean eraikia. Alderdi biek interes partekatuak zeuzkaten jokoan eta horrek esplikatzen du, neurri batean, Gipuzkoak Gaztelako Koroari dion begirunea, bereziki euskal politikaren protagonismoa Ahaide Nagusiek gidatu izan zuten garaian.

Hiri berrien sorrerak, kasu batzuetan bederen, hizkuntzan ere bere eragina izan zuen. Hiri berrien izendapenetan gaztelerak ordezkatzen du euskarazkoa: Ordiziaren lekuan Villafranca de Oria, Legutioren lekuan Salvatierra, Hondarribiaren lekuan Fuenterrabia, eta abar. Ageri da aspaldikoa dela euskarak Gaztelaren esku ezagutzen duen asimilazio-prozesua. Baliteke ongi kalkulatutako politika izatea ere, azken xedetzat zuena euskal lurraldea bere osotasunean asimilatu eta bereganatzea.

Gauza jakina da Berastegi, inguruko beste hainbat herriren antzera, ia bi mende eta erdiz Tolosako Udalari atxikirik egon zela. Baina zer dela eta? Lotura hura zerk eragin zuen, eta zerk geroko etena? Saia gaitezen galdera horiek argitzen.

## 2. Tolosako Udalaren babesean (1374)

Berastegi Beotibarko batailan bete-betean sartuta ikusi dugu 1321ean. Eta handik 53 urtera, berriz, Berastegi “unibertsitate” izenarekin Tolosako Udalerriaren babesean kokatuta agertzen da, beste 24 herrirekin batera. Izan ere, garai hartan Tolosa, Berastegi eta inguruko herri txikiak ez bezala, hiri harresitua zen, nahiz arma-gizon finkorik ez

zuen. Herri txikiak hiribilduetan babesteko prozesu hau, batez ere, Nafarroako mugatik hurbil zeuden hiribilduen inguruan gauzatu zen, zehazki Tolosan lehenik, eta handik hamar urtera Goierriko Ordizia eta Seguran. Herrien arteko batasun honek, orokorrean, 230 urte iraun zuzen, 1384tik 1615era bitartean. Badirudi batasun hori borondatezkoa izan zela, herri txikiek hala eskatuta bideratua. Seguran bederen, bai (Intxausti, 2007a, 71-72).

Zergatik bildu ziren hiribilduen babesera? Horretarako bi arrazoi bederen badira. Biak osagarriak. Azentua zertan jartzen den jakitean dago kontua.

Batetik, Gaztelako errege Juan I.ak 1387ko otsailaren 2an izenpetzen duen dokumentuan, arrazoi nagusien artean, muga-hurbiltasunak dakartzan kalteen aipamen esplizitua egiten da eta, zentzu honetan, hiribilduak herri txikiei eskain diezaiekeen babesa nabarmentzen: "Et que por quanto esa dicha villa está en fronteria de Navarra e en comarca do ay muchos ladrones e malhechores que fasen muchas fuerças e robos e muertes de omes e otros muchos maleficios que nos pidían por merced que vos mandásemos confirmar la dicha vesindat, porque vosotros pudiésedes bevir en pas e en sosiego e fuéredes amparados e defendidos de los tales malhechores et la dicha villa fuese más poderosa para nuestro serviçio"[35]. Errege-testu honetan, bada, muga-herrietan "bakea eta sosegua" bermatu beharra nabarmentzen da, gauza gogorrak gertatzen ari direlako: lapurretak, heriotzak. Funtsean, bi erresumen arteko muga-arazoa da hor planteatzen dena, ia bi mende pasa eta gero ere, artean erabakitzeke dagoena.

Bestetik, Legazpiko ordezkariek Segurako Kontzejuari agertu zizkioten arrazoien artean, gizon gaizto eta indar-

tsuen erasoetatik hobeto defendatzearena aipatzen da: "E especialmente porque para serviçio del Rey serían mejor defendidos de los malos omes e de los omes poderosos que lo suyo muchas veces les solían tomar contra su voluntad"[36] Gizon gaizto eta indartsu horiek oinetxeetako jauntxoak zirela zehazten da ondoko pasarte honetan: "En consecuencia, con los avecindamientos colectivos en la Villa de Segura, se sustraía el control señorial de los dueños de las poderosas casas solares rurales la mayor parte de la tierra del Alto Urola y del Alto Oria" (Truchuelo, 1997, 37).

Azken ikuspegi horren alde esan behar da, hirietan auzotzeko eskaera egin zutenak ez zirela muga-herriak bakarrik izan. Arrasaterekin elkartu ziren defentsarik gabeko zazpi herri. Beste hiri batzuk, berriz, auzokoen egonkortasuna ziurtatzeko xedearekin sortu ziren, hala nola Zumaia, Mungia, Errigoiti eta Larrabetzu (Garcia de Cortázar; Lorenzo Espinosa, 1994, 61-62). Hauetan, Gipuzkoan bezala Bizkaian ere, herriko jauntxoen beldur ziren auzotarrak.

Gaztelatik begiratuta, noski, muga-arazoa da ezegonkortasunaren zergati nagusia; bertakoen ikuspegitik begiratuta, aldiz, etxeko jauntxoen gaiztakeria. Berastegiren kasuan alderdi biak bete-betean ematen zirelakoan gaude, Nafarroako mugatik lehen herria izaki eta, gainera, herri dorreduna, herritarrak etengabeko istiluetan murgilduta bizi baitziren.

Nolanahi ere, komeni da jauntxoen bidegabekeriaz zerbait gehiago zehaztea, gurean gizarte-berdintasuna izan zela lege aldarrikatzen bada ere, jauntxo feudalen zipriztinez zikinduta agertzen baitira euskal geografiako hainbat leku, hauen artean Berastegi ere bai.

Esana dugu, Beotibarko batailaren inguruan jardutean, Ahaide Nagusiek beren artean zituzten interes kontrajarriek gizarte-gatazkak eragiten zituztela eta herritar soilak haien uztarpera jarrita zeuzkatela inolako defentsarik gabe.

Hasieran, XIII. mendean zehar, hiribilduak irla barreiatu batzuk baino ez ziren izan botere feudalarentzat. Hurrengo mendean, ordea, hirien garapenarekin batera, krisiak sakonki astindu zuen euskal gizartea –bereziki, nekazal gizartea–, eta lurraren ustiapenean oinarritutako ohiko noblezia errenta-iturri berriak bilatzera behartu zuen. Egoera berri honen aurrean, bada, gizarte-gatazka asko areagotu zen.

Alde batetik, nekazal gizartean jauntxoen eta nekazarien arteko gatazkak zorroztu egin ziren, hauek gero eta zerga astunagoz kargatzen zituztelako, eta, ezin biziak eta izuak eraginda, hasiak ziren auzotar batzuk herri txikietatik ihes egin eta hirietan babesten. Euskal herrietan nagusitu zen egoera gaiztotu honek, anaiak anaien kontra borrokan, Berastegi herrian ere eragin erabakigarria izan zuen. Ez ziren kontuan hartu beharreko bakarrak nafarren erasoak. Herrian bertan zituzten etsaiak. Garai hartan, bertako lursail gizenen eta hedatsuenak Berastegiko Jaundegiko jauntxoarenak ziren, eta auzotarrek arrazoi desberdinengatik –aziendak larrean zaintzeagatik edo errotan irina egiteagati–, diru-kopuru jakin batzuk ordaindu behar izaten zizkioten. Zapalketa-egoera honek haserre bizia sortu zuen herritarren artean eta etengabeko altxamenduak izaten ziren herrian.

Bestetik, nekazal nobleziaren diru-iturriak eskastearekin batera, bandokideen arteko gerra piztu zen, Euskal Herri osora zabaldu zena. Bi leinu edo bandotan banatzen ziren beren buruak halakotzat jotzen zituzten oinetxe ospetsukoak, alde batean Oinaztarrak eta bestean Ganboa-

rrak zeudela. Oinaztarrak ziren Lazkao, Amezketa, Loiola, Ozaeta, Gabiria, Arriaran, Ihartza, Untzueta, Lizaur, Murgia, Altzega, Agirre, Zerain, Ugarte eta Berastegiko oinetxekoak; Ganboatarrak, aldiz, Olaso, Balda, Zarautz, Iraeta, Zumaia, Jaolaza, Zegama, San Millan eta Atxegakoak. Guztira, 24 oinetxe. Badirudi lehenago halakotzat zeuzkatela Enparan, Etxazarreta, Azkue, Leaburu eta Azeliango oinetxekoek ere. Horien buru, Oinaztarren bandotik, Lazkaoko jauna zen, eta Ganboatarren aldetik, berriz, Olasokoa Elgoibarren. Berastegiko jauntxoa, armarrian ikus daitekeenez, Lazkaokoari lotua agertzen da. Bi bando horien zergatikoa azaltzera pasatzen bagara, berriz, ageri da, sakonean, botere-arazoa dela, nork agindu herrian, eta hortik zetozela etsaigoak, ezinikusiak eta mendekuak. Antzeko gatazkak ematen ziren Nafarroan ere, Beamondar eta Agramondarren artean, Gaztelan Castrosen eta Larasen artean, Bizkaian Urkizu-Abendañoen eta Muxika-Brutoien artean, Araban Aiala eta Callejas-en artean. Hauek beren etxeak, dorreak edo gotorlekuak zituzten beren kartzelekin eta bertan sartzen zituzten kalte egiten zietela uste zutenak, ez zegozkien epai-atribuzioak arbitrarietatez hartuz, beren kontura, inor kontra egitera ausartzen ez zelarik (Gorosabel, I, 1899, 279-281). Tolosaldean zeudenak, Berastegikoarekin batera, hauek ziren: Amezketakoa, Amasan Larreakoa, Andoainen Lizaurkoa. Euskal Herria hain lurralde txikia izanda, gazteluz josita zegoen alde guztietatik. Nekazal ekonomia krisian sartzean, bada, berori gidatzen duen gizarte-klasea –jauntxoena–, eta horri eusten dion aparatu militarra –gazteluena–, jartzen dira auzitan. Herriko jauntxo horiek dira, hain zuzen, goiko testuetan aipatu diren “gizon gaizto eta ahaltsu” horiek.

Eta azkenik, nekazal nobleziaren krisia areagotu zuen beste faktore garrantzitsua, hirien garapen-prozesu azkarra izan zen, artisautza eta merkataritzan oinarritutako produkzio-mota berri bati hasiera eman ziona. Horren barruan eratu zen nobleziarekin lehian sartuko zen klase berri bat, hiri-burgesiarena. Bi produkzio-moduren arteko lehia zegoen funtsean. Eta lehia honen harian jauntxo feudalen edo erdifeudalen ekonomia krisian jautsiz doan heinean, beren ondasun-iturriak nekazal ustiapenean ezarriak dauzkaten Ahaide Nagusiak beren artean borroka odoltsuan murgilduko dira bandotan zatituta. Horietako sektore batek jakin zuen, halere, hiri-ekonomiara garaiz hurbiltzen eta hiri-bizitzara moldatzen.

Hiriek, beren aldetik, Ermandadeen inguruan autoantolatzean eta beren komunitate-arauak finkatzean, erdiz erdi asmatu zuten eta ordura arte nekazal gizartean nagusi izandako Ahaide Nagusien kontrako borrokan egiazko botere alternatiboa izan zuten eskura. Ermandadeek ordezkatuko dute udal-boterea eta horiek defendatuko dituzte hiribilduen eta hirien interes burgesak. Nahiz Ermandadeek eta Ahaide Nagusiek adostua zuten behingoz bukatu behar zela nekazal gizartean ezarrita zegoen anabasarekin, oraindik luzexko joko du baketze-ahaleginak.

Dena den, XV. mendean apalduz joango dira gatazka horiek eta mende honen erdi aldera, 1451etik 1456. urte bitartean, Ermandadeek jauntxo oldartsuenak herritik ohiltzea eta beren dorretxeak desegitea lortuko dute eta, ondorioz, behingoz bandoen arteko gatazkarekin bukatuko da (Garcia de Cortázar; Lorenzo Espinosa, 1994, 62-63). Gazteluen goi-solairuko dorreak moztu zituzten eta egoitza militarra izatetik zibila izatera pasatu ziren, horietako

batzuk baserri-beharretarako moldatuz. Moztutako horien artean aurkitzen zen, hain zuzen, Berastegiko Jaundegikoa ere, haren goiko zatia XVI. mendean izan baitzen eraikia, lehengo zulo estu eta eskasen ordez leiho handiagoak eginez. Azken batean, Gaztelako errege Enrike IV.aren laguntzarekin kontatuta, lehia horretan hiri-burgesia izango bada ere irabazlea, XVI. mendera arte itxaron beharko da bi mendez irauten duen sua erabat itzal dadin.

Gatozen Berastegira gatazka horren oihartzunak jasotzera. Ermandadearen ekintzak, hasiera-hasieratik, Oinaztarrek eta Ganboarrek ezarria zeukaten anarkia gainditzera bideratuak zeuden. Ahaide Nagusien boterearekin bukatu nahi zuten. Honela, Beotibarko bataila bukatu eta berehala, Iruñeko merinoak Ermandadeari laguntza ematen dio, gaizkileak zigortzeko. Eta helburu horrekin, 1330ean, Berastegiko dorretxeari eraso zion eta bertako Gartzia Martiniz jauntxoa atxilotu zuen bere beste bederatzi lagunekin batera, hauek Nafarroan kalte larriak eginak zirelako. Ermandadearekin adostuta zeukatenaren arabera, Tolosako agintaritzaren eskuetan jarri zituzten, baina jauntxo hau indartsua izaki, ez ziren atxilotuak gorputzez zigortzera ausartu (Kanpion, VII, 1969, 363). Gogora dezagun Berastegiko jauntxo hau, esana daukagunez, Karlos II.aren ondoan agertzen dela. Hemen garbi asko agertzen den bezala, herriko "gizon gaizto eta ahaltsu" horiek ziren mugako arpilaketa-joko zikinetan zeharka edo zuzenean inplikatuta zeudenak.

Testuinguru honen barruan kokatzen da nekazal herri txikiak hiribilduetan auzotzeko prozesua. Azkenean, bakarka ezin-eta, auzo-herrietako gatazketatik eta herriko jauntxoen uztarpetik askatu nahiak eramango du Berastegi

herria Tolosako udal-eskumenean jartzera, besteak beste, haran bereko Ibarra, Belauntza, Berrobi, Gaztelu eta Elduainekin batera. Auzotze hori 1374an egin zen eta handik bost urtera egiaztatu zuen Gaztelako errege Juan I.ak. Zergatik lehenago ez? Badirudi arazoak egon zirela auzotze horretan, zeren prozesua ez baitzen erabat burutu 1385. urtera arte. Seguru asko hamar urte horiek tirabiran eraman zituzten herriko jauntxo feudalekin, hauek ez baitzuten galdu nahi herri horien gaineko beren eskumena. Herri horiek, ordutik aurrera, Tolosako Udalaren babesean aurkituko dira (Gorosabel, 1956, 12-14). Auzotze hau, beste leku batzuetan, hamar bat urte geroago egin zen, Segurako hiribilduan, zehazki, 1384an (Intxausti, 2007a, 71-75).

Tolosako Udalarekin adostutako auzotze horrek herri eskatzailea hiribildu babesleari eskumen zibil eta kriminala aitortzera eta, bidenabar, batera zituzten gastuetan eta zeregin militarretan parte hartzera behartzen zuen; maila ekonomikoan, ordea, beren lur eta ondasunen jabetza eta errenten administrazio-kudeaketa beren esku gordetzen zituen. Garrantzi txikiko gauzetarako herri bakoitzak bere alkatea zeukan eta honek Tolosakoaren ordezkari gisa administratzen zuen justizia. Barruko gobernu eta administrazioari zegokionez, berriz, praktikan autonomoak ziren.

Batasun horretan, itxura batean, Udal biak ateratzen ziren irabazten: Berastegik Ahaide Nagusien uztarpetik askatzea lortzen zuen Tolosa hiribilduaren babesean, eta honek bere boterea handitzen zuen Gipuzkoako lurraldean, hemengo Batzar Nagusietan berak ordezkatzen baitzuen Berastegiri zegokion batzarkidea (Zavala; Garmendia Larrañaga, 2007, 17). Jakin behar da Tolosak, bere 24 herri txiki horiek auzotzean, Gipuzkoako herrialdearen seigarren zatia

beretzen zuela eta Batzar Nagusietako ordezkaritzan gehiengoa zuela.

Tolosa hiribilduaren interesak oraindik areago zihoazen, sortzetik bertatik erakutsi baitzuen bere joera espantsionista eta klasista. Sorreratik bertatik, kapareak eta hauen langile petxeroak jarri ziren bertan bizitzen. Bi gizarte-klase horiek garbiki bereiz zitezkeen bertako gizartean. Bestalde, Nafarroako mugatik hain gertu egonda, Nafarroatik etor zitezkeen erasoei erantzuteko leku estrategiko bezala hautatua izan zen eta, xede horren argira, kapare-klaseak erabateko leialtasuna gorde ziezaion Gaztelako erregeari, honek zergak ordaintzetik libre utzi zituen jauntxoak. Ez horrela petxeroak. Bestalde, Nafarroako merkatal harremanetan gune garrantzitsua izaki, inguruko herriak bere udal-jurisdikziora biltzen ahalegindu zen, babesa eskaintzearen truke. Egia da, Berastegiren kasuan bezala, muga-arazoak ere bazirela tartean, baina, funtsean, Tolosaren espantsionismoa arrazoi ekonomikoak eragin zuen. Eta honen froga da Leitza eta Areso herriak anexionatu egiten dituela 1430eko irailaren 20an, arma-bidez eta Gaztelako Juan II.aren onespenarekin, nahiz erresuma biek su-etena hitzartua zuten, eta menpekotasun-egoera horretan jarraituko dutela 1437. urtera arte. Herri horietako burdina zeukaten begiz jota (Achon; Orella, 1998, 268-271).

### 3. Udal-autonomiaren berreskurapena (1615)

Zein izan ziren Tolosako jurisdikziopetik askatzeko arrazoiak? Labur esanda, hasieran auzotzeko zeuden defentsarako arrazoiak desagertu egin zirela eta, gainera, une jakin batetik aurrera interes kontrajarriak zituztela.

Hasteko, orokorrean esanda, bandokideen borroka armatuaz lagunduta etorri zen krisi-egoera larria igaro ondoren, eskualdeko testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoak aldatuz joan ziren eta 1484tik aurrera, Ermandadearekin Probintziaren antolaketa indartuz zihoan heinean, auzotzean zeuden hasierako arrazoiak ere desagertu egin ziren. Bestalde, Errege Katolikoek Nafarroa 1515ean konkistatu zutenez geroztik, hura ere, *nolens volens*, Gaztelako monarkian sartua aurkitzen da eta, bi erresumen arteko talka historikoa mapa geografikotik desagertzean, bukatutzat jo daitezke muga-arazoak ere. Maila batean bakarrik, ordea, lurralde konkistatua berreskuratzeko ahaleginak agertuko baitira, Belateko kasuan bezala. Baina arrakastarik gabe.

Hori izan zitekeen kanpo-eragile nagusia, auzotuta zeuden herri guztiei modu bertsuan zegokiena, hots, sorrera eman zionaren zergatia desagertu izana. Horrela, bada, Tolosarekin elkartzeko zergati nagusia izandakoa desagertu zenean, berriro lehengo egoerara itzultzeko lehia bizian jarraituko du Berastegik ondoko mendeetan.

Baina aipatutako horiez aparte, baziren beste barnefaktore batzuk ere, hiri babeslearen eta herri babestuen kudeaketa administratibo eta politikoan zuzenean eragiten zutenak eta maila horretan, hain zuzen ere, interes kontrajarriak agertzen hasi ziren urteen poderioan. Arazo horiek bi mailatan bederen islatzen ziren: politika probintzialean eta udalekoan.

Batetik, Probintziako politika orokorrari zegokionez, kontuan izan behar da nola zegoen egituratua Batzar Nagusietan parte hartzeko ordezkaritza-sistema. Auzotutako herrien ordezkaritza hiri babesleak beretua zeukanez, Batzar

Nagusietan boto-gehiengoa lortzen zutenek jasotzen zituzten abantaila gehienak kutxa publikotik. Eta ranking horretan, Mutrikun 1567an egindako Batzar Nagusietan, buruan zegoena Tolosa zen 356 botorekin, segidan Donostia 213rekin. Zentralitatea, beraz, Tolosak zeukan. Zergatik? Tolosaldeko herri txiki asko –hogeiren bat inguru eta horien artean Berastegi–, bere jurisdikziopean zeuzkalako. Sistema horren arabera, beraz, bistakoa zen aski zela Udal gutxi batzuk ados etortzea boto-gehiengoa lortzeko (Fernández Albaladejo, 1975, 101-106).

Bestetik, Tolosan auzotutako herrien artean, Berastegik arrazoi espezifiko batzuk zeuzkan, batik bat ekonomikoak, bien arteko harreman administratiboa zailtzen zutenak. Tolosaldeko herrietan bera zen indartsuena, Elduainekin batera, bera mendietan eta lurretan herri-ondasunez hornituena, eta horien ustiapenerako egokien zerizkien proiektuak bideratzeari ekin zioten. Orduan bistaratuko dira elkarrekiko interes kontrajarriak udal-politikako sail jakin batzuetan eta, azkenean, auzitan sartuta bukatuko dute.

Arazoaren muinera joateko bidea laburtuz, aurreratuko dugu muga-kontua izan zela auzibide nagusia. Berastegik Nafarroarekin eta Andoainekin errepide-komunikazio zuzena nahi zuen; Tolosa, aldiz, horren guztiz aurkakoa zen, Arabatik zein Nafarroatik zetozen bideen erdigunea izanez jarraitu nahi baitzuen merkantzien gaineko zergak kobratzen segitu ahal izateko. Izan ere, horretarako gune estrategikoan kokatua zegoen, hantxe Oria arroan. Handik pasatzen ziren Gaztelatik zein Nafarroatik Orio, Getaria, Donostiara, Pasaia eta Hondarribira zihoazenak, Hondarribira Bidasoatik zihoanarekin lehia bizian. Nafarroa eta Aragoiko Juan II.a erregeak 1442an emandako pribilegioaren

bidez, zeina Udaleko klausula batean baitator, Nafarroatik Donostia edo Getaria arteko kostaldera zihoazen merkantziak oro, eta *viceversa*, behartuak zeuden handik pasatzera eta bertan zergak ordaintzera. Hori dela-eta, auzi asko izan zituzten elkartuta egon ziren epealdian zehar. Debekatua zegoen, bada, Leitzarango bidea erabiltzea garraio-bide bezala, eta agindua emanda zegoen handik pasatzen harrapatzen zituzten zamariak eta hauek zeramatzaten merkantziak oro (oihalak, altzairua, burdina, ardoa, sagardoa edo beste edozein gauza) konfiskatuak izango zirela. Horrela, bada, Tolosak gordetzen zuen muga-zergaren monopolioa.

Badirudi Tolosak zeukan merkatal monopolio honek hainbat gatazka sortu zituela inguruko herrietan. Izan ere, bertako kapareek salatzen zutenez, Tolosatik urrun zeuden mendi-bideetatik pasatzen ziren merkatariak. Horregatik, horrelako iruzurrekin bukatzeko, aduana txiki batzuk ezarri zituzten Lizartza, Gaztelu, Amezketa eta Abaltzisketan. Ez dirudi neurri hori oso errentagarria gertatu zenik. Baina asmoa garbi zegoen: onean edo txarrean, merkatari guztiak Tolosatik pasatzea behartzen zituzten. Gainera, kasu batzuetan, behar baino gehiago kobratzen omen zuten, legez kanpo. Arrazoi honengatik ezarri zioten salaketa hamarren jabea zen Domenjón González de Andia jauntxoari Azkoiti eta Azpeitiko mandazainek Tolosako Batzar Nagusietan 1478ko apirilaren 20ean (Achon; Orella, 1998, 271). Testuinguru honen barruan kokatu behar da Berastegi eta Elduaingo auzotarrek eta Leitzarango olagizonek bideen kontuan Tolosarekin izandako desadostasuna.

Lehen auzia, Tolosa hiriak Berastegi eta Elduaingo Udalei ezarria, 1479an eman zen, Leitzarango burdinoletako nagusiek eta auzoek beren ganaduak eta salgaiak

itsasoratzeko bidea Belauriate eta Urdelargo mendatetik egin nahi zutelako:

> "Uno de tales principiado en el año de 1479 fue sobre el paso que los vecinos y dueños de sus ferrerías de Leizarán querían hacer con sus bestias y mercaderías por los caminos de Belauriate y Urdadeain para los puertos de mar" (Gorosabel, 1972, 108).

Seguru asko, garraiatu ere handik garraiatuko zituzten beren merkantziak, bestela ez zituen eramango auzitara Tolosak.

Berastegi eta Elduaingo Udalek arrazoitzen zuten esanez pribilegio hori ez zegokiola Leitzarango kasu horri eta, beraz, Tolosak ez zuela inolako eskubiderik beraiei beren ohiko bideetatik ibiltzen debekatzeko eta alferrikako joan-etorrietan denbora galarazteko: "derodear quatro leguas de yda y venida, de tal manera que en lo que avían de ocupar un día de yr y venir, ocuparían dos"[37] (Barrena Osoro, 1991, 155). Olagizonen asmoa beren burdinoletan ateratako burdina padurara (*a la marisma*) ateratzea zen, Urdelar eta Belauriaten barna, Tolosan zergak ordaindu gabe eta zuzenean:

> "... Yr y venir con qualesquier vestias cargadas de mercadurias, así desde nuestro reyno como de fuera por los dichos caminos de Belauriate y Vidadearri, que van desde la dicha Verastegui y de las dichas ferrerias (de Leizarán), fasta las dichas tierras y villas de la marisma y San Sebastian. Y otras tierras y villas de la provinvia de Guipuzcoa, y por otros caminos que son en el termino de Leiçaran"[38].

Lehen auzi hartan olagizonek eskatzen zutena lortzen dute, hau da, beren merkantziak Belauriatetik kostaldera eraman ahal izatea. Eta hori zen, hain zuzen, Tolosa hiribilduak debekatu nahi izan zuena. Lortu gabe geratu zen, baina bereari eutsi zion. Handik 19 urtera Valladolideko kantzelaritzak 1498ko otsailaren 22an emandako bigarren eta azken auzi erabakitzailean, hemen ere Leitzarango olagizonei beraiek landutako burdina Belauriatetik garraiatzeko eskubidea aitortzen zaie, baina –eta hemen dator debekua–, aurrerantzean behartuta egongo dira Tolosatik pasatzea salgaiekin Nafarroara joan edota handik etortzeko.

Zehaztapen horren arabera, bada, Berastegi, Elduain eta Leitzarango olagizonei burdina eta beste merkantziak beraiek nahi duten lekutik garraiatzeko eskubidea aitortzen zaie, Donostia eta Getaria bitarteko bideetatik salbu, azken kasu honetan behartuta leudekeelarik Tolosatik garraiatzea. Gorosabelek (1972, 108) honela laburbilduta dakar epaiaren edukia: "Nafarroatik Gipuzkoako itsas-portuetara zetozen, edo hemendik hara zihoazenak, ezin zirela pasa Tolosako hiritik baino".

Honela Tolosak, 1442an lortutako pribilegioari eusten dio beretzat gordez Nafarroako muga eta itsasoaren arteko trafiko-kontrola, baina ez lehen bezain erabatekoa, Leitzarango olagizonek Belauriatetik eta Hernanitik kostalderako bidea irekita izatea lortzen baitute[39]. Baina epaia, funtsean, Tolosaren aldekoa izan zen. Azken batean, Tolosako jauntxoen interes ekonomikoak nagusitu ziren: "Todo parece indicar que la realeza castellana realizaba considerables esfuerzos por potenciar a Tolosa y hacer de ella un importante foco comercial" (Achon; Orella, 1998, 272). Tolosak,

Berastegi eta Elduaingo Udalekin izandako auzian agertzen den bezala, amorratzen zegoen orduan martxan zeuden Leitzarango Plazaola, Barrenola, Mustar, Olokiegi, "Ayenturia" eta "Narvarrain"go burdinolen emaitzak bereganatzeko (Achon; Orella, 1998, 271).

Auzi horretan, bestalde, jakingarri gertatzen da hiribilduek beren inguruko herri txikiak nola kategorizatzen dituzten ikustea. Tolosak, kasu honetan, berak kontrolatzen ez dituen bideak "bidezidor" bezala sailkatzen ditu, merkantziak garraiatzeko balio ez dutenak leku menditsu eta arriskutsuetatik pasatzen direlako eta, ondorioz, debekatu beharrekoak. Oso bestelakoak dira, aldiz, hiribilduak zeharkatzen dituztenak, hauek, seguruagoak izateaz gain, lauagoak baitira eta jendeztatuak baitaude. Leitzarango olagizonek, ordea, ez dituzte aintzat hartzen horrelako balorazioak, haientzat atzean zegoen arrazoi nagusia zergen kobrantza baitzen. Gainera, ordurako eginak zituzten bidekonponketak eta egokitze-lanak.

Esan beharrekoa da, baita ere, nafar batzuek Elduain eta Berastegiko olagizonen aldeko lekukotasuna eman zutela, Tolosak irabazitako 1498ko epai horretan. Nafarrak, beraz, interesatuak zeuden Lekunberritik Donostiara eta Pasaiara zeraman bidea erabiltzeko, Tolosatik pasa eta bertan zergak ordaindu gabe (Achon; Orella, 1988, 272).

Hurrengo mendean, 1569an, beste auzi bat ere izan zuten, oraingoan ere Tolosak Berastegi herriari ezarria, hemengo auzo-alkateak hangoari zegozkion eskuduntzak hartu omen zituelako. Halere, nahiz lehen bi auzi horiek galdu, hasierako asmo hartan ez etsitzen-eta, berriro Leitzarandik Andoainerako bidea irekitzeko proiektuari ekiten dio 1570ean[40]. Eta hau izanen da denetan sonatuena.

Berriro porrot egin zuen ekimenak, baina ez zen dena zaku zulatuan erori, atzetik atxikipen berriak ekartzea lortu baitzuen. Oraingoan, Berastegirekin batera, Andoain, Astigarraga, Donostia, Iruñea, Tutera eta Zaragoza, hauek guztiak bidea Leitzarandik egiten ahalegindu baitziren (Gorosabel, 1972, 108). Hauen ustez, bidea hortik egiteak ekar zitzakeen abantailak, besteak beste, hauek ziren: Ebrotik itsasorako bidea bi legoa –hamar bat kilometro inguru–, laburtuko zela eta, ondorioz, nafar merkataritzak ez zukeela Pirinioak zeharkatu beharrik izango, Donibane Garazitik Lohizunerako joan-etorria eginez. Ordura arte erabiltzen zena –Tolosatik zihoana, alegia–, mandazainentzat bakarrik balio baitzuen, orain Leitzarandik zalgurdientzat egitean, horrek ere gastuak aurreztea ekarriko zukeen. Hemen, erosotasunari aurrezkiarena eransten zaio. Bide laburrago eta erosoagoa gehi merkantzia handiagoak eramateko modua.

Zaragozak 1579an Tolosan zegoen aduana Berastegira edo Andoaina aldatzeko eskea egin zuen. Bi herri hauek berriro bidea egiteari ekin zioten, baina Tolosak oztopatu zien. Ahaleginak egin arren, berriro ere, eta hirugarrenez, Tolosak baliogabetu egin zituen haien ekimenak. Bide hura egin izan balitz, zalantzarik ez da, haranari eta hango burdinolei bizitza berria emateaz gain, ibilbide luzeko garraioak ere bere abantailak izango zituela. Baina asmotan bakarrik geratu zen.

Leitzarandik bidea irekitzeko proposamenarekin batera, 1570. urtean bertan Berastegik eta Andoainek Tolosatik banatzeko eskabidea egin zuten, baina ez zitzaien kasurik egin. Baina gertatu zen 1614an Espainiako errege Felipe III.aren (1598-1621) finantzak krisi-egoera larrian aurkitzen zirela eta, bere ekonomia saneatzeko, beren jurisdikzio

autonomoa ez zuten herriei hiri-titulua, *villazgo*-a deitua, saltzen hasi zela. Hamabost herri inguru izan ziren 1615ean Tolosako udal-jurisdikziotik banatzea lortu zutenak[41], horien artean Elduain eta Berastegi, bertako 269 auzotarren artean orduko 6.725 dukat ordainduta, gehi 300 dukat, eskribau-gastuak jasotzean (Carrion, 1975, 81). Kopuru hori bera, ondoko urteetan, Gorosabelek (1972, 108) eta Serapio Mugicak (1923, 951), hurrenez hurren, 73.975 errealetan eta 18.943, 75 pezetatan kalkulatuko dute. Erregea urte horretan bertan Donostiara zetorrela-eta, 120 berastegiar joan ziren ongietorria egitera eta berak egindako mesedearengatik eskerrak ematera. Handikiro ospatu zuten beren udal-autonomiaren lorpena. Baina larrutik ordainduta, 66 baserri geratu baitziren hipotekatuta (Elosegi, 2010, 34-35).

Tolosak ez bide zuen onez hartu Berastegiren banantze hori, ezta beste herriena ere, beste arrazoien artean, handik aurrera Gipuzkoako Batzar Nagusietan bere eskumeneko herrien ordezkaritzari uko egin beharrean aurkitu zelako. Lortu zuen Leitzarango bidea galaraztea; ez, ordea, bere eskumenean uztartuta edukitzea. Erabat koiunturala izan zen Espainiako errege-azienda diru berriaren beharrean egotea eta, hutsaren truke noski, hiri-titulua saltzen hastea.

Elduain eta Berastegi izan ziren Tolosako Udaletik aldentzen lehenak. Berastegik, behingo unibertsitateak, hotsandiko hiri-izendapena hartzen du, bere Udaletxeko armarrian hizki handiz idatzia datorren bezala: “Villa Noble y Leal”. Harrezkero, herri independente bilakatzean, alkatearen eskumena ere zabalagoa izango da eta lehen instantziako epaitegia ere herrian bertan egongo da. Areago oraindik: lehen ez bezala, Probintziako Batzar Nagusietara

bere ordezkariak igortzeko eskubidea eta obligazioa dauka, horretarako diru bat ordainduz, noski, eta hala egiten du. Gipuzkoako Batzar Nagusietan 15. eserlekua betetzen du Korrejidorearen ezkerretara eta 33. lekuan ematen du bere botoa 24 su edo familia ordezkatuz (Gorosabel, 1972, 111). Belauntza, Berrobi, Gaztelu, Ibarra eta beste bost herri gehiagok, aldiz, oraindik Tolosari atxikirik jarraitu behar izan zuten, beste arrazoien artean, beren askapena lortzeko aski dirurik ez zutelako. Halere, Tolosari atxikirik egon arren, herri horietako alkateek beren eskuduntzak zerbait gehitu egin zituzten.

Hurrengo mendean, 1714an, hasi ziren Gaztelu, Orexa eta Lizartza banatzeko asmotan, baina ez bide zuten lortu. Geroago, 1802an, lortuko dute Ibarra, Belauntza eta Hernialdek; Berrobi, Gazteluk-eta, aldiz, Tolosaren jurisdikziopean jarraituko dute, 1845eko Udalen legea Gipuzkoan aplikatuko den arte. Garestia gertatzen baitzen ordezkariak Batzar Nagusietara igortzea, gastuak murrizteko asmoz, Belauntza eta Ibarra elkartu egin ziren 1805ean, "Olavide" izenpean, bien artean ordezkaritza komuna igorriz (Gorosabel, 1972, 106). Berrobi eta Gaztelu herrien ordezkaritza, aldiz, Tolosak zeukan, lehen bezala (Gorosabel, 1972, 112; 198).

Hemen ageri da, Tolosako jurisdikziopetik aldenduz joan zireneko herri horien prozesua, luzea bezain anitza izan zela. Tartean, arrazoi krematistikoa gertatzen zen erabakigarriena. Lurrez aberatsenak izan ziren loturak hausten lehenak. Horien artean, esana daukagunez, Berastegi eta Elduain, hauek lursail zabalak baitzituzten batera kudeatzen zituztenak, batez ere Leitzarango haranean. Hango larreak eta burdinolak kudeatzen zituzten, errentan emanda.

Bestalde, bi herri horiek dira Tolosatik urrutien daudenak ere. Horrezaz gain, Berastegi zen, seguru asko, Aro Modernoan Tolosaldeko herririk populatuena. Eta diogunaren froga izan liteke bera izan zela bidea Leitzarandik egiteko proposamenarekin aurpegi eman ziona, bera erabateko independentzia lortzen ere lehena, bera hamarrenen auzian, epaitegiko gastuei erantzuteko gai izan zena. Hori ahalmen ekonomikorik gabe ez zitekeen egin.

Aurrerantzean Berastegiko Udalak, bere independentzia lortu eta gero, XVIII. mendean sartuta, beste auzi batzuk izanen ditu, oraingoan etxean bertan eliz patronatuaren inguruan, baina kleroarekin. Tirabira gogorrak sortuko dira lehentasunezko arrazoiengatik jauntxo-pribilegioen eta eliz eta udal-kabildoen artean. Alderdi hau, ordea, bigarren liburuan aztertuko da.

# V

# Hiri-morfologia

Aurreko ataletan ikusi dugu non kokatua dagoen Berastegi, zein ingurune fisikotan, muga-herri izateak nolako ondorioak ekarri zizkion, etxekoen eta auzokoen erasoetatik defendatzeko nola babestu behar izan zuen Tolosa hiribilduan. Azken batean, ikusi dugu zein izan zen bere bilakabide soziopolitiko eta juridikoa Erdi Aroan zehar, beti ere garaian garaiko gertakariak herria bera baino testuinguru zabalago batetik begiratuta ulertzen saiatuz eta eman izan diren interpretazio batzuk kritika-galbahetik pasatuz.

Baina herriak, sortuz gero, izaki bizidunen antzera, hazi eta garatzen joaten dira, eta garaian garaiko biztanleek dituzten beharren arabera, beren sorterria egituratzeari ekiten diote. Horri deitzen diogu hiri-antolaketa. Eta Berastegik, esan bezala artzainen eta nekazarien bizigunea izaki, izan du eta badu berea. Funtsean, abeltzaintzari egokitutako hiri-antolaketa erakusten du hango arkitekturak, garbiki bereizten direlarik, batetik, herriaren buelta osoan zehar mendi-hegaletan kokatuta dauden baserri-auzoak eta,

bestetik, plazaguneko eraikinak eta baserriak. Eta ordekaren erdian, Jaundegi oinetxea bere Tolaretxea baserriarekin eta Parroki eliza, Elizalde auzo historikoa osatuz.

Berrikitan eraikin berri asko egin dira, batez ere, plazagunearen inguruan; auzoetan ere tartekatu dira ama-baserriaren lurretan etxe batzuk; oraindik, halere, lehengo egitura zaharrari eusten dio herri-hirigintzak. Jakin-minak egun ezagutzen dugun herri hori noiz eta nola egituratuz etorri den edo, hobeto esan, etxe eta baserrien eraikuntzan nolako eboluzioa eman den galdetzera garamatza. Aurreko ataletan azaldu da jadanik Berastegi “haran” bezala XI. mende-hasieran agertzen dela, oraingoa baino lur-eremu zabalago batean kokatuta Nafarroako erresumaren barruan, eta geroago unibertsitate izatetik hiri-tituluaren jabe izatera pasatu zela, oraingoan Gaztelako erresumaren barruan. Nolanahi ere, XI. mendetik XIV. mende-hasiera arte ezer gutxi dakigu, Gartzia IV.a Ramirez Berrezarleak, Iruñeko XIV. erregeak, 1141ean San Migel Aralarkoari Berastegiko bi erroten dohaintza egin ziola baino ez (Aguirre Sorondo, 1988, 397), eta galdezka jarduteak ez dakarkigu kontu handirik, ordukoaz ez baita agiririk. Ur-tantak jariatzen dituen horietakoa da informazio-iturria. Lurralde jakin batean bizitzen jartzeak, ezinbestez, beren bizitza soziala antolatzea eskatzen du, gizarte-bizitzako esparru fisiko, ekonomiko, soziopolitiko, kultural eta erlijiosoak zedarrituz joatea, alegia. Gizarte-bizitza eraikitzea suposatzen du, eta hori ez da egiten egun batetik bestera, mendez mende baizik. Zentzu honetan, bistan da Berastegi herri bezala egituratzen hasia zela jadanik XI. mendetik aurrera. Baina ez dakigu ondo zein izan zen lehen mendeetako hiritartzearen prozesua.

## 1. Etxe-izenen zerrendak (XIV-XIX)

Joaninazio Elosegik aztertzen ditu gai honi buruzko orduko eta geroko dokumentuak herriko *Aidanen* aldizkari txanbelinean eta gehienbat hark emandako datuetan oinarritzen gara geure azalpenean.

Berastegiko hiri-morfologiari buruzko lehen datuak XIV. mendekoak dira. Berastegik eta Elduainek elkarrekin kudeatzen zituzteneko lursailen berri ematen den 1319ko dokumentuan dator etorri Berastegiko lehen etxe-izenen zerrendatxoa. Bertan gaur ere zutik dauden etxe batzuk izendatzen dira orduko grafiarekin emanda, Harriagua eta Hariztun, gaurko Arriaga baserriaren lekuko zaharrak Amirialden, eta Ariztun[42]. Eta mendi-izen bat ere badator, 'Condiçaraça' deitua, gaurko Kondizaratz, Leitzako mugetan kokatua dagoena. Herriaren izena, "Blastegui" bezala dator emana. Noizkoa den ez dakigun arren, baliteke Berastegiko Jaundegi oinetxea horiek baino lehenagokoa izatea, aurreko ataletan ikusi bezala, XIV. mende-hasierako muga-borrokez dihardutén Nafarroako Kontuetan askotan aipatzen baita Berastegiko gaztelua, halaber horko "Garssia Martiniz de Blastegui" deituaren izena. Iturri berean dator Argisogorroko (Argisorre) Otxoa bidelapurraren hilketarena ere, 1354an gertatua[43].

Horrek adierazten du Berastegi jadanik jaun edo jauntxoen lurra dela XIV. mende-hasieratik aurrera bederen. Ordurako, noiztik hasita ez dakigun arren, herria auzotan egituratzen hasia zen, Ariztunugaldetik (Aiztunaldetik) Amirialde bitarteko lur-hegala aipatzen baita zehazki. Ezagutzen den aipamenik zaharrena 1270eko martxoaren 8koa da, non esaten baita Pedro Martinez jauntxoak, Berastegiko oinetxekoak, 25 marabedi jasotzen dituela

Nafarroako erregeari egindako zerbitzuengandik eta haren arrebaren ezkontzarako horni gisa prestatutako diruengatik[44].

Mende berean, xede berberaz diharduen 1399ko dokumentuan (Elosegi, 2004, 10-11), etxe-zerrenda gehiago luzatzen da, horietako gehienak egun ere zutik daudenak: Areizcun (Ariztun), Ançiola (Antziola), Bostinsoro (gaurko Grazienea), Arriaga, Obineta (Oñeta), Buluçia (Bulatzia), Sagastiberria, Ynça (Intza), Urdinarayn (gaurko Juanluzenea), gehi identifikatzen zailagoak diren besteok: Aynapsa, Obieles, Yturriça, Estuyn (Etsoin?), Ezcara, Urdinarayn, Urlande (Elaunde?). Bestalde, Obineta baserri-izen zaharraren kasuan, hura seguru asko 1826an Osiñeta izenarekin agertzen den leku berean kokatua egongo zen, Eguzkialden; itxura batean bederen, egungo Obinetazarra eta Obinetaberria baserriek izen-erro beretik datozenak dirudite, baina hauek hirigunean kokatuak daude. Toponimia lekuz aldatzen denean edo, kasu honetan bezala, arrastoak bitan agertzen direnean, jatorrizkoa zein zen eta non zegoen asmatzen gauza zaila da.

Berastegiko baserri horiek non kokatuak dauden kontuan hartuta, esan dezakegu ordurako jadanik egungo auzoak gutxi-asko eratuak zeudela mendi-hegalen jirabiran: lehendik Ariztunugalde eta Amirialdekoak, eta gero Urdinaraingoa, Izotzaldekoa eta Eguzkialdekoa. Zerrenda horretan Ariztunen elkartu zirenen etxe-izenak bakarrik agertzen dira –erabakiak hartzen zituzteneko herri-arduradunei zegozkienak, alegia–, eta seguru asko hamabosteko zerrenda hori asko luzatu beharko litzateke. Nolanahi ere, badirudi auzoetako baserri-multzoa, gaurkoarekin alderatuta, askoz murritzagoa eta barreiatuagoa izango zela. Beraz, XIV. mende-bukaeran, hiri-antolaketaren oinarriak botata

zeuden, abelazkuntzarako erabiltzen zen nekazal esparruan. Inon bada –salbuespen batzuekin, halere–, Berastegik gorde izan du esparru hori ere bere horretan, etxeak plazagunean sobera multzokatu gabe eta bai auzoetan sakabanatuta.

Hurrengo bi mendetan, XIV. mende-bukaeratik XVI.era jauzi eginda, beste etxe-izen berri batzuk ere aipatzen dira eta honek adierazten du auzoetan baserriak ugaltzen ari direla. Dokumentuen bidez egiaztatutako ondoko etxe-izen hauek datoz: 1536an Gorostiçu (Gorostizu), Sagastiverri, La Plaça (?) eta Rementeritegui (Rementero?), eta 1537an, lehen aldiz, Irazazabal (Iriazabal?). Baina mende honen erdialdera, 1548an, herriko etxalde-jabeen maiorazkoa eratzeaz diharduen 1548ko dokumentuan, bakoitzak dituen lursailen etxe-izenak agertzen dira, zehazki 42 hauek: Berastegui (Jaundegi), Lagar (Tolaretxea), Molino de Yeralde (Igeralde?), Molino de Arrosi (Arrosi), *Gorostiçu* (Gorostizu), *Sagastiverri* (Sagastiberria), Dendaritegui (Dendaritegi), *Eulalde* (Elaunde?), *Bulaçia (*Bulatzia), Hurrelo (Urrelo), Mari Verrovi (Mariberrobinea), Yrun (Iruin), Yrun de Arriva (Iruingaraikoa), Lastadi, Michel Horeza (Mitxelo?), *Errementeritegui* (Rementero?), Zasturain (Millenea?), Liçarraga la Nueva (Lizarragaberria), Arriagacho (Arriagatxoenea?), Casa del sedero (Sedero), *Arriaga* (Arriaga), Mayztertegui (?), Bustinsoro, Olloquiegui (Olloki), *Hurdinarain* (Urdinarain?), *Esoain* (Etsoin), Esoain de arriba e de avaxo (Etsoingaraikoa, Etsoinazpikoa?), Leyçarraga "el Biejo" (Lizarragazarra), Vengoechea (Bengoetxea), Yeralde (Igeralde?), Alçaa (?), *Hovineta* (Obineta), Gaztellu (Gaztelunea), Ozpindegui (Ozpindegi), *La Plaça* (Plazenea?), Domingo Çuri (Domingozurinea), Rodrigo (Erredigunea, Errodrigoenea), Aberdin (Elberdin),

*Ançiola* (Antziola), Saustegui (Saustegi, Sutegi), Recalde (Errekalde).

Parentesi-artean datozen galdera-ikur horiek identifikazio-arazoak daudela ematen dute aditzera. Bestalde, etxe-kopuru horretatik erdiak, kurtsibaz emanda datozen hamaika horiek zehazki, aurreko urteetan aipatuak datozenak dira. Baina lehengo zahar batzuk ez dira agertzen, adibidez, 1399ko Areizkun (Ariztun), Aynapsa (?), Obieles (?), Yturriça (?), Ynça eta Ezcara (?), ezta 1537ko Irarazabal ere. Epealdi honetako hiritartze-prozesuan ohargarri gertatzen dena da, XVI. mendearen erdi aldera, hirigune bilakatuko den plazagunea ere jendeztatzen hasia dela: Lizarragazarra, Lizarragaberria, Errekalde, Ozpindegi, Plaza, Errementaritegi, Saustegi, Obineta, Urrelo, Mitxelo.

XVII. mende-hasieran, 1619an, Irazazabal izenarekin hasten diren lau baserri-izen dokumentatzen dira, Joaninazio Elosegik (2008, 39) egungo baserri hauekin honela parekatzen dituenak: Irazazabalgoiena (Intxaurrondo), Irazazabalmariezkurrena (Mariezkurrenea), Irazazabalerdikoa (Iriazabal), eta Irazazabalbarrena (Pastagintxonea). Nolatan bilakatzen den Irazabalgoiena Intxaurrondo? Mende-bukaeran, 1686an, bertako nagusiaren izena hartzen duelako, seguru asko. Mende berean, Lope Martinez de Isastik (V, 1985, 105-106) herri bakoitzeko etxe-zerrenda osoak ematen zituen, baina oinetxeenak edo "casas solariegas y de apellido" deituak bakarrik zenbatuz, eta horrela izendatuak 23 ziren Berastegin, gehi 6 Eldua auzoan. "Oinetxea" familia baten sortetxeari deitzen baitzaio, etxaldearekin ezin da berdindu, honek lursailen jabetzarekin duelako bere lotura. Horregatik, edozein herritan, oinetxeen kopurua mugatuagoa da etxaldeena baino. Besterik dira

maizter-etxeak, hauek beraienak ez diren beste jabe batzuen etxeak eta lursailak erabiltzera mugatzen baitira diru-ordainketaren truke. Maizterrak beti du gainetik etxalde-burua, hau oinetxe batekoa izan ala ez izan. Eta maizterren pare, apalagoko maila batean oraindik, bordariak zeuden.

Noizkoak diren gaur arte iraun duten Berastegiko baserriak eta etxeak? Galdera honi gai honetan aditua den Joaninazio Elosegik erantzungo dio zehatzenik. Aurrera dezakegu, halere, egileak berak luzatutako lehen datuetan oinarrituta, 8 etxeren aipamenak XIV. mendekoak direla, 68renak XVI. mendekoak eta 36renak XVII. mendekoak.

Nolanahi ere, Berastegiko etxe-izenen benetako zerrendak 1800. urteaz geroztikoak dira eta datu hauek Berastegiko udal-artxiboan daude. Hiru motatako zerrendak dira, guztiak ordainketarekin eta zergekin lotuta daudenak: elizari ordaindu beharrekoak, mediku eta botikariari ordaindu beharrekoak, eta Foru Aldundiaren zergak eratzeko Udalak egindako zerrendak. Etxe-zerrenda hauek kalez kale eginak daude, eta etxe bakoitzak zenbaki bat du (Elosegi, 2005, 22-23). Zerrenda hauek aurrean izanda, jakin daiteke nolakoa zen Berastegi 1870. urte-inguruan, nahiz, dokumentu gehiago eskuratuz eta aztertuz joan ahala, zer zuzendurik eta osaturik egongo den.

Gaur egun herriko etxeak eta baserriak auzoen arabera banatzen diren bezala, orduan kale-eremuan eta handik kanpo zeudenak bereizten ziren. Oraingo erdigunea lau kaletan banatzen zen, hor sartuz herriko Enparantza, Goiko kalea, Beheko kalea eta Kale nagusia, guztira, 45 etxe-izen, gehienak kale-etxeak. Erdigunetik aparteko etxeak –batez ere, baserriz osaturik zeuden auzoetakoak–, geografian ohi den puntu kardinalen arabera izendatzen ziren, lauko

banaketa eginez: Ekialdea, Mendebaldea, Iparraldea eta Hegoaldea, guztira 162. Dena den, 207 eraikineko kopuru honek ez du esan nahi hainbeste familia edo etxebizitza zeudenik, batzuetan eraikin batean bi zenbaki agertzen baitziren eta, beste batzuetan, teilatu baten pean bi, hiru edo gehiago familia bizi baitziren. Bestalde, familia horietan, batez beste, zenbat senide bizi ziren jakitea ere oso zaila da, datu osagarri gisa parroki aktetan oinarritutako zifra zehatzik ematen ez den kasuetan bederen.

Aipatutako etxe-izen horiez gain, herritik urrutiago kokatutako eta kale-zenbakirik gabeko “borda” izenekoetan ere bizi ziren familiak, hala nola, Domintxinborda, Artolaborda, Zabalaborda, Matxineaborda, Irantziborda eta Donmartiñenebordan, eta horietan 1880. urteaz geroztik hasi ziren bizitzen (Elosegi, 2005, 22-23). Familia hauei “bordariak” deitzen zitzaien eta, normalean, maizterrak baino pobreagoak izaten ziren. Gurasoen etxean lanik ez-eta, mendi aldeko bordak etxebizitzarako moldatzen zituzten. Horrelakoak beste herrietan ere baziren eta ondo bereizten ziren bi nekazari-klase horiek: maizterrak eta maila apalagoan bordariak (Caro Baroja, 1971, 220). Berastegin ere, XIX. mende-bukaeran, Erredigunetik Berroarako bidean ezkerretara aurkitzen den “Bordatxo” izeneko eraikinean Martin Antonio Olaetxea bizi izan zen Ameriketatik etorri berritan. Sagastiberriko bere aitarekin ondo konpontzen ez-eta, plazan berak erositako etxera ezkondu arteko urteak han egin zituen. Aitarekin onezkoak egin eta gero, Sagastiberria haren izenean geratu zen[45]. Jakina, Bordatxoko gazte hura ez zen edozein bordari, maizterren saileko norbait, etxejaun baten semea baizik. Eta indiano berdaderoa, gainera.



Bordatxo. Orain Malengonekoa den borda-etxe hau, lehen Sagastiberrikoa izan zen. Bertatik ederki ikusiko litzateke herri osoa baldin azpialdeko pinudi itxiak bista kenduko ez balu (Iztueta, 2010).

Herriko arduradunek 1718an mugarriak berriskusteko xedez egindako lursailen deskribapenean oinarrituta, jakin dezakegu gutxi-gorabehera hango lurretan zer lantzen zen: zelaiguneko soroetan laboreak, eta mendi-hegaletan sagastiak, gaztainondoak, hariztiak eta. Abelazkuntzako jardu-

netan ematen zaion erabilera ematen zitzaion orduan ere lurrari, soroak bezala belazeak eta basoak ere erabiliz.

## 2. Izen-aldaketak

Izen-aldaketak, batzuetan, ahoskatzeko orduan denboran zehar gertatu diren lerrakuntzatik datozenak dira: jatorrizko "Obineta" Osiñeta eta Oñeta bilakatuko da, "Sagardirena" Txardiñea, "Juanluzenea" Jolazun, "Sedero" Zedro, "Rodrigorena" Erredionea, "Gorostizu" Gostizu, "Gaztellu" Gaztelunea, "Aberdin" Elberdin, "Yrun" Iruin, eta horrela joan gaitezke zerrenda luzatzen. Beste kasu batzuetan, zaila gertatzen da baserri-izen zaharrak eta gaurkoak alderatu eta ondorio fidagarriak ateratzea. Ezin da esan orduko "Sasturain" egungo Millenea[46] denik; agian, ziurrago, "Eulalde" Elaunde, "Hurrelo" Urrelo, "Michel Horeza" Mitxelo (Mintxolo), eta abar, horretarako etimologiak berak arrastorik ematen duen heinean. Baina horrelako markarik ez datorrenean, arazoa areago zailtzen da, batez ere data zaharreko baserri-izenekin ari garenean. Desagertutako "Antziolatxikia" baserri-izenaren lekuan Danboliñenea agertzen da 1718ko dokumentuan. Badirudi, hala uste du behintzat Joaninazio Elosegi aipatuak (2008, 39), etxe bakarraren bi izenen aurrean aurkitzen garela. Galdetzekoa da, halaber, desagertutako "Arriagatxoenea" egungo Arrienea edo Arriñea ote den, eraitsia dagoena. Ziur ez dakigu, baina badirudi baietz, Arrienea eta Antziola aurrez aurre daudela deskribatzen baita 1686 eta 1718ko dokumentuetan. Nolanahi ere, zuhurtziaren amorez, egoki dator zalantza galderaren ikurrarekin adierazita uztea.

Azkenik, badira izen batekin baino gehiagorekin deituak izan diren etxeak. Plazagunean, adibidez, egungo Dendaberriri lehenago "Erregenea", "Belkaideaundia" edo "Marintzenaundia" deitzen zitzaion, Mallorkinari "Bizkaitarrenea" (Elosegi, 2005, 23). Gure auzoan, umetan eta geroxeago ere bai, "Patriñea" Domingozurinea zenik ez genekien. Guretzat Patriñea zen soilik, eta da oraindik ere. Era berean, "Santiago" sagarrari "Patri" sagarra deitzen diogu. Orobat, Gaztelunea eta "Dendati" gauza bera ziren guretzat, gure belaunaldikoek ez baitzuten ezagutu artean desagertu berria zen Dendaritegi, guretzat "Dendati" zena[47]. Maikoneri "Igalde" deitzen genion[48]. Nolanahi ere, horrelako izen-aldaketak azken garai hauetan gertatuak diren eta herritarren oroimen historikoak oraindik ere gogoan dauzkan kasuetan, nahasketak argitzeko bidea irekita geratzen da.

## 3. Herri-antolaketa

Herriko zelaigunea, haraneko handiena da, "depresioa" deitzen zaiona. Alde guztietatik mendiz inguratua dago eta irteerarik gabeko arro baten itxura du, San Lorentzo, Ipuliño, Uli eta Gaztelumendi mendien babesean etzana. Zelaigunearen gerri-bueltan aurkitzen dira auzoak, mendimalda hasten den guneetan, zelaiguneko soroak lantzeko garbi utziz. Eliza, hilerria, Jaundegi eta Tolaretxea izan dira denbora luzez zelai erdian egindako eraikin bakarrak. Ekialdetik doan errepidetik jaitsita aurkitzen da plaza, errektangularra dena. Horixe zen herriaren erdigune zaharra, eta hortik pasatzen zen errege-bide zaharra, kale bakarrekoa, eta haren inguruan egituratu ziren etxeak. XIX.

mende-laurdenean herriko bide nagusia lekuz aldatu baitzen, herrigunearen antolaketa ere aldatu egin zen. Lehengo errege-bideaz gain, Yeregi-Enetik datorren errepidea Dendaberritik jaitsi eta plazarekin elkartzen den beste ardatz perpendikular bat agertzen da, Etxabenetik behera elizara doana. Lehengo errege-bide zaharra –goitik oraingo errepidea egin aurrekoa, alegia–, Beheko kaletik, Pusantenetik aurrera, herriko plazara doana da eta, Kale nagusitik pasatuz, Erretore-etxera, eta hemendik, adar bat Pastagintxonetik San Anton gainera, eta bestea Danboliñenetik elizara. Hiri-nerbadura hori zen herrigunea osatzen zuena. Zubizabaleko errekan elkartzen dira plazan Etxabenea eta Udaletxearen artetik abiatzen den bide berria eta Erretore-etxe eta Danboliñenetik datorrena.

Esaten da Berastegi herri sakabanatua dela eta ez duela hiri-egiturazko erdigune nabarmenki antolaturik. Eta, hein batean, halaxe dela esan beharrik ez dago, ikusi berriak baikara kale-eraikinen aldean baserriak dezente gehiago direla eta lehenagoak, eta oraindik ere, funtsean, landa-herri izaten jarraitzen duela. Hala izanik ere, badu bere plazagunea auzoetako baserri-arkitekturatik garbiki bereizten dena. XIX. mendean, artean errepide nagusia Beheko kaletik Goikora pasatzen zenean, Enparantza zeharkatuz Lizarragatik Erretore-etxera bitartean, errege-bidearen eskuineko aldean 14 eraikin agertzen ziren eta ezkerrekoan, berriz, 25. Guztira, beraz, 39. Gertatzen dena da, eraikuntzaren bizizikloaren barruan etxeak egin, berregin eta desegin egiten direla eta, zenbait kasutan, inoiz orube jakin batean eraikitakoak desagertu ere bai, askotan inolako arrastorik utzi gabe. Historian zenbat eta atzerago joan, herritarren oroimenean zenbat eta urrunago joan, zailagoa egiten da

desagertuen berri zehatza izatea, non kokatuak zeuden eta noiz desagertu ziren jakitea, alegia. XIX. mendean Berastegin 32 etxe desagertu ziren, zehazki hauek: Arbidenea, Argiñenea, Arregiberria edo Pasteronea, Arriagabekoa, Arrosiko Errotazarra (laugarrena, agian?), Arrueberria, Artolaborda, Atanasionea, Bekotaberna (Bustinsoro), Buenabista, Casa Tenencial, Dendarinea, Dendaritegi, Domintxinborda, Errementegi, Etxetxuria, Gaztañondo, Gorrineaundia, Igeralde, Illarregi, Itsuneaundia, Iturregi, Iturriaga, Julianea, Legarra, Lizarragaberria, Txominenea, Urrelo eta Zabalaborda (Elosegi, 2005, 22). Eta horietatik gehienak plazagunean desagertu ziren, ezkerraldean kokatuta zeudenak, hala nola Beheko kalean Legarra, Illarregi, Errementaritegi, Bekotaberna, Julianea, Saskillenea, Arregiberria, eta Herriko Enparantzan Atanasionea, Gorrinetxikia eta Gorrineaundia. Gerrate ondoko lehen hamarkadetan Atanasionea eta Gorrineaundia elkarren ondoan zeuden, tartean erreboteko horma zutela; hark sarrera Ozpindegi aldetik zuen eta honek plazatik, ezkerretik harrizko eserleku bat zuela. Plazatik begiratuta, erreboteko arkuaren eskuinera dagoen leihoa Atanasionea etxeari zegokiona zen eta haren baratzetxoak Ozpindegi aurretik pasatzen den bidearekin muga egiten zuen etxe-kantoiaren inguruan. Gorrinetxikiak, berriz, Gorrineaundiaren eta Atanasionaren arteko kaletxotik zuen sarrera. Hiruak hutsik ezagutu genituen. Gorrineaundia eta Atanasionea ez, baina bestea erdi-erorita zegoen. Orain Ogi Berri okindegia aurkitzen den Marintzeneak Gorrineaundiaren eta Gorrinetxikiaren eta lehengo Marintzenetxikiaren orube-zatiak hartzen ditu, eta azken honetatik datorkio oraingo etxe-izen hau. Plazako eraikin batzuek bizitza laburra izan zuten. Arrueberria,

adibidez, 1810ean eraiki zen Udaletxearen eta Martiñenearen artean, baina 1873an botarazi egin zuten, antza, arrazoi militarrengatik.

Desagertuak diren baserrien kasuan, batzuen izenak bizirik gorde dira, edo eraikin bezala, edo auzo bezala. Lehengo Arriagatxoenea izan bide liteke oraingo Arrinea, Urdinarain baserri zaharra (1548). Azken izen hau auzo-izen bezala geratuko da.

XIX. mende osoan zehar bezala, 1969ko hamarkada-bukaerara arte, Berastegiko lurraldea bi zatitan banatzen zen: batetik, plazagunea aurkitzen zen eta, bestetik, auzoak zeuden, eta hauek, aldi berean, eguzkiak nondik jo, horren arabera izendatzen ziren: Eguzkialde, Izotzalde, Urdinarain eta Ariztunugalde.

Berrikitan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak argitaratutako "Berastegiko mapa"n datorrenez, hiri-antolaketari dagokionez, lehen baino auzo gehiago izendatzen dira. Behetik gora hasita, hauek: Eldua auzoa 30 etxerekin, Ariztunugalde 8rekin, Amirialde 8rekin, Eguzkialde 18rekin, Herrigunea 89rekin, Izotzalde 50ekin, Urdinarain 16rekin; eta berriagoak diren besteok: Elduinalde auzoa 25 etxerekin, Leitzalde 18rekin, Ipuliño auzoa 8rekin, Aintzerga auzoa 17rekin, Elizalde auzoa 5ekin. Guztira 12 auzo kontatzen dira, eraikinetan askoz populatuena Herrigunea izaki bere 89 eraikinekin eta auzoetan, berriz, Izotzalde 50ekin.

**Berastegiko auzoak eta etxeak**

| *Auzoak* | *Zenbat etxe eta baserri* |
|---|---|
| Hirigunea | 89 |
| Aintzerga | 17 |
| Izotzalde | 50 |
| Eldua | 30 |
| Amirialde | 8 |
| Leitzalde | 18 |
| Eguzkialde | 18 |
| Ariztunugalde | 8 |
| Elduainalde | 25 |
| Urdinarain | 16 |
| Ipuliño | 8 |
| Elizalde | 5 |
| Guztira | 292 |

**Iturria**: "Berastegiko udala". Berastegiko mapa", Eusko Jaurlaritza. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Datarik ez du. Norberak landua.

Aski da mapa hori lipar batez ezker-eskuin begiratzea ohartzeko aldaketa izugarria eman dela Berastegiko paisaje urbanistikoan, batez ere, XX. mendearen bigarren erditik aurrera. Hirigintzaren eboluzio horretan bi aro bereiz daitezke.

Lehen jauzi hedakorra frankismo-garaian eman zen, 1970eko hamarkadan hasita. Non eta, herritik nahikoa

urruti, Aintzergako zelaian barreiatuta eta Ipuliñoko maldetan kukututa; zenbat eta, mota askotako 25 eraikin. Bada zerbait gero! Bakan batzuk handi eta dotoreak dira, beren igerileku eta frontoiarekin. Gehienak txiki antzekoak dira, baina ongi hornituak. Halere, txalet-tankerako etxe horien jabe gehienak inguruko herrietakoak izaki, ez bertakoak, ez dituzte erabiltzen etxebizitza bezala, asteburuetan pausaleku bezala baizik. Bestalde, bakarren bat edo beste kenduta, ez dira integratzen herriko bizitzan.

Bigarren hedapen-unea Autonomi Aroan etxegintzak ezagutzen duen gorakadari eta zehazki, 1980ko hamarkadatik aurrera, Udaletik sustatzen den hirigintzari loturik dator. Orduan egiten dira "J.A. Muñagorri" ikastetxe berria eta "Ipuliño" frontoia Erretore-etxeko baratzean, zerbait geroxeago eraikitzen dira familia bakarreko edo biko etxebizitzak auzoetan baserri-amen inguruan, orduan baserri jautsi edo erdi-jautsiak berreraikitzen, zaharrak eraberritzen. Eta berrikitan, plazagunean eta inguruan, etxe asko egin dira, horietako batzuk elkarri itsatsiak, beste batzuk familia bakarrekoak, lau solairuko etxebizitza batzuk ere bai, hauek Iturri-Ondo eta Indianoenearen arteko esparruan eraikiak, lehen Pasteroenea eta Salbadorrenea zeuden tokian.

Mende bat eta erdian, 83 etxe gehiago aurkitzen dira, 1856an etxe-kopurua 207koa izatetik orain 287 izatera iristen baita. Honek ez du esan nahi, noski, biztanlekopuruak proportzio berean gora egin duenik, oraingo familien jaiotze-tasak ordukoen aldean apalagoak direlako. Baserrietan, batezbeste, dozena-erditik gora ziren gehienetan. Ez dirudi etxegintzak hain eragin handirik izan duenik hazkunde demografikoan. Baina hirigintzaren berrantola-

keta honen ondorioz asko ari da eraldatzen herriaren hiri-egitura plazagunean, batez ere hor, eta ez gutxi auzoetan ere, zementua lurra estaliz datorren heinean.

Bestalde, frankismo-garaiko lehen hamarkadetatik hasita, industrigintzak –bereziki, Leitzatik Tolosa bitarteko papergintzak–, nekazaritzan oinarritutako ekonomian eragina izan zuen; ez, beharbada, hiri industrializatuen ondoko beste herrietakoetan bezain indartsua; benetakoa, halere. Beste nekazal herrien antzera, nekazaritzari fabriketan lan eginez eusten ziotenak ziren Berastegiko baserritar gehienak. Azken hamarkada hauetan lan-munduko gizartezatiketa eta produkzioa erritmo bizian joan baitira dibertsifikatzen, industriaren eta zerbitzuen sektoreek –bereziki, azken honek–, azkarki gora egiten duten proportzio berean egin du behera nekazaritzak. Berastegin eraikuntzaren sektorea izan da gehien indartu dena bertako enpresa autonomoen artean. Egun, Berastegi herrian mota bateko zein besteko nekazaritza-ustiapenetik bakarrik bizi direnak ez dira pasako dozena-erditik.

Lanbide-aldaketa honek, nahiko denbora laburrean ohiko nekazal sektoretik beste sektore desberdindu batzuetara pasatzea ekarri baitu, herritarren bizimoduan ere bere eragina izan du, eguneroko lan-ohituretan eta, areago oraindik, orografian bertan bere arrasto nabaria utzi duena. Garai bateko Berastegiko zelai polikromatu hura desagertua da jadanik. Lehengo soro landuen lekuan belardiak ugaldu dira. Baserriko ganbaretan ez da alerik. Ardiak menditik jaitsi dira eta ukuiluetan behien lekua hartu dute. Nonahi ikusten dira artaldeak bazkatzen, baserri askok baitute bere artaldetxoa besterik ez bada barrutiak garbitzeko. Artegiek ordezkatu dituzte garai bateko ukuiluak, baina banaka

batzuk baino ez dira artzaintzatik soilik bizi direnak, gutxiago oraindik abelazkuntzatik.



Baserritarra gorozketan Izotzalden (Fototeka Kutxa)

Halere, Berastegik bere betiko nekazal fisionomia ez du galdu, bertako hirigintzan industrigunerik ez baita garatu. Honek egiten du –berriro, maila batean–, beste herrietatik desberdin samarra izatea. Bestalde, hirigintzaren eboluzioan aldaketa nabarmenak eman badira ere, erdigunean bezala baserri-esparruan ere, bertakoen pertzepzioan bi esparru horien desberdintasunak ikuspegi bikoitzaren arabera funtzionatuz segitzen dutelakoan gaude: batzuk plazakumeak ziren, besteak auzoetako baserritarrak. Garai batean, aspaldi ez dela, plaza inguruko baserrietakoak ere, halaxe kokatuak zeudelako, halakotzat hartzen ziren. Bereizketa hori eskolako harremanetan eta hango jolas-giroan agertzen zen argienik. Beste herri batzuetan, Arratiko Zeanurin, adibidez, herritarren identifikazio-sistema horrek bizirik iraun du, Ander Manterolak bere lanetan erakutsi izan duenez.

Hemen arazo honetaz orokorrean esana datu zehatzez hirugarren liburukian arituko baikara egiztatzen, balio bezate ohar hauek eta segidakoek atariko gisa, areagoko asmorik gabe.

# LANDA-ARKITEKTURAREN GIDA

# VI

## Eraikin zibilak

Ez da gure asmoa, inola ere ez, Berastegiko eraikinen inguruan arkitektura-azterketetan egin ohi den azalpen metodiko baten antzeko zerbait egitea; aitzitik, ibilian goazela, lagunartean edo bakarka, arreta zertan jarri abisatu nahiko genioke Berastegi ezagutzera datorren bisitariari, batez ere honi. Arte-ibilbide honetan, arrazoi desberdinengatik nabarmentzen diren eraikin zibil eta erlijioso batzuk aipatuko ditugu, dirudunek herriaren gizarte-konfigurazioan utzi dituzten arrastoekin bukatzeko. Garaian garaiko eraikuntzak ere gizarte-kategoriaren marka darama berarekin. XX. mendearen lehen erdiko txalet batek eta bukaerakoak ez bide dute gizarte-errealitate berbera islatzen. Garai batean, duela ez aspaldi, kotxe bat ez zeukan nornahik. Egun edozein baserri-ataritan bizpahiru ikusi ezinik ez da. Gauza berak, segun noiz, eduki desberdina du.

Gure ibilbide arkitektonikoa auzoz auzo egingo dugu, plazagunetik hasita, beren ezaugarri bereziengatik nabarmentzen diren eraikin nagusiak aipatuz, hala nola dorre-

txeak, jauregiak, mota desberdinetako arkudunak, armarridunak, intsignidunak, harlanduzkoak, zurezkoak, zurezko eta adreiluzkoak.

Armarriak eta intsigniak zituzten etxeak nobleziaren ezaugarritzat hartzen ziren. Nobleek beraien eta beren aurrekoen gerretan egindako balentriak gogorarazteko, harrian zizelkatuta uzten zituzten beren oinetxearen lekuko izan zitezen. Etxe hartako familia nobleziakoa zela aditzera ematen dute. Horretarako ohitura handia zen Gipuzkoan XVI, XVII eta XVIII. mendeetan. Horrelako ezaugarriak oinetxeetako hormetan aurkitzen dira.

Lope Martinez de Isastik (1985, 105), Lezoko benefizituak, 1625ean idatzitako *Compendio historial de Guipúzcoa* lanean 23 oinetxe aipatzen zituen orduan, honela izendatuak: Jaundegi ("Jauli"), Berastegiko Frantzizko ahaide nagusiarena, Arreche, Gazpio A, Arriaga, Meaca, Arbide, Lizarraga, Buztinsoro A, Gaztelurena, Dendaritegui, Irazaval A, Iturriza, Bulacia, Etsoin, Etsoin, Elaunde, Elaunde, Olloki, Obineta, Izaguirre, Irigaray Torre eta bukaeran, eskuz idatzita, Azpileta[49]. Eta Elduakoak besteok: Aldabono, Barrenetsea, Echenagusia, Garaicoechea, Zalberridia eta Urcallearena (Isasti, 1985, 105). Egungo arkitektura-egituran hala badira ez badira, inoiz oinetxe izanak dira horiek guztiak. Etsoin eta Elaunde bi aldiz errepikatzen baitira, pentsatu beharko da Elaundeazpikoa eta garaikoa, eta Etsoinzarra eta berria izango direla horiek.

Egungo eraberrituaren aurreko Gazpio zaharrak, adibidez, bazuen bere oinetxe armarriduna ere, eta hor, zilarrezko arrapala-iturri batez eta urrezko orla batez inguratuta, zortzi katebegi azaltzen ziren, bertako leinuko batzuek Navas de Tolosako batailan parte hartu zutela aditzera

ematen zutenak: “Añadieron al escudo la orla con los ocho eslabones de cadena quebrados de azul en campo de oro en significación del buen zelo con que sirvieron á su Rey” (Isasti, 1850, 138). Datu honek XII. mende-hasierara garamatza, 1212ko uztailaren 16ra zehazki, orduan garaitu baitzuten almohadeen armada Gaztelako Alfonso VIII.ak, Aragoiko Pedro II.ak eta Nafarroako Antso VII.ak elkarhartuta. Noski, Gazpioko ezkutariak nafar erregearen esanera joanda, burdinazko hesia hausten nabarmenduko ziren.

Elixabet Azpiroz Atxukarrok (1990) Berastegiko heraldikaz egindako lan argitaragabean, oinarritzat egungo etxeak hartuta, zazpi etxe armarridun eta hiru intsignidun aztertzen ditu banan-banan. Lehenengo zerrendan sartzen dira Udaletxea, Antsonea, Errementaritegi, Iruin, Juandegi, Juantso eta Lizarraga. Zerrenda honi Sagastiberria ere erantsi behar zaio. Bigarrenean besteok datoz: Martiñenea, Meaka eta Mitxelo. Ameraunen ere bada harkaitzean zizelkatutako armarri bat, gaintxo batean dagoen izen bereko baserritik erreka aldera goazela aurkitzen dena. Hango lurrak XIX. mendean saldu ziren garaian Berastegiko idazkari zen Gaztañondo jaunak erosi zituen eta honen semeetako batek ezarria izan behar du.

Etxe arkudunak bederatzitik gora dira Berastegin, hauek ere nobleziaren ezaugarritzat har daitezkeenak: Udaletxea, Kalesa, Ategia (Gaztañondo), Urrelo, Mitxelo, Aizpilleta, Zapataritegi, Meaka, Antsonea, Intza eta besterik. Hauetako batzuk, arestian ikusi denez, armarridun eta intsignidunak ditugu aldi berean. Harlanduzkoa da Ozpindegi; zurezkoa Lukasenea (Jakasenea). Ezaugarri bereziak dituzten etxe-zerrenda hau ez da inola ere erabatekotzat hartzekoa.

Ezaugarri horiek dituzten baserriez gain, badira harlangaitzezko eraikuntza ikusgarriak dituztenak eta barrualdea etxebizitzarako eta abelazkuntzarako moldatuta daukatenak. Udaletxeaz eta eraikin erlijiosoez bereiz jardungo dugu.

Bideraundik Urtora zihoan errege-bideak, Urtiño eta Lizarragatik barna aurrera eginda, herriko enparantza erdiz erdi zeharkatzen zuen, eta Erretore-etxetik aurrera hartzen zuen Urtorako norabidea. Nahiz belarrak erdi-estalita dagoen, oraindik ere osorik gordetzen da haren egitura Pastagintxonetik Bentaberri bitarteko ibilbidean.

Hasteko esan dezagun, Herriko Enparantza errege-bidearen eta San Martin elizarako sarreraren bidegurutze gainean lekutzen dela eta, plazagune gisa, XVIII. mendean egituratutako eremua dela, nahiz inguru horretan dezente lehenago eraikitako etxeak badiren. Ospitale biak, Sabillaundia eta Sabillatxikia, adibidez.

Plazagunean, Iturri-Ondo (Jakunea) eta Etxabenearen[50] artean plazaren zabala hartzen duela, Txankanea aurkitzen da, bere handitasunean bakar. Eraikin honen jatorrian Mokolarena izeneko etxea dago, oronoztar Juan leitzarrak 1701ean Berastegiko Udalari saldu ziona. Herriko enparantza zabaldu behar zela-eta, Mokolarena bota eta Txankanea eraiki zuten. Handik ehun urtera Arretxeko Garziarenak erosi zuen, geroago Martin Antonio Olaetxeak. Gure garaian, lehen solairuan Etxabe autobusaren garajeak izaten ziren, orain dauzkan ate biekin. Lehen solairuan Eloienea taberna zegoen, hura kudeatzen zuena hala deitzen zelako halaxe izendatua, eta goikoa, berriz, etxebizitza bezala erabiltzen zen.



Txankanea Guardia Zibilen kuartela izan zen XIX. mende-bukaeratik XX. mendeko lehen hamarkadak arte. Erdian sarrerako atea eta alboetan garajeak (2010).

Gorputz militar hau 1844an eratu zen, lehen gerra karlista bukatu eta berehala, eta batasun espainolaren berme gisa estatu-lurralde osoan barreiatuta zegoen. Gipuzkoan honelako antolaketa zeukan XX. mendeko bigarren hamarkada-bukaeran: lan-talde nagusia –Komandantzia–, Donostian aurkitzen zen, haren esanera 168 arma-gizon zeudela. Horiek guztiek Kapitaintza bat osatzen zuten eta hauek Donostia, Irun, Urretxu, Bergara eta Tolosan kokatuta zeuden, azken honetan lau ofizialekin. Berastegin

kaboa zen kuarteleko buru. Orotara, Gipuzkoan 25 herritan aurkitzen ziren kuartel-etxeak (Mugica, 1923, 258-259). Ondo zaindua zegoen gure herria udal-aguazilarekin, kaboaren esaneko bost guardia zibilekin eta mikeleteekin (Mugica, 1923, 950).



Herriko arduradunak 1918. urte-inguruan. Ezkerretik eskuinera eserita daudenak: Migel Maria Mendizabal, lehen alkateordea; Martin Antonio Olaetxea, zinegotzia; Frantzisko Maria Aranalde, udal-epailea; Juan Manuel Lizarza, alkatea; Eusebio Bidaurre, guardia zibilen postuko kaboa. Zutik besteok: Bernado Carrascosa, Epaitegiko idazkaria; Modesto Yaben eta Pedro Garziarena, zinegotziak; Andres Obineta, bigarren alkateordea; Jose Maria Etxabe, udal-idazkaria; Galo Vallejo, aguazila (Picavea: *Album gráfico-descriptivo del País Vascongado. Año de 1914-1915),* 1915?)

Eta Santuneko sarrerako atearen eskuinean, harrizko iturri eder bat dago oraindik ere, askara ur-jario mardulean. Baina oraingo bakarraren ordez, lehen burdinazko lau iturri

zituen borborka egiten zutenak, urak harrizko aska-zoruarekin jotzean egiten zuen hots erritmikoa plaza osora zabaltzen zuelarik. Gainean harrizko arku zabala du, eta alboetan, edozein gauza uzteko, harrizko lauki pare bana. Oinetan, burdinazko sarea alderik alde doana. Udaletxearen arkupe aurrean bezala, harriztadurazko galtzada-moduko batek inguratzen zuen iturri-aurrea. Plaza bera, ordea, asfalto gabea zen, gainean harri dandarra zuena. Jostaketan genbiltzala hamaika bider erortzen ginen, baita usu asko jaiki ere, belaunak urratuta odoletan genituela.



Plazako lehengo iturria berriztatua izan zen arte (Picavea: *Album gráfico-descriptivo del País Vascongado. Año de 1914-1915)*, 1915?)

Eta Txankanearen aurrez aurre erreboteko horma aurkitzen da, plazari hegoaldetik sarrera ematen dion harrizko arku batekin, osorik harlanduzkoa, XIX. mendean egina, pilotan jokatzeko asmoarekin. Eta harrizko arkuaren aurrean, harlanduzko Ozpindegi hiri-eraikina gailentzen da bere handitasunagatik. Erdi Arokoa da (1548).



Errege-bidea plaza-sarrerako erreboteko arkupean. Aurrean Beatrizenea eta Ozpindegi, eta eskuinean Atanasionea bere baratzearekin (Fototeka Kutxa)

Hemendik lehengo errege-bidean behera eginda, Pusantenea baino lehentxeago, ezker-eskuin biak parean, Sabillaundia (1545) eta Sabillatxikia (1768) baserriak dauzkagu, zahar-airea nabarmentzen zaienak, XVI-XIX. mendeetan ospitale izandakoak.



Sabillaundia berriztatuta, XVI. mendekoa (2010)

Ospitale izatetik baserri-eginkizunak betetzera pasatu diren etxe hauek, ustez, XVI. mendekoak dira, plazagunean zaharrenetakoak. Garai horretan, berdin hurrengo mendean, ospitale asko aurkitzen ziren herrietan zehar barreiatuak eta haietan aterperik ez zuten pobreak eta erromesak jasotzen zituzten: “los muchos Ospitales de tu

jurisdición...”[51]. Horietako bat izan behar zuen Berastegiko horrek ere, Martin Etxenagusia jaunak hiltzerakoan egiten duen testamentuan agertzen den bezala: “.... dejó una cassa, con porción de tierra, destinada para hospedar en ella a Pobres (..) y Peregrinos señalando su leña, para las obras que ocurriesen y para el hospitalero que en ella havía...”. Ospitale-kargurako Ignazio Antonio Elizalde izendatzen da[52]. Bi ospitale horiek zer-nolako harremana izan zuten jakitera ez gara iritsi, ezta dokumentu horretan bi horietako zein eraikini buruz ari den zehaztera ere. Dena den, badirudi Sabillaundia bederen ospitale bezala erabilia izan zela XVI. eta XIX. mende-bitartean (Urteaga, 1991, 90).

Garai bertsukoa da Kalesa (Kotxera) ere, sarrerako atean arku zorrotz bat duena. Grazienea[53] izango da neurriz inguruko baserririk handiena, XIX. mende-bukaerako eredu tipiko bat, 1884an egina. Baina plazagunean bisitarien begiak erakartzen dituena, XIX. mendeko Ategia etxearen bikaintasuna da. Haren barne-antolaketak baserri-arkitekturarekin zerikusirik ez du. Alde horretatik begiratuta, eraikin berezia dela esan dezakegu, ez kale-etxea ezta baserria ere, bere garaian zeregin bereziak betetzeko helburuarekin egina baizik, hau da, alde batean eskola-zerbitzuak emateko eta bestean baserritarrentzat harategi bezala erabiltzeko barne-antolaketa zuena. Bere berezitasun horren seinale dira sarreran dituen hiru arku horiek, bi kanpora ematen dutenak eta hirugarrena atalondoa trabeska zeharkatzen duena. Azken honek banatuko zituen, seguru asko, eskola eta harategiko alderdien arteko hormak. Eraikin honi egun Gaztañondo deitzen zaio eta, Udalarena izaki, berrikitan egin diren berrikuntzak zerbitzu publikoak emateko helburuarekin eginak izan dira. Egun Jubilatuen

Etxea eta Eguneko Zentrua aurkitzen dira bertan, beste atal batean azalduko dugun bezala. Oraindik ere hirigunearen barruan, muga-mugan, Lizarraga armarridunak bere jauntasuna erakusten du, bere dolarearekin eta eraikin ederrarekin, nahiz deus ez duen jatorrizko hartatik. Lope Martinez de Isastik oinetxe bezala aipatzen du bere garaian, baina armarri hori geroztikoa da. Labaiendarrak bizi izan dira azken mendeetan. Orain ere bai.

Plazaren beste aldean, izotzalderago, Mitxelo (Mintxolo) baserriak XVI. mendeko lekukotasuna ematen digu, arkuzko bere sarrerarekin eta honen gaineko intsigniarekin, eta leiho konopialekin. Lehen militarren etxea izan zen. Horren aldamenean, orobat, Urrelo baserriak erdi puntuko sarrera arkuduna eta ageriko egurrezko bilbaduraz hornitutako fatxada nagusia zein baino ederragoak zituen. Tamalez, egun erorita dago eraikin hau. Aizpilletak ere aurrealdean erdi-puntuko arkua du.

Plazagunean bertan, badira beste eraikin batzuk beste guztien gainetik gailentzen direnak, hala nola Erretoreetxea, teilatua lau uretara duena, karratua, eta zabalean Gipuzkoan den handienetakoa. Eraikina egiten hasi, XVII. mendeko lehen hamarkadetan hasi bide ziren, Berrobiko hargin maisuak 1623ko ekainaren 8an pasatu baitzuen egindako lanen faktura. Erosketa eskrituratu, ordea, 1691ko apirilaren 5ean egin zen, bertako Pedro Arbide erretore eta Aranalde Sagastiberri alkate jaunek izenpetuta Pedro Etxeberria notarioaren aurrean[54]. Hurrengo mendean, 1742an, egin ziren bertan bi dolare[55]. Aldamenean berebiziko baratzea zuen, orain ikastetxea, frontoia eta aparkalekua aurkitzen diren lekuan, hain zuzen.



Erretore-etxe berriztatua 2010. urtean (2010)

Berriztatua izan denez geroztik, barne-antolaketari dagokionez, lehen ez bezalako esparruak aurkitzen dira bertan: beheran “Basurde” aisi sozietatea, goian erretore-etxea eta honen zerbitzuak, eta etxebizitzak. Zoritxarrez, haren lehengo zuraje ederra desagertu da. Plazan bi eraikin gailentzen ziren, halere, beste guztien gainetik: Udaletxea eta Gorrineaundia, Berastegik izan duen jauregirik ederrenetakoa. Egiazko monumentu historikoa zen hura bota egin baitzuten, haren bikaintasunaren lekuko argazkiak baino ez zaizkigu geratu.

Gorrineaundia Berastegik garai hartan zuen eraikinik ederrenetako bat zen. Hor jaio zen Pedro Muñagorri domingotarra 1865eko ekainaren 28an, gotzain misiolari izendatu zutena 1908ko urtarrilaren 5ean. Herrian hiletak handikiro egin zizkioten 1944ko abuztuan. Txomin Jakakortexarena apaiza ere, euskal idazlea, etxe berean jaio zen 1906an. Plazarako sarbidea estuegia zela-eta, zabaltzeko bota egin zuten. Puntu honetaz hirugarren liburukian jardungo dugu.



Berastegiko plaza XX. mende-hasierako argazki batean. Aurrean Gorrineaundia jauregia erreboteko hormaren ondoan eta erdian erreboteko harlauza (Picavea: *Album gráfico-descriptivo del País Vascongado. Año de 1914-1915),* 1915?)

Argazki horretan ederki asko agertzen da zein zen plazaren arkitekturazko egitura XX. mendearen lehen erdian. Bista-bistan dago erreboteko harria plazaren erdian kokatua, aurrean harrizko horma duela, Martiñenekoari erantsia. Honek garai batean, ez hain aspaldi, errebotean jokatu izan zela adierazten du. Udaletxera sartzeko karrerape aurreko harriztadurak garbiki bereizten diren bi maila dauzka. Eskuinean berriztatua izan aurreko Arregi edo, agian ezagunago, Kakonea[56] jatetxearen kantoia ikusten da eta ondoan Gorrineaundia bere lau solairurekin. Hori zen, geroztik berriztatutako Kakoneko zati hori salbu, guk umetan ezagutu genuen Berastegiko plaza nagusia.

Plaza ondoan, eraikin bezala asko nabarmentzen ez badira ere, besteok ere badute beren historia. Kale nagusian Salbadorenea etxea, zaharra zen eta hutsik ezagutu genuen. Bertan lehen solairuan dotrina irakasten ziguten herriko apaizek. Zutik, geletan eserlekurik ez zen-eta. Gerora, 1954-1971 epealdian zehar, “Mariaren Bihotzeko Alaba Misiolariak” izeneko mojen komentu bihurtu zen eta ikastetxe bezala funtzionatu zuen, beheko solairuan kaperatxo bat zuela. Txomin Jakakortexarena apaizak hor ematen zuen bere meza erbestetik etxeratu zenean[57]. Etxe hau parroki elizarena zen, Obinetaberriko Jose Andres Labaienek Andres Bikendi erretore jaunari 1945ean saldua[58]. Atzealdean baratze eder bat zeukan, dena hormaz inguratua. Egun, hura desegin eta haren orubean etxebizitza berriak eraiki dira.

## 1. Udaletxea, monumentu historikoa

Nolanahi ere, arte zibilari dagokionez, Udaletxea da plazari bere nortasuna ematen diona. Orendain, Albistur

eta Ernialdekoekin batera, Tolosaldeko Udaletxerik ederrenetako bat da, 1700-1708 urte-bitartean eraikitakoa. Geroztik, garaian garaiko beharren arabera, zenbait berrikuntza egin zaizkio, baina solairuen barne-egitura aldatu gabe. Aldaketa nabarmenenak kanpo-aldetik egin zaizkio. Aldameneko bi fatxadetan sotorako sarrera bana zituen eta biak itsutu ziren, bata aparkalekuak egiteko eta bestea plazarako sarrera zabaltzeko. Leiho batzuk itsutu eta beste batzuk ireki, denetarik egin zen.



Udaletxearen fatxada plazan (2010)

Eraikin barrokoa da, handios eta arkitektura bikainekoa, urrutitik ere oso erraz ikusten den horietakoa. Baina bere handitasunean, apaindurarik gabekoa. Austeroa da, fatxadan alde batetik bestera horizontalean daraman inposta-banda edo silarri-ilara beste apaingarririk ez baitu. Oin karratukoa da eta teilatuak lau uretara ematen du. Fatxada silarri urdinxkaz egina du osoki eta beste hiru hormak harlangaitzez osatuak ditu, harlanduzko eskantzuekin.

Lau solairu ditu. Behekoan ukuilua edo sotoa aurkitzen da, harako sarrera sartaldetik duelarik. Udaletxerako sarrera nagusia bigarren solairuan aurkitzen da eta bertara plazatik sartzen da, hirugarren solairuraino iristen diren erdi-puntuko lau arkuz osatutako arkuteriatik pasatuz. Sarrerako atea arkupearen ezkerreko hormaren erdi-erdian dago, alde bietan silarrizko bi leiho dituela, ezkerrekoa burdinsarez itxia eta eskuinekoa estalita dagoena. Arkupeak –herrian "karrerapea" deitzen zaionak–, atzean trinket-moduko bat zuen, hala deitua bertan oholezko taula bat zeukalako, trinketeko ezker-hormetan ohi den bezalakoa. Eta ondoan, arkuen segidan, beste sarrera ireki bat ere bada, hau errektangularra, plaza aldera harrizko eserleku batekin. Fatxadak bigarren solairuan plazara ematen duen burdinazko balkoi jarraitua du, alde batetik bestera luzatzen dena bere bost leihorekin.

Azkeneko solairuan, erdi-erdian kokatuta, armarri polikromatua aurkitzen da, handi-maundia, hau ere gotikoa, goitik behera botatako lerro perpendikular batek bi leihotan zatitzen duelarik. Lehen leihoan ermita bat bere kanpaiarekin eta San Lorentzori eskainitako irudi bat agertzen dira, eskuineko eskuan palma bat duela, eta ezkerrekoan parrilla bat, hau dena urreztatua. Bigarren leihoan dorre




Udaletxeko armarri polikromatua (2010)

bat agertzen da, eta hari atxikirik lantzaz armatutako gizon bat gora igotzen indarrez sartzeko tankeran, hau dena zilarreztatua. Aingeruak, lehoiak eta beste motibo batzuk ere agertzen dira. Goian, “Noble y Leal Villa” dator izenburu bezala idatzia; bukaeran, berriz, “Nobleza con Libertad”, Antonio Gómez Arévalo erregeak 1728an emandako zertifikatuan agertzen den bezala (Gorosabel, 1972, 107).

Eta armarri handiaren gainean, berriz, erlojua dago, orduen mezua auzo guztietara zabaltzen duena. Ordulaurdenero jotzen ditu orduak eta herriko zoko guztietatik entzuten dira. Udalak arduradun jakin bat izendatzen zuen beti puntuan egon zedin. Garrantzitsua zen hala egotea, esku-erlojuak eskas ziren garai hartan. Orain ere lehengoan darrai erloju zaharrak.

Sotoko zatirik handiena egun herri-lanetarako tresnak edukitzeko erabiltzen da, eta beste zati bat, berriz, artxiboareto bezala erabiltzeko prestatua dago.

Arkupeak beti izan du xarma berezia berastegiarrentzat. Horixe zen Berastegiko pilota-toki bakarra, eta berezia, pilotarien abileziarik abileziena izaten baitzen nork jarri pilota, sarrerako ate-koskan, edo leihoan, edo trinketeko tranpan. Soinujoleak ere hantxe ateratzen zizkion hautsak hauspoari igande eta jaiegunetan. Izan ere, arkupea zen plazak zuen aterpe bakarra. Ez lehen bezainbat, baina orain ere bertan jostatzen dira bertako gaztetxoak. Nahiz frontoia aldamenean egon, herriko festetan-eta, pilota-partida biziki entretenigarriak egiten dituzte, frontoietan ez bezala ikusleen arreta bereziki pizten duten horietakoak.

Bigarren solairuan, plazatik zuzenean sartzen den lehen solairu honetan, ostatua eta honen etxebizitza, alondegia, epaitegia eta kartzela aurkitzen ziren, eta dira. Azken eraikin



Udaletxeko karrerapea, hainbat urtez herriko pilota-leku izana (2010)

honen egiturak berak salatzen du Udaletxea bera baino zaharragoa dela –1636. urtean eraikia–, arkitektura autonomoa duela, haren ipar-ekialdeko harlanduzko bi horma gotorren gainean eraikia izan baita. Bi ate ditu, eta txapazko bigarrena da jatorrizko zaharra. Kartzela honek bi solairu ditu, bata sotoari eta bestea lehen solairuari dagokiona. Hirugarren solairuan, plazara begira, udal-bulegoak eta udal-aretoa aurkitzen dira; bestaldean, berriz, garai batean maisu-maiestren etxebizitzak zeuden, eta orain Udalaren beste zerbitzu batzuk. Azkenekoan, laugarrenean, eskolak aurkitzen ziren, ekialdean neskenak, sartaldean mutilenak.

Udaletxeak barrutik zurezko lan zoragarriak ditu. Aipatzekoak dira, batez ere, eskailerak eta sabaiko habeteria, osoki iltzerik gabe tolestatua.



Udaletxeko sabaiko habeteria (2010)

Udaletxeak bazituen bere baratzea eta garo-lekua ere. Beraz, Kontzejuko martxa errentan hartzen zuenak horien guztien ardura bere gain hartzen zuen, ez bakarrik bertako tabernarena, baita eraikin osoko garbiketarena ere[59].

Barrutik oraindik ere osorik gordetzen du jatorrizko egitura, dena zurezkoa. Eskailera eta solairuetako oholtzak berdin habeak dotore askoak ditu, baina badute berritzeko

premia. Zalantzarik gabe, orain osoki berritzera doazen honetan, monumentu historiko honek beste aire bat hartuko du.

## 2. Plazagunetik beste auzoetara

Gure umetako begiek ezagutu zuten plaza hark hein batean galduak ditu arkitekturazko hainbat elementu, hala nola, arestian esana gogora ekarriz berriro, iturria, harriztadurazko espaloiaren zati bat eta iturri aurrekoa, karerrapeko trinketea eta Gorrineaundia.

Errementaritegi (Ermentero) da plazagunean aurkitzen den etxe armarridun bakarra, Saustegi baserriaren bestaldean dagoena eta alboan bi etxe itsatsiak dituena. Azken berrehun urte hauetan maizterrak bizi izan dira bertan eta honen jatorriaz ez dakigu gauza handirik, oso aspaldikoa dela besterik: “Antiquissimum solium”.

Nafarroarako errepide-hasieran, plazagunearen mugan eskuinetara, Torre kokatzen da, bere mandioa beso zabaleko intxaurrondo baten itzalean duela, eta honen hormetan XV. mendean dorre izandakoaren ezaugarriak garbiki agertzen dira haren ate eta leiho bikietan.

Izotzaldean, kalitate oneko baserriak aurkitzen dira, aldamenean nekazaritzan jarduteko lursail erosoak dituztela. Badirudi Sagastiberria dela auzo honetako baserririk zaharrenetarikoa, armarriduna, jadanik 1548ko dokumentuan aipatzen dena. Baina baliteke lehenagokoa izatea, baldin ontzat emango balitz, XV. mendeko Domingo Sagastiberri, Berastegiko dorretxearen eraikuntza hasi zuen berbera, izen bereko etxean sortua zela. Baina orduko

Sagastiberrik Jaundegi dorretxearekin zer-nolako zerikusia zeukan, batere ez dakigu.

Bada beste baserri aipagarririk ere, harlanduzko elementu bitxiak eta sarrera arkudunak dituztenak, hala nola Arretxe, Jaungonea, Txurionea, Bulatzia eta Zapataritegi (oraingo berriaren aurrekoa). Azken hiru hauen kanpoegitura oso antzekoa da, altuera apala baina orube zabala dutenak, eta, itxura batean, garai bertsukoak. Azken biak bederen –Bulatzia eta Zapataritegi–, 1548ko dokumentuan datozenak dira. Arretxe (Arresea), izenak berak adierazten duenez, osoki harriz egindakoa izango zen eta eraikin bakarra, nahiz egun bi etxebizitza dauden.

Arbidetik Erredigunerako bidean, eskuinaldean, eguzkialdera ematen duen ezkerreko horman bere armarria daramanik ere bada, Joantsok bezala. Azken garaiotan, Elaundeazpiko Garziarena familiarena da, hango semea bizi da bertan, baina ez dirudi beti hala izan denik. Gorostizutik Urdinaraingo norabidean gora berrehunen bat metro joanda, Anaka mendiaren babesean malda batean etzanda, hango gaindegitik begira Iruin baserria agertzen zaigu, hau ere 1548ko dokumentuan izendatzen eta jaundegi bezala katalogatzen dena eta bere armarria duena[60]. Jadanik XVII. mendetik hasita, Olaetxeatarren leinukoak bizi izan dira bertan. Orain ere bai, Bizente Etxeberriarekin ezkonduta dagoen bertako alaba Ines Ugartamendiak Olaetxea baitu bere bigarren abizena. Sagastiberriko Olaetxeatarrak ezkontzabidez handik etorritakoak dira.

Urdinaraingo auzoan, aldamenean Sagardirena (Txardinea) eta Arrosarena dituela alboan, Meaka baserria da nagusi, orubez eta itxuraz galanta. Sarreran iparraldetik arku karpanel polita du, bizpahiru leiho txiki baino ez

dituen sekulako horma-aurrea duela. Sarrerako atearen gaineko harrian intsignia bat darama, eta horko letrak deszifratzen ez da asmatu oraindik. Ez horkoak eta ez beste etxeetakoak. Baserri honen gaur eguneko egitura XVII. edo XVIII. mendean egindako berrikuntza handi baten emaitza da. Duela gutxi, 1997an, teilatu berria eman zitzaion eta lehengo egitura gordetzen du eta oso egoera onean aurkitzen da. Ikustekoa da barruko zurezko egitura zein egoera onean gordetzen den, garbituz gero hobeto nabarmentzen dena. Meaka baserriaren jabe bezala agertzen den Etxeberria familiaren maiorazko-eskritura 1690ean dokumentatzen da[61]. Hurrengo mendean, 1732an, bertako nagusi bezala Juan Antonio Etxeberria eta Katalina Gazpio senar-emazteak agertzen dira[62]. Jatorrizkoa noizkoa den? Data zehatzik ezin da eman, baina ziurtzat jo daiteke XVII. mende-hasieran bederen bazela, Lope Martinez de Isastik ere oinetxe bezala aipatzen baitu 1625eko bere lanean. Bestalde, Beaca izeneko baserria ere badator Berastegiko Juan Martinez jauntxoarekin 1636an izandako auzian, Areiztun, Sagastiberria, Sarria eta Bulatzirekin batera (*Memorial*, 1651, 37). Beaca horrek ba ote du zerikusirik Meakarekin?

Amirialden ez da egun baserri aipagarririk, nahiz auzo honetakoak diren 1548ko dokumentuan aipatzen diren Olloki, Arriaga, Arriatxikia eta Amiria zaharrak, egungoen leku berean eraikiak izango zirenak. Jakin badakigu Olloki eta Amiria baserrien artean ez zela etxerik 1686an, eta Gaztañadiberria 1718. urte-inguruan eraiki zutela. Orexako Ormaetxeberriatik etorritako semea zen hango nagusia, Sederoko alabarekin esposatua. Berak eraiki zuen Arriatxikia ere bere semearentzat[63]. Amiria noizkoa den zehaztasunez ez dakigun arren, herri-mugarriez dihardutén

1686 eta 1718ko dokumentuetan “Amiriako sagastia” aipatzen baita, hemendik ondoriozta daiteke azken hori baino lehenagokoa dela.

Ariztunugalde auzoa izen bereko oinetxearen inguruan biltzen da, Arrosiko lepoan gora igo eta herriko zelaiari sarrera emanez Larte eta San Lorentzo mendien babesean. XIV. mendeko Ariztun hura, orduko gehienen antzera, seguru asko borda antzeko zerbait izango zen; geroago, ordea, noiz ez dakigula, jaundegi bilakatu zen, eta gure gaztaroan berreraiki zen osoki oraingo hau, zimenduetatik teilaturaino. Jatorrizko oinetxe honen lekukotasuna galduz gero, auzo honetan aipagarrienak, bertako zaharren eta tipikoenak, Bazterretxea –landa-turismorako prestatua–, Azpikoetxea eta Antsonea dira, azken hau armarriduna, Azpiroz familiari dagokiona XVIII. mende-bukaeratik aurrera. Bertako Maria Kruz Munita Esoin Uitziko Migel Azpiroz Arrizurietarekin esposatu zen 1782an. Ordukoa da fatxadan dagoen armarria, baserria berritzerakoan ezarria. Lukasenea, berriz, zurezkoa eta adreiluzkoa da. Antsonea eta Bazterretxea artetik Lartera doan bidetik joanda aurkitzen zen hain aipatua den Bideraun eraikina, gela bakarreko etxetxoa, Elduain eta Berastegiko auzotar etxejabeak beren arazoez jarduteko elkartzen zirenekoa.

## 3. Jaundegi dorretxea

Dorreen historia XIV. mendearen bigarren erdian hasten da eta XVI. mendera arte luzatzen. Dorrea, orubea eta leinua elkarren ondoan datozen kontzeptuak dira. XIV. mende-hasieran sortu ziren “oinetxeak” edo “jauregiak” deitzen zaien eraikinak, hurrengo mendean “dorreak”

izenarekin ezagunagoak zirenak (Aguinalde, 1997, 14). Dorrea jauregi bihurtzearen fenomenoa, ordea, landa eta hiriko leinuek bat egitearen ondorioa da, XV. mendearen bigarren erdian hasi eta XVI. mendearen lehen herenean gertatzen dena, landa-eremuko leinu zahar batzuk hirietan kokatutakoekin merkatal harremanetan sartzen direnean eta harreman horiek ezkontza-bidez sendotzen dituztenean (Aguinalde, 1997, 42). Hala gertatu zen, adibidez, Amezketako Juan Lopez jaunarekin. Ez dirudi hala gertatu zenik Berastegiko Juan Martinez jauntxoarekin edo, bederen, ez dugu jaso horretarako bide eman dezakeen daturik edo aipurik.

Dorrea leinuaren egonkortasunari sendotasun materiala ematen dion kokaleku bat da, familiaren bizitokia, eta orubea, berriz, haren inguruko lur-eremua. Gipuzkoako gizarte-antolaketan orubea zen elementurik oinarrizkoena maila geografikoan bezala juridikoan ere, bertan bizi zen leinuari abizena ematen ziona. Piramide-erara antolatutako XIV. mende-hasierako landa-gizartean leinu-buruak edo Ahaide Nagusiak aurkitzen ziren haren gailurrean eta haien ezaugarria beren orube-jabetza zatiezina izatea zen. Herri berean baziren, baita ere, gizarte-maila apalagoko beste leinu batzuk, beren orubea zuten nekazari eta jabe txikiek osatzen zutena, eta hauek, oro har, eskuduntza juridiko mugatuagoa izaten zuten eta Ahaide Nagusien menpe egoten ziren (Aguinalde, 1997, 12).

Esaten gatozen ezaugarri horiek Berastegiko jauntxoen kasuan ere eman ziren. Berastegiko Martinez jauntxoak maiorazkoa eraiki zuenean finkatu zuen bere orubea. Normalean, dorretxearen inguruan eraikita zeudenak jauntxoarenak izaten ziren: teilape batzuk, burdinolak, dolareak,

errotak, eta abar (Aguinalde, 1997, 16). Berastegiko Martinez jauntxoak bere inguruan zuen eraikin bakarra dolarea zen, egun bi etxebizitzakoa den Tolaretxea deitzen zaiona. Errotak urrun zeuzkalako kexatzen zen. Ez dakigu Igeralde eta Arrosiko haren errota horiek zehazki non kokatuak zeuden. Bestalde, jauntasunean bera baino apalagoak ziren etxenagusiak izan genituen oldartu zitzaizkionak eta auzitara eraman zutenak.

Berastegiko Jaundegiari –egun baserri bihurtuari–, "Jauli" deitzen zaio herrian eta, Gipuzkoako beste dorretxe umil eta txiki batzuekin gertatzen den bezala, nekazal inguruneko bakardadean aurkitzen zen, eta da, bere inguruan, esan bezala, dolare bat besterik ez zuelarik, elizatik oso hurbil. Eraikin hauxe da, zalantzarik gabe, bertako eraikin zibilen artean, antzinatasunaren lekukorik zindoena, enblematikoena, eraikia izan zeneko arkitektura-egitura ondoen gordetzen duena. Zaharrena ere, seguru asko, bera izango da, behin eta berriz XIV. mendeko dokumentuetan agertzen dena.

Erdi Aroko dorretxe hau egiten hasi, Domingo Sagastiberri hasi omen zen, esaten denez, izen bereko etxeko hirugarren semea. Baina haren seme Gartzia Hortiz izan zen Berastegi abizena hartu eta eraikina bukatu zuena. Hemendik dator Berastegiko jauntxoaren, edo Berastegiko dorretxearen deitura. Oinetxearen jabetza 1490. urte aldera Elvira eta Teresa Otxoa Iñiguez de Berastegi andereen artean banatu zen eta ordurako oinetxe honek ondasun handiak zeuzkan bereganatuta: errementeria bat, errotak eta lursail handiak (Urteaga, 1992, 91).

Hasieran, XIV. mendeaz geroztik, zura zen dorreak eraikitzeko erabiltzen zen lehen materiala, harlangaitzarekin



Jaundegi, VI. mendekoa, armarria daukan alderditik, fatxada nagusitik, ikusita. Jatorrizko egitura desitxuratzen duen karrerapea dauka erantsita (2010)

nahastuta. Badirudi dorreak harri-hormak zurarekin nahastuz eraikitzen zirela. Gerra-xedeak nagusitu zirenean, orduan bakarrik hasi bide ziren harrizkoak egiten. Bandoen arteko gatazkak amaitzeko bidean zeudela, Enrike IV.ak dorreen goiko zatia mozteko agindua eman zuen 1456an eta dorre-jabeek berreraiki behar izan zituzten. Jabe batzuek –Azkoitiko Baldak eta Azpeitiko Loiolak, adibidez–, beren goiko solairua adreiluz berreraiki zuten; beste jauntxo batzuei, aldiz, utzi zitzaien harriz berreraikitzen, baina lehen solairuraino bakarrik. Azken kasu honetakoak dira, hain

zuzen, Amezketakoa eta gaur egungo Berastegikoa (Aguinalde, 1997, 55-56). Berastegiko Jaundegiak, hain zuzen, bigarren solairua du desegin eta berreraikia izan zena. Teilatua egoera txarrean zegoela-eta, 1997an hura konpondu eta zurajea sendotzeko berriztatze-lanak egin zituzten.

Berastegiko hau, oinplano karratuko eraikina da, bi solairukoa. Estilo gotikokoa. Lehen solairurainokoa osorik gorde da. Azkenaldian baserri bezala erabilia izan bada ere, oraindik agerian daude XV. mendeko jaundegi-aztarna batzuk, hala nola, harlanduzko hormak eta kanpo-hormetan tinkatutako modiloiak, seguru asko kadahaltsoaren pisuari eusteko ezarriak. Bigarren solairua, dorrea bota eta gero, landu gabeko harri-hormaz egina da Errenazimentuan, eta elizara ematen duen aurpegian, jatorrizko fatxadan, garbiki nabarmentzen dira, eskuin-aldean, arku konopialeko leihoa –orain itsututa dagoena–, eta beheran, lurzoruaren parean, dobela-multzo handiko arkuz osatutako sarrerako ate txiki bat –orain karrerapeak estaltzen duena–. Jatorrizko leiho batzuk itsututa aurkitzen dira eta beste berri batzuk aterata, garaian garaiko baserri-beharren arabera, eta gaurko eraikinaren argazkitik zaila da jatorrizkoa –bereziki, fatxada– nolakoa zen ateratzea. Horretarako hobe da Miramonen ezarrita dagoen Gipuzkoako monumentu-arkitekturaren erreprodukzioa ikustea.

Bigarren solairuko eliza aldeko horman, erdiko leihoaren gainean, arrautza-erako bi armarri tailatu aurkitzen dira, "leinuaren nortasunaren adierazle" direnak: bata Berastegiko etxeari dagokiona da, eta bestea Lazkaokoari. Ezkerrekoan *Verástegui* jartzen du eta abizenari dagokiona da, eta honen erdian dorre bat aurkitzen da, zubi altxagarri batekin, eta honen atean erraldoi bat agertzen da

eskuan borra bat duela eta dorrea zeharkatzen duen banda bat; eta dorrearen gainean basurde bat eta bi erbi-zakur esparru koloratu batean. Honek, Lope Martinez de Isastiren ustez (1985, 130), horko jauntxoa Nafarroako erregearen ehiza-gidaria izan zela esan nahiko luke. Eskuinekoan *Lazkao* irakurtzen da, eta hor dragoi-buruak datoz erdian, goian ilargierdi bat eta izar bat, eta behean bi eltze buruz behera jarrita eta astakardu bat (Aldabatrecu, 1979, 76-77). Alfiz-erako moldura batean sartuta dator armarri-multzoa eta haren gainean eta gailurraren azpian leiho gotiko bat aurkitzen da, txiki-txikia, kono-erako arkuarekin. Oinetxe biak ziren Oinaztarren aldeko Ahaide Nagusien bandokoak[64], oso elkarturik zeudenak eta beren interesak batera zaintzen zituztenak. Egiazko jauntxoak ziren bertakoak, hitzaren zentzurik hertsienean. Lazkaoko oinetxea zen Gipuzkoan oinaztar bandokoen buru eta aberatsena: “El solar e linaje de Lescano es caueça e mayor del linaje de Oñis e mas Rico de rentas de toda Guipuscoa...” (Salazar, IV, 1985, 74).

Ganboarren kontrako borrokan, gertakari odoltsu baten lekuko izatea tokatu zitzaion Berastegiko oinetxeari 1447an, hildakoak 140 inguru izan baitziren eta elizan atxilotuak, berriz, beste ehun. Gertatutakoa hurbiletik ezagutu zuen Lope Gartzia Salazar historialariak (IV, 1985, 172) honela kontatzen du:

> “En el año del Señor de UCCCCXLVII (1447) años, çercaron Ladron de Valda e Pedro Ortis de Çarauz, e Martjn Sanchez de Yraeta e otros muchos del bamdo de Gamboa, la casa de Verastegi, e vino en su socorro Juan Lopes de Lescano, e algunos del linaje de Ones, y de Buytron, y de Mugica, que le enbio Gomes Gonzales de

> Butron, e pelearon cerca de la dicha casa, e fueron vencidos los Gamboanos, e muertos muchos dellos, e morió allí Martjn de Micolalde, e otros CXL omes, e prendieron en una Yglesia que se ençerraron, de los Gamboanos CC omes, e dexaronlos yr en saluo dexando todas las armas, e tomandoles una grande lombarda".

Garaipenaren protagonista bezala Lazkaoko Juan Lopez jauna agertzen da, Berastegiko jauntxoaren bandokide eta zuzeneko babeslea. Lurra odolez estalita uztearekin ez aski, garaituen bonbarda ere beraiekin eraman zuten, bertan utzitako beste arma guztiekin batera.

Badirudi Lazkaoko zein Berastegiko jauntxoen oinarri genealogikoan Muruako Martin Lopez, Amezketako jauntxoa, aurkitzen dela, Berastegiko Gracia Martinez anderearekin esposatua, hain zuzen, 1380. urte-inguruan (Aguinalde, 1997, 18-19).

Leinuaren bizitokia izateaz gain, helburu militarra ere bazuenez gero, dorre bati zegozkion ohiko ezaugarri arkitektonikoak betetzen zituen bere sotiltasunean. Jaundegi "Berastegi" deiturako jauntxoen bizitokia izana da, Martinez abizeneko jauntxoena eta Legardako markesarena. Azkenaldion, 1950eko hamarkada-bukaeraz geroztik, Ezeiza eta Lezea familiaren jabetzakoa da.

Eraikin zibiletan, Espainiako monumentu historiko nazional bezala sailkatua dagoen Jaundegi dorretxeaz gain, Udaletxea eta Elduako Salberridi baserria dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskal Kultur Ondarearen zerrenda nagusian inskribatuta daudenak, hau 2009an eta hura 2006an. Herri-mailako babesa duten ondasunen artean, beste eraikin hauek daude: Herri Enparantzako iturria, Ameraun etxea, Gaztelunea, Arbide, Plazaola, Azpi-

koetxea, Elaundeazpikoa, Kapaginsoro eta Txurionea baserriak, eta Isatsako borda eta txabola. Babes partziala dutenak, besteok: Antsonea (fatxada), Iruin (fatxada), Etxezar (fatxada), Ermentero (armarria) eta Arretxe (hego fatxada eta barruko atea). Hau da Berastegiko Udalak Gipuzkoako Foru Diputazioari aurkeztutako alegazioari erantzunez, hark 2010eko ekainaren 8an hartutako erabakia[65].

# VII

## Eraikin erlijiosoak

Orokorrean sarrera modura esanda, Lope Martinez de Isastik (1985, 224-225) Gipuzkoan bere garaian zeuden Parrokietako eliz karguak ordena alfabetikoan sailkatzeko orduan, ez du Berastegikoaren aipamenik egiten, nahiz San Martin parrokia 1303koa den; bai, ordea, Elduakoarena bikario izenarekin. Bazeuzkan zenbait ermita ere XVII. mende-hasieran, horietako batzuk XVI. mendean eraikiak, hala nola San Lorentzorena eta San Sebastianena 1541en, bakoitza bere ermitauarekin (Isasti, 1985, 218). Bi ospitale ere bazituen: bata Santa Maria Madalena (1558) eta bestea Etxenagusia (1586) izenekoa, orain, ustez, Sabillaundia eta Sabillatxikia deituak.

### 1. San Martin parroki eliza

Elizak izan dira edozein herritan, Udaletxea eta frontoiarekin batera, herrigunean gehien nabarmendu izan

diren eraikin publikoak. Berastegin, ordea, eliza aurkitzen da herriko zelaiaren erdian, jaun eta jabe, aldamenean arestian aipatutako Jaundegi duela. Beti galdetu izan baita zergatik dauden hain urrunduta eliza eta plazagunea, seguru asko erantzunean izanen du zerikusirik Jaundegi eta eliza elkarren ondoan gertatzeak. Lehengo denboretan ohitura zen jauretxea eta eliza elkarren ondoan egotea herriko lekurik onenean. Berastegiko jauntxoak auzotarrekin denbora luzez hika-mika ibiliak ziren eliz patronatua bereganatu nahirik. Beharbada horrexegatik, jauntxoak eliztarrekin eta udal-kabildoarekin etengabeko auzitan zebiltzalako, hain zuzen, auzoak mendi-malden babesean antolatuko ziren, eliza eta Jaundegi oinetxearen epizentrotik aparte. Eta eguzkialdean, Udaletxe berria egin eta gero, batez ere, plazagunearen inguruan antolatutako hirigintzan, seguru asko, Tolosatik Nafarroarako errepideak zerikusi handia izango zuen (Aldabatrecu, 1979, 76).

Tours-ko San Martini eskainitako Berastegiko parroki elizaz mintzatzean, urratsez urrats joango gara, historiari tartetxo bat eskainiz.

Eraikin erlijiosoetan, zehazki elizen eraikuntzan, nondik ateratzen da hain dirutza handia?

Gipuzkoako parroki elizen patronatuak hiru motatakoak izan dira: batzuk errege-koroari zegozkionak, eta honek, edo berak gordetzen zituen horrela, edo pertsona partikular batzuei ematen zizkien, betirako edo aldi baterako, estatuari egindako zerbitzuen ordainetan. Beste batzuk jauntxo partikularrenak ziren, “patronos diviseros” deituenak, eta hauek beren jabetza aspaldiko denboretatik herentziaz zetorkien eskubidean oinarritzen zuten. Berastegiko oinetxeko Legardako markesak, adibidez, bere jabetzakoa zuen

Bedaioko eliza. Beste hirugarren batzuk, azkenik, beren bitartekoez eta kontura eraiki zituzten herritarrenak ziren, hots, eliz eta udal-kabildoenak. Bederatzi lehen motakoak genituen, hamahiru bigarrengoak; gehienak, berrogeita zortzitik gora, hirugarrengo kategorian sartzen zirenak. Azken hauen artean aurkitzen zen Berastegiko San Martin parrokia ere (Gorosabel, IV, 1900, 207-212). Baina Berastegiko jauntxoek Bedaioko elizarekin bezala Berastegikoarekin ere beren patronatu-eskubideak aldarrikatzen baitzituzten, beste atal batean modu espezifiko batez azalduko dugun bezala, mendeetan zehar udal-ordezkariekin eta eliztarrekin auzitan ibiliko dira temati, inoiz etsi gabe.

Esan bezala, Gipuzkoako parroki eliza gehienak herriarenak izaki, galdera da ea nola lortzen den hain dirutza handia, kontuan izanda, parroki elizak eraikitzen zireneko garai haietan diru-eskasia egiazki handia zela. Ohikoa izaten zen horrelakoetan, materialak eta beste bitartekoak lortzeko, eliztarren limosnetara eta beste ongile batzuen dirulaguntzetara jotzea. Kasu batzuetan, indianoek ere parte hartzen zuten beren herriko elizaren eraikuntzan. Horrela, adibidez, Joxean Artzek kantuetan ezagutzera emana daukanez, Usurbilgo elizan. Herrien patronatukoak ziren elizetan, erretoreak eta benefiziatuak izaten baitziren herritarren ordezkaritza egiten zutenak, udal-arauen arabera, haien izendapena herri bereko semeen gain erortzen zen normalean. Izendapen horiek oso gutiziatuak izaten ziren eta kasu gehienetan auzo gehienek biziki interesatuta egoten ziren honen edo haren aldeko hautaketan eta hautagaien ahaidekoek eta hurbilekoek eginahalak egiten zituzten etxekoaren alde. Lehen esan bezala, herritarrak ziren, aspaldiko denboretatik hasita XIX. mendera arte, beren

elizako apaiz-sariak eta hamarrenak kudeatzen zituztenak (Mugica, 1923, 329). XVI. mendean, adibidez, Migel Berastegi, Lizarragako semea, izan zen bertako jaun erretore, Parrokian eraberritze-lanak bultzatu zituen berbera. Lehen esan da nola apaizek etxejabeen familiakoak izan behar zuten.



Tours-ko San Martin parroki eliza plaza aldetik begiratuta (2010)

Tours-ko San Martini eskainitako eliza altuera garaikoa da, harlanduzko horma lodiak dituena, ia denak mazizoak. Kanpotik begiratuta hori da lehenik ikusten dena. Xehetasunetan sartu gabe, oinarrian gotikoa dela ere esan daiteke. Baina mende baten barruan egindakoa ez denez –hasi eta bukatu, ekinaldi bakarrean, alegia–, beste estilo batzuk ere sartzen dira haren barruko antolaketan. Horregatik, hobe da, kronologi haria gidari izanda, haren eraikuntzan emandako urratsak segitzea.

Elizak bi sarrera ditu, bata atzetik eta bestea aurretik sartzekoa, eta aurrealdeko portada nagusian, geroztiko bestean ez bezala, kareharrizko estilo erromanikoko arkiboltak nabarmentzen dira, arku eta ertz zorrotzekoak, Elduain eta Berrobiko elizetan bezala, alde bietan harrizko ur-ontzi bedeinkatuekin.

Hirutan banaturik azalduko dugu elizari buruzkoa: lehenik, haren alderdi arkitektonikoa, ondoren eskultorikoa eta, azkenik, artistiko-musikala.

## *1.1. Eliz fabrika (1505-1761)*

Elizari buruzko ezaugarri arkitektonikoak, batez ere, Maria Asunción Arrazolari (1969, I, 244-245) zor dizkiogu, eta historikoak, hein batean, Ainhoa Arozamena Ayalari (1976, 484-489). Oraingo parroki eliza, lehengoa handituz, XVI. mende-hasieran berregiten hasitako eraikina da. Obrak erabat bukatu, XVIII. mendean bukatuko dira, egun aurkitzen den egoeran[66].

Domingo Iruza eta Lope Etxaiz harginek hartu zuten kanpandorrea egiteko ardura Kontzejuarekin 1505ean izenpetutako hitzarmenean.· Zazpi urteren buruan bukatua

zuten, egindako lanarengatik 4.054 florineko faktura 1512an pasatu baitzioten. Elizako hargintza-lana egiteko ardura, berriz, Lope Iturriazagak hartu zuen 1532an eta 1557an egin zitzaion ordainketa. Honek esan nahi du elizaren gorputza egin, mende-laurden baten buruan egin zela. Baina badirudi Lope Iturriazaga ez zela izan lanean aritu zen hargin bakarra, askotan azaltzen baita Domingo Estalaren izena ere. Maisu biak herri berekoak ziren, Hondarribikoak. Estalak elizako kapera egiteko ardura izan zuen 1555ean eta berarekin hargin-lanetan Martin Mendiarazek eta Juan Ugartek jardun zuten. Harriak herriko harrobitik atera zituzten eta eginkizun horretan Martin Azpilleta aritu zen.

Bitartean, ordea, eliza eraikitzen hasi eta zazpi urtera, zehazki 1539an, Kontzejuak arazoak izan zituen Berastegiko Martinez jauntxoarekin, honek ez baitzituen saldu nahi izan eliza handitzeko behar ziren lursailak[67]. Jauntxo honi buruzkoa beste atal batean aztertzen dugunez, orduko gorabeherak alde batera utzita, goazen elizaren eraikuntzarekin aurrera. Baina ez esan gabe lehendik zegoenaren lekuan eraiki zela berri hau eta, handiagoa egiteko lursail gehiagoren beharrean aurkitu zirelarik, jauntxoaren ezezkoa jaso zutela. Dohaintzan emango zuela, saldu ez. Honen atzean, jakina, eliz patronatuaren arazoa zegoen kinkan, itxura guztien arabera, lehengo eliza zaharrean oinarritzen zena.

Domingo Estalak bere kontuak 1557an garbitu zituen, bere lana bukatutzat ematean. Baina, antza, ez zioten dena ordaindu, oraindik 1562an elizak 2.868 dukat zor zizkiola esaten baitu. Zergatik ez zitzaion ordaindu? Ziur ez dakigu, baina badirudi Estalak ez zuela bere egitekoa behar bezala

bukatuta utzi eta erretoreak eta Kontzejuak hobetzeko agindua eman ziotela 1560an, kanal-garbitzailearen eskabidez. Auzitan sartuta, auzotar batzuei beren ondasunak kendu zizkien.

Joan Eulalde, hargina eta zurgina, izan zen aldareak, mailak, gizonezkoen eserlekuak, korua eta goi-korua, eskailerak eta ateak egin zituena, baita pulpitua ere. Honen lana 1564an aztertu zuten Gazteluko Martin Sagastizabalek eta Tolosako Martin Agirrek eta dena ongi egina zela jakinarazi zuten, aurrikusita bezala, baina pulpitua beheratu egin behar zela.

XVII. mende-hasieran, parroki elizaren patronatua zela kausa, Berastegiko jauntxoek eta bi kabildoek XVI. mende-hasieratik 1605. urtea arte epaitegi batetik bestera auzitan ibili ondoren, azken epaiaren ondoko gatazka-egoera mingotsari irtenbidea emateko-edo, behar bada arrazoi nagusi horregatik, elizaren plano berri bat eginarazi zioten Francisco Palear Fratín jaunari 1614an, Berastegiko udal-artxiboan gordetzen dena. Jatorrizkoa ez edukitzean, bigarren honek dakartzan aldaketak ezin dira behar bezala zehaztu.



Eliz Epaitegiaren aginduz, Francisco Fratín arkitektoak 1614an egindako San Martin parroki elizaren planoa da, bere azalpenekin

Planoaren azalpena:
+ =Aldare nagusia eta alboko pasabideak
A=Aldareen harmailak
B=Aldare nagusira igotzeko eskailera
C=Harmailak
D=Aldare nagusiaren ondoko eserlekua
E=Erretaularen frontala
F=Sakristia
G=Sakristiarako sarbidea eta aldare nagusira igotzeko eskailera
H=Eserlekuak bizkarrarekin
I=Eserlekuak alkatearentzat eta zinegotzientzat
K=Gizonezkoentzako eserlekuak
L=Korua
M=Apaizak kantatzera joaten direneko koru-besoak
N=Korura eta pulpitura igotzeko eskailerak
O=Pulpitua
P=Goiko korua
Q=Kanpandorrera joateko eskailerak koru-gainean
R=Kanpandorrea
S=Apaizek epistolak eta ebanjelioak kantatzen zituzteneko atrilak
T=Elizarako sarrera

Plano honetan, elizaren alde banatan bi pulpitu diseinatzen dira. Guk ebanjelio-aldekoa bakarrik ezagutu genuen, ez bestea. Apaizak kantatzera igotzen zireneko koru-beso horiek, inoiz izan baziren ere, ez zaizkigu ezagunak izan. Kaperak ere aurrean bi albotan bana ezagutu ditugu, ez lau. Hirugarren bat, bai, bazen, Ama Doloretakoari eskainia, bere erretaularekin, aldarearen azpian Kristo

hilobiratuarena kristalean sartuta aurkitzen zela. Elizako sarrera nagusiaren parean kokatua zegoen eta duela ez asko kendu zuten, hormako hutsuneak salatzen duen bezala.

Plano hau da, funtsean, gaurko eliza honen egiturari dagokiona, atzeko sarrerako atea eta goiko koru txikiari dagokion alderdia kenduta. Kanpoko zarpeoak eta horma zartatuek ere ederki erakusten dute geroztik erantsitako zatia dela hori. Kapera nagusia zur handiarekin eta kanpaiak Pedro Cassedanoren etxearekin egiteko baimena ematen dio Iruñeko Juan Queipo de Llano gotzainak Parrokiako jaun erretoreari 1641eko urtarrilaren 10ean, baina gastuak 40 dukat baino handiagoak ez izatekotan eta hortik goragokoak elizak berak ordaintzekotan[68]. XVII. mendean eginak dira, zehazki 1669an, teilatu garaia, kanpandorrea eta Tolaretxe aldera dagoen leiho berria eta 1673an, berriz, koru berria[69].

Geroago, 1761ean, erretoreak kaperetako bati izaera simetrikoa eman nahi baitzion, berak halaxe eskatuta, sakristia diseinatu zuen Francisco Ibero arkitektoak elizaren barne-antolaketa aztertu zuen. Nolanahi ere, erabateko proiektua Martin Carrerak burutu zuen, helburutzat zuena nabea handitzea, Bakardadeko kaperari zabalera gehiago emanez. Plano berri hau Jose Perez Eulate ikuskariak onartu eta gero, Joan Ignazio Goikoetxea harginak zehaztu zuen. Seguru asko atzeko alderdi hori orduan egindakoa izango da, gaur aurkitzen den egoeran egituratuz.

Hiru mendetan zehar izandako aldaketa horien ondorioz, arkitektura-estilo garbiki desberdinduak nabarmentzen dira egungo elizan, garai desberdinetan eginak izan direla salatzen dutenak. Honela, alde batetik, ageri da latindar gurutzearen erako oinplano bakarra duen eta gurutza-


Elizaren ikuspegi orokorra barrutik (2010)

duraren besoek izaera gotikoa duten erakin baten aurrean aurkitzen garela, beso banatan kaperak dituela, ebanjelio-aldean Ama Birjinarena eta epistola-aldean San Blasena.



San Blasen irudia (2010)



Ama Birjinaren irudia. Goiko gorputzean San Jose (2010)

Bi kapera hauek arku zorrotzak daramatzate, pilastra gotikoen gainean oinarritutako moldurez aberastuta daudenak; alderdirik kanpokoenean agertzen den moldura, berriz, baldar samar zizelkatutako aurpegiak daramatzan mentsulen gainean sostengatzen da. Bobedak, orobat, hiru moldura biribilez osatutako pilastra gotikoen gainean

oinarritzen dira. Pilastra hauek dira, beharbada, Gipuzkoan aurki ditzakegun gotikoenak. Giza irudiez ongi zizelkatutako kapitelak daramatzate eta nabardura hau ez da batere ohikoa Probintzian.



Bobedako lehen zatia tertzeletez edertua (2010)

Elizako elementu gotiko horien azalpena beren antzinatasunean aurkitu behar da, esana denez, eraikuntzari 1505ean eman baitzitzaion hasiera.

Absidea poligonala da eta haren bobedak egitura aski konplikatua du, tertzelete ugariz saretua aurkitzen baita,



Sakristiarako atea, beranduko gotiko arkuduna (2010)

zapi bordatu baten antzera. Sinpleagoa da hurrengo zatiari dagokiona. Izan ere, elizaren atzealdea eta korua geroago eginak dira eta ez daramate ez gurutzeriarik ez apaindurarik beren bobedetan. Gurutzadurako kaperako bobedak ere oso xumeak dira.

Leihoak XVI. mendekoak dira eta harrizko euskarri molduratuak dituzte. Epistola-aldetik sakristiara ematen duen atea txikia bezain polita da, beranduko gotiko arkuduna, bihurgune konbexu asko dituena, beranduko gotikoan ohi zen bezala (Arrazola, I, 1969, 244-245).

Orokorrean, bada, San Martin elizak garai desberdinetako elementuak dauzka eta inolako apaindura eskultorikorik ez daramaten beranduko arkibolta erromanikoko portada soiletik hasi eta barroko-tankerako dorrea arteko estilo desberdinak nahasten dira bertan. Egungo atzealdeko zatia eta dorrea, esan bezala, XVIII. mendekoak dira.

### *1.2. Erretaula (1601)*

Eskultura-alderdiari dagokionez, elizaren barruan, batez ere, hango erretaula nagusia nabarmentzen da, berrikitan berriztatua izan dena, eta honek ematen dio distira eliz multzoari. Alkizako Anbrosio Bengoetxea eskultore erromanistak egin zuen. Azpeitiko Antxieta eskultorearen eskolakoa zen, berarekin Asteasun lanean aritua. Berastegiko hau egiten hasi aurretik, bada, jadanik eginak zeuzkan Donostiako San Bizente parrokiako erretaula (1594), Joanes Iriartek lagunduta, eta Nafarroako Aezkoako Iriberrikoa (1600). Hemengoa bukatuta, 1601ean, Berastegikoa egiteko hitzarmena sinatu zuen bertako erretore eta alkatearekin.



Erretaula, XVII. mende-hasierakoa, Anbrosio Bengoetxeak egina (2010)

Lehen diru-ordainketak 1603an egin zitzaizkiola badakigu, baina ez noiz bukatu zuen, 1622an egindako testamentuan bere seme Juani esaten baitzion Berastegiko erretaula-lanagatik oraindik berrogeita hamar dukat kobratzeko zeuzkala. Zorrak ordaindu baziren ez baziren, eta noiz, batere ez dakigu. Dakiguntxoa Sancho Verrobi eta Martin Gomez prokuradore jaunek patronatu-auziaz diharduen 1610eko txostenean dakartena da: elizako erretaula bost mila dukat baino gehiago kostatu zela, alegia[70].

Maria Asunción Arrazolak (II, 1969, 199-205) erretaula honen eskultura-ezaugarriak xehetasunez aztertzen ditu eta gehienbat berari jarraitzen diogu. Berastegiko erretaula honek, eskultura-antolaketari dagokionez, Donostiako San Bizentekoarekin du antzekotasunik gehien. Bietan, aulkiko frisoan Pasioko eszenak historiatzen dira; bietan aulkitik gora hiru gorputz eta zazpi zona aurkitzen dira, hiru kale eta lau kaleartekotan banatuta, eta bietan irudiak eta erliebeak leku bera hartzen dute. Aldea da, San Bizenteko erretaula orokorrean handiagoa dela irudietan bezala beste neurrietan ere.

Berastegiko erretaulan zain zuriak dituen marmola beltzezko idulkiaren gainean altxatzen da aulkia, oholtza, altuera handikoa. Hemen Testamentu Zahar eta Berriko eszenak eta irudiak aurkitzen dira, eta erdian, berriz, Sagrarioa, ekisaindu bihurtua. Baliteke gaurko aulki hau jatorrizkoa ez izatea, geroago erantsitakoa baino. Ebanjelio-aldean, Sagrarioaren ondotik hasita, *Jesukristoren* irudia, *Azken Afaria* eta *Aaron* agertzen dira, eta epistola-aldean, berriz, *Moises, Mana* eta *Melkisedek*, eta hauen irudiak dira lortuenak, adierazten dituzten beren jarrera eta sinboloengatik. Eta eskasena, *Jesukristoren* irudia, barne-indarrik gabekoa.



Erretaularen aulkia erdian Sagrarioa duela (2010)

Aulkia eta erretaulako beste gorputzak zatitzen dituen friso zabalean, *Antzaldatzea, Baratzeko otoitza, Jaunaren atxiloketa, Jesus Pilatosen aurrean, Gurutze-bidea* eta *Gurutziltzaketa* ikus daitezke. Nahasketak nabarmentzen dira, adibidez, *Jaunaren atxiloketaren* taulan, berdin *Jesus Pilatosen aurrean* eta *Gurutze-bidea* erliebeetan, eta azken honetan, gainera, akats-puntuak ikus daitezke marrazkian eta perspektiban.

Lehen gorputzeko erdiko kalean San Martin apezpikuaren estatua daukagu, zutik irudikatua, bere kaparekin behartsu bat estaltzen duela. Aurpegian bizitasuna ageri zaio eta eskuineko eskua, oso fina, bedeinkatzeko jarreran dauka. Ondo lortutakoa. Honen alde bietan, ebanjelio-aldean San Esteban eta epistolakoan San Sebastian –hau eskuineko eskua jasota eta ezkerrekoa atzera zuzenduz–, agertzen dira; ertzeetako kaleartekoen horma-hobian, berriz, San Pedro eta San Joan Bautistaren irudiak.



San Martin apezpikuaren irudia (2010)

Bigarren gorputzean, San Lorentzo dago erdian, bere diakono-ezaugarritzat soinean dalmatika zabal bat daramalarik eta bere martiri-ezaugarritzat, berriz, eskuetan parrilla bat. Irudi hau ez da bereziki artistikoa. Alboetako kaleartekoen horma-hobien bi santa nabarmentzen dira, biak oso garaiak; ebanjelio-aldekoa Santa Elena izan daiteke, daraman gurutzeagatik, eta epistolakoa, berriz, Santa Kasilda, arrosak gordetzen ageri delako. Kaleetan *Ama Birjinaren Deikundea* eta *Ikustaldiaren* erliebeak datoz, hura ebanjelioaldean eta hau epistolakoan. *Deikundearen* irudian, Ama Birjinak arropa hertsia darama, gainetik kapa handi batez estalia. Goiaingeruari begira dago eta honen gainean Espiritu Santua hodeien koroiaz inguratua agertzen da.



San Lorentzo diakono martiriaren irudia (2010)

Goiaingeruaren hankatxoak, batez ere, gaizki burutuak dira. *Ikustaldiaren* erliebea mugimendu handikoa da eta hainbat irudi agertzen dira: San Jose, Zakariaz eta Juditena.

Hirugarren gorputzeko erdiko kalean *Ama Birjinaren Jasokundea* kokatzen da horma-hobi biribil batean. Ederra benetan. Alboko ezkerreko eta eskuineko kaleetan *Adorazioaren* eta *Erregeen* erliebeak daude, hurrenez hurren. *Erregeen Adorazioan* Jesus Haurra erabat biluzik agertzen da eta Amak ez die begiratzen hura gurtzera datozen artzainei, aurrera zuzentzen du begirada. San Josek baztertzeko keinua egiten du, mesfidati artzainen aurrean. Irudi hauek fin eta goxoak dira.



Ama Birjinaren Zeruratzea (2010)

Goienean, *Kalbarioa* daukagu. Ederra. Gurutzea biziki garaia da, agian neurriz desegoki samarra, ondoan Ama Birjinaren eta San Joanen irudiak dituela. Hauek aurrera begira agertzen dira, triste eta arropa askorekin.

Oholtzaren apainduria soila da. Kaleetan erliebeak daramatzaten aulkiko horma-hobiak errektangularrak dira, apaindurarik gabekoak; kaleartekoak, nola aulkian hala gorputzetan, goian erdizirkuluan bukatzen dira. Janbak, aulkian, atxiki eta ildaskatutako pilastren modukoak dira, zabalagoak goiko partean behekoan baino. Lehen gorputzak koloma doriko ildaskatuak daramatza, harroinarekin. Kaleetako horma-hobiak errektangularrak dira, erdikoa frontoi biribilarekin, eta alboetako kaleetakoak, berriz,

frontoi zuzenekin eta goian alderantzizko kurbarekin. Bigarren gorputzeko kolomak korintiarrak dira. Erdiko horma-hobia zuzena da, eta alboetako kaleetakoak, berriz, biribilak. Hirugarren gorputzeko *Jasokundea* horma-hobi biribilean sartuta aurkitzen da. Goienean atikoa dago, zabaleran biltzen dena, eta erdiko frontoi zuzenean *Kalbarioarekin* ematen zaio oholtzari errematea.



Kalbarioa bere gurutze garaiarekin (2010)

Kritikak, bereziki, *Sagrarioko* erliebeak eta hormahobiak, *Jasokundearen* irudia eta *Kalbarioa* ezartzen ditu beste guztien gainetik. *Jasokundearen* kasuan, zehazki, Antxietaren eragina ikusten da. Oholtzako beste irudien lanketan, ordea, nolabaiteko desberdintasuna antzematen da eta, itxura guztien arabera, irregulartasun honek lantegiko beste taldekideen parte-hartze handia adieraziko luke. Bestalde, erretaularen polikromia XVIII. mendekoa da, Migel Ezkurrak hasi eta Antonio Alkizaletek bukatua[71].

### *1.3. Zimitorioa (1654-1672)*

Lehen begiradan harridura sortzen duena, eliz ataria da, guk herrian zimitorioa deitzen dioguna, Bizkaiko Durangoko San Maria elizakoarekin batera, famatuenetakoa Euskal Herrian. Durangokoaren berezitasuna teilatuan daraman habe eta frontalen arteko mihiztadura zoragarrian datza. Gipuzkoan aipagarriak dira, ikuspuntu etnografikoaren aldetik Zizurkilgoa eta herri-artearen aldetik Errezilgoa eta, bereziki, Soraluzekoa (Larrañaga Fernández de Arenzana, 1988, 189-223), duen tailu ederragatik; handian eta handitasunean, ordea, Berastegikoak ez bide du berdinik, eta bere mihiztaduran ezein tailurik ez daraman arren, bere landa-soiltasunak janzten du ederrez. Itxuraz eliza bera baino zaharragoa badirudi ere, XVII. mendeko eraikuntza da, elizaren gorputzari eranskin gisa atxikirik doana. Lanak 1654an hasi ziren, Pedro Gorosti zurginaren eta Domintxin harginaren ardurapean.

Zimitorioak zurezko lau zutabe laukidun ditu euskarri, izugarri sendoak eta garaiak, lurzorutik goiko sabairaino doazen pieza bakarrekoak, zabaleran 2 eta luzeran 13

metro-ingurukoak, eta barrualdea egurasten duten itxi gabeko beste bost leiho handi, guztiak arkudunak eta harlanduzkoak, eta beste hiru ate handi eta zabal, auzo desberdinetatik datozenentzat sarbide izan daitezen.



Zimitorioko habeteria eta lurzorua. Atzealdean elizarako sarrera (2010)

Elizaren hormari itsatsitako teilatuak ematen dio aterpea zimitorioari. Ganbarara eta handik korura joateko harrizko eskailera 1667an egin zen eta urte berean, orobat, jarri ziren ganbarari zoladura ematen dioten gapirio ikusgarriak. Handik bi urtera, 1669an, burutu ziren plaza aldera ematen

duen sarrerako ate nagusia, hiruetan handiena dena, eta lauza beltzez estalitako lurzorua, udan izerdia dariola egoten dena. Barruan dena da austeritate, oro handitasun biluzi. Apaindurarik batere ez. Bigarren solairutik teilatura arteko lanak 1672an burutu ziren. Bertan zeuden aletegiak, herri-batzarrak egiteko lekua eta oraindik hormaren kontra orduko aztarnak bistan dauden serorarentzako bizilekua.



Zimitorioko ganbaran seroraren etxebizitza-aztarnak (2010)

Garai batean seroraren egitekoa garrantzi handikoa zen elizaren bizitzan eta haren betebeharrak kontratu jakin baten bidez zehaztuak etortzen ziren. Berastegin 1798an Josefa Echagoien eta parroki kabildoaren artean izenpetutako hitzarmenean, adibidez, haren eginkizun nagusietako bat bezala kanpaiak jotzea zetorren finkatua. Norbait hiltzen zenean, kasu bakoitzean desberdinak izaten ziren kanpai-hotsak eta herritar guztiek zekiten nor zen hildakoa Hau gizonezkoa bazen, 33 kanpai-hots, hamaseigarren eta hamazazpigarrenen artean bi kanpai-hots txiki edo ezkila joz; emakumezkoa bazen, 33 kanpai-hots eta hiru ezkila; ezkongea bazen, 33 kanpai-hots eta segidan bi ezkila, hauek biziago eta jarraian; aingeru bat bazen, berriz, kanpai handia eta txikia jotzen ziren, txandatuz (Garmendia Larrañaga, 2005, 417).

Ganbarako goiko partean, plaza aldean dauden lehengo hiru leiho txikiz gain, hirugarren leiho bat ireki zen 1667an, handia eta burdinazko sarez itxia, hain zuzen, batzartuta zeudenean argi gehiago sar zedin egina. Geroztikoa da, bada, meza nagusi ondoren bandoak beheran egiteko ohitura. Gure denboran, ordea, ganbara santuen irudiz eta mila trastez beteta egoten zen eta, noizbehinka, dotrina ere ematen ziguten. Serora, han ez, baizik Udalarena den sakristia gaineko etxean bizitzen zen. Orain ganbara txukun-txukun aurkitzen da, hutsik, eta bere biluztasun horrek eragiten duen zirrara oraindik sarkorragoa gertatzen da.

Eta plaza aldera ematen duen zimitorioko atearen eta eliz portadaren artean, izkina batean, harrizko mahai erroktangular handi bat aurkitzen da, luzeran 2,23 metro eta zabaleran 87 zentimetrokoa, Ustoa abizeneko batek dohaintzan emana (Linazasoro, 1978, 367), gure garaian ere bere zeregin berezia betetzen zuena.



Elizako portada nagusia, eskuinean harrizko mahaia eta
ezkerrean korurako sarrera (2010)

Zimitorioko harrizko mahai hura, lehen begirada batean halaxe ematen baitu, ehorzketetan hilkutxa han uzteko asmoarekin egina dela uste izaten du bertakoa ez den jende askok. Guk elizara joaten hasi ginenetik bagenekien oso bestelako zeregina betetzen zuela. Igandeetan biltzen ziren herriko jende gehienak eta meza nagusiaren ondoren herriko aguazilak asteko bandoak mahai inguruan zutik jarrita botatzen zituen. Eta jende guztia entzuten, isilik. Bukatzean hasten zen auzokideen arteko solasa, murmurio suabe bezala zimitorio osoan zehar zabaltzen zena. Elkarren arteko harremanak izateko parada huraxe izaten

baitzen, askotan eguerdira arte luzatzen zen hizketa, nork nori hitza jango zain. Bandoen betekizuna bezain garrantzitsua zen bigarren hau, zalantzarik gabe, batez ere emakumeentzat, hauentzat ez baitzen lekurik izaten tabernan. Beste herrietako auzokoek ere eliz atarietan egiten zituzten beren herri-bilerak; beste batzuetan, Durangoko Santa Mariakoan, adibidez, merkatal zereginetarako ere erabili izan da eliz aterpea.

Udalak erabaki sendoa hartua zeukan 1940ko hamarkadan aspaldi-aspaldikoa zen usadio horri irmoki eutsi behar zitzaiola (Udal-Akta, 18-02-1940). Guk ere geure buruari galdetu izan diogu ohitura horrek Berastegin zergatik iraun ote duen hain luzaz. Agian, herriko jende gehiena mezatan biltzen zelako eta ez plazan? Hau ere litekeena. Baina ez zaigu iruditzen arrazoi bakarra hori izan zitekeenik. Ikerketa berriek argitu dute egungo Udaletxea egin aurretik, alkate zegoenaren etxean egiten zirela erabakiak hartzeko herri-bilerak, noiz Lizarragan, noiz Maiztartegin, noiz Martintxurin, noiz Bustinsoron[72], noiz Elutsenean (gaur egun Kutxa dagoen etxean). Eta zehazki 1720an, berriz, “Arandiako zelaia” izeneko leku batean egiten hasten dira, elizaren hegoaldean bidez bestaldean aurkitzen den eta egun Tolaretxeko Andisoro bezala ezagutzen den lursailean, hain zuzen (Salbarredi, 2005a, 20-21). Batzar horietan ondasunen jabetza zuten gizonezkoek –etxenagusiek, alegia–, bakarrik parte har zezaketen, ez maizterrek, ezta emakumeek ere. Bilerak urtero egiten zituzten, San Migeletik San Migelera, eta batzuetan, ez atarian, zimitorioko ganbaran baizik, seguru asko eguraldiaren arabera. Beraz, Arandiako zelaia eta zimitorioko ganbara elkartuta daude. Udalak aipatzen duen ohitura zahar horrek, seguru asko,

garai hori izango zuen gogoan. Udaletxeak errelebua hartu zuen arte, beraz, badirudi zimitorioak bete zuela bandoak egiteko eginkizuna. Eta tradizio horrek bazuen bere indarra, San Joan dantzak-eta, eliz atarian egin izan baitira oso berandu arte. Beste herri batzuetan ere, Bixente Barandiaranek (1990, 101-102) kontatzen duenez, urte askotan zehar "Urki"ko San Blas eliza txikiko landa-atari zoragarrian ospatu ziren bizilagunen bilerak.

### *1.4. Sakristia (1759)*

XVIII. mendearen azken hamarkadetan sartuta, zehazki 1759an, Francisco Ibero jaunak sakristia eta pontea egiteko diseinua egiten du. Sakristia egiteko ardura Domingo Iparragirre Matxineak hartu zuen. Zoragarria da benetan, errektangularra, bere zatiak ertz-gangaz estalita dauzkana. Sabaia harrizkoa du, bobeda-tankerako trazaduraz taxutua. Hormaren kontra zurezko mahai polikromatuak ditu,



Sakristiako mahai polikromatua, bere eserleku eta aulkiekin (2010)

dotoreak. Egurrezko mahai bat ere bada, izugarri handia, luzeran 3,20 metro eta zabaleran 77 zentimetrokoa, polikromatua eta pieza bakarreko oholtza duena, leku gutxitan baino ikusten ez den bitxi horietako bat. Haren inguruan esertzen ziren hiletara etortzen ziren inguruko apaizak.

Elizarako apaiz-jantziak ere halakoxeak dira, zetazkoak, belusatuak eta bordatuak, jadanik 1610eko dokumentu batean irakurtzen den bezala. Polikromatuak, halaber, jantzi horiek gordetzen dituzten tiradera-altzari zabalak, mahaiarekin jokoan. Intsentsu-ontzia, zilarrezkoa. Zutargiak, ikustekoak.



Sakristiako tiradera-altzari polikromatua, erdian ispilua eta honen gainean gurutzea dituela (2010)

Sakristiaren gaineko solairua apaizen egoitza izateko asmoarekin egin bide zen, baina han, herriak bere erretore-etxe galanta askoa zeukanez, serora bizi izaten zen. Geroztik, orain urte batzuk arte, elizaren garbiketaz arduratzen ziren familiak ere bizi izan dira bertan.

Bestalde, xehetasun hauen alboan, baduke interesik sakristia zein testuingurutan eraikia izan zen jakiteak. Esan berriak gara, zimitorioko bandoez jardutean, herri-bilerak Arandiako zelaian egiten zirela. Eguraldi ona egiten zuenean, noski. Une jakin batean, ordea, bilerak han egiteari utzi egin zitzaion. Zer dela eta?, galdetuko da. Arrazoia da Berastegiko elizako sakristia handitu egin behar zela eta, horretarako, herriko agintariek eta Jaundegiko nagusiak terrenoen permuta bat egitea adostu zutela: markesak bere lurretan sakristia egiteko lurra uzten zuen, trukean herriarena zen Arandiako belazea hartuz. Akordu hori 1756an hartu zen eta handik hiru urtera bideratua zegoen proiektu berria. Horrela egina da elizari atxikirik dagoen sakristia eta honen goiko etxebizitza.

### *1.5. Organoa (1894)*

Erretaula eskultore handi batek egina bada, organoa ez da balio gutxiagokoa. Eliza honek koruan daukan altxorra behar bezala baloratu ahal izateko, komeni da Euskal Herriko organoen historiaz zerbait esatea. Europako merkatuan XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mende-hasieran guztien gainetik nagusitzen diren organo-egileen etxeak, batez ere, Alemaniako Joseph Merklin-en eta Frantziako Aristide Cavaillé-Coll-en tradiziotik datozenak dira, biak elkarren lehian dabiltzanak merkatuaz nor

jabetuko. Denboraz, etxe bi horien tradizioari jarraiki, tandem bat osatuz joaten dira beste etxe batzuekin batera eta, honela, besteak beste, Merklin/Gutschenritter eta Cavaillé-Coll-en eskolako Wenner/Maille bikoteak sortzen dira eta hauek dira euskal lurraldean sarrera gehien dutenak. Merklin/Gutscheinritter etxeak egindakoak dira Kristo Lezokoaren basilikan dagoena (1884), Bizkaian Gordexolako Joan Bautista Parrokiakoa (1899), Beasaingo Parrokiakoa (1906), Andoaingo Parrokiakoa (1907), Getxo-Alkortako San Nikolas Bariko Parrokiakoa (1908) eta Errezilgo Parrokiakoa (1913). Cavaillé-Coll-en etxeak, halere, sarrera handiagoa izan zuen Euskal Herrian, Espainian 1856-1940 epealdian zehar ezarritako 37 organotatik 24 penintsulako euskal lurraldean ezarriak izan baitziren. Sonatuak dira Lekeitioko elizakoa (1856), Donostiako Santa Mariakoa (1863), Loiolako basilikakoa (1889) eta Azkoitiko Santa Mariakoa (1898).

Berastegiko Parrokiako organoa Wenner/Maille etxeak egina da. Hura jubilatzean, honek eman zion segida bere lantegian, izen bikoitz hori hartuz, eta indarrean egon zen 1921. urtera arte. Georges Wenner Cavaillé-Coll-en lantegian aritu zela eta haren ikaslerik onenetarikotzat hartzen dela jakinda, esana dago Berastegiko organoa kalitate handikoa dela eta haren organoak Cavaillé-Coll etxearen tradizioan sartzen direla. Etxe horretako organoak bat baino gehiago dira euskal herrietan zehar: Azkoitiko Santa Klara monastegian 1897an, Iruñeko aita karmeldar oinutsen komentuan 1903. urte-inguruan. Baina horietan baino lehenago Berastegiko Parrokian ezarri zuten 1894an, 10.000 pezeta ordainduta, eta honi gero 1.500 pezeta gehitu zitzaizkion joko berri bat jartzean.



Organoa, goiko koru txikian, elizaren atzealdean (2010)

Berri honen aurretik bazen beste organo bat, ustez lehenengoa, Juan Antziola kapitainak dohaintzan emana 1685ean. Hau ere berritua izan zen eta gastuen guztizkoa, dirudienez, 15.010 pezetatara iritsi zen. Gastuok erdibana ordaindu zituzten Udalak eta Parrokiak. Eta etxez etxe egindako diru-bilketan 138 familiak parte hartu zuten.

Organo hau nolakoa den? Eskuz jotzeko bi teklatu ditu eta oinek eraginda jotzeko beste bat. Guztira, eskuz jotzekoak 12 joko ditu eta lotura-bidez funtzionatzen duen oinek eragindakoak, berriz, batere ez (Elizondo, 2001, 302-303).

Azken berriztatzea Hernaniko Alejandro Usabiagak egin zuen 1989an. Bertako organistak izandakoen zerrenda ere iritsi zaigu (Zudaire Huarte, 1998): Jose Aldabe (1730-1752), Migel Ignazio Txurdangi (1780-1826), Ildefonso Gorrotxategi (1832-1861), Juan Maria Eizmendi (1861). Ez dakigu, ordea, zein organistak inauguratu zuen organo berria. Gaur egun elizan organo-kontzertu ugari ospatzen dira.

Berastegiko parroki elizak, bere osotasunean hartuta, sekulako itxura erakusten du: garaia, trinkoa, harlanduzkoa. Garai hartako arte-multzo aipagarrienetako bat da.

### *1.6. Elizaren kokapena*

Gipuzkoako parroki eliza gehienak, Arrasate eta Errenterian izan ezik, hirigunetik aparte alde batean kokatuak agertzen dira, harresien ondoan; Usurbil, Elgoibar eta Azpeitian bakarrik horietatik at (Intxausti, 2007a, 43). Berastegiko eliza plazagunetik erabat aldendua aurkitzen baita, asko dira galdetzen dutenak ea zergatik eraikia izan zen hain leku bakartian.

Badugu susmoa haren alboan dagoen Jaundegi zaharrean dagoela erantzunaren gakoa. Oinetxe honetako jaunek markatu zuten denbora luzez bertako gizarte-bizitza eta hori garbi islatzen da bertako herritarrekin eta agintariekin izan zituzten etengabeko arazo eta auzietan. Jaundegiaren kokapena bera da, iruditzen zaigunez, elizarena baldintzen duena. Gogoratu behar da herria Tolosako jurisdikziopetik atera eta Udaletxea XVIII. mendean egin zen arte, hango udal-batzarrak "Arandia" zelaian eta zimitorioko ganbaran egin izan zirela. Eta beste hainbat lekutan. Herritarrak eliz inguruan elkartzeko ohitura horrek oso berandu arte jarraitu zuen, 1936ko gerra aurretik, dantzak ere eliz atarian egiten baitziren. Gerra ondoren ere igandeko udal-bandoak zimitorioan egiten ziren. Honek esan nahi du elizak zuela zentralitatea garai horietan. Udaletxea eraikiz gero etorriko da, hain zuzen, plazagunea bere lekua hartzen.

## 2. Ermitak

Berastegik, parroki elizaz gain hiru ermita ditu, San Sebastian, San Anton eta San Lorentzo, hiruak mendian kokatuta daudenak, ez edozein lekutan, estrategikoetan baizik, bertatik ederki bistatzen direla herria bera, Nafarroara daraman errepidea eta Leitzaran aldea. Ermitaz ermita txango polita egin daiteke, norberak gogoko duen tokitik abiatuta.

### *2.1.San Lorentzo ermita*

Jadanik 1625ean bederen bazen. San Lorentzo larreko ermita izen bereko lurmendiaren gailurrean aurkitzen da,

804 metrora, alde batera Berastegi harana duela eta bestera Leitzarangoa. Mendi honi "larrea" gaineratzen bazaio ere, herrialdera ematen duen haren aurpegi idorrak larre berdetik eskas zuen, eta du, eta hango harlauzazko lurzoruan oparo ernetzen ziren otadiak eta sastrakak. Egun gehienbat pinuz estalita dago eta lehengo bide eta bidezidorrak galduxeak edo zakartuak dira. Haren sabela, ordea, ez da erabat antzua gertatu, harlauza-zainak ustiatu baitzituzten zenbait urtez 1960ko hamarkadatik aurrera.



San Lorentzo ermita eta inguruko pagadia, alde batera Berastegiko herria eta bestera Leitzaran duela (2010)

Mendi-gainak eskaintzen du inguruko besteek ez bezalako ikuskizuna. Egun argitsu batean, ederki bistatzen dira bertatik Aiako Harria, Donostiako itsasoa, Udalaitz, Aizkorri, Ernio, Tolosaldeko herriak eta Leitzarango harana, eta magalean Berastegi. Orobat, Uzturreraino iristen den mendi-bidea ere erabat kontrolpean hartzen dute begiek. Ermita pagondoz inguratua dago eta apenas ikusten den bertara iritsi arte. Ehunen bat metro beherago, etenik gabe jariatzen duen iturriko ur freskoak asetzen du egarria, izerditan blai dagoenak estimatzen duena.

Ermita hau XIX. mende-bukaeran eraiki zen, 1896anedo. Garai batean, diotenez, ermitaren ondoan hilerri bat ere ba omen zegoen. Egituraren aldetik, errektangularra da, luzeran zabaleran baino askoz gehiago duena, hurrenez hurren, 23,8 eta 7,4 metro, eta altueran 5,75. Gibelean badu aterpetxo bat ere, burdinazko bere sarreratxoarekin, barnean 6 X 6,3 metroko azalera duela. Aurrealdean eta kanpairik gabeko kanpai-horma daukan atzealdean lehengo ermita zaharraren urratsak nabari dira. Badu kanpaia, Gasteizen 1917an egina, baina 1981. urteaz gero barnean dago ezarria, idazki honekin: "Domingo Salveridi e Hijos. Berastegui. San Lorenzo, Año 1917". Erretaula polikromatua da, eta erdian dagoen San Lorentzoren irudiak eskuan parrilla bat du. Aldare-ingurua burdinazko itxitura batek banatzen du eta harlauza handiz estalia dago. Azken aldikoz 1981ean eraberritu zen.

Ermita honek bazuen, antza, orain ez bezalako garrantzia aurreko mendeetan. Ezagutzen dira bertako serora izandako batzuen izenak. XVIII. mendeko lehen hamarkadetan Serafina Aranalde izan zen eta hau 1731n hiltzean, honi segida Katalina Aranaldek eman zion, eta honi Beatriz

Arruek 1744an. Hau izan zen bertako azken serora, 1751n hil zen arte.

Urte haietan, beste ermitetan bezala, hemen ere errogatibak egiten ziren. Santuari bixikak sendatzeko karisma aitortzen zitzaion eta herritarrak urtero jaiera osoz joaten ziren, errementariari eginarazitako iltzeak eskuetan hartuta eta, hara iristean, iltzearekin bixika igurtzi eta santuaren oinetan kutxa batean jasota uzten omen zituzten.

San Lorentzo da herriko patroia, Parrokiakoa San Martin den bezala. Udaletxeko armarriak ere lauki batean santuaren eta bestean honi eskainitako ermitaren irudiak daramatza. San Lorentzo-egunean bertan, abuztuaren 10ean, egiten dute herritarrek beren urteroko erromeria, herriko festak ospatzen diren egun berean. Guri ere, simoneroak baikinen, behin edo beste tokatu zitzaigun bertara joan beharra meza laguntzera. Meza ostean, pagadian, hamaiketakoa izaten zen, Udalak ordainduta. Orain ere ohitura horrek jarraitzen duela egiaztatu ahal izan dugu, egun horretan jende-mordoxka biltzen baita bertan. Erromesak bereganatzeko betiko xarma berarekin segitzen duela adierazten bide du horrek.

Baina bitartean ageriko aldaketa batzuk ere eman dira. Lehenengoa da gure garaian iltzerik eramateari utzia zela jendea, nahiz fede handiko jendea izan, bixikak beste nonbait sendatzen zirelako, zalantzarik gabe. Bada sendabelar egokirik horretarako. Bigarrenak, gaixotasuna sendatzeko ahalmenarekin ez, baizik berrikitan eman den berrikuntza teknologikoarekin du zerikusi zuzena, eta da ermitaren oinetan telebista-tramankulu handi bat dagoela eraikita eta bertaraino egun autoz joan daitekeela. Zango bigun eta gazteei aldapak ez baitie hainbesteko minik egiten, auto-

biderik ez zen garai haietan, arin asko igotzen ginen Obinetaberritik gora zehar-mehar betiko bideari jarraituz. Gurekin joaten zen Don Jose apaizari, ordurako dorpetua baitzegoen, hari gehiago kostatzen zitzaion bere zango zaurituak mugitzea. Gaur, Aintzergatik abiatzen den pistak bertaraino eramaten gaitu eta, Gorosmenditik pasata, autoz nahiz oinez joan gaitezke. Horregatik, galdua badu ere oinez bakarrik joan zitekeeneko xarma hura, baduke alderdi onik ere, batez ere bertaratzeko ezinduak leudekeenentzat, adinekoentzat zein bestelakoentzat.

San Lorentzo ermitaren inguruan bada kontakizun bat, herrian aski ezaguna dena. Zamargin baserriaren parean, errepidearen bestaldean, ermitatxo bat aurkitzen da, "Humilladero" deitzen zaiona, San Lorentzoren irudiarekin. Zergatik ote santu berari eskainitako bi ermita, bata goian eta bestea beheran? Herritar batzuek ermita San Lorentzo larrean, erdibidean-edo, eraiki nahi omen zuten, eta beste batzuek, aldiz, orain dagoen lekuan, han gailurrean. Beherago eraiki nahi zutenak hasi ziren zimenduak finkatzen, baina egunez erabilitako materialak gauez aingeruek gora eramaten zituzten. Alfer-lanean ari zirela-eta, azkenean ermita nagusia goian egitea erabaki zuten. Eta orduan gertatutakoaren oroigarri, errepide ondoan, ermitatxo hori egin zuten, "Salontzo txiki" deiturarekin ezagunagoa dena.

## *2.2. San Anton ermita*

Hirigunetik Leitzara goazela, Urtorako bidean errepidearen ezker aurkitzen den lehen ermita da San Anton, Aintzergako haranaren hasieran babestuta, itsas-mailatik 480 metrora. Errepidean zehar, beti ezkerreko soro-hormen

kontra kokatuta, hamalau gurutzeko kalbarioa luzatzen da, eta azkenekoa ia bertaraino iristen da. Oraindik harrizko kalbario batzuk zutik daude, nahiz gehienak desegin edo desagertu diren.

Baseliza honen lehen aipamenak XVI. mendekoak direla esaten da testu batzuetan; besteetan, berriz, 1670. urte-inguruan egin zela lehengo zaharra. Guk atzeman dugun dokumentua berriagoa da, 1735ekoa, hain zuzen, non esaten baita orduan lortu zela Gotzaindegitik San Antongo ermita onartu eta bedeinkatzeko baimena[73]. Oraingo berri hau zergatik, non eta noiz egin zuten ziurtasunez dakigu: lehengo zaharra baino 200 metro beherago, herritarrek auzo-lanean eta diru-laguntzarekin, 1918an. Antza, lehengoa zegoen lekuan iturria jaiotzen baitzen eta urak lurpea beratzen baitzuen, zimenduek huts egin zuten eta hormak erori egin ziren. Ermitaren sarrerako eskuinaldean, horman sartuta daude etxe bakoitzak eman zuen diru-laguntza eta arkitektoaren izena (Salbarredi; Azpiroz, 2008, 19). Izena ez dugu atzeman, baina badirudi, esaten denez, Tolosako Gilermo Eizagirre arkitektoak egin zuela.

Oinplano errektangularreko eraikina da, sarrerako atarian hiru arku dituena eta ezkerraldean kanpandorre laukitua. Luzeran 14,4 eta zabaleran 11,6 metro ditu. Barrutik, gurutze-erakoa da. Aldare aurrean margotutako erretaula aurkitzen da, San Antonen irudi berriarekin[74], gainean gurutze handi bat duela. Ermita hau 1989an berriztatu zen Diputazioak emandako 600.000 pezetarekin. Lehen begi-kolpean ikusten da eraikuntza modernoa dela, eta beste bien egiturarekin ez duela deus ikustekorik. Sarrera eta leihoak arkudunak ditu.



San Anton ermita, Nafarroarako errepide-ondoan, aurrean pinu-arbola txiki bat duela (Iztueta, 2010)

San Anton eguna urtarrilaren 17an ospatzen da, azienden patroi bezala. Aldareko ikonografian, santua zerria oinen ondoan duela azaltzen zaigu. Tentazioaren errepresentazioa da, santuak menderatuko duen zerri tankerako tentazioa. Lehen bazen santuaren izeneko kofradia bat eta herriko gehienak ziren bazkide.

Gure garaian, ermita honetara baserri gehienetatik etortzen ziren beren ganaduak hartuta, han apaizaren bidez santuaren bedeinkazioa har zezaten eta gaixotasun guztietatik libra zitezen. Bere aziendaren osasuna zerbait garrantzitsua zen orduko baserritarrentzat, eguneroko ogia baitzuten jokoan. Meza aurretik, prozesioa egiten zen ermitaren jirabiran, litaniak kantari eta kanpaia dilin-dalan ari. Meza

bukatzearekin batera, apaiza bere simoneroekin ermita-atarira ateratzen zen eta aurrean zeuden ganaduak bedeinkatzen zituen. Eta, besterik gabe, kanpai-hotsen laguntzarekin, beren etxeetara itzultzen ziren guztiak. Han ermitan bertan ez zen hamaiketakorik, edo antzekorik, izaten. Baina, badirudi lehen, gaueko bederatziak aldera, gizon gazteak eta, batez ere, adinekoak herriko tabernan elkartzen zirela afaldu, bertsotan egin eta goizaldera arte dantza-saioa egiteko[75] (Garmendia, Juan, 1990, 28). Beste maila eta estilo batean baina, orain ere jarraitzen du San Anton eguna leku berean ospatzeko ohitura honek.

### *2.3. San Sebastian ermita*

Herrian "San Sastin" deitzen zaio. Nafarroara goazela, San Anton kaskora irten eta, eskuinaldean, kono-antzeko mendixka biribildu baten puntan kokatzen da baseliza hau, itsas-mailatik 530 metroko altueran. Belazez inguratua dago eta alde guztietatik bistatzen da, herriko zelaitik bezala Aintzergako edozein lekutatik ere. XVII. mendean bihurtu ziren inguruko lurrak ardi-larre.

Noizkoa den zehaztea ez da hain erraza. Hari buruzko aipurik zaharrena 1541eko dokumentuetan agertzen da (Murugarren, 1993, 429-437). Baina izan, seguru asko, zaharragoa da, XIV. mendekoa, 1340. urtean haren izenean osatutako kofradia bat bazela ere esaten baita. Beraz, bera genuke herriko baselizarik zaharrena, 1993an Foru Aldundiak 3 milioi pezeta emanda berreraikia izan zena. Herritarrek beti zaindu izan dute arretaz, behar ziren konponketak eginez. Honela, 1711ko azaroaren 24an, teilatua konpontzeko baimena lortu zuten Gotzaindegitik[76].



San Sebastian ermita, mendi-kaskotik Berastegiko zelaia eta Aintzergako belazeak zaintzen (2010)

Eraikinak oinplano errektangularra du, 19,8 metro luzeran eta 10,8 zabaleran, eta bi isurkiko teilatuak ematen dio estalpea. Harrizko hormak ditu eta eskantzuak, berriz, silarrizkoak. Dobelarriz eginiko arku zorrotzeko atea darama mendebaldeko fatxadan, ondoan ur-ontzi bedeinkatua. Albo bietako kanpo-fatxadak kontrahormek sostengatzen dute, eta horietako fatxada batean, ermita zaintzen zuenaren etxea, edo ermitauaren bizitegia, aurkitzen da, bi kontrahormen artean kokatuta. Dena den, 1741ean Juan Lizarzaren izena aipatzen da hango ermita-zain bezala. Kontatzen da, baita ere, han fraide bat ere bizi izan zela penitentzia egitera zigortuta hara joana. Egunero inguruko iturrira joaten omen zelako, horregatik deitzen omen zaio iturri hari “Praille iturri”. Ondo lotu gabeko hari-puntak.

Barruan, kolorezko erretaulan irudi hauek aurkitzen dira: erdian San Sebastian, Santa Luzia eta Santa Ageda alboetan. San Antonek bezala, santu honek ere bazuen bere ahalmen berezia, eta zen izurriteak eta gaitz kutsakorrak sendatzekoa. Horretarako, jakina, errezatu egin behar-eta, hara ere urtero joaten ginen debozio handiz apaizari meza laguntzera. Herritarrek jaiera handia zioten santuari. Gure garaian bazen artean 'Santxastingo kopradia" deitua eta familia bakoitzak urteko 25 pezeta ematen zituen. Bere festa-egunean, urtarrilaren 20an, meza nagusia eman ondoren, santua bizkarrean hartuta, ermitari buelta osoa ematen zitzaion, inguruak eta ingurukoak bedeinkatuz. Martxoan, errogatibak egiten ziren. Buruko minetatik sendatzeko arrosarioa errezatuz iristen ziren hara beren etxeetatik (Garmendia Larrañaga, 1990).

# VIII

## Markes eta indianoen bideetatik

Euskal Herrian, hegoan eta iparrean –bereziki, Nafarroa Beherean–, asko izan ziren emigratu behar izan zutenak, ohiki Ameriketara, hemen ezin-eta, bizimodu berri baten bila. Alduden, adibidez, 1862-1865 epealdibarruan jaiotako 18 urteko mutiletatik % 87k emigratu zuen (Garikano, 2009, 75). Berastegitik ez hainbeste, baina bai batzu-batzuk. Gehienak joan eta bertan geratu ziren, familia han osatuta, eta horien artean batzuk aberastuta ere bai, Iriazabalgo Migel Antonio Aldunzinen ondorengoen kasuan bezala, Argentinako lurretan. Zergatik joan ziren asmatzen ibili beharrik ez dago. Lana eskastu zelako eta bertan aurrerabiderik ez zegoelako. Leitzarango burdinolen gainbeherak ere bere eragina izango zuen, seguru asko. Gutxi batzuk, ordea, itzuli egin ziren, dirua sobratuta. Handik aberastuta zetorrenari deitzen zitzaion indianoa, ez edozeini. Horietako askok bere sorterrian etxe dotoreak erosten edo egiten zituzten.

Badira "Indianoenea" izena daramaten hainbat etxe euskal herrietan barna. Berastegin ere bada plazagunetik

Erretore-etxera doan kalean “Indianoenea” izeneko etxe bat. Guk umetan “Martintonea” izenarekin ezagutzen genuen, hala deitua, hain zuzen, hura erosi zuen indianoak Martin Antonio zuelako izena. Beste misteriorik gabe. Orain han bizi den Jose Antonio Olaetxearen aitona zen. Gaztetan hiru anaia joan ziren Ameriketara: bigarrena, Martin Antonio, Estatu Batuetara, eta beste biak, berriz, Kubara. Martin Antonio, urte batzuk trenbideko lanak egiten jardun ondoren, bere sorterrira itzuli zen eta elkarren ondoan dauden etxe biak erosi zituen, duela ehun eta hamabost urte-edo. Bertan jarri zen bizitzen Torreko alaba Malkorrarekin ezkonduta. Martin Antonioren aita eta honen aurrekoak Sagastiberrikoak ziren. Baina baserri horretan horren aurrekoak ziren Aranaldetarrak, Aresotik edo hor nonbaitetik etorriak genituen. Aranalde horietako bat Iruingo Olaetxea alaba batekin esposatu zen, baina ez baitzuten familiarik izan, Iruingo Jose Mateo Olaetxea iloba ekarri zuten, Jose Antonio Olaetxearen hirugarren aitona, hots, aitonaren aitona. Bera izan zen Olaetxea abizeneko lehenengoa Sagastiberrin.

Martin Antonio indianoak etxe eta baserri asko erosi zituen beren lursailekin: Sagastiberria, bere sortetxea, eta Bordatxo, bere aita Martin Jose Olaetxea Lasarteri erosiak 1888-11-31n; Benuzeronea edo Ormaetxea1, Simon eta Klara Arregi Señorena anai-arrebei erosia 1895-04-6an; Benuzeronea edo Ormaetxea2, Tolosako Frantzisko Labaien Pellejero jaunari erosia 1895-09-21ean; Arretxe baserria, Pedro Jose Garziarena Betelu jaunari erosia 1897-06-9an eta Txankanea, berriz, haren seme Juan Martin Garziarena Zuloaga jaunari erosia[77]. Bederatzi urteren buruan 6 etxe, hiru baserri eta hiru kale-etxe. Benuzeronea izeneko etxe

biek, kale nagusiko 6. zenbakian, ekialdetik Obineta eta iparraldetik Pasterorenea etxeekin mugatzen zuten.



Indianoenea edo Benuzeronea etxeak elkarren segidan, eskuinean, kale nagusiko 6. zenbakian (2010)

Indiano-jatorriko gehiago ere badira herrian. Danboliñenea baserriko Saizar familiak ere aita Lontzo indianoa zuen. Baserri batean jaio eta artzaintzan ibiltzen omen zen. Soldaduskara ez joateagatik joana izan behar zuen Ameri-

ketara. Han esne-saltzaile bezala morrontzan ibili ondoren, ausardia izan-eta, ganadu-buru asko jarri omen zituen bere kontura eta dirutza handia egin. Sorterrira itzultzean, bost baserri eta lursail asko erosi zituen[78]. Oraindik orain Ollokoko partean "Etxe-Berri" izenarekin eraikia izan den eraikin karratu eta zabala hark erosi zuen. Guk guztiz lurreratuta ezagutu genuen, sasiak hartuta eta harrizko horma batzuk bakarrik zituela zutik. Eraikinaren erditik zuhaitz baten adar luzeak ateratzen ziren biziki gora. Horregatik deituko zitzaion, seguru asko, "Etxezarra". Halako batean erre egin zen eta haren jabe indianoak, hura berreraikitzen jardun ordez, beste bat berria egin zuen, gaurko Danboliñenea, baina hau, erretakoa ez bezala, leiho handiagoekin. Begiratu besterik ez dago ohartzeko bere garaiko beste baserrien aldean handiagoak dituela. Pentsatzen genuen barrualdea gehiago argitzeko asmoarekin egingo zutela horrela, baina ez. Berrikitan jakin dugu "Etxezarra" erretzen ari zenean, haurdun zegoen emazteki bat leihotik ateratzeko zailtasun handiak izan zituztela eta, aurrerantzean horrelakorik gerta ez zedin, leiho handiagoak egitea aurreikusi zutela.

Indiano honen jabetzatik jasotakoak dituzte senideek besteok ere: Saustegizarra, Etxezuria (gero zerratoki eta galdaragintzako lantegi izandakoa), Kapagintxo eta Etsoinberria. Danboliñenekoak anaia gehiago ere bazituen Ameriketara joanak, baina bera bakarrik etorri zen diruz ongixko ailegatuta.

Indianoak ziren, halaber, Migel Maria Mendizabalen familiakoak eta honen iloba Zeferino, hanka bat Donostian eta bestea Berastegin zutela bizi izan zirenak. Migel Maria Mendizabal jauna ikasketez perito agronomoa eta bizibidez

lursailak neurtzen ibiltzen zena genuen, gero herri-lurren arazoaz jardutean ikusiko dugun bezala, Gipuzkoako baso-arazoetan eta herriko udal-politikan eragin handia izan zuena. Berea zuen Txokomaite kale-etxean bizi izaten zen, Bizkaitarrenaren parean, errepidearen bestaldetik. Berea zuen, halaber, Obinetazarra baserria. Hemengoa zen jai eta igandetako arratsaldeak plazan trikitixarekin alaitzen zituen Pedro Eizagirre soinujolea, elbarria zelako, "Okerra" deitua.



Danboliñenea, Lontzo Saizar indianoak egindako baserri berria, bere mandioarekin eta ukuiluko atearekin (2010)

Migel Maria Mendizabalen familiatik, hiru senide-edo, Kubatik aberastuta etorri ziren. Zeferino Alonso ere, amaren aldetik Migel Maria Mendizabalen iloba, Kuban izana zen eta honek ere, osabaren antzera, ondasun handiak zituen etxe zein lursailetan. Bereak ziren Alkaniz eta Obinetabekoa. Mutilzaharra izaki, Obinetazarreko alaba Damianari utzi zizkion den-denak[79].



Txokomaite etxea, Migel Maria Mendizabal bizi izaten zenekoa Berastegin egiten zituen aldietan (2010)

Antsoneko Azpiroztarren artean ere badira hiru belaunaldi-edo, Ameriketara joan eta horietako batzuk bueltan etorritakoak. Migel Azpiroz Munitaren hiru seme –Juan Agustin, Simon eta Joxe Maria–, Ameriketara joan ziren, etxean Pedro Jose Azpiroz Etxeberria geldituta (Azpiroz, 1988, 15) eta Uruguay-ko Malo herrian eman zuten bizia. Bigarren belaunaldikoan, Jose Azpiroz Etxeberriaren Bernardo, Joxe Mari ta Salbadora seme-alabek Amerikarako bidea hartu zuten. Goinetxeko Jose Azpirozen aitona zen Antsoneko nagusi hura. Uda batez bisitaz etorri eta itzuli egin ziren. Geroago, 1905eko hamarkada-hasieran, Bernardo eta Salbadora etxeratu ziren eta hezurrak sorterrian utzi zituzten. Joxe Mari ere prestatu omen zen etxeratzeko, baina heriotzak aurrea hartu zion (Azpiroz, 1988, 17-18). Hirugarren belaunaldia Antsonen Juan Agustin Azpiroz Saralegiri dagokiona da, Joxe Azpirozen aitaren aldia. Zortzi senidetatik bigarrena, Pedro, Ameriketan italiarrekin lanean ibilitakoa zen (Azpiroz, 1988, 133). Amerikanotuen hiru belaunaldi asko da sortetxe berekoak izateko.

Txomin Jakakortexarena apaizaren aita ere hamahiru urterekin joan zen Argentinara, hamasei urteko arrebarekin batera, eta Buenos Airesen batek esnelaritzan eta besteak neskametzan jardun zuten hasieran. Aitak, diru pixka bat osatu eta Panpa barruan teilagintzan aritu ondoren, hor sobratutako diruekin lursail batzuk erosi zituen eta aziendak jarri. Etxeratu eta bertan bizitzeko adina irabazi zuela uste izan zuenean, hango bere ondasunak errentan utzi-eta, itzuli egin zen eta Gorrineaundian jarri zen bizitzen Jakaseneko alabarekin ezkonduta[80]. Ameriketara beste joan-etorri bat egin beharrean aurkitu zen, antza, hango errentariak edo administratzaileak bere ondasunak jan zizkiolako[81].

Ameriketan txanponak egin bai, baina patu txarrak indiano-izaeraz gozatzeko aukera kendu zion.

Oraingo Gazteluneko Aranaldetarrek ere Ameriketan dute beren jatorria. Baina Markosen aita, herriko beste gehienek ez bezala, soldaduskara ez joategatik, desertore joan zen Argentinako Olabarria herrira, han zeuzkan anai-arrebengana. Han bospasei urte zeramatzala, ezkonduta eta familiarekin, denak utzi eta etortzea erabaki zuen, jakitean Dendaritegi baserrian bakarrik eta segidarik gabe geratu ziren gurasoek beren ondasunak ongizateko erakunde bati dohaintzan emateko asmoa zutela. Denbora gutxi egin zuen Argentinan, baina hura ere ez zen esku-hutsik etorri. Izan ere, itzuli eta baserrian bizitzen jarri eta handik urte batzuetara, 1921ean, erre egin baitzen, Juanluzenekoa zen aldameneko Gaztelunea baserria erosi zuen[82].

Intzako Bizente Lezearen kasua ere Gaztelunekoaren antzekoa da, hau ere soldaduska ez egiteagatik joan baitzen Argentinako Mendozara duela 60 urte. Bere herrira sarritan etortzen bada ere, amerikartua dago eta bere enpresa-ondasunak han errotuak ditu[83].

Herrian, bada, bazuten bere tradiziotxoa indianoek. Tomas Landabururen ondorengoei 1894ko apirilaren 7an Ategian maisu-eskola zenaren zatia erosi zien Juan Miguel Gaztañondo Salbarredi ere indianoa zen. Honek, 1930. urte-inguruan, dohaintzan eman zion Udalari (Salbarredi, 2005c, 19). Hau 1879ko dokumentu batean Berastegiko udal-zinegotzi bezala agertzen da, Lizarragako Migel Juan Labaien, Osiñetako Andres Obineta, Elaundeazpiko Migel Inazio Garziarena, Zurikiango Sebastian Matxinea, Arregiko Jose Maria Garziarena, Zamargingo Agustin Azpiroz, Madalengoneko Juan Bautista Garziarena eta Errediguneko Migel Matias Aldunzinekin batera[84].

Zalantzarik ez da mundu berri baten bizipenak zekartzatela beraiekin eta mundu-ikuskera zabalago baten kultura islatzen zela haien bizimoldean eta ohituretan. Eta gastronomian. Adierazgarria da Jose Azpirozek (1988, 134) etxeko Pedro osaba amerikanoaz kontatzen duena: "Igandeetan, asteko moduan, babarrunak eta azak urdaiarekin. Baiña osaba Pedro Ameriketan lanean italianoakin jardun omen zan, da aiekin makarroi asko jana eta gustatu egiten zitzaion. Meza nagusitik etorri ta aldatu orduko, asten zan tipulak txikitu, prejitu, tomatea bota, alkarrekin zartagian ondo-ondo egin. Ordurako, eltze batean makarroiak egosten zituan (...) Orrelaxe bukatu arte. Oso ederrak egiten zituan". Erlijio-kontuan ere irekiagoak ziren. Zentzu honetan, adierazgarria da Joxe Azpirozek berak (1988, 42) bere osaba Bernardo amerikanoaz esaten duena: "Eleizara joaten zan, baiña urruti samar ibiltzen zan. Etzuan federik asko". Politikan, berriz, liberalagoak. Guk umetan jakin genuen Gazteluneko aitona, biboteduna eta gazteleraz ere majo egiten zuena, errepublikazalea zela, hitz horrek zer esan nahi zuen asko ez genekien garaian. Hango etxeataritik pasatzean, askotan sumatzen genuen kontu-kontari hasteko pronto, besoak sukaldeko leihoan jarrita.

Berastegin lau etxe zituzten eta Garesen bizi ziren Satrustegiren ondorengoen familia ere indianoen jatorrikoa zen.

Gainerako herrien antzera, Berastegin asko ziren amerikartuak, gutxi lurralde haietan aberastuak, eta etxeratuetatik, berriz, kontatuak indianoak hitzaren zentzu hertsian.

Honaino indiano batzuen pasadizoak zur-zurrian kontatuta. Baina indianoen jatorrikoa ez den etxalde aberatsik izan da Berastegin. Horietako bat da, adibidez, Benuzerenea

kale nagusian Gorostidinea etxea, lehen Batxillerarena deitzen zitzaiona. Bertan Gorostidiren alarguna, Natalia Imaz Lopategi, bizi izan zen, lau seme-alaben ama. Semeak goi-ikasketak eginda zeuzkatenak ziren: Fernando abokatua zen, Bilbon bizi zena; beste seme bat, gerrakoan fusilarazi zutena, Iturengo Biktoria Urroz Zubizarretarekin esposatua, medikua zen; Luis seme gazteena, berriz, Espainiako kontsula izan zen Portugalgo enbaxadan, Lisboan. Hauek azken Karlistadan Berastegiko alkate izandako Pedro Maria Gorostidi Calatas aitonarengandik –Natalia Imaz Lopategi alargunaren aitaginarrebarengandik–, jaso zituzten beren ondasunak. Gogoratuko da irakurlea Pedro Mari Gorostidi izan zela Santa Kruz apaizak etxeko liburuak eta agiriak erre zizkiona, 1866-1973 urte bitartean Berastegiko alkate izandako huraxe bera. Gorostidinea etxea 1964an saldu zuten haren bigarren ondorengoek[85]. Orduko etxe hori barrutik ezagutu zuenak badaki haren jabea diruz ondo samar osatutako jauntxoa zela. Ukuilua zalgurdientzat prestatua zeukan eta etxebizitzako gelako horma guztiak kolore ilunez kurioski dindatuak zeuden. Arotz-lanak Garaiburuko aitonak egin bide zituen, tailu-lan ikusgarriekin. Gorostidi familiarenak ziren Tellaetxea baserria, Aintzergako Ilintxeborda, errepide ondoko Mallorkina[86] (Bizkaitarrenea) eta Etxeluzea eraikinak, Erretoretxea, Saustegi ondoan, eta Arrosin ere hirin-fabrika bat ere bazuen orain paper-fabrika dagoen leku berean. Billabonatik etorrita, lehen solairuan 25 errentari biltzen omen zirela kontatzen da[87]. Nahiz Berastegin bizi, jatorriz Billabonakoa baitzen alkate liberal hura, erraz ulertzen da errentariak herri horretatik etortzea. Ondasunak herri bietan zituen. Eta, ikusi bezala, ez gutxi, gainera.



Gorostidinea etxea, Pedro Maria Gorostidi alkate liberalaren etxea (2010)

Eta Jaundegi ondoko Markesaneaz zer esan dezakegu? Txaletak hain ugari ez ziren garai haietan eraikin dotore hura umetan ametsetakoa iruditzen zitzaigun. Hango Maddi ezkongea goizetan meza-laguntzera joaten ginen guztietan ikusten genuen eta beti hartu izan genion aberats-airea. Galdetu izan diogu geure buruari zein ote den txalet hartako "markesa" deituaren jatorria, nondik ote zituen horrelako ondasunak lursailetan eta baserrietan.

Euskaraz ederki egiten zuen, baina errea ahoskatzeko zeukan eragatik, igartzen genion ez zela bertakoa, nonbaitetik etorria baizik. Geroago jakin genuen Markesaneko

familia, amaren aldetik, Ipar Euskal Herritik etorria zela. Joanizazio Elosegik utzitako datuekin argitu ahal izan dugu, hain zuzen, “Markesanea” familiari buruzkoa. Gerra ostean han izaten ziren hiru ahizpa: Mertzedes, Maddi eta Maria Isabel Zezilia Arregi Palassie. Zaharrena eta gazteena, Tolosako Jesus Maria Frantzisko Olarreagarekin eta Gilermo Eizagirrerekin ezkonduta zeuden. Bigarrena, Maddi, ezkongea zen.



Markesanea Elizalde auzoan, Jaundegi eta Tolaretxea ondoan dituela (2010)

Familia hauek Tolosan bizi izaten ziren, baina denboraldi luzeak egiten zituzten Berastegiko txaletean, bi edo hiru neskamerekin etorrita. Plaza-inguruan bizi zirenek sarritan ikusten zituzten kartetan jokatzen Apaiztegiko Sebastian eta Sinforosarekin[88]. Guri Maddi elizan eta etxe-inguruan egiten zitzaigun ezagunena. Gustatzen zitzaion umeekin hitz egitea eta behin edo beste eraman gintuen bere etxera ere. Etxe hark ez zuen baserri-antzik, ez hango ukuilu-usainik. Lorategia ere arras zaindua zuen fruta-arbola batzuekin, dena hesiz inguratuta.

Markesanekoek lursail handiak zituzten inguruan. Baserri batzuk ere bai. Tolaretxea biak aurrez aurre, eta Amiria Larte azpiko zokogunean. Aberatsak zirela, ume izanda ere, antzematen genuen.

Baina nondik zetorkien aberastasun hori? Eta oraindik deigarriago dena, nondik "markesaren" titulu hori? Usaina hartzen genion zerikusirik bazukeela garai bateko Jaundegiko jauntxoekin eta, zehazki, Bedaioko auzoaren jabe izandako Legardako markesarekin. Azkenean, herriko indiano batekin egongo dugu topo "markesa" deiturarekin –seguru asko, hala izan gabe–, titulu hori ez baitzen hain erraz lortzen.

Egun erabat berriztatuta dagoen Ozpindegi etxe dotorean hasten da historia. Hemen jaio zen Jose Antonio Arregi Igerategi 1829ko otsailaren 13an, Jose Maria Arregi Etxeberria eta Maria Mikaela Igerategi Agirre gurasoengandik. Biak Berastegikoak. Jose Antonio hori izan zen, hain zuzen, Julian de Esquivel y Ruiz de Pazuengos Legardako markesari Berastegiko ondasunak erosi zizkiona 1868an, 2. liburukian Bedaioz jardutean areago zehazten den bezala. Ozpindegiko seme hau

Ezpeletako Noelin Palassie-rekin esposatu zen, familia oneko alabarekin, eta lehen aipatutako hiru alaba izan zituzten: Mertzedes, Maddi eta Maria Isabel Zezilia. Hortik zetorkien, ondo euskaldunak izan arren, “frantsesaren” deitura. Gilermo Eizagirre, Maria Isabel Zeziliaren senarra, arkitektoa zen eta honek egin zuen “Markesanea” txaleta 1920. urte-inguruan. Baita Zaraguetarena ere, Obineta-berri ondoan, eta San Anton ermita.



Ozpindegi berriztatua, Jose Antonio Arregi indianoaren sortetxea (2010)

Noelin Palassie aberatsa bazen, honen gizonari ez zion koska handirik kenduko ondasunetan. Hain denbora gutxian hainbeste diru nola egin zuen da kuriositatea sortzen duena. Eta hemen dator indianoen beste histori mota bat. Jose Antonio Arregi Igerategi, hau ere gaztetan Kubara joan zen eta, antza, esklaboen salerosketan ibilita egin zuen dirua.

Esklabutzaren historia zaharra da, Europa, Egipto, Grezia eta Erroman, gerora ere, Amerikak aurkitzean, luzaro jarraitzen duena. Kubara esklabo-kopuru handia iritsi zen Britainia Handiak okupatuta eduki zuen garaian (1762-1763). La Habana hiriburuan, urtebetean bakarrik, 11.000 saldu omen ziren. Ez zen bromatakoa esklaboek hango merkatuan zuten estimua. Honen adierazle da 1792 eta 1821 urte-bitartean irlan 600.000 esklabo beltz sartu zirela eta hango biztanlerian zurien proportzioa ehuneko 68tik 42ra jaitsi zela 1774-1842 epealdian zehar. Kuba Espainiaren kolonia izan zen garaian (1876-1898) esklaboen prozesuak aurrera segitu zuen, indar biziz segitu ere. Kalkulatzen da 1823tik 1865. urtera bitartean, 300.000 beltz baino gehiago sartu zirela irlan. Noiz eta, esklaboen merkatua ofizialki debekatua egon zen garaian. Bertako aristokrazia parasitoak Afrikako beltzen esklabotzan zeukan oinarrituta bere aberastasuna. Ozpindegiko indianoak, hain zuzen, esklabo beltzen merkatu horretan egin zituen sosak, esklaboen salerosketan, 1850eko hamarkada-erditik aurrera. Esklabutza ofizialki debekatua baitzegoen, kontatzen da trafikatzaileek bertako zaindarien itsasontziak ikusten zituztenean, zekartzaten esklaboak uretara botatzen zituztela ez harrapatzeko. Kontrabandistek karabineroak ikustean beren kargak botatzen zituzten bezala.

Hiru baserri bertako maizterrek erosi zituzten. Maddik Apaloko lursailak Tolosako Santa Maria parroki elizari utzi

zizkion eta honek saldu egin zituen; Ariztunugaldekoak, aldiz, Berastegiko parroki elizari, eta honek berekin dauzka. Markesanea txaleta Maria Pilar Aranburu Eizagirre ilobari utzi zion, Anton Ajuria Itarteren emazteari. Familia honetakoak dira egun bertan izaten direnak.

Azkenaldion eraikin berri asko egin da, txaletak edo horren antzekoak ere ez gutxi herrian bertan. Zer esanik ez Aintzergan. Aurreko garaietan, ordea, banaka batzuk baino ez genituen ezagutu: lehen aipatutako Markesanea eta Zaraguetarena (San Juan), eta Urtiñotik gora errepidearen eskuin dagoen Seserena, "Emausborda" deitzen zaiona. Han Sese apaiza bizi izan zen. Azken gerratekoan ospitale bezala erabili zuten, baina denbora gutxian, errekete-tropa, Berastegi okupatuz gero, Tolosara abiatua zelako[89]. Azpikoetxeko Nabazal familiako batek erosi zion haren iloba bati eta bertan segitzen dute.

Txaletak eta honen antzeko etxe dotoreak garai hartan jende dirudunaren ezaugarri ziren, beste herritar gehienen gainetik zeuden gizarte-klasekoei zegozkienak, eta horiek zenbait kasutan, arestian ikusiko dugunez, bigarren egoitza bezala erabiltzen zituzten. Tipologia honetako eraikin batek lursail zabalak izan ohi zituen, Markesaneko familiaren kasuan bezala. Eraikinaren arkitektura-dotorezia eta lursail-oparotasuna besotik helduta etorri izan dira mendez mende. Berastegik ez zeukan puntu honetan salbuespen bat izateko beste herriek baino arrazoi ez gehiago ez gutxiago.

Baina Berastegi izan, baserri bikainen herria izan da. Horren fama du. Auzotarrekin auzitan ibilitako Jaundegiko Martinez jauntxoak bere garaian esana zuen bertan etxalde-jabe indartsuak zirela. Esan beharrik ez dago jabez aldatzen direla denboraren joanean eta azterketa zehatz batek baino

ez liguke esango zein izan den azken mendeetan herriko baserrien jabetza-prozesua. Hurbilketa-modura, 1960ko datu batzuk emango ditugu. Urte horretako otsailaren 14an Berastegiko Suteen Sorospen-Ermandadeak egindako bileran, beren jabetzakoak ziren eta aseguratuta zeuzkaten etxe eta baserrien eta hauen jabeen izen-abizenak zetozen. Guztira, 144 eraikin ziren aseguratuta zeudenak. Horko zerrenda oinarritzat hartuta, ondoko taula hau osatu dugu, urrats luzeetan isla dezakeena garai hartako baserri- eta etxe-jabeen egoera.

*Baserri- eta etxe-jabeak 1960an*[90]

| *Baserri-jabeak* | *Baserri- eta etxejabeak* | *Zenbat* |
|---|---|---|
| Martin Arregi | Arregia, Ustoanea, Saustegiberria[91], Artolaborda | 4 |
| Joakin Azpiroz | Antsonea, Martiñenea, Txurionea, Bazterretxea | 4 |
| Martin Intxaurrondo | Arbide, Azpikoetxea, Arrateberria, Errementaritegiberria | 4 |
| Juan Labaien | Lizarraga, Bordazar, Plazaola, Danboliñenea | 4 |
| Kristina Saizar (Olaetxearen alarguna) | Arretxe, Benuzerenea, Sagastiberria, Bordatxo | 4 |
| Jose Otermin | Dendaberri, Mallorkina, Marintzenea[92], Kotxera[93], Etxeluzea[94] | 5 |

| | | |
|---|---|---|
| Satrustegiren oinordekoak | Lukasenea (Jakasenea), Urrelo, Goikoborda, Mustar | 4 |
| Luis Olaetxea | Doningozurinea, Zapataritegi, Gazpio | 3 |
| Santiago Urkizu | Elutsea, Peuru (Peduro?), Jaungoenea | 3 |
| Besterik... | | |

Taula horretan ageri da hirutik gora dauzkaten baserrieta etxe-nagusiak, –karreapeak, garajeak eta antzekoak zerrendatik at utzita–, bederatzi bederen badirela; bi dituztenak, ia beste hainbeste. Maizter-egoeran zeudenak 40 inguru izango ziren. Gehienak, noski, jabeak. Zerrenda honetan jabetza bakarrarekin agertzen bada ere, Juanluzenea etxalde indartsua izana da, urte batzuk lehenago bereak baitzituen Juan Eusebio Lezeak Gaztelunea, Jaundegi eta Erredigunea. Azken hau ezkontza bidez eskuratu zuen Juan Eusebiok bertako alabarekin esposatzean. Gerra ondoko lehen hamarkadetan etxalde gehiago ere izan ziren jabez aldatutakoak. Beraz, 1960ko zerrendak garai hartako egoera baino ez du adierazten.

# IX

## ELDUA AUZOA

Berastegiko auzo hau enklabe bat da, Berrobi eta Elduaingo Udalen artean kokatua dagoena, Txurdiñagain mendiaren babesean etzanda, itsas-mailatik 215 metrora gora.

Elduari buruzko lehen datu dokumentatua Pablo Madozen[95] (1991, 36) *Diccionario*-n dator eta XIV. mende-hasierara eramaten gaitu. Donostiako San Bartolome monasterioko Artxibo-bildumari dagokion dokumentu batek zehazki 1304ko data darama eta bertan Eldua eta Berastegin "jopuak" berreraikitzeko emakidaz dihardu, hitzez hitz esanda: "collazos en Eldua y Bleotegui en Ipuzcoa"[96]. Nahiz dokumentua bera ez den aurkitu, bilduma berean, 1312ko irailaren 7ko datarekin, Donostiako San Bartolome monasterioko serorei saldutako Elduako errota eta honi zegozkion lursailak aipatzen dira. Ondasun hauek herentziaz jasotakoak izaki, pentsatu behar da Eldua jadanik XIII. mendean egiazko komunitate edo auzo bat zela.



Elduako baserri-giroa 1970eko hamarkadan
(Iñaki Linazasoro, 1978)



Gaurko Eldua berrituaren ikuspegia (J.A. Garmendia, 2010)

Pascual Madozek (1991, 36-37; 44-46) dakarrenez, Elduak 1850ean 15 etxe zituen Jasokundeko Andra Mariari eskainitako elizaren ingurumari, 18 familia eta 100 biztanle, eta errota bat. Egun hogeita hamar eraikinek osatzen dute auzoa, baina horietatik dozena bat izango dira baserri-egitura dutenak eta soilik baserritik bizi direnak, berriz, bakarren bat edo beste. Argiñarena (Argiñenea) baserria turismorako landa-etxe bihurtua dago. Azken hogeita hamar urte hauetan auzoaren nekazal egitura asko aldatu da eta ez du antz handirik 1970eko hamarkadakoarekin alderatuta.

Bestalde, bertako etxe-eraikuntzak nabarmen gora egin duen arren –lehengo kopurua ia biderkatzeraino egin ere–, biztanleria ia erdira jaitsi da, azken hamarkada honetan (2000-2007) 68tik 60ra apalduz. Bertan kokatua dago, eskualde-errepidearen ondoan, Munksjo Paper Decor paper-fabrika eta inguruko jende askok bertan egiten du lan[97].

Ondare historiko-artistikoaren atalean, esan bezala, Salberridi baserria da Euskal Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal kultur ondarearen zerrenda nagusian sartuta daukana. Berrikitan, aipatu "Alegazioa" dokumentuan datorrenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Barrenetxea eta Aldabuno baserriak eta eliza, apaizetxea eta seroretxea EAEko monumentu bezala izendatzeko proposamena egiten du[98].

Proposatutako zerrenda honetan agertzen ez den arren, garrantzi handikotzat jotzen da Etxenagusia baserria. Alex Ibañez eta Juantxo Agirre-Mauleon jaunek (1998, 67-83) aipamen berezia eskaini diote. Baserri hau, gaur egungo egoeran, jatorrizko eraikinaren hegoaldeko erdia baino ez da, jatorrizko iparraldeko beste erdia Etxezar baserriari dagokiona baita. Bi baserri-zatiok 60 zentimetroko barneko

horma batek banatzen ditu. Etxe biek barrutik zein kanpotik arkitektura-egitura desberdina aurkezten dute. Etxenagusiak bi oin eta ganbara dituen bezala, Etxezarrek hiru altuera ditu. Autore hauek baserri honen egurrezko egitura –habeteriaren mihiztadura, alegia–, aztertzen dute, barruan XVI. mendeko baserri-dolarearen eredu zoragarri baten egitura-zati handi bat gordetzen baitu. Zehazkiago esanda, oduko egitura-erdia gordetzen du, gordetzen dena jatorrizkoaren heren bat baino ez izaki. Eta gordetzen den horretan aldaketa gutxi baino izan ez dituelako, horregatik da esanguratsua arkitektura aldetik.



Elduako Salberredi oinetxea, oraindik ere lehengo egitura gordetzen duena (2010)

Elduako parroki eliza 1548an eraiki zen Paulo III.a Aita Santuaren lizentziarekin eta Jasokundeko Ama Birjinari eskainia da. Abuztuaren 15ean, Jasokunde-egunean hain zuzen, ospatzen dira auzoko jaiak. Berastegiko parroki elizan, XIX. mendearen lehen erdian erretore bat eta hiru benefiziatu zeuden, Elduakoan bikario bat eta horien izendapena herriak egiten zuen (Gorosabel, 1972, 107).



Elduako Jasokundeko Andra Mariaren eliza (2010)

Elduako elizatxoa nabe bakarrekoa da, aldamenean apaizetxea duela. Apala, xumea. Kanpoaldetik begiratuta, ez batere ikusgarria. Barrualdetik, ordea, guztiz da abegikorra bere txikian. Lau angeluko dorrea du eta goian, ordulariaren gainean, brontzezko bi kanpai daude dilindan duela bi mendetik hona. Lehenagotik ere baziren beste kanpai batzuk, Tolosako Artxiboan aurkitzen den 1598ko kontratu batean dokumentatzen den bezala. Nabarmentzekoa da, halaber, egurrezko elizpea, ezkerrerako isuria duen bere teilatu irregularrarekin.



Elizako erretaula berriztatuta (2010)

Balio artistikoaren aldetik, guztien gainetik Pedro Goikoetxeak 1551n egindako erretaula nagusitzen da. Eskultore hau ere, Anbrosio Bengoetxea bezala, Antxietaren eskolakoa da eta bereak dira Gipuzkoan egindako beste hainbat erretaula ere: Altzo-Azpin bi (1588), bat Itsasondon eta beste bat Ibarrako San Bartolome elizan. Irura eta Beizamakoan ere parte hartu zuen (Arrazola, II, 1969, 613). Elduako erretaula honen goiko gorputzean Andra Mariaren Jasokundea ikus daiteke eta erdikoan, berriz, haren irudia. Badira ilustratutako sei panel ere, erliebe handian emanak eta kolore graziosoz polikromatuak. Sagrarioaren gainean Andra Mariaren beste irudi txiki bat dago, altueran 20 zentimetroa. Flamenko-estilokoa da, bere plegu-lerro handiekin eta Jesus Haurra besoetan eskainiz bezala duela. Korua egurrezkoa du (Belauntzaran, 2010).

Egin berri den biribilgunetik gora 400 metro igo-eta, atsegin da hango gaindegian pausatu eta bazterrak ikusiz txango bat egitea. Eta bisitari interesatuek eliza berriztatuta ikusteko parada izango dute.

# OHARRAK

## Sarrera

1 Bideraun etxe txiki bat zen, gela bakarrekoa eta bi herrien arteko bilerak egiteko soilik erabiltzen zena. Francisco de Iberok egindako planoen arabera egin zen, Elduaindarrek bultzatuta eta Berastegiarren ezezkoa gaindituta (Joaninazio Elosegiren oharra).

## I. Berastegi, izadiaren opari

2 Berez, hiru herrien arteko muga, gaurko Urepel eta Mandoegi mendien arteko lepoan dago. Garai batean Urepel izena lepoari ematen zioten; gaur egun Irumugata (batez ere, leitzarrek) eta Irumugarrieta izenez ezagutzen da (Joaninazio Elosegiren oharra).

3 Apalorriaga? Tononimo hau 1548koa da (Joaninazio Elosegiren oharra).

4 Esaten da Tolosako Jesus Elosegik, Lindozuloko urak nora zihoazen jakiteko, froga gisa likido koloratzaile bat bota omen zuela bertan eta Araxes ibaian Lizartza aldean agertu omen zirela haren seinaleak.

## II. Historiaren egunsentian

5 Gartzia Aznar eta honen emazte Gailak Altzo-Azpin kokatua zegoen Olazabalgo Salbatore baselisa aipatuaren eta, horrekin batera, Gipuzkoako erdialdeko lurretan zituzten beste ondasun batzuen dohaintza egin zioten Aragoiko monasterioari (Barrena Osoro, 1991, 63).

6 Harana garai hartan lurraldea zatitzeko unitate sozioekonomiko eta politikoa zen. Lurralde-zati horiek ez zituzten mugatzen ibaiharanek, hasieran pentsa zitekeen bezala; justu alderantziz baizik, mendiak baitziren ibaien muga. Trashumantziaren bidez gauzatu

zen lurralde-antolaketa, bere baitan hartuz menditik lautadaraino hedatzen diren elementu geografiko desberdinak. Barrena Osorok (1991, 96) egoki azpimarratzen duen bezala, “eratze honen azpian, ohizko artzantza eta ugarituz doazen nekazal iharduerak batera bultzatzen dituen sistema ekonomikoa dago”.

[7] Maeztuko auzoa, Arabako mendialdean

[8] Arabako gaina, Trebiñoko konderritik Hegoaldera, Burgosko mugan.

[9] “Vasconia, estado trinacional”, *Gara*, 11-06-2008, 13 or.

[10] “Alfonso VIII arrebatará por las armas al Reino de Navarra, hacia 1200 el territorio de Guipúzcoa y controlará políticamente el Señorío de Bizkaia. En un paso más de despojamiento del territorio de los vascones, en 1332 se dió la voluntaria entrega por la que los cofrades de Arriaga le entregaron al rey de Castilla y en entronizaron en las tierras de la Cofradía que eran prácticamente toda Araba” (Ibid.).

[11] “El resto de estas soberanías arrebatadas al Reino de Navarra quedó vigente en los territorios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, los cuales mantuvieron sus propio régimen foral. Régimen que los reyes de Castilla debían jurar mantener y respetar repetidas veces durante su mandato” (Ibid.).

[12] Bastidako auzoa, Arabako Errioxan

## III. Gaztela mugarri (XIII-XVI)

[13] Kanpion, Arturo: “Gacetilla de la historia de Navarra”, RIEV, t. IV, V, VI, VII, 1969, Biblioteca de La Gran Enciclopedia vasca, Bilbao, 1969. Esan bezala, datuak J. R. Castro-k (t. I-XXXVII) eta F. Idoatek (t. XXXVIII-L) argitaratutako Nafarroako Kontuen katalogoa aztertuz ateratzen ditu.

[14] Ulin bada, hain zuzen, “Batzarrain” izeneko lursail bat, Gaztelu eta Berastegiko bidegurutzetik Irumugarrietara doan pinudiak hartzen duena. Toponimia horrek ez ote du bere sorrera izango aipatuz gatozen garaietako batzar haietan? Bestalde, batzar haiek non egiten ote ziren, aire zabalean ala aterpean?

[15] "A pesar de su emblema, en este pueblo no hay noticia de que haya existido una fortaleza que le de nombre. Sin embargo es posible que le venga éste de una torre que existió en Irumugarrieta, junto al Uli" (Carrion, 1975, 54).

[16] Estornes Lasa anaiak, "Uli" in *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia. Auzipetutakoen artean berastegiarrak ere aurkitzen omen ziren. Haitzulo horrek, antza, Ulin Aresoko partean egon behar du (Guerra, Pello: "Ruta de la Brujería", *Zazpika*, 604, 2010-08-22, 18).

[17] Larraungo haranean, Lekunberriko gaztelua ez da Gorritikoa bezain ezaguna, baina bai garrantzitsua, bertan aurkitzen baitzen mendietako merindadearen topalekua. Orduko aztarnarik ez da geratzen, baina badirudi egun Peñako parkea aurkitzen den lekuan kokatua egon zela. Gotorleku honi buruzko aipamenak urriak badira ere, badirudi garai honetan hango merinoak 25 gizon zeuzkala bere esanera (Sagredo, 2006, 335).

[18] Jonathan: "Historia de Guipúzcoa: La Batalla de Beotibar", in historiadeguipuzcoa.blogspot.com/2007_09_archive.html

[19] "… viendo los guipuzcoanos al Rey de Castilla, cuyos según razón debían ser, pues en tempo de los godos lo eran, como lo vieron tan cerca de su tierra, acordaron y determinaron de volverse como antes lo eran a ser suyos, y no del Rey de Navarra, de quien estaban descontentos por algunos agravios que les hacía (…) pues el Rey fue a San Sebastián con sólo veinte de a caballo, y no hubo ninguna contradicción, antes con mucha voluntad fue recibido por toda la provincia de Guipúzcoa; de esto quedaron los navarros agraviados y muy enojados, porque de los castillos comarcanos hacía a Guipuzcoa asaltos y muchas muertes y latrocinios, y se recojían a sus castillos después de haber hecho muchos males, por lo cual la Provincia de Guipúzcoa, muy sentida por los agravios y daños que cada día recibía, entró en Navarra y cercó el castillo, de donde más mal recibía, por ser el más fuerte por su sitio y estar en lugar inexpugnable, y habiéndolo ganado y muerto a los que dentro estaban (…) Los Navarros juntaron en este tiempo grande ejercito, y entraron en la provincia de Guipúzcoa a mano armada muy

poderosamente…" (Kanpionek aipatua, in "Gacetilla de la Historia de Nabarra", RIEV, VII, 1969, 341).

[20] "y quemaron muchas casas e la mayor parte del pueblo de Berasteg.as pocas en que se hace alguna, es tan a la ligera, que sólo se dice que hubo por ahora cierta entrada en los fines de Guipúzcoa, notando el año al modo ya dicho y sin rastro de mención de que hubiese habido suceso alguno granado y de mucha monta, es cosa maravillosa ver cuán magníficamente y con cuán espumosa hinchazón introdujo este suceso Esteban de Garibay" (Moret, V, 1891, 217).

[21] "Y porque ningún argumento falte, consta de cierto que este año (1321) por la parte de Guipúzcoa se arrimaron tropas y hubo movimiento de armas en aquella frontera, entrando en los fines de Navarra con hostilidad rompida de robos para diversión de la guerra que se disponía introducir por la frontera de Castilla (…) Arrimó las tropas al pueblo de Gorriti, último de Navarra por aquella parte, de cuyo castillo dicen se habían apoderado los de Guipúzcoa (Moret, V, 1891, 215).

[22] Ponce de Morentayn, Anay-ko bizkondea zen, Nafarroako gobernadore nagusia. Garai hartan, 1321ean, Felipe II.a Luzeak, Nafarroako eta Frantziako erregeak, agintzen zuen.

[23] "El gobernador D. Ponce, indignado grandemente de la invasión hecha sin haberse dado causa para el rompimiento de la paz, que años había corría, dejando en mediano estado dispuesta la frontera contra Castilla, corrió para venganza pronta contra Guipúzcoa con las tropas restantes que había juntado de los presidios que menos peligraban y alguna otra de los pendones concejiles que había llamado. Y por fines de Setiembre entró en los fines de Guipúzcoa (…) Algunas otras memorias que hemos podido descubrir solo hablan confusamente diciendo fue entrada por S. Miguel. Arrimó las tropas al pueblo de Gorriti, último de Navarra por aquella parte, habiéndolo recobrado y guarnecido en tierras de Guipúzcoa, robándolas haciendo estrago. Y cargó la villa de Berastegui y la entró por fuerza de armas; y después de haberla saqueado, la abrasó. Y se apoderó también del pueblo llamado Gaztelu. Y

habiendo derramado por las comarcas las correrías y robos, pareciéndole bastaba lo hecho por venganza pronta y escarmiento para en adelante, en especial no permitiendo ni la sazón del año ni disposición del tiempo detenerse mucho campeando por ser entrado mucho el otoño, y lluvioso de suyo, y más en tierras montuosas y arrimadas al mar llamarle el cuidado de la frontera por la parte de Castilla, tocó a recoger las tropas hacia casa. En esta retirada acaeció un desmán. Por que los de Guipúzcoa que lo sintieron, irritados a la venganza de los daños, juntándose en número de ochocientos, acaudillados de Gil López de Oñaz, caballero muy principal, señor de la casa de Larrea, siguieron las pisadas de la marcha. Y viendo se tomaba a raíz de una montaña muy alta y pendiente que llaman Beotibar, se aprovecharon no solo de la fragosidad del sitio entre desfiladeros muy estrechos, en que pasaban las tropas muy deshiladas y prolongadas sin poder doblar ni ensanchar frente ni formarse en escuadrones, sino de la industria y arte, deshaciendo a toda prisa alguna cantidad de cubas y toneles y subiendo a la cumbre la tablazón deshecha que volvieron a armar arriba, llenando los vasos de muchas piedras. Y alcanzando al paso de la estrechura un trozo de la retaguardia, impelieron sobre los que marchaban en ella los vasos armados de piedras, que con el ímpetu del despeño y tomando nueva fuerza con los tumbos y saltos que iban dando, mataron algunos y estropearon a otros, poniendo desorden y confusión en las hileras, que revolvieron buscando salida de la estrechura y riesgo. Entre los muertos se contó y con dolor de todos, un ilustre caballero y de alto linaje, D. Juan Enriquiz, rico hombre de Navarra, hijo natural del rey D-Enrique el Gordo. Parece que de este trabajo cupo no poco parte a los del pendón de Olite, que marchaban a lo último de la retaguardia" (Moret, V, 1891, 215-216).

24 "Siendo este el suceso todo de Beotibar, en cuanyo hemos podido descubrir en las memorias de este año y los próximos en los archivos públicos, de las cuales en casi todas ni mención hallamos del caso, y en las pocas en que se hace alguna, es tan a la ligera, que sólo se dice que hubo por ahora cierta entrada en los fines de Guipúzcoa, notando el año al modo ya dicho y sin rastro de

mención de que hubiese habido suceso alguno granado y de mucha monta, es cosa maravillosa ver cuán magníficamente y con cuán espumosa hinchazón introdujo este suceso Esteban de Garibay" (Moret, V, 1891, 217).

25 "Lo que hizo con los muertos hizo en su proporción con los vivos. Entre los caballeros muertos en esta batalla cuenta a D. Juan Corbarán de Lehet y a D. Juan Martínez de Medrano y otros que, corriendo por los años siguientes, iremos hallando vivos y sanos y ejerciendo varios cargos, y a D. Juan Martínez de Medrano, el de Lugarteniente de Gobernador" (Moret, V, 1891, 219).

26 "A la misma sazon los navarros, que todavía estaban sugetos a Francia, fueron muy maltratados en Vizcaya. Falleció Felipe el largo, Rey de Francia a dos de Junio año de mil tresceintos y veinte y uno, sin dejar sucesión: heredó el reino su hermano Carlos, por sobrenombre el hermoso, que fué igual a sus hermanos en valor, en la liberalidad, fortaleza y apostura sin par. En tiempo de este Rey, los vizcainos (guipuzcoanos) de rebato se apoderaron del castillo de Gorricia, que cae en aquella parte, que llaman Guipuzcoa. Pretendían, que aquel castillo era suyo, y que los navarros le poseían à sin razón. Acudieron de Navarra sesenta mil hombres (si los números o la fama no están errados): llegaron a las diez y nueve de Setiembre a Beotivara: loz vizcainos hasta ochocientos en número, como quier que se apoderasen de las estrechuras y hozes de aquellos montes, dende con galgas y cubas llenas de piedras que dejaban rodar sobre los navarros, los maltrataron de manera que los desbarataron y hicieron huir con muerte de mas de gente que se pudiera pensar de número tan pequeño, demas que cautivaron a muchos. Caudillo de los vizcainos era Gil Oñiz. De los navarros Ponce Morentaina, francés de nación y gobernador de Navarra por el Rey de Francia" (Isasti, V, 1985, 295-296).

27 "Duró algunos años la guerra entre Navarros y Castellanos, señaladamente desde el tiempo, que Carlos Rey de Francia tuvo en el gobierno del reino de Navarra a Ponce de Morentain, que fué el que procuró que los Navarros entrasen a hacer guerra a la provincia de Guipuzcoa: y volvieron a contender por los límites de aquel reino, y fueron rotos y vencidos por los Guipuzcoanos, y murió

entonces Martin de Aibar, que era un caballero muy principal alferez del reino de Navarra, con dos hijos y otros caballeros" (Isasti, V, 1985, 295).

28 Fernando Rojo Tolosa (2008): "Bordondantza y la batalla de Beotibar", in htt//www.euskonews.com/0129zbk/gaia12903es.html.

29 "Los oñacinos guipuzcoanos protegieron a estos maleantes y se sirvieron de ellos como fuerzas de choque en sus incursiones por los valles navarros, destacando entre estos jauntxos García Lopez de Lazcano y Gil Lopez de Oñaz. La famosa y polémica batalla de Beotibar, en 1321, fué un intento de acabar con los bandidos guipuzcoanos, al que se opuso con éxito el citado Gil Lopez de Oñaz que derrotó en el desfiladero de Beotibar a las huestes navarras dirigidas por el gobernador general del Reino, Ponce de Morentain" (Jiménez de Aberasturi Corta, Juan Carlos: *Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa. Las cinco villas de la Montaña de Navarra en la Edad Media*, 1980, 299).

30 Gouuerneur, nous ne sommes tenuz a soiuvre ne le roy ne vous hors du royaume de Nauarre" (Lema Pueyo, J.A., eta alii, 2000, 109).

31 "Gouuverneur, vous ne pouez ci faire nul effort, regardez que toute la gent de pie s'en ua au mieuz fouir, vous ne pouez ci faire que morir" (ibid.).

32 "Quemaron los pueblos de: Arruazu, Irañeta, Yabar, Villanueva de Arakil, Zuazu, Egiarreta, Izurdiaga, Margindeta, Etxarri-Aranaz, Baraibar, Astiz, Madoz, Oderiz, Alli, Iribas, Erraskin, Gorriti, Aspiroz, Lekunberri, Mugiro, Etxarri y Elkai " (Estella, 1979, 154).

33 "Así se lee en documentos antiguos, en los cuales muchas veces se decía 'entrar en Castilla' por entrar en Guipúzcoa" (Estella, 1979, 154).

## IV. Tolosako jurisdikziopetik udal-autonomiara (1374-1615)

34 González, J.: "Reconquista y repoblación de Castilla, León Extremadura y Andalucía, siglos XI a XIII", in *La reconquista española*

*y la repoblación del país, de varios autores*, Zaragoza, 1951, 190-191 orr.

[35] Intxaustik aipatua, 2007a, 77 or.

[36] Intxaustik aipatua, 2007a, 76 or.

[37] Ibid.

[38] Ochon; Orrella, 1988, 272; 1988, 27; Tapia Rubio, I., *Colección diplomática.... Tolosa*, 30 zenb., in Barrena Osoro, 1991, 155)

[39] "Honela 1442ko pribilegioaren balioa onartzen zen, baina (...) ez Tolosak nahi zuen irakurketa orokorrarekin: Nafarroako muga eta itsasoaren artean emango litzatekeen mugimendu oroen derrigorrezko pasabidea izatea" (Barrena Osoro, 1991, 155).

[40] Gorosabelek "licencia para abrir nuevo camino por Belauriate ó por valle del Leizaran", dio.

[41] Elduain, Amasa, Andoain Lizaur, Zizurkil, Anoeta, Albistur, Alegia, Altzo garaikoa, Altzo azpikoa, Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Baliarrain, Ikaztegieta eta Berastegi (Isasti, 1985, 223).

## V. Hiri-morfologia

[42] Gaur auzo eta baserri bezala ezagutzen dugun Ariztunugalde, 1700dik aurrera agertzen da horrela eta, Joaninazio Elosegik uste duenez, Ariztun eta Ugalde hitzak elkartzetik dator.

[43] "Pago de 20 libras efectuado a Miguel Martínez de Aldaz, escudero, en atención a la pobreza que atravesaba y en recompensa por la captura y muerte de Ochoa de *Arguisogorro,* bandido guipucoano que actuaba en la frontera entre Guipúzcoa y Navarra" (<R> AGN, Reg. Comptos 75, fol. 104).

[44] "Acostamiento de 25 marauedis, qu en 8. de Março de 1270, mandó su Magestad se assentasse en los libros Reales, por auer hecho merced a Pedro Martínez de Verastegui dellos, en renumeración de seruicios, y en contemplación de ser dueño del solar de Verastegui; y por auer prestado a su Magestad algunas cantidades, para satisfazer las arras de la Reyna de Navarra, hermana de su Magestad" (BUA: *Memorial*, 540 zenb.).

[45] Elkarrizketa Jose Antonio Olaetxearekin, 2010eko urtarrilaren 24an.

[46] Geroztik zuzendua du bere ustea Joaninazio Elosegik (2010-04-22) ohar honetan: "Nik lehen pentsatzen nuen Milla de Sasturain izenetik Millenea zetorrela; geroztik jakin nuen Millene nahiko etxe berria dela. Gazteluneko Markos Aranalderen ustetan, bere aitonaren garaian egin zen, Dendaritegiren lursailetan. Ziurrenik aitonaren aitonaren garaian egingo zen, 1774an zutik baitzegoen".

[47] "Gazteluneko Markos Aranalde Dendaritegin jaio zen eta berak hiru urte zituela, 1921ean, erre baitzen etxea, orduan joan ziren Gaztelunera bizitzera; hortik Gaztelune eta Dendaiti nahastea" (Joaninazio Elosegiren oharra).

[48] "Igeralde erre zenean, Maikonera joan ziren bizitzera" (Joaninazio Elosegiren oharra).

## VI. Eraikin zibilak

[49] "Azpilleta" zerrendaren bukaeran dator, inprentakoa ez den hizki batez erantsita.

[50] XIX. mendean Gaztañondoberri deitzen zitzaion (Elosegiren oharra).

[51] "Consulta. La muy Noble y muy Leal Provincia de Guypuzcoa...", Real Colegio de la Compañía de Jesus de Loyola, 13-07-1710 (Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G).

[52] "Escritura de M.S. Ignacio Antonio de Elizalde, en representación del alcalde de la villa ...", 1776-02-30 (Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G.).

[53] Guretzat ezagunagoa Kaxinea. Grazienea baserri hau Bustinsoso eta Bekotaberna bezala ere agertzen da dokumentuetan (Elosegiren oharra).

[54] Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G.

[55] Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G.

[56] Izen biak, Arregi zein Kakonea, berriak dira. Lehen, 1826tik aurrera, Aresoarrenea zen. Gainera, oraingo eraikin bakarraren aurretik bi ziren.

[57] "Lekaimetxe izan zan, urrengo atean neukan elizatxo bat eta biaramon goizean, Aita Onari esker beroenak emateko, antxen eman nuan atzerrialdi ondorengo lenengoko Meza eta geroztik beti antxen ematen dut erosotasun aundienakin" (Jakakortexarena, 1990, 439).

[58] "Copia de la escritura de venta de la casa Salvadorenea con su huerta por José Andres Labayen a Andrés Viquendi, cura ecónomo de la parroquia, 1945" (Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa, Sig. 1722/026).

[59] Berastegiko Udal-Akta, 1931-06-6.

[60] Baserri honi buruz xehetasun gehiago nahi dituenak irakur beza Carlos Olaetxearen "Berastegiko baserrien historia: Iruin" (*Aidanen*, 7, 2010eko abuztua, 28-30).

[61] "Documentación referente al vínculo de mayorazgo de la familia Echeverria, propietarios de la caseria Meaca, 1690 (Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa, Dig. 1725/001).

[62] Archivo Provincial de Guipúcoa.

[63] Elkarrizketa Markos Aranalderekin, 2010eko urtarrilaren 20an.

[64] "El solar de Verastegi es de buenos escuderos del vando de Oñes, asi mesmo el solar de Sant Millan" (Salazar, García L. de, IV, 1985, 74).

[65] "Berastegiko Herri Antolamenduko Plan Orokorraren Hasierako Onarpena", Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2010-06-8. Izenpetua: Gabriela Vives Almandoz, Ondare H-A, artxibo eta museotako zerbitzuburua.

## VII. Eraikin erlijiosoak

[66] "La documentación que poseemos, referente a la edificación u obras de ampliacion o perfeccionamiento en la iglesia de San Martín, de Berástegui, data ya de los primeros años del siglo XVI" (M.

Asunción Arrazola Echeverría: *Renacimiento en Guipúzcoa*, I-Arquitectura, Diputación Foral de Guipuzcoa, Departamento de Cultura, Donostia, 1969, 244).

[67] Tolosako Artxibo Probintziala, Legado 141, 579, Arrazolak aipatua, I, 1969, 244.

[68] "Licencia para hacer campana y capilla mayor con la madera grande", Firmado: Thomas, Vicario General del Obispado de Pamplona, 1641-01-18 (Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G.).

[69] Jabier Salbarredik emandako datuak, berdin Fratín arkitektoak egindako oinplanoaren argazkia ere, Berastegiko Udal-Artxibotik hartuta.

[70] "III. Sentencia. Sancho del Verrobi y Martin Gomez...", 1610 (Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G).

[71] Estornes Lasa, Bernardo:"Berastegi", Colección Auñamendi, Donostia.

[72] Etxe honen aipamena 1688ko urriaren 28ko dokumentu batean agertzen da, zeinetan ziurtatzen baita Maria Luisa Oruesagastik, Juan Martinez Lizarragakoaren alargunak, 30 dukateko errenta-dirua jaso duela bertan bizi den Pedro Iparragirre Arbide erretore jaunarengandik ("Recivo de Dña Luisa Oruesgasti de las rentas de su casa de Bustinsoro, hoy Bekotaberna, y sirvió en ellos de casa de havitación del Señor Rector D. Pedro de Iparraguirre Arbide", 1688-10-28, Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G).

[73] Licencia del tribunal para reconocer y bendecir la hermita de San Anton, 1735" (Berastegiko Parroki Artxiboa, K/G).

[74] Lehengoa lapurtu egin baitzuten, oraingo hau Luis Areso herritarrak egina da.

[75] Juan Garmendia Larrañagak (1990, 28)) herrian bertan jasotako lekukotasuna da hau. Hala bazen ere, nik bederen ez dut horrelakorik gogoan. Bazitekeen plaza-inguruek horrela ospatzea. Urrutiko auzo-baserrietan bizi ginenok ez genuen jakiten plazan zer gertatzen zen gaueko orduetan edo goizeko ordu txikietan.

[76] "Licencia del tribunal para el tejado de la basílica de San Sebastián, 1711-11-24" (Berastegiko Eliz Artxiboa, K/G.).

## VIII. Markes eta indianoen bideetatik

[77] Salerosketako notari-eskriturak (Artxibo pertsonala).

[78] "Nere aita eta ama Berastegikoak ziran. Nere aita hemen baserri batean jaio eta artzain edo ibiltzen zan eta gero joan zan Ameriketara. Orduan ba omen zan soldaduskara joan gabe libratzeko modu bat eta libratzeagatik joan zan Ameriketara. Ez zan joan ihes egiteagatik. Bere paperak eginda joan omen zan. Eta han aurrena hasi omen zan morroi letxero ta gero ganadu-talde handiak jarri omen zituen, izugarriak, eta horrela diru asko egin omen zun. Hemen bost baserri erosi zitun, etxea egin zun, terreno asko erosi zun Berastegin, asko, orain partituta dauzkagu baino. Terreno asko gendun guk. Etxe hontara ni 1952an etorri nintzen eta aitak utzitakoa da. Amak, berriz, denak egiten zitun galdu, abortatu-edo, eta neskame zeukan nere ama. Aitaren lehen emaztea gaixotu eta hil zan eta hil zanean nere amarekin, neskamearekin ezkondu zan (Bixente Saizar, Etsoinberrikoa: *Esperientziak*, Arteleku eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioa, Tolosako Udala, 2005-2006, DVD).

[79] Elkarrizketa Jose Antonio Olaetxearekin, 2010eko urtarrilaren 24an.

[80] "Baserrirako, seme zaarrena autatu zanean, nere aitak amairu urtekin, amasei urteko arreba lagun zuala, Ameriketa'ra, Argentina'ra io zuan eta iru illabeteko itxasbide luze baten ostean, norantzakorik gabe, elkarri begira, Buenos Aires'ko itxasurian aurkitu omen ziran. Argentina'n, beste Ameriketa'ko toki askotan bezala, etxe kantoi bakoitzean euskaldun bat iarrugitzen bai da, urrikitu zitzaienen batekin buru egiñik, lana aurkitu bide zien, bati neskametzan eta aitari esnelaritzan. Txanpon batzuk aurreratu zituanean, Panpa barruan buztiñarri labetegi bat lortuta, arrillugintzan beste diru mordoxka bat goitaturik, zelai batzuen iabe egin zan. Abeldiz ornitu zunekoxe, inditarrak, oiko iazarraldi batean, abere-mute eta abel-gorri guztiak eraman omen zizkioten, oillo eta ardi batzuk utzita eta pozik aski eurek iges aal izan zutenean. Urte luzeen burura, txikitako txoko aantz eziñean bizitzeko beste aurreratu zuala zerizkionean, dana saldu eta euskaldun lagun baten esne

baserrian diru guztiak kokatuta, aien etorkiñetatik bizitzeko, bere sorterri kuttunera itzuli zan. Iakasene'ko ene aitonen alaba batekin ezkonduz geroz, enparantzako etxe eder batean bizitzen jarri ziran eta gu, iru anai ere, bizitzara etxe artantxe etorri giñan" (Jakakortaxarena, 1990, 10-12). Gaur Jakasenea bezala ezagutzen den baserria, lehen, 1810-1867 urte-bitartean Lukasenea zen. Jakasenea, bada, geroztik sortutako baserri-izena da (Elosegiren oharra, 2010).

[81] "Aitari berriz, agitzen zana iakiñaraziz, lenbaiten etortzeko mezua bidali zioten. Zoritxarrez, astirik artu ez zualako edo euskaldun askok bezala, an diruak etorri obea zeukalako, berekin ekarri gabe, an utzita aalik azkarren itzuli zan. Gure aita gizagaixoaren izerdi guziak, beste ainbat euskaldun on-puskarenak bezalaxe, an gelditu ziran esnebaserriko seme zarrastelak esteialtzeko, ala ere, gu xox bat gabe gelditu giñan arren, bizibide onean uzten ginduan uste osoarekin eraman zuan galtzen ez diran altxorrak iasotzera Iainko Aita onak" (Jakakortexarena, 1990, 27-28).

[82] Elkarrizketa Gazteluneko Markos Aranalderekin, 2010eko maiatzaren 13an.

[83] "Entonces, el berastegiarra empezó como chófer. Después, comenzó a comprar sus propios camiones. Hoy en día su empresa, *Los Vascos*, cuenta con 30 trailers frigoríficos que 'transportamos toda la fruta de Argentina', dice Vicente, mientras su mujer añade, 'toda, toda, será mucho, pero mucha sí'. Se escuchan risas. Manzanas, uvas, plátanos, entre Argentina y Chile, donde Vicente también tiene 'una gran inversión, por la que me han ofrecido muchos miles de dólares, pero no puedo venderlo, aunque sería un buen negocio', rie el berastegiarra. Hoy en día, a pesar de haber cumplido casi los 80, Vicente acude a diario a su empresa" (Elisa Belaunzaran, *El Diario Vasco*, 2010-08-1, 23).

[84] Berastegiko Udal-Artxiboa, 1879.

[85] Etxearen salerosketako eskriturak (Artxibo pertsonala).

[86] Etxe hau Pedro Maria Gorostidi Calatas jaunak egin zuen. Mallorkako jaun batek Donostiako Idiakez kalean kafetegi bat egin zuen eta hori egiten aritu ziren langile berek egin bide zuten etxe hori

ere. Zer izen jarriko pentsaketan zegoela, Donostiako Mallorkiarrarena gogoan, "Mallorkina" jartzea otu zitzaion.

87 Elkarrizketa Jose Garaibururekin, 2010eko apirilaren 18an.

88 Elkarrizketa Jose Antonio Olaetxearekin, 2010eko urtarrilaren 24an.

89 Elkarrizketa Markos Aranalderekin, 2010eko urtarrilaren 20an.

90 Jose Antonio Olaetxearen artxibo pertsonala.

91 Egungo mapan 28. zenbakiarekin datorren etxe honi Margaritanea deitzen zaio. Han mandazain bat bizi zen eta, hura hiltzean, hango alaba Margarita ezkongeak Kakonen egin zituen azken urteak. Hortik deitura hori (Elkarrizketa Jose Antonio Olaetxearekin, 2010eko urtarrilaren 24an).

92 Marintzenaberria edo Marintzenaundia (Dendaberri) lehengo Marintzenatxikiaren (Belkaide) orubean egina da, Gorrineaunditik pusketa bat hartuta, orain "Ogi-Berri" okindegia aurkitzen den zati hori barne.

93 Etxe hau mapako Iturri-Ondo 64. zenbakidunaren ondorengoa zen, orain etxebizitza berriak egin dituzten lekuan kokatua zegoena. Kotxera deitzen zioten han zalgurdiak egoten zirelako.

94 Bada izen bereko beste etxe bat, Nafarroarako bidean errepide ondoan dagoena. Dendaberriko hau Grazienea aldera goazela, gainaldean zuten etxe luze bat zen.

## IX. Eldua auzoa

95 *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar*, Diputación Foral de Gipuzkoa, Valladolid, 1991; jatorrizkoa, Madrid, 1845-1850, Ed. Facsimil.

96 Larrañaga Zulueta, M.; Lema Pueyo, J.A.: *Colección de documentos mediavales del Convento de San Bartolomé*, San Sebastián, (1200-1515), in *Fuentes documentales del País Vasco,* 58 zk., Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1995. Ibáñez eta Agirre-Mauleonek aipatua.

[97] Ildelfonso Calparsorok sortu zuen paper-fabrika hori 1920an, "Calparsoro y Compañía" izenarekin, eta 1996an Munksjo Paper Decor firmak erosi zuen. Egun 168 lagun dabiltza lanean.

[98] Gipuzkoako Foru Aldundia (2010): "Berastegiko Herri Antolamenduko Plan Orokorraren Hasierako Onarpena", 2010-06-8.

# Bibliografia


ACHON INSAUSTI, J. A.; ORELLA UNZUE, J. L. (1988): "Los intereses de la villa de Tolosa en la frontera navarro-guipuzcoana", *Príncipe de Viana*, Anejo 8, 267-275 orr.

AGUINALDE, F. Borga (1997): *Gipuzkoako dorretxeak eta leinuak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, Donostia.

AGUIRRE SORONDO, Antxon (1988): *Tratado de molinología*, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia.

ALDABATRECU, Roque (1979): *Casas solares de Guipúzcoa*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz (1994): "El País Vasco en la Edad Media", *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco,* Editorial del Pueblo Vasco, 65-80 orr.

AROZAMENA AYALA, Ainhoa (1976): "Berastegui", *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Colección Auñamendi, IV, Donostia, 484-490 orr.

ARRAZOLA ECHEVERRIA, Mª Asunción (1969): *Renacimiento en Guipúzcoa*, Tomo I-Arquitectura, "Iglesia de

San Martin, en Berástegui", 244-245 orr.; Tomo II-Escultura, "El retablo de San Martín, en Berástegui", 199-205 orr., Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultur Departamentua, Donostia.

AZPIROZ ATXUKARRO, Elixabet (1990): *Heráldica en Berastegi*, Testu informatizatua. Argitaragabea.

AZPIROZ, Jose (1988): *Arbola zarraren kimuak*, Etor, Donostia.

BARANDIARAN, Bixente (1990). *Zartu gabe ezin bizi*, Auspoa, Donostia.

BARANDIARAN, Jose Migel (1972): *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, in *Obras Completas*, I, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

BARRENA OSORO, Elena (1991): *Gipuzkoako komunikabideen historia. 1. Aintzinaroa eta Ertaroa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

– (1994): "Formación territorial (s. VIII-XV), *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, El Mundo. País Vasco, 97-112 orr.

BELAUNZARAN, Elisa (2010): "De Berástegi a Argentina, con vuelta", *El Diario Vasco*, 2010-08-1, 22-23 orr.

– (2010): "La iglesia de Eldua se renueva", *Diario Vasco. Com*, 26-06-2010.

BPA (1610): "III. Sentencia. Sancho del Verrobi y Martin Gomez...", 1610, K/G.

– (1641): "Licencia para hacer campana y capilla mayor con la madera grande", Firmado: Thomas, Vicario General del Obispado de Pamplona, 1641-01-18, K/G.

– (1688): “Recivo de Dña Luisa Oruesgasti de las rentas de su casa de Bustinsoro, hoy Bekotaberna, y sirvió en ellos de casa de havitación del Señor Rector D. Pedro de Iparraguirre Arbide”, 1688-10-28, K/G.

– (1710): “Consulta. La muy Noble y muy Leal Provincia de Guypúzcoa...”, Real Colegio de la Compañía de Jesús de Loyola, 13-07-1710, K/G.

– (1711): “Licencia del tribunal para el tejado de la basílica de San Sebastián, 1711-11-24”, K/G.

– (1735) “Licencia del tribunal para reconocer y bendecir la hermita de San Anton, 1735”, K/G.

– (1776): “Escritura de M.S. Ignacio Antonio de Elizalde, en representación del alcalde de la villa...”, 1776-02-30, K/G.

– (1776): Ospitale-zaindariaren izendapena: “M.S. Ignacio Antonio Elizalde...”, 1776-02-30.

BUA (1651?): *Memorial aiustado del pleito que se trata en el Consejo entre el señor Fiscal y Don García de Verastegui del abioto de Santiago, señor del Mayorazgo y Casa de Verastegui. Y Doña Francisca de Verastegui su hermana, que como inmediata sucesora que dize ser en dicho Mayorazgo, ha salido a él en la instancia de revista. Con los Cabildos Eclesiásticos, y Seculares de la villa de Verastegui, y Eldua su Barrio*. Sig. 1. Datarik ez dakar; ustez, 1651koa da.

– (1925-1985): “Berastegiko Udal-Aktak”, (1925-1985). Ikus in: http/www dmacroweb.com/cp/Berastegi.

BUA = <R> AGN, Reg. Comptos 75, fol. 104 or.

CARO BAROJA, Julio (1971): *Los vascos*, Istmo, Madrid.

CARRION ARREGUI, Ignacio Maria (1975): *De Ibarra a Gaztelu, Ibarra, Belaunza, Eldua, Elduayen, Berrobi, Berastegui, Gaztelu*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia.

– (1988): *La siderurgia guipuzcoana en el siglo XVIII*, EHU. Argitara gabeko doktore-tesia.

– (1996): "Los antiguos pesos y medidas guipuzcoanos", Revista *Vasconia,* Cuadernos de Historia-Geografía, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 24 zk., 59-79 orr.

DEA (1690): "Documentación referente al vículo de mayorazgo de la familia Echeverria, propietarios de la casería Meaca, 1690, Sig. 1725/001.

– (1945): "Copia de la escritura de venta de la casa Salvadorenea con su huerta por José Andres Labayen a Andrés Viquendi, cura ecónomo de la parroquia, 1945", Sig. 1722/026.

DURKHEIM, Emile (1904): *Les règles de la méthode sociologique*, Felix Alcan, Paris.

ELIZONDO IRIARTE, Esteban (2001): *La organería romántica en el País Vasco y Navarra (1856-1940)*, Tesis Doctoral, Departamento de Didáctica de la Expresión musical y corporal de la Universidad de Barcelona, in www.tdr.cesca.es/Tesis_UB/available/tdx-0424102.../toll6501.pdf.

ELOSEGI, Joaninazio (2004): "Berastegiko udal artxiboa eta herriko historia", *Aidanen*, 1, 2004ko abuztua, Berastegi, 10-11 orr.

– (2005): "Baserri eta kaleko etxeak XIX. mendean", *Aidanen*, 2, 2005eko abuztua, 22-23 orr.

– (2008): “Berastegi 1700. urtearen inguruan”, *Aidanen*, 5, 2008ko abuztua, Berastegi, 36-41 orr.

– (2010): “1615: Berastegiren askatasuna”, *Aidanen*, 7, 2010eko abuztua, 32-35 orr.

ESTELLA, Bernardino de (1979): *Historia Vasca*, Editorial Izaro, Gecho-Bilbao.

ESTORNES LASA, Bernardo eta Jose anaiak (1976?): “Berastegi”, in *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia.

– (1976?): “Uli”, in *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia.

ETXEBERRIA, Migel (2004): “Txango bat, Berastegiko baselizetatik barrena”, *Aidanen*, 1, 2004ko abuztua, Berastegi, 28-29 orr.

EUSKO JAURLARITZA: *Berastegiko udala. Berastegiko mapa. E.1:15.000*, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Lurraldearen Zerbitzurako Zuzendaritza. Datarik ez.

FERNÁNDEZ ALBALADEJO, Pablo (1975): *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa. Cambio económico e historia*, Akal, Madrid.

GARCIA DE CORTAZAR, Fernando; LORENZO DE ESPINOSA, José María (1994): *Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia.

GARIKANO, Asun (2009): *Far Westeko Euskal Herria*, Pamiela, Iruñea.

GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1990): *Neguko festak*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 28 or. Berri-emaileak Bor-

datxuriko Frantzisko Saizar Etxeberria, Benta Berriko Jose Arrizubieta, Sutegiko Demetrio Etxeberria eta Demetria Bergaretxe izan ziren; San Sebastiani buruzko solasaldian, berriz, Marizkurreneko Modesto Garaikoetxea.

– (2005): "Berastegiko oroigarritxo bat / Pinceladas acerca de Berastegui", *Munibe* (Antropologia-Arkeologia), Honenaje a Jesus Altuna, 57, 415-417 orr.

GFA (2010): "Berastegiko Herri Antolamenduko Plan Orokorraren Hasierako Onarpena", Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila, Donostia, 2010-06-8. Izenpetua: Gabriela Vives Almandoz, Ondare H-A, artxibo eta museotako zerbitzuburua.

GONZALEZ, J. (1951): "Reconquista y repoblación de Castilla, León Extremadura y Andalucía", siglos XI a XIII", in Askoren artean: *La reconquista española y la repoblación del país*, Zaragoza.

GOROSABEL, Pablo (1899): *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, I tomoa, Imprenta, Librería y Encuadernación de R. López, Tolosa.

– (1900): *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, II-IV-V tomoak, Imprenta, Librería y Encuadernación de R. López, Tolosa.

– (1956): *Bosquejo de las Antiguedades, Gobierno, Administración, y otras cosas notables de la villa de Tolosa*, 2 arg., Zizurkil.

– (1972): *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao; jatorrizkoa, 1862.

HONORE DUVERGE, S. (1950): “Notes sur la politique éconornique de Charles le Mauvais en Navarre”, Zaragoza. Separata del I Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos.

IBAÑEZ ETXEBERRIA, Alex; AGIRRE-MAULEON, Juantxo (1998): “Arquitectura rural en madera en el siglo XVI en el área de Tolosaldea. Los ‘caseríos-lagar’ de Etxeberri (Gaztelu) y Etxenagusia (Eldua)”, *Zainak*, 17, 1998, 67-83).

INTXAUSTI REKONDO, Joseba (2003) <zuz.>: *Segura historian zehar*, Segurako Udala, Gipuzkoa

– (2007a): *Segura en su pasado y cambio*, Segurako Udala, Gipuzkoa.

– (2007b): *Seguraren historia. Bizitzak eta aurpegiak*, Segurako Udala, Gipuzkoa.

– (2007c): *Segura en su arte y monumentos*, Segurako Udala, Gipuzkoa.

IRUÑA, P. de (1947): “Guipúzcoa y el rey Carlos II de Navarra”, *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País*, Donostia.

ISASTI, Lope Martinez de (1985): *Compendio historial de Guipúzcoa*, Tomo V-VI, Editorial Amigos del libro vasco, Bilbao; jatorrizkoa 1625ean idatzia eta 1850ean argitaratua, Ignacio Maria Baroja, Donostia. Lezokoa eta bertako parrokiako benefiziatua.

IZTUETA ARMENDARIZ Paulo (1991): *Orixe eta bere garaia,* V tomoa, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia.

– (2004): “Soziologia”, in Xabier Garagorri (zuz.), Euskal curriculuma. Kultur ibilbidea, Ikastolen Konfederazioa, 399-414 orr.

JAKAKORTEXARENA, Txomin (1990): *Bizitzan bi goiasmo*, Euskerazaintza, Donostia.

JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, Juan Carlos (1980): *Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa. Las cinco villas de la Montaña de Navarra en la Edad Media*, *Príncipe de Viana*, 263-410 orr. Ikus in: dialnet.unirioja.es/servlet/fichero_articulo?codigo=156588orden...

JIMENO ARANGUREN, Roldan (2004): "Organización territorial, sociedad y cultura cristiana", *Vasconia en el siglo XI. Reinado de Sancho III, el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)*, Pamiela, Iruñea.

JIMENO JURIO, Jose Maria; GORROTXATEGI PIKASARRI, Jose Maria; FERNANDEZ DEL CAÑO, Maria Jose; RODRIGUEZ PEREZ, Ana Isabel (2004): *Tolosa, Bordon-Dantzaren ikuspegitik*, Arantzadi zientzi elkartea, Donostia.

JONATHAN (2007): "Historia de Guipúzcoa: La batalla de Beotibar", *historiadeguipuzcoa.blogspot.com/2007_09_01_archive.html*

KANPION, Arturo (1969): *Gacetilla de la historia de Nabarra*, V tomoa, RIEV, La Gran Enciclopedia Vasca,153-332 orr.

KANPION, Arturo (1969): *Gacetilla de la historia de Nabarra*, VII tomoa, RIEV, La Gran Enciclopedia Vasca, 104-112 orr.; 341-397 orr.

LACARRA, J. M. (1981): "Navarra entre la Vasconia pirenaica y el Ebro en los siglos VIII y IX", in *El habitat*

*en la Historia de Euskadi*, Bilbo, Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro, 159-166 orr.

LARRAÑAGA FERNÁNDEZ DE ARENZANA, Ramiro (1988): "El atrio de la Iglesia de Placencia de las Aramas, Soraluce", *Cuaderno de Seccion. Artes Plásticas y Monumentales*, 189-223 orr.

LARRAÑAGA ZULUETA, M.; LEMA PUEYO, J.A. (1995): "Colección de documentos mediales del Convento de San Bartolomé", San Sebastián (1200-1515), *Fuentes documentales del País Vasco*, 58, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián.

LEMA, José A.; FERNANDEZ DE LARREA, Jon; GARCÍA, Ernesto; MUNITA, José A.; DÍAZ DE DURANA, José R. (2000): *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

LINAZASORO, Iñaki (1974): *Caseríos de Guipúzcoa*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián.

– (1978): *50 excursiones de arte y paisaje partiendo de Guipúzcoa*, 2. arg., Caja de Ahorrros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián.

LIZARRIBAR, Agustin (2004): "Berastegiko depresioa", *Aidanen*, 1, 2004ko abuztua, Berastegi, 18-21 orr.

LIZASO, D. (1901): *Nobiliario de los palacios, casas solares y linajes nobles de la MN y ML Provincia de Guipúzcoa*, I tomo, San Sebastián.

MADOZ, Pascual (1991): *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar*, Diputa-

ción Foral de Guipúzcoa, Valladolid; jatorrizkoa, Madrid, 1845-1850, Ed. Facsimil.

MARTINEZ DIEZ, G. y otros (1991) *Colección de documentos medievales de las villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Diputación Foral de Gipúzcoa y Juntas Generales de Gipúzcoa, San Sebastián.

MASA, Paki (2006): “Don Juan Etxeberria Azpiroz”, *Aidanen*, 3, 2006ko abuztua, Berastegi. 24-25 orr.

MITXELENA, Koldo (1990): *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián.

MORET, José (1890-1891): *Anales del Reino de Navarra*, IV-V tomoak, Casa editorial de Eusebio López, Tolosa.

MUGICA, Serapio (1923?): *Provincia de Guipúzcoa, I, en la Geografía general del País Vasco*, Edt. Alberto Martín, Barcelona. Argitalpen-datarik ez dakar.

– (1923?): “Berastegi”, in *Geografía General del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa,* Edt. Alberto Martín, Barcelona, 948-951 orr.

– (1923?): “Geología y Paleontología. Coto de Berástegui”, in *Geografía General del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa,* Edt. Alberto Martín, Barcelona, 117-118 orr.

– (1923?): “Industria y comercio”, in *Geografía General del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa,* Edt. Alberto Martín, Barcelona, 487-505 orr.

MURUGARREN, Luis (1993): “Relación de puntos religiosos de Guipúzcoa”, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* (BRSBAP), 48. tomoa, 2, 429-437 orr.

OLAETXEA, Carlos (2010): “Berastegiko baserrien historia: Iruin”, *Aidanen*, 7, 2010eko abuztua, 28-30 orr.

ORELLA UNZUE, José Luis (1977): *Historia de Euskal Herria*, I tomoa, Txalaparta, Tafalla.

– (1993): “Concesion Real de villazgo a poblaciones de Guipúzcoa en 1615”, *Lurralde*, 16, Universidad de Deusto, Mundaiz, San Sebastián, 265-296 orr.

– (2008): “Vasconia, estado trinacional”, *Gara*, 11-06-2008, 13 or.

ORMAETXEA, Nikolas “Orixe” (1991): *Idazlan guztiak, Sorkuntzazkoak*, I tomoa, Etor/Eusko Jaurlaritza, Donostia.

PESCADOR MEDRANO, Aitor (2004): “Historia de un reino y un reinado”, in *Vasconia en el siglo XI. Reinado de Sancho III, el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)*, Pamiela, Iruñea.

PICAVEA, Rafael (1915?): *Album gráfico-descriptivo del País Vascongado. Año de 1914-1915*, Donostia. Hitzaurrea Rafael Picavearena: “Palabras preliminares”. Talde-lana.

PLAZAOLA ARTOLA, Juan (2002): El arte gótico en Euskal Herria”, RIEV, 47, 2, Donostia, 543-631 orr.

REKALDE, Anjel (2008)): “Tolosa, Segura, Agurain, Ordizia...”, 7-05-2008. http./www.euskaldunak.info/bidasoa/?p=17.

ROJO TOLOSA, Fernando (2008): “Bordondantza y la batalla de Beotibar”, http//www.euskonews.com/0129zbk/gaia12903es.html.

SAGREDO, Iñaki (2007): *Navarra. Castilllos que defendieron el Reino*, I tomoa, 2 arg., Pamiela, Iruña.

SALAZAR, L. García de (1985): *Las Bienandanzas e fortunas. Códice del s. XV*, 4 tomo, Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao; aurreko beste argitalpen bat 1967an.

SALBARREDI, Jabier (2006): “Edificar casa nueva para el maestro y venta de carne como en tabla pública dividida para ambos fines”, *Aidanen*, 2, 12006ko abuztua, Berastegi, 8-19 orr.

– (2004): “Garia historian zehar Berastegin”, *Aidanen*, 1, 2004ko abuztua, Berastegi, 12-13 orr.

– (2005a): “Berastegiarren Batzar lekuak”, *Aidanen*, 2, 2005eko abuztua, Berastegi, 20-21 orr.

– (2005b): “Errebotea”, *Aidanen*, 2, 2005eko abuztua, Berastegi, 26 or.

– (2005c): “Harategia Ategi-Etxea”, *Aidanen*, 2, 2005eko abuztua, Berastegi, 18-19 orr.

SALBARREDI, Jabier; AZPIROZ, Elixabet (2008): “Juan Jose Etxeberria Matxinea, herriko semerik zaharrena”, *Aidanen*, 5, 20008ko abuztua, Berastegi, 19 or.

TAMÉS, Patxi; MENDIOLA, Iñigo; PÉREZ, Carlos <zuz.> (1991): *Interes geologikoko puntuak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

TAP: Leg, 38, 253.

TAP: Leg, 38, 416.

TAP: Leg, 40, 498-501.

TAP: Leg, 1.599, 203-6.

TAP: Leg, 38, 427.

TAPIA RUBIO, I., *Colección diplomática.... Tolosa*, 30 zenb.

TRUCHUELO, S. (1997): *La representación de las corporaciones locales (XVI-XVII)*, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia.

TRUCHUELO, S. (2004): *Guipúzcoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia.

URTEAGA ARTIGAS, Maria Mercedes (1992): "Berastegi", in *Gipuzkoako historia eta monumentuzko gidaliburua*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Saila, 89-92 orr.

YANNES, R. (1952): *Poema de Alfonso Onceno*, LVII. Tomoa, Biblioteca de Autores Españoles, Madrid.

ZAVALA, Federico; IGLESIAS, Juan Antonio (1971): *Euskal-Herriko historiaren laburpena*, Izarra Irakorla, Donostia.

ZAVALA, Federico; GARMENDIA, Juan (1969): *Monografía histórica de la villa de Tolosa*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia; Jon Urrutiaren euskarazko itzulpena: *Tolosa hiriko monografia historikoa*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2007.

ZUBIAURRE, Jose Luis (1982): "Un pueblo. Berastegui", *Guipúzcoa 82*, 45, CAP, Donostia, 18-19 orr.

ZUDAIRE HUARTE, Claudio (1998): "El órgano de la villa de Berástegui, s. XVII", *Cuadernos de Música*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

## Artxiboen siglak

BPA = Berastegiko Parroki Artxiboa

BUA = Berastegiko Udal-Artxiboa

DEA = Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa

GAO = Gipuzkoako Artxibo Orokorra

GAP = Gipuzkoako Artxibo Probintziala

GFA = Gipuzkoako Foru Aldundia

TAP = Tolosako Artxibo Probintziala

## Elkarrizketak


"Elkarrizketa Bixente Saizar eta Simona Azpiroz senar-emazteekin", *Esperientziak*, Arteleku eta Tolosa 750. urteurrena, Fundazioa, Tolosako Udala, 2005-2006, DVD.

"Elkarrizketa Gregorio Yeregirekin", 2008-03-9an.

"Elkarrizketa Jose Antonio Olaetxearekin", 2010eko urtarrilaren 24an.

"Elkarrizketa Markos Aranalderekin, 2010eko urtarrilaren 20an.

"Elkarrizketa Migel Larburu Galardirekin", 2009ko azaroaren 6an.

"Elkarrizketa Jose Garaibururekin", 2010eko apirilaren 18an.

# *E*USKARRIAK

## BILDUMA

1. Juan Jose Uranga. *Herioarekin borrokan*.
2. Jose Antonio Gorriti. *Aralarko eguzki-loreak.*
3. Jokin Apalategi. *Haurren nazioak.*
4. Joan Jose Uranga. *Etxe-ataritik globalizazioa eta balioak.*
5. Txomin Peillen. *Baloreak Euskal Herrian eta beste gizarteetan.*
6. Manuel Olasagasti. *Jainkoaz beste berri batzuk.*
7. Kepa Fernandez de Larrinoa. *Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean.*
8. Kepa Fernandez de Larrinoa. *Kultur performatibitatea eta gizarte fetitxegintza.*
9. Joseba Felix Tobar-Arbulu. *Finantza-kapitalismoa. Euskal Herrirako irtenbide ekonomiko eta monetarioa.*
10. Pello Jauregi (Bil.). *Zapatisten ahotsa: bihotzetik bihotzera.*
11. Paulo Iztueta. *Berastegi. 1 Hiritartzearen bidetik*.